


Manuel Lasarte

Kantuaren ordaiñez



25054
GAS-129/104



Kantuaren ordaiñez

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Manuel Lasarte

Kantuaren ordaiñez

Auspoa Liburutegia
(1997)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-56-9

Legezko Gordailua: S.S. 622/97

Itzaurrea

BERTSOLARIAK, aotik aora kantatzeaz gain, idatzi edo idatzi arazi egin oi zituzten gaur arte beren bertsoak. Ortik euskal bertso-paperen ugalmena. Azken urte auetan, berriz, prosagintzan asi eta gaitasun arri-garria erakutsi digute.

Orra or, beraz, iru mailla edo iru alor ezberdin, irurak erri-literaturaren barruan badaude ere: aotik aorako kantua, paperetako bertsoak eta prosaren emaitza. Ain berria danez, irugarren oni ez diogu bearbada, orain artean beintzat, merezi ainbat arreta eman.

Pedro Maria Otaño izan zan agian, oker ez bagaude, prosaren alorrean leenengo atxurkada jo zuan bertsolaria, bere *Auntza larrera* ipuiarekin, orain eun bat urte.

Baiña Basarri izango da, dudarik gabe, langintza ortan geien saiaturia. Bere egunkariaren sail ospetsu ura bete egin bear zan egunik utsegin gabe. Idazlan oiek biltzera, zenbat liburu mardul beteko lirake?

Uztapidek, berriz, aurrerakada aundia eman zion erri-prosa oni, bere *Lengo egunak gogoan* izeneko autobiografiarekin.

Bertsolari ospetsu oien ondotik izen-mordo luzea erantsi genezake: Sebastian Salaberria, *Ataño*, Iñaki Alkain, Jose Ramon Arizabalo, Txomin Garmendia, Patxi Otxoki, Joxe Mari Lertxundi, Bixente Barandiaran. Jose Azpiroz, Basilio Pujana, Faustino Etxebarria, Lino Aiesta, Teodoro Mujika, Agustin Zinkunegi, Jesus Lete *Ibaiertz*, Inozentzio Olea...

Adiskide oiek danak bertso-gintzan saiaturia ziran leenengo, batzuk aotik aora kantatuz, besteak bertsoak papereratuz eta besteak bietara. Baiña langintza zaarra erabat utzi gabe, berria artu digute, prosagintza alegia,

eta frutu ederrik eman ere bai. Leen bertsolari soil ziranak, orain prosalari ere biurtu zaizkigu, beraz, gure izkuntzaren onerako.

Izen bat zerrendatik kanpo utzi det: Manuel Lasarte bertsolaria. Au ere sartu zitzaigun prosaren esparruan, eta dagoeneko lan ugaria egiña da.

Leenengo, *Gordean neuzkanak* (1975) izeneko liburua eskeiñi zigun, bertsoz eta prosaz ongi ornitua. Ondoren, *Beranduko lanak* (1992) izenekoa, ori ere bietara moldatua. Urrena, berriz, prosa utsezkoak eskeiñi dizkigu: *Lazkao-Txiki gogoan* (1994) eta *Enbor zarraren ezpalak* (1995).

Ortaz gaiñera, egunkarian noiznai agertzen ditu bere idazlanak. Artikulu auen sortatxo bat eskeintzen diogu gaur irakurlari. Ez noski bilduma osoa, ortarako *Auspoo*-ren zenbaki asko bearke lirake eta. Baiña bai autaketa bat, azken bolada ontan argitara eman dituan aleak alegia.

Argi, errez, egoki eta dotore idaztea zer dan ikasi nai duanak, Lasarteren lan auek ez ditu eredu aldrebesa izango. Aozko euskera gutxitan papereratu da ain jator eta garbi.

Nik, beintzat, idazlan auek irakurtzen ari naizela, ez det nere iduripenean idazle bat ikusten, bere maian eseri eta paperean arrastoak egiteari ekin diona; baizik-eta erri-gizon jator bat, lagunarte batean denbora pasa kontu kontari ari dana.

Joskera gizona dala esan oi da (*El estilo es el hombre*). Lasarterekin beintzat orixe gertatzen da. Aren bertsogintzak zituan doaiak erreztasuna, dotoretasuna eta egokitasuna baldin baziran, oietxek berak azaltzen ditu beraren prosak. Orretxegatik maite zuan aren bertsoa Euskal Erriko bertsozale jendeak; orretxegatik zaio ain gogokoa beraren prosa irakurlari. Manuelen bertsogintza eta prosagintza berdintsuak baitira, nere ustez; eta ez det uste ortan iñork aurka egingo didanik.

Euskal bertsoa euskal prosa baiño aberatsagoa degu, erri-maillan beintzat. Aotik aora kantatu edo bertsoak papereratu nai dituanak badaki zein bidetatik jo eta maisu egokiak nor dituan. Prosaz saiatu nai duanak

ere ontaz aurrera badu, beraz, eredurik asko Lasarteren eta beste ainbeste erri-idazleren lanetan. Ea, bada, bertsoaren leengo ugalmena batere galdu gabe, orain prosarena datorkigun.

Bertsoa etzan garai batean aintzakotzat artzen. Bertso-liburuak argitaratzen asi giñanean, batek baiño geiagok galdetu ziguten lan ori zertarako artzen genduan. Bertso zaarrak biltzen jarraitzeko animo ederra ematen ziguten. Orain, berriz, ez det uste iñor danik neke aiek alperrikakoak izan zirala esango duanik.

Erri-prosa onekin ere berdin gerta ditekela nago. Gero eta ederragoa irudituko zaigu. Txirritaren edo Pello Errotaren aotik aorako bertso edo kanta-paper berriren bat eskuratzea aunditzat daukagun bezela, erri-prosaren ale auek ere gero eta gorago jarriko ditugu.

Baiña gaur errez bildu ditezke, biarko egunean iñor biltze-lan ortan neketan ibili gabe; eta orixe da liburu onek Lasarteren idazlanekin egin nai izan duana. Aren bertsoak bezin atsegiñak izango zaizkizulakoan gaude, irakurle.

A. Z.

Berrobi

BERROBI datorkit gogora ta berari zerbait idatzi nai nioke, asi dedan atal onen bidez. Goraintziak bialdu gutxienez ere ango adiskide zaar batzueri.

Abuztuan, San Agustiñetan, ospatzen dituzte pestak berrobotarrak, aundikiro gaiñera. Ez noski arrokeriz, baiña bai ordea umore onez eta pulamentuz.

Inguruko errietatik ere asko joaten ziranez, jendetza izugarrizkoa bildu oi zan Berrobi aldera bertako jaietan. Baztar guztiak leporaiño beteta, kamioan kotxeak pasatzeko tokirik egin eziñik sarritan ikusi genituen. Leen beeko frontoi txiki artan antolatzen baizituzten pestak.

Baiña gerora, ostatuaren aldamenean bazegoen terraza eder bat, eta aren gaiñetik jarduten giñan lanean musikeroak eta bertsolariak.

Baiña ez beti. Beeko frontoi txikiaren atzeko aldetik bada zelai dotorea. Fuboleko zelaia izango dala uste det, oker ez banago; eta an jartzen zituzten aizkolariak, zezanak, bertsolariak eta beste ainbat ikuskizun, esan ditudan auetaz aparte une ontan nere buruan ez daudenak.

Berrobiko pestetan, San Agustin egunez eta urrengo igandez, bietan kantatzen genduen bertsolariak txandaka, batzuek bezela besteak. Nik neronek azkeneko bertso-saioa noiz izan nuen ez naiz seguru gogoratzen Berrobin.

Baiña frontoia edo pelota-leku berria egin zuten, eta ura bedeinkatu zan egunez badakit Patxi Etxeberria bertsolaria ta biok jardun giñala kantari.

Txomin Garmendia bertsolariak berak jarri zizkigun gaiak gaiñera. Beti ez noski, baiña sarritan ura izan oi zan gure zuzendari ta gaien ardura artzen zuena.

Berrobin alkatetzan zegoen Txomin Garmendia, pelotaleku berria egin zuten garaian, aurretik ere bai, gero ondoren bezelaxe. Ez dakidana da zenbat urtetan eduki zuen erriko alkatearen kargua bere gain. Baiña denboraldi luze samarrean egona ote zan daukat errezeloa.

Dana dala, frontoi berria estreñatzeraz, lau pelotari bikain eraman zituzten Berrobira, egun zoriontsu artan: Julian Retegi ospetsua, Laduche ta beste bien izenez ez naiz gogoratzen. Lastima! Pena aundia artzen det, baiña barkatuko al didate utsegite au, txarkerizkoa ez danez.

Nik neronek bertso asko kantatu nuen Berrobin abuztuko San Agustin jaietan. Leen ogei ta sei edo zazpi urtetan segidan joango nintzan erri polit artara.

Uztapide, Basarri, Joxe Agirre, Etxeberria, Joxe Lizaso, Garmendia bera ta oiek erabili nituen laguntzaille, San Agustin pestetan.

Baiña bestelako jaialdi bat ezagutu nuen nik an, *gazte-pesta* deitzen ziotena; eta Berrobin bertako iru bertsolarirekin kantatu nuela gogoan daukat. Ez dakit zenbat aldiz, baiña bein baiño geiagotan, seguru asko. Txomin Garmendia, Fermin Muñoa eta Ibarbia ziran aipatu ditudan bertsolari auek.

Teodoro Hernandorena

NIK ez ditut gauza asko irakurtzen, ortarako gogorik edo zaletasunik bein ere izan ez dedalako batez ere. Baiña egunkaria eskuetan artzen baldin badet, ildakoen eskelari begiratzen diotet bereziki; eta zaarrak ez-ezik, gazte ta sasoiko pranko ere joaten dira uste baiño leen mundu ontatik bestera.

Lur alde ontako pertsonaren bizitzak, neurririk eta muga jakiñik ez duelako, batere ez dauka segurantzirik.

1994-ko azaroaren 10-garren egunean il izan bear zuen Teodoro Hernandorena Barandiaran, larogei ta amasei urterekin; eta biaramonean egin omen zan bere animaren aldeko illeta edo elizkizuna Ondarrabin, an bizitu baizan aspaldiko urtetan, *Arkaitz* izeneko txalet txiki dotore batean.

Nik orain dala bederatzi urte, gutxi gora-beera esateko, bixitatu nuen.

Orioko adiskide batek eraman ninduen kotxean Ondarrabira arratsalde batez. An, beeko kalean, nora jo ez genekigun; eta paseatzen zebiltzan gure ezagun zaar batzuk ikusi ta aieri galdetu genioten nontsu bizi zan Hernandorena bazekiten.

Laixter erakutsi ziguten, eta errez asko billatu genduen txalet polit edo *Arkaitz* deitzen dioten etxe txukun ura, ta Hernandorenak pozez beterik jarri zala zirudien.

Usoak egan dijoazenean baiño azkarrago pasa zitzai-gun denbora. Izan ere, ain zan izlari egoki eta xuabea. Euskera ongi ikasi ta ausnartua zuen arek, umetatik asita.

Lengo gerra denborako gertaera pranko ere kontatu zizkigun. Memoria argia zuen artean. Mugaz beste alde-

an urte mordoska pasa zituela uste det bizitzen, ez dakit zein erritan baiña.

Nik an ezagutu nuen, bertsoara joanda. Guri gaiak ematen bera nola jardun zan gogoratzen naiz oraindik ere.

Askok aitortzen dutenez, bertsolaritzaren alde izugarriko lanak egin omen zituen gizon onek mugaz aruntik. Xalbador, Mattin eta beste batzuk ere beraren bidez plazaratu zirala entzun gabeak ez gera.

Ori guztia egia baldin bada, pentsatu besterik ez dago zenbateraiño maite zuen bertsolaritza. Bakoitzak bere griñak dituenetz, eutsi ta aurrera jarraitzea dala onena dirudi Hernandorenaren jokabideak.

Emen, Gipuzkoan, bertsoak entzuten oitua izanik, ara joanda utsunea billatuko zuen seguru asko, eta uraxe bete nai nunbait. Ontzat artu ere bai jendeak, dudarik gabe.

Bestela, opizioz edo ogibidez, mediku dentista omen zan Hernandorena. Aoko ortzak eta agiñak atera txarrak zeuzkanari, berriak jarri ere bai, ta orrelako lanak egin oi zituela larogei urterekin ere Ondarrabin bertan esan zigun. Baiña bere lantokia beste dentista gazte bati saldu omen zion.

Goian bego Teodoro Hernandorena bertsozale sutsua!

Pesta-giroa

PESTA-GIROA gai arturik osatu nai nuke gaurko nere atal pusketatxo au. Ainbat kaso ta gertaera zelebre ikusita gaudenez, balegoke zer esana pranko, denak gogoratuko balira. Baiña pertsonari, zartzera iritxi ezkeru, burua kezka betetzen zaio, ta moteldu gaiñera errez, lendik asko nekatua baldin badauka beintzat. Ala ta guztiz ere, ordea, iturria agortu edo galdu bitartean, ur tanta batzuk beti ixurtzen dira, jasotzea merezi dutenak; eta ni ortaratxe nijo borondaterik onenez.

Mendi erromeri politik sarri bixitatzen genituen gartetan, astea luze samar eta igandea motzegi iduritzen zitzaizkigun urte dotore aietan. Obe litzake orduko sasoi kelmentsu ura balego gaur; baiña ori ez daukagu gure gain. Dana dala, Azpeiti aldera joko det. Aspaldiko gertaera da esango dedan au, soldadutza bukatu ta etxeratu berri samarrak geunden garaikoa, ain juxtu ere.

Egun batez, Joxe Lizaso bertsolariak deitu zidan: mendiko ermita batean zegoen santuaren izeneko pesta zala eta bertsolariak nai zituztela, Joxe Lizaso bera ta ni Lasarte biok, iñundik al bazan. Alaxe, baiezko itza eman nion; eta, eguna iritxi zanean, bagoaz kamioz kamio oiñez. Orain esateko ez naiz gogoratzen ermita edo baillara ura Azpeititik zein aldetara dagoen. Baiña berdintsu izango da noski.

Guk, gazte geundelako, bidea errez pasatzen nunnabait; eta diodan ermita ortara zijoan gizon zaar antzeko bat arrapatu genduen, ibillera mantsotua zeukalako. Eta, alkarri egun on opa ondoren, onela galdetu zigun zaarrak:

- Konpesatzen izan al zerate, mutillak?
- Ez; gaur ez —erantzun genion.

— Nik egin diat, ba, lan ori. Baiña etzekiat apaizak nundik jakiten dituzten gauzak. Konpesatzen asi orduko, gordean neuzkan pekatuak galdetu zizkidak juxtu-juxtuan, eta larri ibili nauk diximulatu eziñez.

Parre gozo egin zuen Joxe Lizasok, ateraldi dotore ura entzunik. Nola ez? Baita nik ere. Izlari egoki aparta zirudien gizon arek; baiña Azpeiti aldean etzan bera bakarrik. Ugari samar ezagutu ditugu izketan txispa izugarria duten pertsonak.

Dana dala, egun zoragarria gertatu zala gogoan daukat ordukoa, Eguraldi ederra batetik, eta jendetza aundia bestetik.

Gu joan da leenengo amaiketako legea egiñik, kantari asteko zai geunden; eta alako batean esan ziguten bean oltzadurarik etzutela jarri, ta goiko ganbarara eramán ginduzten. An bi leio zeudenez, Lizasok batetik eta nik bestetik kantatu genduen.

Burua kanpora aterata jardun giñan, loritoak kaiolaren zulotik bezela. Lengo baserri etxeak arrizko pareta lodi ikaragarriak nola zituzten, gorputza kanpora nai aiña ezin atera. Ankak barruan zirala, urruti gelditzen baizan. Alaxe egin genduen eguerdiko bertso saioa.

Eta gero, ganbaran bertan, bazkalondoan maian jende asko bildu zanez, trikitalariak astindu zituzten soiñu txikia ta panderoa. Bai guk ere bertsoak. Bearko, entzule goseti aiek aseko baziran.

Azkenean, egun bikaiña pasa ta gustora etxeratu nintzan ni beintzat.

Gerrak dakarrena

L 936-GARRENGO urtean sutu zitzaigun gerrate luze ta negargarri arek bazituen ixtori latzak. Ez ordu-rako bakarrik; baita gerorako ere. Pasatakoak aaztu egin oi dirala esan izan degu sarritan. Baiña ura gogoan daukaten zaarrak asko billatu litezke oraindik ere, bizerik irauten dutenak suertez.

Armak artu ta alkarri tiroka jardun ziran mutil gazte aien suprimentu garratza, nork ordaindu ote lezake eta nola? Inolako moduz ez noski. Lur alde ontan ez dago ortarako dirurik sekulan izaterik. Ezta dena urrezko kantera biurtuko balitz ere.

Gerraren bidez, ainbat famili nastu, bigurritu eta nora jo etzekitela gelditu ziran, eskale batzuen antzera, xentimorik gabe.

Ortik aparte, berriz, tiroz ildako asko lur azpiratuak, zoritxarrez. Ori okerrena. Gerratik ez dator txikizioa ta miseria beste ondasunik, gure moduko txiki jendearentzat batez ere. Ara zer erakutsi zigun 1936-an asi zan borroka bildurgarri triste arek.

Eta gero ondorengo urte nolabaiteko aiek probatu genituenak, ez dauzkagu aaztuta oraindik ere. Oroimen txarrez jantzi giñan pozaren partez bizitzarako oso gazterik. Gorputzari etzegoen ematerik eskatzen zigun alimentu pulamentuzkorik. Gosez eta egarriz supritu bai galanki. Baiña asegarri onik inundik sortu ezin, dirua esku artean zeukanak ere. Ura zan pobreza!

Azukrea, ain bearrezko gauza izanik, inungo dendentan etzan saltzen, nai aiña beintzat. Pixkanaka eta ezkutuan ongi gordeta edukitzen zuten nunbait denderoak, bildurrez.

Olioa beste jenero inportantea. Kontrabandoan noizean bein eskuratzen zuen norbaitek, eta kostata. Litro bat oliok ogei duro balio zituen garai artan. Ur bedein-katua bezela erabiltzen zuten famili askotan. Nola ez? Gizonak, aste osoan lana fabrikan eginda, etzituen irabaziko ogei duro.

Orrelaxe pasa genduen lengo gerra ondorena gosez eta egarriz. Baiña zer ote zan diodan gose ura? Jan nai ta eziñaren antsia. Bestela, baziran ardoa, ura, sagardoa, txakoliña eta edari klase geiago ere aukeran, diruz osatzen zanarentzat.

Ni mutil koskorra nintzan garaiko kontuak dira auek; ez oraingoxeak. Dana dala, goazen aurrera. Ixtori zaarrak berritu ditzagun, iñorentzat mingarri ez dirala-koan bainago ni neroni beintzat.

Egun batez entzun nuena datorkit gogora, eta merezi luke onek aintzat artzea, nere ustez. Gizon edadetu batek gose izugarria zeukanez, beste iñun jateko modurik ikusten ez eta jesuiten komentura joan eguerdian, badaezbada ere. Jo du sarrerako atearen aldaba. Irten zaio jesuita bat eta, alkarri egun onak eskeiñi ondoren, jesuitaren galdera:

— Zer nai zenduke, aitona?

— Nik bazkaria, gosez penatzen nago ta.

Orduan onela dio jesuitak:

— Toki ederrera zatoz bazkari eske! Emen, barruan, jango gendukenean asko gaude.

— Bai, e? Asko al zaudete zer janik gabe? Kanpoan geiago gabiltza! —esan da martxa aitonak.

Uso egalaria bezela

NUN eta nola dagoen gure bizitzaren bukaera ez dakigu asko. Emen gabilta betiko bagiña bezela, ta alaxe komeniko da bagiñera biziaren iraupenerako.

Medikuak ere ori erakusten dute, gaixorik aurkitzen danaren aurrean: leengo okerrak alde batera utzi ta geroko etorkizunari begiratu bear zaiola, ta jasotzeko burua gora. Ez da batere aolku txarra; baiña sinistu eziñezkoa bai, kaso batzuetan beintzat. Ebakuntza edo operazio gogor baten ondoren ez baldin bada gorputzean onerako modurik sentitzen, pertsonaren buruak ez du gauza onegirik pentsatuko iñundik iñolaz ere, dena okerrerakoa baizik, eta sinismena galdu bagiñera errez.

Oraindik denbora asko ez dala ikusi nuen gizon sasoikoa zirudien bat, klinika edo sendaetxeko salan geundela, izketarako gogo izugarriarekin.

— Zer modutan ago? —galdetzean, onela erantzuten zioten bere ezagueri:

— Ni ongi.

Animo billa ote zebillen iduritu zitzaidan; bagiña gizarajoak, nik ez-ezik, etzeukan planta ederra.

Nortasunean omen dago alde aundia etsi edo poztu egiteko. Arrazoi orrek egiaren itxura daukan arren, nik ez nuke esango den-dena ala danik.

Aipatu dedan gizon arek ere bazeuzkan beretzat aiña kezka, ni deskuidatzen ez banaiz. Izketan ari zan bitartean, irripartsu. Bagiña, ixildu orduko, buru makur eta serio lurrera begira sentitzen genduen.

Zergatik jartzen ote zan postura artan? Barruan nalgaberen bat nagusitzen zitzaiolako seguru asko. Norbera

konturatzen da leenengo, onez bezela, txarrez. Ortan badet eskarmenturik aski, neronek probatu ditudalako gora-beera klase oiek, nai baiño geiagotan.

Gaur mediku onak asko omen daude, jakinduriz ornitutako gizon eta emakumezko trebe sonatuak. Botika kontuan ere izugarritzko aurrerapenak ditugu azken urte auetan egin diranak, batzuen ustez. Baiña, ala ta guztiz ere, naiko lanetan gabiltzala ez dago ukatzerik. Leen sekulan entzuten etziran gaitzak indar ikaragarria artu dutela dirudi, ta nork antzeman nundik eta nola datozen?

Epidemiaren izena dabil aotan, zerbait berria sortzen dan bakoitzean. Sendagaiak eta sendagille azkarrak bezin onak egon arren, gaitza beti edo geienetan aurre-ragotik dabillega diote alde guztietan, eta ori ez da izango gezurra.

Egunkarietan eskelak irakurtzea aski da, zenbat pertsona gazte ta sasoiko iltzen dan baztarretan jakin nai duenarentzat. Berrogei urte ingurutik asi ta irurogei ta bostera bitartean, askok esaten dio mundu triste nolabaiteko oni agur, batzuek modu batera eta besteak bestera.

Baiña denok il bear degu derrigorrez, ez borondatez. Ortantxe bakarrik daukagula uste det berdintasuna, nere iritzirako beintzat. Gizonik aundienak ere txiki baten prezio berbera izango duela pentsatzen det azken arnasa ematerakoan.

Pertsonaren mundu ontako bizitza uso egalaria bezela juzkatu liteke, presaka eta azkar pasatzen dalako batzuen, edo askorena sarritan. Ikusi ditugu, bai, eun urte betetzeraiño iritxi diranak ere; baiña oso gutxik arrapatu oi dute edade klase ori.

Aulestia

MARKINATIK amar kilometro inguru daudela uste det erri ontara, gutxi gora-beera, kamioz joanik. Baiña badu laixterbidea edo atajua mendiz mendi oiñezkoarentzat, askoz ere laburragoa. Ni andik bein da bi aldiz baiño geiagotan pasata nagoenez, ongi dakit beraren berri.

Aulesti, erri txikia izatekotan, oso egokia ta polita dala esaten ez naiz iñoiz aspertuko. San Joanetan izan oi dira ango pesta nagusiak, ain zuzen ere.

Beingo batez gogoratzen naiz. Gu soldadutzatik etxeratutako leenengo urtea edo bigarrena zan. Orixe ez dakit seguru, baiña berdin dio kasorako. Azpeitiko Joxe Lizaso ta biok joan giñan bertsoara, ta Markinatik oiñez Aulestiraiño San Joan egunez.

Ni bezperan gau guztian Usurbillen, Agiñagan eta Orioko aparteko baserri batzuetan San Joan eskean ibilia nintzan, gazte koadrilla batekin. Illunabarra iritxi baiño leen ekin genion eske lanari. Baiña, ala ta guztiz ere, denbora agortu ta nik soiñeko erropak aldatu ta juxtu-juxtuan artu nuen Orion goizean zazpietako trena Elgoibarreraiño.

Joxe Lizaso, berriz, Zumaian sartu zan ni nijoan tren berean, eta an alkartu giñala gogoan det.

Gero, Elgoibartik Markinarako autobusa gendukanez, errez egin genduen ara bitartekoa. Baiña, azkenean, Markinatik Aulestira oiñez joan bear derrigor, eta kosta zitzaidan biaje ura ederki. Nekaturik bainengoan, bezperako gau osoan geldiunerik gabe etxez etxe San Joan eskean ibilita.

Garai artan, ordea, gosari on batek berritzen zigun gorputza, ta neke txarrak aaztu arazi edo barruan gorde

beintzat gutxienez ere. Oiek gaztetako kontuak dirala badakigu.

Aulestin egun bateko lana zala uste ta bi pasa bear izan genituen. Erri polit artan, lendik oitura aundirik etzuen edukiko jendeak bertsolariak pestetan eramateko agian; edo, bestela, gure langintza gustatzea ere baliteke. Ni ortan ez naiz aurreragi sartzen, badaezbada ere.

Baiña bertsoak entzuteko arreta izugarria nabaitu genioten askori; eta, arratsaldeko saioa bukatu ondoren, esan ziguten ea urrengo egunerako libre geunden. Baietz; ez gendukala iñorako loturarik. Orixe jakin nai zuela, ba, Aulestiko jendeak, eta lasai artzeko; etzegoela konpondu eziñik diru kontuan alegia.

Alaxe, gauean afaldu, bertso egarriz zeudenak pixka bat ase, bertan lo egin, bi egun zoragarri pasa ta San Joan irugarrengo goizean Arrasatera joan giñan nere lagun Joxe Lizaso ta biok. An ere pestak baiziran, eta errian bertako gizon jator bat bazan bertsolaria. Arek, Uztapidek, Lizasok eta nik, Lasartek, kantatu genduen Arrasaten.

Orrelako batzuk ditut gogoan dauzkadanak, naiz eta aaztuak geiago ditudan arren. Den-denak jaso ta gorde al izateko, nere ganbara ontan ez dago bear aiñako tokirik.

Joxe Mari zuen izena diodan bertsolari arek. Apellidoa ez dakit, ez nuen ikasi ta. Baiña gizon atsegiña eta errian ixtimatzen zuten itxura zeukan. Joxe Mari Errotaria deitzen zioten Arrasaten ezagun guztiak.

Natxitua

ASPALDIKO pasadizo zaarrez osatu nai nuke asi dedan ataltxo au, jendea jabetu dedin gure lengo ibilleraz. Batzuetan, garrantzi aundirik ez duten gauzak errez aaztu oi dirala badakigu. Baiña kontatzera ni Joan au bezelakoak, nekez.

Bizkaian bada erri txiki dotore bat Natxitua izena duena. Ni oso oker ez banago beintzat, Lekeitiotik kilometro gutxitara dago, aize sanao artu nai duenarentzat toki ederrean gaiñera.

Egun batez andik deitu ziguten: pesta egoki antzeko bat antolatzea pentsatu zutela ta ea joateko moduan geunden bertsoara. Lau bertsolari bear zituztela. Basarrik artu zuen enkargua, ta gero guri abixua pasa. Alaxe, baiezko itza eman genion; eta, eguna iritxi zanean, Basarri bera, Uztapide, Joxe Lizaso ta ni, Lasarte, laurak joan giñan Natxitura goizetik, aginduta bezela.

Ostatura sartu orduko, asi zitzaizkigun gosaltzeko zer nai genduen galdezka, ta guk errez aukeratu. Garaia baizan alamoduzkoa.

Gose-egarririk gabe jarri ondoren, plazako bertso saioari ekin genion gai librean, eta entzuleak ixtimatu zutela zirudien eguerdiko gure lana.

Asko izan zitezken bertsozaleak, baiña bat bereziki amorratua: bertan zegoen apaiza. Pesta moldatzen ere aurreko puntan ibili zala norbaitek esan zidan. Baiña gero etzan oso gustora, arratsaldeko jaialdia galerazi zioten nunbaitetik, eta guk bere artan gauzak utzi ta etxe alderako martxa artu bear izan genduen, zer gertatu zan ez genekigula.

Ta astelenez bidali ziguten abixua: oker denak zuzendurik zeudela ta urrengo igandez berriro Natxi-

tuan espero ginduztela, leen asitako pestari bukaera on bat eman genezaion. Ori entzunik, pozik joan giñan, eta egun zoragarria pasa ere bai lagunarte ederrean.

An baziran bi gizon aipatzea merezi dutenak, Natxituko semeak, baiña Ameriketan urte mordoska pasa ta etorriak. Aien gogoa omen zan bertsolariak eramatea, apaizak esan zuenez. Bertsozale purrukatuak ziruditen. Errez antzematen zaio artaraiñoko apizio sutsua duenari.

Nik ez dakit aiek Amerika aldetik betiko aldegin zuten edo berriro ara itzuli bearrez zeuden. Ezta zer lan klasetan jarduten ziran ere. Baiña etzeukaten mendian artzantzan ibilitako itxurarik. Azalez guri ta gorputzez sendo ikusi nituela gogoratzen naiz oraindik ere, ta baliteke negozio bidez bizi ziranak izatea; edo, bestela, langintza erreza edukitzea. An ere ez baidute denak jokaera berdiña erabiliko noski.

Dana dala, Natxituako pasadizo auek gertatu zirala ogei ta emezortzi urte izango dira gutxi gora-beera, seguru ez dakidalako.

Leenengo igandez lau bertsolari giñan bezela, bigarrengo txandan bat geiago bazala uste det. Balendin Enbeita zanak gurekin kantatu ote zuen daukat erreze-loa, oker ez banago beintzat.

Dana dala, natxituatarrak borondate ona zeukatela ikusi genduenez, jakin dezatela gu ere ez gaudela beraietaz aaztuta.

Oporrak

OPORRAK egundoko fama arturik daude aspaldiko urteetan. Lanerako egunak ere, berriz, ongi ta juxtu neurtuak. Orrek ez du batere kalterik, berdin irabazi ezkerro mutillak eta nagusiak.

Leen, gure gazte denboran, asteko sei egunak lanerako kontatzen ziran, faubriketan bezela gaiñontzeko toki guztietan. Gaur aste bakoitzak bost egun ditu lanerako, astelen goizetik ostiral illunabarrera arte. Larunbata eta igandea, biak libre.

Ori orrela izanik, atsedentzeko naiko denbora gelditzen dala esan genezake, etxe aldean zintzo egoten dakienarentzat. Baiña kanpora irten ezkerro, ordea, gastu aundi samarrak daudela ere badakigu. Kotxez baliatzen diranak ezin litezke merke ibili, gasolinak daukan prezioarekin. Eta lagunarterako zenbat bear dan ez du jakiten norberak sarritan.

Oporrak urtean iru aldiz artzen dituztenak baldin badaude bakarren batzuk, aiek ni baiño aberatsagoak izango dira, ez da zailla ere ta. Dana dala, aukera ortxe jartzen zaio bakoitzari Aste Santuan, abuztuan eta Gabonetan.

Neguan eta udaberrian, opor egunak pasatzera, gu bizi geran erri ontara kanpotarrik ez da iñor etortzen. Udararrik. Orio berez otza baida. Kosta alde au eguraldi berorako bai polit aparta. Baiña urte osoan emen dagoenak probatzen ditu une gozoak eta minkatsak nolakoak izaten diran itxas ixkiñetan.

Pertsonari aldaketak noizean bein komeni zaizkiolata, oporretan askok artzen dute erritik kanporako bidea, gauza txarrik pentsatu gabe noski. Baiña joandako denak berriro etxera ezin itzuli, ordea. Zenbatek

uzten ote du bizia istripuz kamioetan urtearen aurrenetik azkenera bitartean, lastimagarria bada ere?

Onezkero ogei ta amar urte izan litezke gizon batek kontatu zidala idaztera noan gertaera au. Garai artan etzan ibiliko gaur dabillen ainbeste auto. Baiña, ala ta guztiz ere, tarteka okerrak pasatzen, ordea; ta artu egin bear derrigor.

Beraz, ara nola dan pasadizo au. Gizon korkoso bat bizikletan badijoa, ta uste gabe sartu zaio kamion aundia beste aldetik, eta jo ta bota du lurrera korkoso gizarajoa. Kamiona gelditu, irten kanpora ta galdetzen dio txoferrak:

— Bakarrik jeikitzeke moduan al aiz edo laguntzea nai dek?

— Ez. Neroni altxako nauk noski. Baiña golpe ikaragarria artu diat.

Bueno, ba, sartu kamionera korkosoa bere bizikleta-ekin eta eraman du medikuarengana, zer gerta ere. Miatzen asi aurretik, medikuaren galdera:

— Nola izan dezute zuen arteko okerra?

Ta korkosoak onela dio:

— Zera: ni kamioan eskubi aldeko baztarretik zuzen-zuzen nijoan bizikletan, eta gizon onek kamionarekin arrapatu nau.

Ori entzunik, txoferraren erantzuna:

— Ara, ara! Orain kapaz da au bizkarreko korkosa ere nik jota atera zaiola esateko.

Ateraldi dotore samarraren itxurakoa dala dirudi txoferrak egin zuen onek, egia baldin bada beintzat. Baiña nik ezin erabaki, ordea, ta bertan utzi ta kito. Orixe izango da noski onena dudarik gabe.

Artzaiak

ARTZAIK ditut aipagai gaurko nere atala osatzeko. Denbora pasa nagoenez, ongi datorkit gaiñera orrelako zerbait. Artzaiaren bizimoduz konturatzen bagera, oso lotua ikusiko degu. Askatasun gutxikoa alegia. Astez bezela igandez eta erriko pestak diranetan ere, berdin erantzun bearko dio bere langintza jakiñekoari, ezer onik eskuratu nai baldin badu beintzat.

Mendiko sanidadez, bakartasunaren pentsamentuz eta basoetako txorien kantu politez konformatu ezker, kontentu biziko da artzai seguru samar, iñungo konpromiso ta arazo txarrik gabe dabillen bitartean batez ere.

Baiña eguraldi onak komeniko zaizkio aipatu ditudan baldintza auek lortu al izateko, ta orixe zaillena, negu partean beintzat. Ekaitzak astintzen baiditu mendi ta baso zoko guztiak tarteka, alamoduzko kasketak eltzen dionean, endredo galantak jarriko dizkio artzai bakoitzari artaldea mantentzen.

Urtean bi aldiz umeak egiten dituzten ardiak badirala entzunda nago orain aurreko egun batez. Orrek adierazten digu garbiro pentsua ugari antzean eta larre onetik oparo janez dabilzala urte barruan. Bitan umatzeko, indar ikaragarrian egon bearko du ardiak, nere ustez.

Gure gazte denboran, artzai askok etzuten dirurik gastatzen pentsua erosten. Larre utsez mantendu ta kito. Merkeago pasa. Baiña orduko kontuak aazturik daudela badakigu, gaurkoz beintzat.

Leen arkumea Gabonak inguruan asi ta Pazko jaie-tara bitartean izan oi zan, gutxi gora-beera. Aspalditxoko urte auetan, berriz, edozein garaitan jaten duela jendeak esan liteke, ostatuetan batez ere. Emen bertakoa edo kanpotik ekarria, orixe ez dakit nola dan, ez

diot iñori galdetu ere ta. Baiña asko aurreratu omen da, diotenez, gauza batzuetan.

Ala ere, ikusten degunez, alde denetan naiko lane-tan. Ara zer gertatzen zaigun.

Ardiak, animali txiki bat izatekotan, etekin aberatsak eman oi ditu. Batetik, arkumea pertsonarentzat janari zoragarria; eta, bestetik, esne ona, naiz gazta gozoa egiteko edo egosita mamitu gabe bere artan artzeko ere. Oso indartsua dala badakigu ardiaren esnea. Oietaz aparte, leen ardiaren illearekin artzen zuten diru freskoa artzaiak. Koltxoiak egin bear zituzten guztiak illea erosten baizioten. Baiña galdu zitzaion ixtimazio ura, koltxoi *flesak* sortu ziran ezkeroztik, eta oraingoz ez daukate ardi illea nora saldurik. Beraz, frakaso aundi bat izan dute ortan ere. Eta esnari dagokionez, berriz, prezioz oso baju omen dabil.

Arkumearen salmenta zer tankeratan dagoen ez dakit. Nik ez baidet iñungo azokarik ikusten. Asteazke-nez Ordizira joaten danak jakin lezazke gauza askoren prezioak. Baiña neretzat urrutitxo gelditzen da ura.

Dana dala, 1994-garren urteko iraillean ikusi nituen bi edo iru artalde, gogoan edukitzeko modukoak ederez. Aiek berdintzen ez det uste erreza danik. Belardi zoragarri batzuetan zebiltzan. Bazeukaten zer jana aukeran.

Ni Orioko lagun batek eraman ninduen, mendiko aize sana artzea komeni zitzaidanez; eta kotxetik irten da ardieri begira egon giñan kontu kontari. Nola ez, animali eder aien planta eta gozamina ikusirik? Arra beze-la gizendurik zeuden.

Euskeraren etorkizuna

BETI zerbait ikasten ari gerala aurrera dijoakigu gure mundualdia, urtetan beintzat, bestelakoan argitasun aundirik ikusten ez badegu ere.

Emen Orion bertan bizi dan aitona zaar batek, egunkariak eta gaiñontzeko errebistak irakurtzeko apizio izugarria du; ta, nik baiño gauza geiago jakiten duenez, 1992 urtearen azken aldera egunkarian zetorren albiste bat eman zidan eskura, neri erakustearren gordeta zeukana:

— Torizu onoko paper puxketa au, Lasarte, ta ikusiko dezu zer dion gure lurraldeari buruz.

Alaxe, nik leendik ez nekiena eta gutxiena uste nuena zekarren egunkariko artikuluko txiki batean: Euskal Erria dala Europa guztiko errietan zaarrena profesore italiano batek esan omen zuen azterketa berezia egin ondoren Ameriketako unibertsidadeetan. Auxe irakurri nuen, aitonak kapritxoz emandako paperean.

Beraz, erri onen izkuntza ere zaarrena izango da batere dudarik gabe, ta bera gurea dala esateko badegu motiborik aski, nere ustez, naiz eta aspaldiko urteetan gainbeera dijoakigun, gutxi erabiltzearen bidez.

Lastimagarrizko gertaera iduritzen zait, baiña euskeraren indargabetu zaigula derizkiot, geronen zabarkeriz gainera geienbat.

Ikastoletan aurrak txikitan sartzen dituzte, ta or dabilta ikasketak egiten eguneroko martxan. Baiña andik kanpora irten orduko, aaztu edo ez dakit zer gertatzen zaioten. Kanean beintzat euskerazko itzak oso urri entzuten dira. Bestelako oitura artua dauka jendeak, eta ori aldatzen kostako dalakoan nago.

Onezkero bi edo iru urte izan litezke —gutxi gorabera diot au, segurantzirik ez dedalako—, baiña mugaz

beste aldeko bi gizon sentitu nituen irrati bidez izketan emendik.

Iparraldean euskeraren etorkizuna nola ikusten zuten galdetu ta leenengoak esan zuen:

— Oso gaizki. Berrogei urteko bizia dauka geienaz ere gure lurralde ontan euskerak.

Erantzun orixe eman zion.

Eta, andik egun batzuetara, beste gizonari galdera berbera egingo ziotenez, arek ere itxaropen eskasa erakutsi zigun:

— Ogei ta amar urte irauten baldin baditu zutik, ortxe-ortxe ibili leike euskeraren bukaera.

Zer adierazten digute iritzi oiek? Mugaz beste aldean frantzesez itzegiten duela jendeak, emen gazteleraz bezelaxe. Penagarria bada ere, gure izkuntza lur jota ikusten dutela dirudi gizon aiek.

Lendik datorren akatsa izan liteke ori agian, eta pixkanaka urritzen dijoala konturatu dira. Baiña berandutxo neurri berriak artzeko.

Banaka batzuek beti eutsiko diote noski bizirik. Ortarako dabilta ikastolak indartu naiean. Orixe baida biderik egokiena gazte jendeari euskeraz itzegiten erakusteko.

Umetan errez ikasi litezke bi izkuntza klase batera, aukera eman ezkerok: euskera eta frantsesa. Gero, or konpon.

Nork bere gustoa

ERRI eta baillara euskaldunak asko bixitatuak gera bertsolaritzaren bidez, eta zorionez noski. Gure apizio berezia orixe izanik, berari jarraitu diogu, oso gazterik asi ta zaartu bitarteraiñokoan: eta nik neronek batere ez daukat damurik, egindakoarekin pozaren sentipena baizik, sekulan aaztuko etzaidana. Baiña publikoan entzule klase asko egoten diranez, guztien gustoko bertsoak kantatzea kostako zaio bertsolari bakoitzari, beti ez bada ere, geienetan beintzat.

Pertsona batzuek alkarri xuabe eta errespeto aundiz itzegiten ikusi naiko dituzte bertsolariak. Gauzak arrazoitzeko eta arrazoiak sakondu al izateko orixe biderik egokiena, bat apartatzekotan.

Nere iritziz aitortzen det diodan au, barruak agintzen didan bezela. Agian deskuidaturik egon niteke; baiña nik nereari eutsiko diot, badaezbada ere, gai ontan beintzat.

Orain beste aldera begiratuko bagendu, asko aurkituko genituzke bertso gogorren zale diranak; eta bertsolariak, naiz plazetan edo ostatueta, itzezko alkar borrokan eta gaizki esaka ikusi nai dituztenak ere. Nik ori ez nuke txartzat artuko, leendik datorren oitura dalako. Batek adarkada zezenak bezela ematen dion garaian, besteak ezpata erabiltzen badu, "ori dek ziria sartu diona!" esanez, txalo beroak joko dizkiote.

Pesta giroko jolasaldi zelebreak orrelaxe ikusi izan ditugu erri prankotan. Bakoitzari bere gustoa ez dago kentzerik iñolako moduz. Bertsolaritzari dagokion saillean denok desberdin pentsatzen degu, ta kito. Ni gogoratzen naiz sarritan gertaera batez, naiz eta aspaldiko zaarra dan arren. Nekazarien jaialdia zala-ta, baillara

txiki batetik deitu zidaten, ea libre nengoen bertsozara joateko.

— Bai. Nik ez daukat iñungo eragozpenik zuk diozun egun ortarako, ta pozik joango natzaizute. Baiña beste bertsolari laguna nor izango dan jakin nai nuke, edo iñori esan diozuten, gutxienez ere.

— Emen, baillaran bertan, badaukagu gazte bat oso poliki kantatzen dakiena, eta berak lagunduko dizu, Lasarte.

— Ongi da —erantzun nion.

Eta, egun izentatu ura iritxi zanean an alkartu giñanez, goiz parteko saioa egin ondoren, ostatura zuzenean koadrilla. Maian ardo pixka bat edanez lasai geunden garaian, sartu zan baserritar aitona bertsozale purrukatutu bat, eta onela esan zidan:

— Bertso politikak kantatu dituzute, Lasarte, seaskan aurrari lo artu arazteko.

Nere baitan pentsatu nuen: “Gizon au ez diagu gustora utzi, baiña bazegok denetarako denbora”.

Alaxe, aitona berak kantatu zizkigun bi edo iru bertso, maiaren aurrean zutik jarrita.

— Auek Pello Errota zanak kantatuak dira. Nik gazetetan ikasi nituen ederki.

— Guk ere baditugu oien antzeko bertsoak, aitona. Entzun nai al dituzu? —galdetu nion.

— Bai pozik, Lasarte! —erantzun zidanez, kantatu nizkion asmatu nituen gogorrenetakoak, eta orduantxe gustora gizona. Ostalariari esan zion:

— Ekarri botilla bat ardo, daukazun onenetakoa, mai ontara, nere kontura.

Beraz, arentzat goxokirik ez.

Kilometroak 94

LEGAZPI aldera jo bearrean aurkitzen naiz aspaldi-ko partez. 1994-garren urteko urri illaren 2-an, igandez, *Kilometroak 94* izeneko ibillaldia arritzeko modukoa izan omen zan noski erri ortan, biaramon goizean astelenez egunkarian irakurri genduenez beintzat. Naiz eta eguraldi goibela edo lainotsua ta erdi ipurdikoa izan, jendearen aldetik berotasun aundia zegoela bistan dago. Ori jakiteko, aski zan egunkarian zetorren argazkia ikustea.

Telebistak ere eman zuen igande gauean zatitxo bat. Legazpiko kale, plaza, eliz inguruak eta gaiñontzeko alde guztiak jendez leporaiño beterik nabaitzen ziran. Nik aurrez entzun nituen jai eratzaille baten itzak, eta eun milla pertsona espero zituztela egun artan Legazpin. Orrelaxe ulertu nion. Etzebillen gaizki aren burua. Eun da amar milla bildu omen ziran, gutxi gora-beera, zaar eta gazte. Bada zerbait. Kotxeak amalau milla; ta autobusak, berriz, berreun da irurogei ta bost guztira, kanpoko errietatik joanak.

Nik au ez neukan esan bearrik, bere garaian gauzak ongi esplikatuko baizizkioten Euskal Erri osoari. Baiña bein ere ez dala berandu lan batzuetarako eta idaztea pentsatu det, gerorako gordeta utzi gabe, oroigarri bezela, agirian gelditu dedin istorira pasa liteken billera aipagarri ura.

Etzan nolanaikoa noski; ta, gaurko gaztediak euske-raz ikasiko baldin badu, ikastolak guztiz bearrezkoak dituela ongi baiño obeki dakigu.

Famili askotan eta kalean erdera nagusitu zaigun bolada ontan, gure erriaren izkuntza zearo galtzeko arrixku ikaragarrian dagoela ez dezala iñork dudarik

eduki, bestela kukuaren kantu otsak nai ez duen alde-
tik entzun lezazke ta. Beraz, ortaz konturaturik, oitura
zarrez gogoratzen dan jendeak gauza bakoitza bere
tokian jarri nai duela esan genezake. Alaxe zirudien urri
illaren bigarren go egunean Legazpin izan zan billera
garrantzitsu arek.

Bizikletan batzuek eta beste askok berriz oiñez pasa
omen zituzten izentaturik zeuden zortzi kilometro aiek.
Nik telebistaren bidez ikusi nuen gizon bikain bat, aur
txikia bere bizkar gainean artu ta nola zebillen kilome-
troak osatzen. Gainontzeko jendearekin batera dotore
ematen zuen, eta etzan ura bakarrik izango ala zebille-
na. Geiago ere bai, seguru asko. Orixe dala derizkiot
biderik onena guraso batek bere umetxoari nundik nora
ibili bear duen erakutsi al izateko, etorkizunari begira-
tuaz alegia.

Dana dala, Legazpiko ospakizun paregabeak orain
arteko marka guztiak autsi zituela zion *El Diario Vasco*-
n idatzi zuenak. Ni oso oker ez banago beintzat, euske-
rari zor zaion maitasuna ta laguntzeko borondate ona,
biak batera agertzen dira or, konturatzen bagera. Legaz-
pin diru mordoska ederra geldituko zanez, pozik egongo
da ikastolaren alde lanean ari dan jendea, Ez baida gu-
txiagotarako.

Erriak nai luke bere izkuntzari bizirik eustea, itxu-
rak diranez. Ori iturriko ura bezin garbi ikusi lezake
begiak zabalik dauzkanak. Naiz eta erderaz sarritan
itzegin arren, orrek ez du esan naiko euskera bearrez-
koa ez danik noski. Bakoitzak bere iritzia ematea libre
baldin badu, nik ala pentsatzen det. Emen egiazko
garaia datorrenean ezagutzen da jendearen portaera, ta
Legazpiko ura eskertzea merezi zuena izango zan, guk
jakin genduenez.

Uste gabeko bisita

L EITZA aldeko albiste batzuk dauzkat eman bearrak gaur, idatziko dedan atal onen bidez, aspaldiko partez. 1994-eko urri illaren 29-garrenean, larunbatez ain juxtu ere, Orion, *Loretxu* jatetxean, topo egin nuen Leitzako nere lagun batzuekin.

Leen asko poztu oi nintzan erri artako ezagunak ikusi utsez; eta orain, zartzen ni joan bezela, geiago agian. Beraiek ez dute sinistuko, baiña ori orrelaxe dala seguru egon litezke. Naiz eta urte mordoan kanpoan bizi, pertsona bein ere ez da aaztutzen jaiotako lurrez eta erriz.

Orrek badu itzez esplikatu ezin liteken zerbait, nere ustez beintzat. Leen etxean eduki ta aintzat artzen etzi-tuen gauzak, urrutira joandakoan edertzen zaizkio giza-ki bakoitzari geintsuenetan edo beti. Dana dala, goazen aurrera asitako lana bukatu arte.

Naparroako Leitzatik bi gizon sasoi betekoak eta beste iru mutil gazte agertu zitzaizkidan, nik ezer ez nekiela, Orioko *Loretxu* izeneko ostatura.

— Kaixo, Lasarte. Egun on! Ara emen leitzatarrak!

— Baita zueri ere. Denbora pasa al zabiltzate? —gal-detu nioten.

— Gu bai, baiña iru gazte auek pelotan entrenatzera etorri dira. Orion frontoi aundia nola dagoen, ortarako egokia iduritzen zaiote askori, erremonterako batez ere. Leitzan bertan ohea daukate eskuzko pelotarentzat; baiña emen zestoz ibiliko ziran seguru asko.

Nik galdetu ez nioten arren, iru pelotari gazte aietako bat Patxi Astibia aizkolari sonatuaren semea omen zan. Aitak ez-ezik, ez dauka gorputz aldrebasa edozer laneta-rako ere. Irurak ikusi nituen mutil gazte ederrak, ongi janez eta lasaitasunez bizi diran itxurakoak.

Urri illa zanez, garaia alamoduzkoa eta eiz kontuak ere erabili genituen. Uso asko pasatzen ari zala alde aietatik esan zidaten. Eizerako apizioa duenarentzat mauka. Gure ume denboran ere, Leitzak fama izugarria zuen gai ortan. An bada Usategieta deitzen zaion mendi gaillur altura aundiko bat, Basakabitik gora igota. Jakin nai nuke zenbat usok bizia galtzen duten andik pasatzerakoan.

Oien kalendariora gurea baiño zuzenagoa da. Urtero fetxa berdiñean aldatzen ikusi izan ditugu alde batetik bestera, eta egoaize puntua dabillen egunetan. Geientsuenetan eguraldi segurua zaintzen asmatzen dute dotore asko.

Leen aipatu dedan Usategieta mendi sonatu arek ikaragarritzko zugaizti aberatsak dauzka inguruan bertan. Pagadiz eta ariztiz dena beterik dago baso zoragarri ura, ta usoak badakite nun gelditu atsedentzeko. Gaua an pasatzen omen dute, naiko ezkurra janez; eta bidaramon goizean martxa bearrezko tokiraiño. Egalarri indartsu purrukatua dala usoa sarritan entzunak gera eiztariengandik; eta nik neronek ere gauza bera esango nuke.

Emen, Orion, oso gutxitan nabaitzen dira uso banda itxurazkoak. Zergatik ote da ori? Zugaiztirik eta zer janik ez dagoelako alde auetan. Baiña tiro otsak iduritzen zaizkit batzuetan egunsentian, oean nagoela. Bana-ka, ordea; noizean beingoak: *tipi-tapa*.

Ateraldi zelebrea

GIPUZKOAKO erri txiki batean gertatu zitzaidan pasadizo zelebrea bat badet gogoan aspaldiko urteetan, irakurle, ta bera zuri idaztera nijoakizu, gustatuko zaizun itxaropenez. Gauza serioz bakarrik ez da asetzen pertsonaren bizitza. Bear ditugu alaitasunezko une batzuk ere noizean beingo, barruan korapillaturik dauden pena samingarriak pixka bat aaztu edo disimulatu ditezen gutxienez ere.

Penaren billa iñor ez da ibiltzen. Bera degu, espero ez degun garaian, aurreko aldean zutik jarriko zaiguna lotsa gutxirekin. Baiña nun edo nundik agertuko da pozaren gozotasun egizkoa, denbora artzen dakiena baldin bada supritzen bizi dan pertsona minberatu ura. Ortan seguru nago.

Atal onen asieran aipatzen dedan gertaera kontatuko det, aitona zaar batengandik jaso nuen modu berdiñean, ez geiago eta ez gutxiago ere.

Diodan erri txiki artara bertsoara joan giñanez, bertako pestak izanik, ongi orniturik zeukaten jaialdi osoa: baziran arrijasotzailleak, aizkolariak, sokatira, ari talkarriak eta abar.

Guk ere, agindu ziguten garaian, bertso mordoska kantatu genizkioten, eta gero ostaturako martxa artu genduen, sarritan bezela. An sartu orduko, aitona atsegin gozo ura inguratu zitzaigun. Neri izpidea eman zidan; eta, Uztapide beste lagun batzuekin zegoenez, maian exeri ta salda ona ta ardo zaarra eskatu zizkioten serbitzen zebillen neska gazteari. Eta aitonak aiek ikusi ta onela dio:

— Lasarte, zu amaiketako konbidatzeko pentsamentua neukan ba nik. Ixtimatzen badidazu, biok egin-

go degu beste oiekin batera, mai luze ortan nalko tokia badago ta.

— Bai. Nik onartzen dizut zure borondatea; baiña amaiketako txikia bearako du. Bestela, gero bazkaria sobratuko zaigu, aitona —erantzun nion nik.

Eta:

— Ez, gizona. Gaurko bazkaria berandu izango da, ta ordurako jateko gogo etorriko zaizu, Lasarte. Nik ere zuen aldemenean egon nai nuke ta konponduko gera. Gaur gauera bitartean nere zai ez egoteko andreari esanda aldegin det etxetik. Zuen bertsoak entzun nai. Orixe baida nere apizio bakarra, ta goiz parteko saioa izugarri gustatu zait, Lasarte, gaiñontzeko jendeari ez-
-ezik. Arratsaldekoa ikuskizun dago oraindik, baiña zaila dala derizkiot goizekoa berdintzea.

Orrelaxe izketan denbora pasa aitona ta biok ari giñala, sartu zan ostatura mutil sasoiko eder bat, eta an dijoakigu zuzenean guregana:

— Egun on leenengo. Exeri al niteke ondoan?

— Bai, bai, lasai gaiñera. Tokia aukeran daukazu emen —erantzun genion.

Eta, biak erri batekoak izanik, kontu kontari asi ta berealaxe mutillari galdetu zion aitonak:

— Andregairik bai al dezu, gazte?

— Ez. Oraingo libre nago ortik.

— Bada denbora denetarako —esan zion aitona zaa-
rrak—, eta ongi pentsatu. Nik, gazterik ezkondu ezker-
osatuko nintzalakoan, presakako pausoak eman bear
izan nituen. Andre ona artu nuen, eta gero ura sobratu
zitzaidan eta gaiñontzeko gauzak falta.

Aitonaren ateraldi zelebrea.

Pedro Díez de Ulzurrun

ALBISTE onak, erdi ipurdikoak eta txarrak, denetak koak irixten zaizkigu belarrietara, gutxiena espero ditugun garaian gaiñera. Atal ontan idaztera ni joan auxe bera ere ez da batere pozgarria; baiña pertsona bakoitzarentzat juxtu jarrita dagoena bai.

Guztiok dakigun bezela, nik Naparroako Iruñen banuen adiskide ixtimatu bat, aspalditxoko urteetan ikusi gabe neukana, naiz eta sarritan gogoratzen zitzaidan arren. Eta 1994-ko urri illaren 21-garren egunean agertu zan bere argazkia *El Diario Vasco* egunkarian, oker ez banago; eta gero gauean berriro telebistan ere bai. Tristura izugarria eman zidan.

Pedro Díez de Ulzurrun zan diodan gizon ospetsu au, ain zuzen. Bere opizios medikua, baiña ez dakit zer espezialidade zuen, garbiro esateko.

Neri, ikusten ninduen bakoitzean, galdetu oi zidan zer modutan nenbillen osasunez, eta erakutsi ere bai nolatsu jokatu bear nuen.

Azkeneko aldiz Iruñeko *Gayarre* zinean edo antzokian alkartu giñan, eta an eman zizkidan esplikazio batzuk, neretzat pare-parean zetozenak gaiñera, geientsuenak beintzat. Onela zion:

— Lasarte, zu modu askotara endredatuko zaitu daukazun urdailleko gaitz orrek. Izango dituzu buruko min gogorrak, gonbitu larriak, barrengo naigabeak eta nerbioso sarritan ibiliko zera, ezertarako umorerik eta pozik gabe, erriz erri bertsotan zabiltzanetan batez ere. Gezurra al da ori, Lasarte?

Ori galdetu zuenean, onela erantzun nion:

— Ez. Erdiz erdi asmatu dezu ortan.

Baiña zer da ta nere aurretik bera il alajaiña. Emen iñork ez daukagu bizitzeko segurantzirik.

Beraz, 1994-garren urteko urri illean il omen zan gure adiskide Pedro Diez de Ulzurrun, irurogei ta bederatzi urterekin. Etzan oso zarra, baiña gazteagoak asko joaten dirala badakigu mundu ontatik.

Medikua izatez aparte ere, bazituela beste kargu batzuk uste det. *Príncipe de Viana*-ko zuzendaritza Diputazioaren bidez erabiltzen omen zuen berak adibidez.

Naparroan bertsolaritzari laguntza eman zionetako bat uraxe genduen, garbiro aitortu bear baldin baditugu gauzak. Izugarritzko zaletasun sutsua nabaitzen zitzaion bertsoak entzuteko. Arek egiten zituen parre algarak bertsolarien kontura, ateraldi zelebrez gustatu ezkerro beintzat.

Gizon argia eta leiala iduritu zitzaidan beti Pedro Diez de Ulzurrun zana.

Egun batez gogoratzen naiz Naparroako Aranatzan nola gendukan jaialdia. Antxe zan ura ere; eta gu, Goizuetako Narbarte ta biok, bertsotan kantari asi giñanetik ixildu bitartean, eten gabeko gozamenez pasa zuen denbora; eta ondoren eskerrak ematera inguratu zitzai-gun, eskua luzatuaz.

Euskera garbiz eta dotorez itzegiten zuen Ulzurrun sendagilleak. Oitura zaarren aldeko utsa zirudien gizon arek.

Asko gustatu zitzaidan beti bere izakera, naiz eta osotasunean ezagutzeko motibo berezirik eduki ez nuen arren; eta pena aundiz bete ninduen adiskide Ulzurrunen eriotzak.

Parranderoak

ERRIZ erri bertsolaritzan berrogei ta bi urte pasa nituen nik, eta zenbat pasadizo zaar entzun ote nuen asiera eman nionetik ixildu bitartean? Naiago nuke denak gogoan baneuzka, orain denbora pasa idatzi ta paperean gerorako utzi al izateko.

Erri guztietan baziran leen, gure gazte garaian, pertsona lasai, sano, txistoso ta parrandazale bildurgarri utsak, gaur dauden bezelaxe. Guk, bertsotara joandako bakoitzean, ikusten genituen gizaki zelebren batzuen jokabide nabarmenak.

Ordu onetan eta arriskutsuetan, egun osoan, zurrutean jardun, txixa galtzetara egiteko zorian jarri ta segi antxe bertan, kontu kontari, batzuetan erdi asarreturik bullan, eta urrengo gozoaldian lagun egiñik, sekulan ezer pasa ez balitz bezela.

Baiña aien tartera etzegoen makilla autsia eskuetan artuta sartzerik iñolako moduz. Berealaxe aaztutzen baizitzaizkioten aurreko disputak, eta kito. Ori gauza atsegiña da lagun arterako. Gorrotorik gabeko itz jario luzeak erabiltzen oituak ziran orduko gizon sano aiek, naiz kaletarrak eta berdintsu baserrietakoak.

Igande goizetan, leenengo eginkizun nagusia, elizara joan da meza entzun orixe zuten; eta gero ostatuan sartu, eztarriak bustitzeko aitzakian. Baiña ez presaka etxeratzeko asmoan. Maian exeri ta kafez eta patarrez barru aldeak berotu bitartean, bertan gozo, ta nun obekiago? Karta jokoan ere jarduten bazekiten denak edo geientsuenak beintzat, musean ez bazan tutean, bestela trukean.

Gosaria eta amaiketakoak biak batera egin oi zituzten, auleziak jotako garai beranduan.

Sarritan diru gutxi gastatu naiaren itxura nabaitzen zitzaioten batzueri, ez dakit zergatik. Pobrearen poltsa ustu erreza dala badakigu, ta kontuz dabillanak asma-tzen duela ere bistan daukagu, ongi begiratuko bagenio daramakigun martxari.

Neri sarritan gogoratzen zait, egun batez, bertso-tara joan da bazkaltzen ari giñala, aitona zaar bati entzun nion pasadizo zelebrea, erri artan gertatua noski, ta berak ongi ezagutzen zuen familian gaiñera. Matrimonio baten ixtoria kontatu zidan, ain zuzen ere.

Ezkondu ta bi seme eder ekarri omen zituzten munda; eta, txikiak ziran bitartean, oso kontentu gurasoak eta mutil koskorrak. Baiña gerora, azitzen zijoazen bezela, parrandari eman eta beti ordu txarretan etxeratzten ziranez, ama supritzen kabitu eziñez, eta aita asarre. Alaxe, igande arratsalde batez, dotore jantzita badijoaz biak kalera, ordurako sasoirik onenera iritxiak mutillak, eta aitak onela dio:

— Gaur kostako zaizute etxe ontan sartzen.

Gauean afaldu ondoren atea barrendik giltzez itxi ta oera andre-gizonak. Leen, gauez iñork aldaba jotzen bazuen, “nor da?” galdetu gabe etzan aterik irikitzen. Dana dala, an dijoaz mutillak goizaldean, eta jo dute atea. Jeiki da aita, eta onela dio berak:

— Etxekoak al zerate?

— Bai noski, aita. Zure antza degula esaten digute askok.

Ori entzunik, iriki diote atea, eta:

— Pasa zaitezte barrura. Erri ontan parranderorik aundienaren fama nik izan diat; baiña zuek autsi nazute —esan omen zuen aitak, eta kito.

Euskera Nafarroan

NAPARROAN bertsoalaritza orain artean beti mantendu da, sail txiki antzean bada ere, Irurtzundik aurrera ez det uste bein ere indar izugarririk izan duenik, gure belaunaldi ontan beintzat. Erribera aldera begiratuaz alegia diot au bereziki.

Iruñen, berriz, bertsolarien txapelketak eta bestelako jaialdi pranko ere moldatu izan dituzte tarteka, *Gayarre* antzokian geientsuenetan, guk gai ontan ezaguera degun ezkeroztik. Lengo berririk ezin nezake eman, ez dakit eta.

Baiña adibidez izango zuen bere tokia Nafarroan, urruti samarrear ere. euskerak. Neri, Iruñeko mediku sonatu batek kontatu zidanez, bere aitona kazetaria omen zan, eta euskeraz idazten jarduten zana egunkariaren batean. Aragoi inguruan edo mugatik urrean zegoela aitonaren sorterrria esan ote zuen daukat errezeloa, segurantzi osorik ez dedan arren.

Ziriako Garralda Goiena zan diodan mediku ura. Orain dala emeretzi urte ibili nintzan ni arengana bueltaka luzaroan, eta ordurako zaaturik zegoen dexente. Beraz, noizko kontuak diran aitonaren kazetaritzakoak antzematen oso zailla dala iduritzen zait.

Medikuak berak zionez, euskeraz ikasi gabeko pena omen zeukan. Beti zerbaiten falta sentitzen du emen bizi dan bakoitzak, modu batera edo bestera. Inor ez da guztiz osatzen nunbait. Ala dirudi, gizakiari begira jarri ezkeru.

Nafarroan erdera erri txikietan ez dakit zenbateraino erabiltzen duten. Ortan ezjakiñean nago, beste gauza askotan bezelaxe. Baiña gu bertsoan erriz erri ibiltzen giñan garaia eta gaurkoa oso desberdiñak juzgatu litezke noski gai berean.

Naparroan alde guztietan euskeraz itzegiten jarraitu izan balu jendeak, bertsolariak antxe ibili bearke zuten bueltaka, eten une aundirik gabe, Gipuzkoan eta Bizkaian dabiltzan antzera, bai oraingo auek eta berdinean kantatzen genduenak ere.

Baiña ez da erriaren oiturarik nolana aldatuko noski, gure almenaren bidez bakarrik, eta goazen aurrera poliki-poliki, inor minberatu arazi gabe.

Bakoitzak berak pentsatu dezala zer izkuntza erabiltzea komeni zaion, eta kito.

Iruñen, *Príncipe de Viana*-k antolatzen zituen, ni oso oker ez banago beintzat, euskerari laguntzeko jaialdi berezi batzuk, orain dala ogei ta amar urte, eta geroztik ere bai, Iruñen bertan baiño, Baztan alde, Ultzama ta erri txikietan geiago, ikasketak egiten zebiltzan neska-mutilentzat.

Gaztetxoan arteko sariketa ugari samar ikusten genituen parte artzen zutenak, eta ara nola: euskeraz ongiena itzegin eta idazten zekienak, berari zegokion saria eskuratu oi zuen. Ori erabakitzeke, epaile edo juraduko maia osatzen zuten gizonak an egoten ziran arreta aundiz entzuten.

Iruñeko *Príncipe de Viana* eta Aurrezki Kutxa arduratzen ziralta uste det jaialdi bakoitzaren gastuen ordainketaz.

Ni sarritan eraman ninduten bertsolara, beste bertsolariaren batekin batzuetan, edo bestela nerone bakarrik. Etzan lan asko egin bearrik izaten. Amar-amabi bertso kantatu ezkerok, kontentuk; eta garaiz etxera etortzeko libre gaiñera.

Udara

UDARA aoa betetzen duen itza dala ez legoke nik esan bearrik, edozeinek dakiena danez. 1994-garren urtekoa udara ere joan zitzaigun betiko, bere aurreko guztiak bezelaxe, ta kito. Zaartzen goaz mundura jaio giñan denok, orixe nai ta eskatzen ez badegu ere.

Ekaina, uztailla eta abuztua ez genituen oso gustagarriak. Eguraldiaren aldetik, alegia, goibeltasuna. Laiño astunez estalirik zeru sapaia beti edo geienetan, eta trumoi zakarren bidezko euri eraso torpe ugari baztarretan. Eguzkirik gabeko bero egoskorra, berriz, egunez bezelatsu, gau askotan ere. Oean gozamen gutxi pertsona nekatuaren gorputza atsedentzeko.

Emen, Orion eta itxasoak arrapatzen dizkigun erri auetan, umedade bildurgarria erabili genduen udara osoan. Orixo dala esan genezake dudako osasuna daukari kalterik aundiena egiten dion eguraldi klasea. Zeru goia laiñoz estalirik baldin badago, gauez ez du intzez lurrik bustitzen batere, eta oean berotasuna sentitzen da, lo gozoa galerazten duena. Etxearen barrua sutan bezela egosten jartzen baidu alako giro zeken, itxusi, baldarrak; eta inun gustoko tokirik ezin billatuz ibili bear.

Izerdikorra danak, batez ere, edo osasun eskasia daukan bakoitzak ederki antzematen dio denborale txarrari, nola jateko garaian, ala lo egiterakoan, eta zutik dabillenean ere bai dotore asko.

Gaua oean penoso pasatzen duenak, goizean jeiki ta ez du aurpegi alaia edukiko; ez berriketarako gogo izugarrizkorik ere. Gora-bera oiek zertsu diran ongi dakigu, probatu ez bagenitu obe bazan ere.

Dana dala, 1994-ko udaren jende asko etorri omen zan Orio alde ontara. Paseatzeko leku bikaiñak dauz-

kanez ixtimatzen dutela dirudi gu bizi geran erri bizi au. Ondartzan *camping* deitzen dioten zoko ori leporaiño betetzen dana izan bear du urtero, udarako iru illa-beteetan.

Atzerritar gazte jendea ikusten zan emen, kalez kale zebilela, bokadilloak janez eta abar. Dendetan ez dakit zenbat diru utziko zuten. Al zanik gutxiena, seguru asko. Jenero merke antzekoak erositaz pasa bear derri-gorrez eguna nola edo ala; eta gauez lo sendo, zakuetan sartuta, edozein legorpetan moldatzen dirala entzun izan degu. Gaztetasuna nagusi da beti eta alde guztietan. Orrek ez du berdiñik.

Mutil galantak etortzen dira kanpoko nazioetatik. Bai neskatzak ere. Moto aundi batzuetan binaka jeneralean. Beste asko, berriz, auto dotoretan. Ezeren kezka ta buruausterik gabe, lasai batetik bestera, errez ibiltzeko moduan. Emen bakoitzak berari dagokion neurrian paseatzen duela garbiro ikusten degu. Atzerritar denak aberatsak ziralakoan egoten giñan leen. Baiña ori ere ez da egia. Gure antzeko pobreak ugariago izango dirala pentsatu arazten du gaur daukagun bizi postura estu onek.

Joan zan udaran ostatuetan aurreko urteetan baiño lan gutxiago egin omen zuten, denak ez dakit, baiña batzuek beintzat.

Nik gauza auek kalean entzunda bezela idatzi ditut. Norbaiti kalte egin badiot, barkatu dezaidala mesedez. Orixe nai nuke, iñor asarretu ez dedin, nere lantxo onen bidez.

Xegundo Kalonje zana

GAUR idatziko dedan atal ontan Donostiko nere lagun ixtimatua izandako bat artu nai nuke oiñarri bezela: Xegundo Kalonje. Illa da zoritxarrez, beste askoren antzera.

Bertsoak paperean idazten oso dotorea zan, lengo lege zaarrera eta ugaria gaiñera. Izlari garbia ere bai. Aren euskerak etzuen akatsik eta ulertu eziñezko nas-keta bigurrik.

Emen, Orion, bi edo iru aldiz alkartu giñan, orain dala amaika-amabi urte. Gutxi gora-beera diot au, segurantz osorik ez dedalako. Baiña nerekin batera ostatuan bazkaldu, kontu kontari jardun txukun asko, ta arratsaldean garaiz artzen zuen etxe alderako martxa.

Anka batetik errendua zegoen, Beatz bat edo bi moztu ere egin zizkieten, eta sendatzeko itxurarik ez. Pena orixe nabaitzen zitzaion gizarajoari, eta onela zion:

— Or nabil medikuengana bueltaka, baiña miñik ez didate kentzen. Nere anka gero ta okerrago sentitzen det, eta azkenean gaitz orrek eramango nau lur azpira seguru asko, Lasarte.

— Ez etsi beintzat olain errez, Xegundo. Gaur sendagaiak onak badaude, medikuak ere bai, ta jarriko zaituztela miñik gabe uste det, denboraren bidez —esan nion.

— Bai. Zuk ala pentsatuko dezu, Lasarte. Baiña nik ez det sinisten orrelakorik, nagoen bezela egonik.

Alaxe, trena artzeko ordua bazetorrela ta Orioko estazioraiño lagundu nion Xegundori. Oso gustora joan zan Donosti aldera, berriro luzaro baiño leen alkartu bear genduela esanez.

Baiña gauzak aldrebes irten zitzaizkigun, zoritxarrez. Andik laixter edo denbora gutxiren barruan, etxeko martxa eramaten zuen semea il zitzaion Xegundori. Golpe bildurgarria izango zan ura aita batentzat. Leen dudan bazebillen, zearo txikiturik gelditzeko modukoa noski. Ildako semeari aita Xegundok jarritako bertso triste batzuk agertu ziran ondorengo egun batez *El Diario Vasco* egunkarian. Nik artean ez nekien ezer eta minberatu nintzan, aiek irakurri nituenean. Nola ez?

Uraxe izan zan gure alkarrizketa gozoak bukatu arazi zizkigun motibo penagarria. Geiago ez genduen alkar ikusi. Geroago, berriz, Xegundo bera il zala, ta kito. Ara noraiño irixten dan pertsonaren izakera.

Xegundo Kalonje onek Txirrita zanaren ixtori batzuk ere kontatu zizkidan. Onela zion:

— Nik, oso gazte nintzala, ezagutu nuen Txirrita, gizon pusketa galanta. Egund batez, Ernanira joan da ostatura zerbait artzearren sartu nintzan. Antxe zegoen maian, bera bakarrik, Txirrita; eta, itzegin naia neukanez, inguratu nintzaion beragana:

— Arratsalde on, Joxe Manuel.

— Bai zuri ere, gazte.

Ori erantzun zidanean, galdetu nion:

— Jango al ditugu galleta batzuk, ardo pixka bat edanez?

— Bai, zuk ala nai badezu —esan zuenean, pozik eramane nituen botilla ardoa ta galletak.

Ordutik asi omen ziran Txirrita eta Xegundo Kalonje-ren alkarrizketak.

Ezkondu ta biajera

AAZTU ezin zaizkidan pasadizo batzuk kontatzeak ez det pentsatzen irakurleari kalterik egingo dionik, eta ortaraxe nijoa, atal au osatzeko asmoz.

Berrogei ta bi edo iru urte izango dira. Ni Zarautzen ganaduak perratzen ari nintzan garai umoretsu artan, gaur baiño alaiago ta kontentuago gaiñera, ez da ain zailla ere ta.

Baserritar bakoitzak baditu bere bizimoduak ematen dizkion kezkak eta buruauste zorrotzak, jenioz estu antzekoa baldin bada batez ere.

Sarritan gogoratzen zaidan gizon langille purrukatu baten izakera nolatsu ikusi nuen adierazi nai nuke onekin. “Umeak azi ta nekeak bizi” da aspaldiko esaera zarra. Ez gezur aundia.

Dirudienez, famili bikaiña osatu zuten semez eta alabaz. Baiña batzuk ezkondu eta besteak kalera edo kanpora aldegin, opizioak ikastera, gerokoari begiratu bearrez aurkitzen ziralako alegia; eta etxean seme bakarra gelditu lanerako.

Aita nere perratokira zi Joan bakoitzean, presaka sentitzen nuen. Ganaduak perratu arteko denbora oso luze egiten zitzaion gizarajoari, eta egun batez auxe galdetu nion:

— Zuk ez al dezu bein ere pentsatu nola dabilzan beste baserrietako gizon edadetuak, lanez pixka bat aazturik lasai kale aldera datozenetan beintzat? Zu beti korrika zabilta. Zergatik ordea?

Ori entzunik, laixter jaso nuen erantzuna. Ura zan letani otsa. Onela zion:

— Gure baserria aundia dek, Lasarte. Ez daukak ezagutzeko motiborik, baiña terreno sail izugarriak diz-

kik; eta, aieri garbiro eustekotan, etzegok periz peri denbora pasa ibiltzerik. Bestela, akabo etxeko martxa. Ortik aparte, berriz, ukullua ganaduz leporaiño beterik zeukagu, ta lanerako iñor gutxi. Gure seme ori ezkonduko balitz, noiz edo noiz poz ederra artuko nitek. Bai nere andreak ere. Ez ote da, ba, konturatzen ezkontzea bereztat mesederako litzakela? Baserrian bizi al izateko, laguna derrigor bear duela?

— Agian zuk eta zure andreak uste baiño leen ezkontza prestatuko du semeak disimulo ederrean —esan nion.

Baiña etzuen sinistu. Andik illabete batzuetara nabarmendu ziran gauzak. Jakin genduen andregaiia bai omen zuela diodan mutillak, eta guraso zaarrak pozez zorutzen zeudela. Nola ez? Orixe baizan beraiek nai zutena.

Udaberriko ezkontza izan zan. Sekulan etzait aaztutzen. Garai aietan larunbatez ospatzen zituen jendeak bikote berriaren eztaiak. Gaur oraindik ere jarraitzen du oitura orrek.

Dana dala, ni geienbat arritu arazi ninduena auxe izan zala aitortu bearrean nago: goizean, eguna argitu orduko, irtengo zan mutil ura etxetik, astoa traillan arturik, eta an zegoen perratokiko atearen ondoan nere zai.

— Kaixo! Egun on! Goiztar abil.

— Bai. Gaur ezkondu egin bear diat, eta astoa perratzerara etorri nauk presaka.

— Kontxo! Ezkondu ta biajera joango zerate noski?

— Bai. Ala diagu asmoa.

— Astoaren gaiñean al zoazte?

Ori galdetu nionean:

— I, Lasarte: adarra beste bati jo, nai badek. Neri ez orixe! —erantzun zidan, nik merezi nuen bezela.

Bera ain mutil sanoa ta ona izanik, nik asko ixtimatzten nizkion zeuzkan jokabideak, eta konfiantza osoa genduen alkarren artean, zorionez.

Goierriko bi gizon

UMOREZ eta sasoitsu aurkitzen ez banaiz ere, aspaldiko kontu zarrak pixka bat berritzeari ekingo diot, denbora errezago pasa dezadan.

Urte asko bizkarrean dauzkan pertsonak gauza berri gutxi ikasi lezake. Leengoak aaztu bai, deskuidatzen bada. Ta nik asmorik onenez gure garaiko gertaera batzuk idatziko ditut atal ontan; eta, iñork txartzat artzen ez badizkit, gustora geldituko naiz benetan.

Gaur egunkarietan albiste ugari ematen diote irakurleari, ortarako almenez jantzita daudenak. Nik, berriz, Goierri aldera joko det, Legorretara ain zuzen.

Jende bertsozale purrukatua iduritu izan zait erri artan, ez zaarrak bakarrik, bai aien ondorengo gazteak ere, gu bertsoan ibiltzen giñan garaikoak beintzat. Eta gaur oraindik lengo griñari jarraituko diotelakoan nago. Ez dakit zergatik, baiña Goierri oitura zaarrak nekez galduko dirala pentsatzen det aurrerantzean ere.

Egun batez gogoratzen naiz bereziki, ta au Legorretan gertatu zitzaigun kaso da, ez oraingoxea, nik ogei ta bost urte neuzkanekoa.

An bazan gizon jator bat, berak ostatua edukitzen zuena, Jesus Eskisabel, bertsolari bezela polita, erriz edo bere etxez kanpora gutxi kantatua bazan ere.

Ostatuan antolatzen zituen jaialdiak tarteka, eta ni eramán ninduen bein da bi aldiz baiño geiagotan bertso tara. Ta, berak laguntzen zidanez, biok kantatzen genduen.

Nere gustorako oso pertsona atsegiña zan. Izketan, berriz, egoki aparta. Aren mingaiñean etzan illerik

nabaitzen. Erreztasun aundiz eta dotoreziz esplikatzen zituen gauzak. Arritzeko moduan bai, umore on samarra zeukanetan.

Legorretako Jainkoa deitzen zioten geientsuenak. Ez dakit izengoiti ori nundik eta nola zetorkion. Beingo batez onelaxe bukatu zuen berak asitako bertsoak:

Ni naiz Legorretako
Jainko paltsoa.

Aiek txaloak jo zizkion entzule jendeak!

Beste egun batez, Legorretara bertso saioa egitera joan goizetik eta sartu da Joxe Agirre bertsolaria Jesus Eskisabelen ostatuan, eta eskatu dio baxo erdi bat ardo txuritik, mostradorean zegoen neskatxa gazteari. Ta neskatxak, seguru jakitearren, onela galdetzen dio berari:

— Zu al zera Agirre bertsolaria?

— Bai; alaxe naiz.

— Ederki. Ni, berriz, *Jainkoa*-ren alaba, serbitzeko.

Ta Agirrereren erantzuna:

— Ni ere Jainkoaren semea izango naiz noski.

Itz oiek entzunik, irten sukaldetik, eta:

— Ara, ba, nola bildu zeraten anai-arrebak alkarren-gana —esan omen zioten *Jainkoa*-k berak, Jesus Eskisabelek alegia.

Ateraldi dotorea benetan. Orren antzekoak ugari zituen arek, norbaitek zirikatu ezkerro beintzat. Kontu politak bezin aberatsak erabili zituztela bistan dago, nere iritzirako, irurak ere.


Beste gizon alai baten pasadizoa gogoratu zait une ontan: Ikaztegietakako Axentxiorena. Aspaldiko urte aue-tan ez det ikusi, baiña oraindik bizi dala jakin det. Larogei ta zortzi bat urte edukiko ditu, gutxi gora-bera. Oso bertsolari polita zan Axentxio au, nik ezagutu nuen garaian.

Legorretan, Eskisabelen ostatuan, egun guztia eta gaua kantari pasa ta goizeko ordubietan oeratu nintzan bertan, ler egiñik; eta lauretan jeiki arazi ninduten

berriro oetik, Axentxiok nerekin bertsotan egin nai zuelako noski, ta antxe ezagutu nuen zorionez.

Eztarri indartsua zuen. Aotsa garbia ta bertso molde zaarra, ziri puntuz ornitua. Baserriko euskera ulertu erreza ere bai.

Axentxio bezelaxe, asko gelditu dira ezkutuan, bertsolaritzaren ixtorian agertu gabe. Lastima!



Basari eta Lasarte bertsotan, Andalzarraten.

Aspaldiko bizimodua

ASPALDI pasatako bizimoduz oroitzen gerala ez daukagu ukatzerik inundik inolaz ere.

Askok bixitatzen naute. Ori aldera, denbora libre daukatenean, etortzen zaizkit lengo ezagun zarretakoak, eta izugarrizko poza ematen didate ikusi utsez.

Guk aurrerantzean lagun berri gutxi egin genezake, onenera jota ere. Ori ongi dakigula gaude. Gazteak badatoz indartsu, legezkoa dan bezela; eta zaarrak badijoazkigu txandaka, lurralde au utzita, serio asko.

Emen bizitzaren oiturak aldatzen dira, modu askotara gaiñera. Baiña il bearrari ez dago iges egiterik. Epea betetzen dan garaian, badakigu zer propina daukagun irabazia aurrez.

1994-an, abenduaren 6-an, San Nikolas pestak izaten diranez, emen Orion parienteak dauzkatela ta aietara etorri omen ziran bi pertsona, edadez ongi jantzitakoak, eguna pasatzera, goierritarrak. Illunabarrean ni bixitatu ninduten aspaldiko partez. Bertsozale purrukatuak nola bat ala bestea.

Izketan asi orduko, gure gazte denboran ezagutu genduen bizimodua esplikatzen alegindu giñan. Bein zaartzera iritxi ezkerro, askok erabiltzen duten gaia da ori. Bi aietako batek onela zion:

— Guk sekulan aragirik eta arrai freskorik ez genduen jaten baserrian. Noizean bein, etxean gizendutako txerria il da aren urdaia bai. Baiña neurri juxtuan ura ere. Gaiñontzean, berriz, babarrunez, patataz eta barazkiz, gaztain errez, taloz, esnez eta abar sabelak betetzen genituenean, kontentu.

— Gaurko ere ez lirake txarrak lengo janari klase aiek —esan nion nik—. Potaje ona gauza zoragarria dala

gorputzerako sinistuta bizi, osasun sendoa daukarentzat batez ere.

— Bai. Ortan arrazoi daukazu —erantzun zuen goierritar adiskideak.

Eta, urrengo, dirurik ezaren kontua azaldu:

— Guk gaztetan sosik ez genduen izaten. Garai aietan nun ikusten ote zan, ba, dirua? Oso gutxik erabiliko zutela pentsatzen det.

Era ontantxe espelikatu zituen egi mardulak goierritar jatorrak.

Neri 1963-garren urtean Aiako aitona batek kontatu zidan pasadizo zaarra, geroztik etzait aaztutzen, gogoan edukitzea merezi duena izanik, eta gustatu zitzaidalako denbora berean.

Aian bi anai bizitzen omen ziran baserri batean, emakumezkorik gabe, biak mutilzar geldituak; eta ikusgarria zala aien alkartasuna esan oi zuen diodan aitonak.

Igandeetan, bat goizean leenengo meza entzutera joaten omen zan elizara, bi peztako zillarria patrikan artuta. Baiña ostatuan sartu gabe martxa erritik.

Beste anaiak, berriz, bitartean ganaduen gobernuak eta lanak egin aurrena; ta, gosaldu ondoren, erropa garbiak jantzi ta meza nagusira zijoala, bidean topo egiten omen zuen etxera zetorren anaiarekin, eta zillarrezko pezta biko ura berak artu.

Orrelaxe moldatu zirala, dirua txandaka erabiliaz, esaten zuen aitonak, urte osoan pezta bikoarekin.

Zelebrekeri utsa dirudiena

GURE aurreko guraso zaarregandik ikasitako gertaera pranko baditugu gogoan jasoak; eta orain idaztera ni Joan au ere auskalo noizkoa dan.

Baserrietan, negu partean, eguraldi txarrak ziranean, ezertarako giro itxurazkorik ez eta ganaduak gobernatu, etxean sua egiteko egurra bildu, txikitu, txondorraren antzera pillan txukun jarri, ta orrelako lanetan jarduten ziran denbora pasa bezela, batere presarik gabe noski, patxada ederrean.

Udara zetorrenerako eskuak libratu beraiek, eta emakumezkoeri sua egiteko erosotasuna aukeran jarri etxe atarian bertan, eta egurraren kezkek kendu urte guztirako bide batez. Orixe zan lengo baserritar askoren jokaera.

Ortik aparte, berriz, soro ta belar zelaien inguruko sasi zikiñak ota-segaz ebaki eta txukun garbitu baztarrak. Legortu arte bertan eduki ondoren, pilla aundieta-
ra bildu ta sua emanda erre ote, lar, txillar eta kaltegarri ziran zikinkerik guztiak.

Gure ume denboran edo mutil koskorretan ikusi genituen gauzak esaten ari naiz. Garai artan nai aiña jende baizan baserririk geientsuenetan lanerako, gaur gutxiegi dagoen bezela. Nekazaritza benetan maite zue-
nak beti zeukan zer egiña, modu batera ez bazan bestera. Udaran presa apartekorik etzeuzkaten gauzak, negurako uzten zituzten. Baiña ez aaztuta, ordea. Terreno saillak garbiro zaintzeak garrantzi izugarria zuela ongi baiño obeki zekiten.

Baserrian izan oi dira egun lasaiak eta kezka gutxi-
koak, denak familian batasun osoan bizitzen asmatu ezkeru. Baiña leen orixe zan gauzarik zailena, eta orain

ere bai noski. Lanez gainezka ta estu dabillen garaian errez asarretzen da pertsona, zenbait aldiz beintzat, eta gero kontuak.

Nik badet aspaldiko entzueran gai ontan ere, zelebrenkeri utsa dirudiena. Baiña izan liteke egia, eta jakin nuen modu berean idatzi nai nuke.

Baserri aundi samar batean andre-gizonak bakarrik egongo ziran lanerako adibidez. Seme-alaba gazteak zeuzkatenak artean. Aiek eskolara bialdu bear ziralako, laguntza urruti ikusten nunbait, eta morroi itxura oneko bat artu omen zuten.

Alaxe, eguna lanean pasa ta leenengo gauean, afa-londoan, galdetu dio morroiak nagusiari:

— Biar goizean zer ordutan jeiki bear det? Edo zuk deituko al didazu?

— Ez, Nik ez daukat deitu bearrik. Gure etxeko despertadorea ukulluan dago. Astoak marrua edo arrantza garai jakiñean egingo du; ta, ura entzuten dezunean, jeiki.

— *Bueno*, gau on pasa —esanda, lotara joan da morroia

Goizean esnatu ta astoa ixilik. Alako batean, nagusiak ganadueri askara bota dizkiote artaburu txikiak, baiña astoari eman ez. Eta astoa arrantzaka asi bezin azkar, morroia oetik altxa ta bapo lanerako. Denbora gutxian, ordea. Gerora ta goizago arrantzaz astoa, ta morroiak ukullura jetxi, artu akullua ta ekin dio bizkarrekoak ematen. Nagusiak onela dio morroiari:

— Zer ari zera?

Eta morroiak:

— Despertadorea ongi jartzen, geiegi aurreratzen du ta.

Martin Berasategi zana

NERE lagun ixtimagarri baten oroimenez osatu nai nuke asi dedan ataltxo berezi au.

Iñoiz aaztu ezin litezken pertsonak izan oi dira, eta ni artaz gogoratzen naiz sarritan, neronek uste ez dedalarik ere. Gu bion arteko konfiantzak ez baizuen azkenik.

Alkarrengana bildutako une bakoitzean, kontu zaa-rrak erabiltzen genituen ao betean. Baiña txarkeriarekin zer ikusirik batere etzeukatenak.

Martin Berasategi zan diodan gizon maitasuntsu ura. Donostiko Parte Zarrean bada *Bodegón Alejandro* izeneko ostatu bat. Angoxe nagusia, berez Urrustil aldekoa, ta gure kinto laguna gaiñera.

Seguru esateko moduan ez nago noiz il zan. Baiña amar urte ortxe-ortxe izan litezke, oker aundirik gabe, onezkero.

Zortzi egun aurretik alkarrekin bazkaldu genduen bere ostatuan. Oso serio zegoela iduritu zitzaidanez, gal-detu nion:

— Gaixorik al zaude, Martin? Triste ikusten zaitut.

— Bai. Naiko lanak nerekin dauzkat, Manuel —eran-tzun zidan.

Alaxe, izketan pixka bat jarraitu genion. Baiña nik Oriorako autobusa artu bear nuela jakiñik, jeiki nintzan jarlekutik, eta bai Martin bera ere, oera sartu bearko zuela ta.

Alkarri eskuak, luzatzearekin batera, estutu geniz-kion, eta berriro ere aaztu gabe joateko lenbailen aren etxera edo ostatura esan zidan. Auetxek izan ziran bion arteko azken itzak, eta betiko agurra denbora berean.

Andik zortzi egunera, il zala ta bere animaren aldeko elizkizuna ospatu bearrez aurkitu giñan. Uste gabeko golpe txarra artuko zuen aren familiak, eta egunero bere ondora biltzen zitzaion jendeak ere bai noski.

Osasun eskasia zeukala bazekien. Baiña medikuak jarritako errejimenaren neurrietara errenditzeko ostatu-ko martxa ez da batere ona. Norberari gutxiena komeni zaizkion jenero klaseak esku artean erabiltzen ditu bes-teri emateko; ta noizean bein deskuidatzea ez det uste zailla danik, edari edo janari aiek gustatzen baldin bazaizkio beintzat. Martin Berasategi zanak ala esan oi zuen iñoiz.

Ortik aparte, bertsozale purrukatua izan zan beti. Arek bertsolariekin irabazi baiño geiago galdu egingo zuela dudarik ez nuke jarriko. Baiña, ala ta guztiz ere, kontentu, bakoitzak bere modura pentsatzen du ta.

Martiñen apizio ziñezkoa bertsolaritza zala badakigu ongi asko. Ni neroni, Donostira joaten nintzanetan, ari bixitatxo bat egin gabe ezin etxeratu iñolaz ere. Orixe gertatzen zitzaidan, eta beste gaiñontzeko bertsolariak ere nere antzera ibiliko ziralakoan nago.

Donostin norbaiten omenaldia zanean, edo bestelako bertso saioen bat izanik ere berdintsu zion kasorako, Martin Berasategiren bodegoian bilduko giñan bertsola-riak, denak ez baziran ere geientsuenak beintzat. An gosaldu ta gero gerokoak.

Agur, Martin laguna!

Kinto lagunak gogoan

ARRITZEKO ez danez, 1994-garren urteko azaroaren 27-an, igandez, nola ospatuko zan 48-ko kintoen billera, aurrez jakin arazi ziguten, beti bezela. Txomin Garmendia bertsolariak idazten duen saillean irakurri nuen nik, eta onela zion Txomiñek bere atalean:

Azpeitiko Joxe Lizaso bertsolariak deitu ziola, adierazteko kinto ortako jendeari garbiro gauzak: eguerdian, Loiolako jesuiten elizan, ildako kinto lagunaren aldeko meza izango zala leenengo; eta gero, Kirurikoa deitzen zaion jatetxe sonatuan, lagunarteko bazkaria.

Joxe Lizaso bertsolaria aurreko puntan ibili oi da beti, jaialdi berezi ori antolatzerakoan. Baiña iñor endredatzerik gustatzen etzaion gizon prestu bat dala-ko, neri etzidan ezer abixatu. Ongi baizekien osasunez nola nenbillen.

Txomin Garmendiak ederki esplikatzan zuen Lasarte etzala joango segururu asko. Baiña beste norbaitek lagun-duko ziola Lizaso zaarrari bertsoak kantatzen.

Joxe Agirre izango zan. Leen ere nere partez sarritan kantatu duela badakit Agirrek. Ni ez bainaiz azkeneko bederatzi edo amar urte auetan agertu kintoen billera artara.

Garai batean bai gustora joaten nintzala ez det ukatuko iñolako moduz.

Orain leen baiño jende gutxiago inguratzen omen da, Garmendiak idazten zuenez. Ez da batere arritzeko gauza, nere iritziz. Zaartzen goazen seiñale garbia degu ori bizirik gaudenak; eta ildako kinto lagunak dexente ditugu. Aiek ez dira berriro mundu ontara itzuliko noski.

48-ko kintan gizon indartsu ugari ezagutu genituen, ba.

Arri jasotzailleak, Agerre lenengoa ta Garatxabal, biak Azpeitiko seme jatorrak. Sasoirik onentxoenean il ziran. Penagarria da benetan. Baiña eriotzari ezin aldegin, bakoitzarengana datorrenean. Atzaparrak gogorrek eta zorrotzak dituenek, arrapatzen duena berekin eramaten du, sapelaitzak txittoa bezelaxe, ta kito.

Dana dala, arri jasotzaille onak ez-zez, aizkolari sonatu askoak ere baditugu kinto lagunak, oraindik bizirik daudenak zorionez. Gogoan dauzkadan izenak emango ditut; eta, norbait aaztuta uzten baldin badet, barkatu dezaidala mesedez.

Emen, Gipuzkoan, Iurrebaso, Txurruka ta Kortaberri, iru auek lan asko egiñak dira Euskal Erriko plazetan.

Naparroan, berriz, Gartziarena da gure kintokoa, nik dakidan bakarra. Baiña ura etzan bein ere urbilduko Loiolara. Agian iñork ez baizion abixurik bialduko, ta berez ere ez da parrandazalea, zintzo amorratua baizik.

Bestela, egun zoragarria izaten da urtean beingo ori, osasun sendoa daukanarentzat. Bazkaria aurrez enkar-gatzen dute Kiruriko jatetxe sonatuan. An ez da ezer faltako. Jan eta edan lasai, ta kontu zarrak berritu.

Getari

— **G**ETARI aldera nijoa denbora pasa, autoa artuta —zion nere lagun batek orain aurreko egun batez.

— Ez dezu biderik txarrena aukeratu paseatzeko —esan nion.

— Ez noski, Lasarte. Nere begientzat badu Getarik bestek ez daukan zerbait. Beti araxe begira jartzen naiz, neronek uste ez dedala ere —erantzun zidan.

Neurririk eta mugarik gabeko itxumen gozo baten itxura du esaera baikor orrek, ongi konturatzen bagera. Ordurik eta egunik gustokoenak antxe pasatzen omen ditu diodan gizon onek.

Izan ere, Getari erri maitagarri utsa da, itxas aldean beste asko diran bezelaxe. Ta, leen polita baldin bazan, orain jarri da ortik onerakoa, azken aldiko urte auetan eman dioten berrituaren bidez.

Izugarrizko obra dotoreak egin dituzte erritik Zumai alderako irteeran. Arkaitz baldarra ain narratsa ikusten genduen leen, itxasoaren marea beera zijoan bakoitzean, zikin guztiak bertan uzten zituelako, sarritan beintzat. Oso itxusi ematen zuen.

Baiña gaur begiratu besterik ez dago nola txukundu ta apaindurik aurkitzen dan. Zubi baten antzera, itxasoari pareta ikaragarria egin eta arkaitza edo arroka tontorra ukitu gabe, azpiko aldetik kamio ederra pasa diote.

Jendeak, paseatzeko gogoia daukanean, pentsatuko duela nora joan iduritzen zait, ni oso oker ez banago beintzat. Ortarako toki apraposa gelditu dala dirudi: lasaia, paketsua, zalaparta gutxikoa, kotxeak uzteko ere egokia ta abar. Kanpotarrentzat esaten det au batez ere.

Errian bertako asko oiñez ibiliko baidira, denbora pasa daudenetan.

Jakingo nuke pozik zenbat kosta dan obra ura, neri inportik batere izan ez arren.

Dirua eskuratu ezkeru, gaur bada erreminta ederrik lanerako. Orain dala berrogei urte zeuden aurrerapenak kontuan izanik eta orduko martxa zertsu zan jakiñik, guztiz arritzen gera gaurko tresna zoragarriak ikusita. Oiek dira erreztasunak, edozer gauza egiteko.

Getari urtetik urtera dotoretzen ari dala edozeiñek daki. Ori ez legoke esan bearrik ere. Baiña nik aitormen auxe egin nai nion ataltxo onen bidez, eta ez det uste iñork gaizki artuko didanik gaiñera.

Izan ere, erri ospetsua baidegu Getari. Arrantzaleak punta-puntakoak omen dauzka, batzuek diotenez. Txakolin kontuan, berriz, bein ere galdu ez duen fama ona nabaitzen diogu, ta udaran kanpoko jendez beterik egoten dala entzuten det sarritan. Beraz, ortxe agiri da garbiro askoren gustoko erri polit atsegin bat degula Getari.

Negu partean, ordea, paraje otz amorratua dala ere badakigu, ta aitortu bearrean gaude derrigorrez, bakoi-tzari berea ematekotan. Itxasoa atariko atearen ondoan daukaten erriak otzak izaten dira jeneralean negurako. Orion bertan ederki probatzen du jendeak ori.

Dana dala, gu Getarira urte sail aundian joanak gera San Anton egunez bertsotara, ilbeltzaren 17-an, eguraldi ona izateko urte garai txarrean. An udaletxeko balkoitik jarduten giñan kantari, eguzkiaren berotasunak penatu gabe.

Piztiak eta gizona

MENDI, baso eta erreka zoko guztietan, piztirik geientsuenak gizon armatuaren bildurrez bizi dirala ez det uste gezurra danik.

Leen, gure gazte denboran, ainbat txori klase dotore ezagutu genituenok, arriturik gaude aspaldiko urte aue-tan. Ez baidegu ikusten txori polit aietakorik. Kale inguruetan, batez ere, ezkutatu ziran. Nora? Nik ez dakit. Baiña baso aundietara seguru asko, pake billa.

Udazkenean eiztari batzuek erreparo gutxi erabiltzen dutelako, txori txikiak tiroz iltzen dituzte, batere errukirik gabe.

Beste aldetik, berriz, leen garai batean bezelako zugaiztirik ez dago gaur Euskal Errian. Toki askotako baserrietan sagasti eder ugari baldin bazan ere, zero urriturik daude. Gerezi, intxaur, lizar, txermen, pago, aritz, gaztain eta beste ainbat zugaitz klase galdu samartu dirala esan genezake, oraingoz beintzat; eta txori txikieri ez-ezik, aundi antzekoeri ere kalte izugarria ekarriko zioten orrek, nik uste dedanez.

Batetik, fruta zale amorratua da piztia. Moko zorrotza du ta janari piñak gustatzen zaizkiola badakigu. Sagarra eta gerezia oso gogozko ditu beretzat, Baiña oiek ez dago piñu tartean billatzerik iñolako moduz.

Zozo, birigarro, kastarro ta abar aipatuko nituzke pikarorik aundienetakoak, fruta asko dagoen tokieta-rako. Azala zulatu ta aterako diote barrengo zumu gozoa dotore asko. Sagarrari ta beste edozein frutari ere bai.

Erri txikiren batean izan bear zuen, adibidez, baserritar aitona bat, *Zozoa* deitzen ziotena, urte asko zeuzkana.

Azkenerako gaixotasun gogorraren menpean erori gizarajo ura, eta etxeakoak eraman dute medikua base-rrira bertara. Arek, ikusi edo ongi miatu ondoren, artu du bere erabakia ta esan diote *Zozoa*-ren familikoeri:

— Gizon au oso gaizki dago ta ekarri zaiozute apaiza lenbailen.

Alaxe, abixoa artu ta segituan joan zaio apaiza, ta onela asi zaio izketan:

— Zer modutan zaude, aitona? Udaberria gainean degu! Animo, birigarroak kantari asi dira ta!

— Bai, e? Aurten *zozoa*k ez det, ba, uste asko kanta-tuko duenik —aitonaren erantzuna.

Etsi samartua zegoela adierazi zion apaizari itz gutxi-tan dotore asko. Gorputza edukiko zuen gaizki, baiña burua argi artean ere. Bestela, ezin lezake orrelako arra-zoirik eman gizon batek.

Neri kontu auek kontatu zizkidan aitona jator ura bera ere, aspaldi il zan. Zoritzarrezko eriotzaren zorra denok daukagu ordaindu bearra, lentxeago edo geroxeago. Ortik iñor ez da libratuko, ez aberatsik eta ez pobre-rik. Azken orduko suprimentua zer izango dan ez dakigu, ta ala obe ere noski.

Kale garbitzailleak

KALE garbitzailleak edo barrenderoak bearrezkoak dirala ongi baiño obeki dakigu, ta beraien aipamenak egitea pentsatu det artikulu ontan.

Bakoitzak bere errikoen berri jakin lezake, ta nik Oriokoak ikusten ditut nolatsu dabiltzan.

Gaur lanerako erreztasun aundiak dauzkate. Ori ezin genezake ukatu iñolako moduz. Kalez kale lurreko zakarrak bildu ta jasotzerakoan, ordea, esku-karroak, palak eta erratzak edo eskokak erabiltzen dituzte, beti ezagutu ditugun bezelaxe. Ortan ez da aldakuntzarik izan.

Baiña beste ainbat gauzetan bai galantak. Etxeko zaborreria plastikozko poltsa batzuetan sarturik ateratzen du jende guztiak txukun antzean. Kale kantoietan karro aundi samarrak egoten diranez, aietara botatzen ditugu zikinkeriz betetako poltsak.

Eta egunero, goizeko zortzirak inguruan, asten dira ortarako dauden langilleak kamiona kargatzen. Baiña nola? Diodan karroak gruaren bidez gora jaso, ustu ta denbora berean prentsan bezela estuturik, oso buelo txikian sartzen dira zabor pilla izugarriak kamionaren barruan.

Aurrerapen oiek ez baleuzkate, nun kabituko ote lirake gaurko zakar eta txatar denak? Erri guztian asko sortzen baida, nai ez dala ere. Orain ez dago kale baztarrak zikin eta itxura txarrean edukitzerik iñolako moduz.

Lengo barrenderoak gogoratzen zaizkit sarritan. Txillarrezko eskoba merke batzuk, esku-karretillak, palak eta orrelako tresnaz baliatzen ziran zaborreria bildu ta jasotzeko, eta zaldia karro aundi batekin erabiltzen zuten karretoan edo zikiñak bearrezko lekura eramaten, emen Orion beintzat.

Urte aietan gutxi irabazten zala ere badakigu langintza ortan. Soldata txikia, alegia.

Beingo batez entzun nuen pasadizoa auskalo noiz gertatua dan. Baiña neri geroztik etzait aaztu.

Erri txikiren batean, udaletxean diruz ezin osatu ezin zirala-ta, estuasun gogorretan ibili bear zuten adibidez, guri ixtori au kontatu zigunak zionez beintzat. Ez giñan batere arritu orrekin, pobreza zer dan ederki iku-siak geralako. Diru eskasi ori toki askotan izan oi zan leen: eta gaur bertan ere beartsuak geiago egongo gera aberatsak baiño.

Dana dala, diodan erri artan, barrenderoa denboraldi luzean sosik kobratu gabe omen zegoen, eta udaletxera joaten ezin ausartu. Naiko lanetan gizarajoa, noski. Alako batean arrapatu du aurreko puntako agintaria, ta esan dio:

— Noiz ordaintzekotan zaudete nere soldatak?

— Itxogin zazu pixka bat. Urrengo sesioan konponduko ditugu gauzak.

— Aizak: ez diagu sesio bearrik. Nik dirua ta pakea nai dizkiat —erantzun omen zion barrenderoak.

“Nik dirua ta pakea nai dizkiat”. Ara emen gizonaren borondate ona nola agertzen dan. Ura etzan gerraren zale; baiña pixka bat minberatu arazi izango zuen soldata kobratu eziñak.

Ala esan liteke, bere itzak nik entzun nituen bezela baldin baziran beintzat. Eta kontatzen jardun zitzaidana ez det uste gizon zabarra ta gezurtia zanik. Gauzak astiro ta dotore esaten zekien,

Itxas aldeko albisteak

ITXAS aldeko albisteak eman nai nituzke, naiz eta len-dik irakurle asko jakiñik dauden. Arrantzale jendeak baditu galtzak bete lan bizimoduko martxari zutik eusten, guk legorrean ez-ezik.

Urte onak izan zituztela ez daukagu ukatzerik inondik inolaz ere. Baiña onaren atzetik txarra baldin bada-tor, ura ere artu bearra dago, ta pasa gaiñera, al dan bezela. Orrek ez du beste erremediorik.

Nik irrati bidez entzun nuena daukat gogoan, eta alaxe idatziko det, ezer erantsi ta kendu gabe.

Udaberrian antxoarekin suerte eskasa eduki zuten: 1993-an baiño milloi bat kilo gutxiago arrapatuta gelditu omen ziran, samintasunez beterik, 1994-garren urtean.

Ori orrela izanik, jarriko zitzaiotela naiko kezka eta zer pentsatua esan genezake gure itxasgizon askori. Batzuk kostera politaren jabe egin zitezke ere ez da batere arritzeko gauza.

Nolako egokierak, alako arrantzak oi dira sarritan puntan dabilzanentzat. Baiña banaz bestekoari begiratu bear genioke, bapore bakoitzaren kosterari alegia; ta geientsuenak baju antzean eta triste galditu izango ziran, 1994-ko antxoaren emaitza kaskarra ikusita.

Gero, berriz, atunaren itxaropena zeukaten, baten utsegitea besteak konponduko zuelakoan. Baiña adibidez etziran gauzak nai ta komeni bezin ongi atera artan ere.

Emen eta alde guztietan, pertsonaren bizitzak neurri juxtu samarrak ote dituen errezelotan nago ni neroni, ezer gutxi dakidana izan arren.

Leen, gure gazte denboran, itxasontzi txikiak erabil-tzen zituzten arrantzaleak. Aiekin urrutira joateko segu-

rantzi geiegizkorik etzeukaten nunbait, eta bapore aundiagoak bear zirala ikusi zuten, nun-nai ibili al izateko. Baiña lanerako prestatzea bakarrik ez da aski, ordea. Orain zer gertatu zaioten bistan dago: urte batzuetan arraia galanki arrapatu ta itxasoan urritu.

Diodan au telebistatik sarritan entzunda nago. Nik baiño obeki jakingo zuten, andik izketan ari ziranak, etorkizunaren berri. Azken aldiko sare aundi oiek gero-rako kalte izugarria ekarriko zutela seguru bezela jotzen zuten.

Eta arrantzaleak, leenengo uelgan, uztaillan, egun batzuk pasatu zituzten. Ni oker ez banabil, atunetan bete-betean zebiltzan garaian, sare estuen arazoa omen zan, eta ura konpondu nairik iñundik alean noski. Baiña alpertsurik. Eziñezkoa zala ikusirik, berriro arrantzara joan zirala badakigu. Oker, galesti samarra, irtengo zitzaieten marea baten galera, gutxi gora-beera, batzuen iritziz.

Eta bigarren uelga amabost egunekoa egin ondoren, Urrillaren 10-ean itxasoratu ziran. Nik ala uste det beintzat, deskuidatu ez banaiz.

Batzuk Azoresetan izan ziran, baiña an ere suerte txarra. Amalau egunetan bakarrik lagundu omen zioten giro politak arrantzarako. Beste gaiñontzeko denak portuan pasa ta kito.

Mediterraneo ta alde oietan obeki ibili ziran kontuak entzun genituen.

Baiña geientsuenentzat kostera txarra 1994-an.

Peria

SANTA Luzi sonatua beti ezagutuko zan Gipuzkoan. 1994 urtean, abenduko illaren 13-an, asteartez egokitu zitzaigun Santa Luzi eguna, eguraldi eder asko-arekin gaiñera.

Emen, Orion, bai omen zeuden Zumarragako peri ospetsua bein ere ikusi etzutenak; eta goizetik joan ziran bi lagun kotxean, denbora pasa bezela, eguneroko lana utzi ta erretiroa arturik daudenak, kaletarrak biak ere. Nik illunabarrean batekin itzegin nuen, eta galdetu nion:

— Nolako giroa billatu dezute Zumarraga aldean? Aize presko samarra agian.

— Ez, gizona. An etzegoen oztu bildurrik. An eguzkiak indar izugarria zeukanez, burua ta bizkarra ederki berotzen zituen. Ni, beintzat, izerdiz bustirik ibili naiz —erantzun zidan.

Gu, Santa Luzi egunez, Urretxuko pelotalekuan sarritan bertsotan jardunak gera, ta eguraldi txarra geiagotan ezagutu izan degu, ona ta gustagarria baiño.

Zumarragan eta Urretxun batere ez dago alderik, biak bai dira otzak asko penatzen dituenak negu parte-an. Altura ere dexente daukate, eta aize gordin zipotzak kanal estu batean bezelatsu korritzen du, izugarrizko zorrotasunez. Eta elurra egiteko ere ez da urte garai makala Santa Luzi inguru ori, eguraldia bigurritu ezkeru.

Giro onak asko mugitu arazi oi dituenetz, jendetza bildurgarria bildu omen zan. Inñun pausorik lasai emateko tokirik ez noski. Zumarraga ta Urretxuko ostalari-entzat mauka. Lana galanki egin bearko zuten, baiña bai kajoiak diruz ederki bete ere, jeneroz osaturik zeudenak beintzat.

Bestelakoan, berriz, aparkalekuetan autoak denak sartzeko modurik ez eta kamio baztarrak gaiñezka ote zeuden entzundako errezeloa daukat. Ori orrela baldin bazan, pentsatu besterik ez daukagu zenbat pertsona bilduko ziran Zumarragan eta Urretxun Santa Luzi egunez.

Animaliz ere ongi ornitua zegoela peri ura jakin nuen telebistaren bidez, eta ikusi zutenak esanda ere bai. Bertan izandako batek onela zion:

— Guk uste genduen asto guztiak ezkutatu zirala, baiña oker geunden. Oraindik batzuk agertzen dira.

Nola ez? Asto emeak urtean ume bat seguru samar egingo du; eta, txikia dan bitartean, bere errapetik esnea emanez mantendu gaiñera, iñori ezer kosta gabe. Ta gero, larrea jaten ikasten duen garaian, amaren errapea antzututa ere ez dio ajolarik. Moldatuko da bere kasa dotore asko, belarrik gozoenak billatuaz baso edo mendi baztarretan.

Beorraren kasoan berdin esan genezake. Baserrietan terreno itxurazkorik baldin badago, abere oiek umeak errez azitzen dituzte, eta probetxu ona kentzen zaiote.

Zaldi, moxal, ardi, bei, mando, mula, auntzak eta abar salgai egon bear zuten adibidez aukeran Zumarragan, Santa Luzi egunez. Erostenak asko ziran edo zenbat tratu egin zan ezin nezake esan, ez dakit eta. Baiña klase guztira oso jantzia ta ornitua zala entzun nuen 1994-eko peria.

Mutilzaar lasai askoa

GURE mundualdia eta gizartearen ixtoria pixka bat aipatzea komeniko dalakoan asi naiz idazten, gero sortzen diran aurrak, garaira datozenean, jakin dezaten gutxi gora-bera zer jokabide genituen, eta nola-koak batez ere.

Sekulan ez det dirurik izan
baiña bai bizi kontentu.

Auxe kantatu zuen bertso batean nere lagun Uztapide zanak bein. Asko gustatu zitzaidanez, gogoan artu nuen, esaera aberatsa izanik; eta geroztik ez dit burutik aldegin.

Baiña zer bear ote du gizonak kontentu bizitzeko? Maitasuna, konfiantza, osasuna, pakea eta konformidadea; auetxek dirala esango nuke gauzarik inportanteenak. Dirua derrigor bear dala badakigu: baiña bere neurrian, ez zoratzeko moduan. Kapital aundiak dauzkanak geiago nai baldin badu, ezin da ase ta bizimodu txarra seguru eramango duela iduritzen zait. Guk ez degu orrelako arriskurik erabili. Pobrearen etorkizuna juxtua bezin urria baida, onenera jota ere.

Nik ezagutu nuen mutilzaar lasai askoa, sekulan lan konturik aipatzen etzuen. Errezilgo partean, Beaman, baserri batean bizitzen zan ain zuzen, bere anaiarekin batera, parranda galantak egiñez.

Beste anaia langille purrukatua izan bear zuen adibidez, eta aren kontura dotore ibili, batetik bestera paseatuz, ezereen kezkarik eta buruausterik gabe. Ongi bizitzen jakitea da ori noski. Baiña etxean batek zintzotasuna derrigor bear, ordea, besteari nekearen karga astunak kenduko bazaizkio.

Egun batez gogoratzen naiz Aiara nola agertu zitzaidan Beamatar mutilzaarra, lanean ari nintzan tokira. Asteasun amorrai jana prestaturik zeukatela ta ea libre nengoen ara joateko.

— Noiz dezute amorrai jatea: eguerdian edo gauean? —galdetu nion. Eta:

— Gauean —erantzun zidan.

— Bueno, ba, joango naiz. Baiña garai onean bukatuko al da ango pesta?

— Bai, gizona. Afalondoan bertso batzuk kantatu ezkerro, libre izango zera.

Ori esan bai Aian. Baiña gero, Asteasun, gauzak batekoz bestera ikusi nituen. An bazuen jendeak bertso eskea. Goizeko ordubiak aldera lotara joan giñan. Beamatar mutilzarra nuen nerekin. Oe bakarra zegoen gela artan biontzat, eta mutilzar kaskallua sartu barrura oean, eta belaunak okertu ta *cuatro* egiñik jarri zan, erdi-erdian. Ni ixkiñan. Esan nion:

— Toki pixka bat utzi zaidazu, ba!

Ezta mugitu ere. Berealaxe zurrungaz ekin zion. Aiek arnas otsak! Segituan jeiki. Bizkleta zaarra an nuenez, artu ta Aiara joan nintzan. Ogei urte nituen garaiko kontuak. Sekulan ez det iñun ikusi pertsona baldarragorik. Ura zan postura zelebrea etzanda egoteko! Urren-go ez naiz gogoratzen nun alkartu giñan, baiña galdetu zidan:

— Asteasutik gustora joan al ziñan, Lasarte? Ni ez nintzan konturatu noiz aldegin zenduen.

— Oean sartu ta berealaxe jeiki bear izan nuen berriro, pozik gaiñera, zure aldemenean lo egingo duen kristaurik ez dago ta —erantzun nion.

Euriaren eske

GERTAERA au ez dakit noizkoa eta nungoa dan. Baiña nere lagun Uztapide bertsolari zanari entzunda gogoan artu nuen, eta idatzita utziko det.

Urte euritsuak izango ziran leen ere noski, dudarik gabe, legor purrkatuak bezelaxe. Guk, ongi probaturik dauzkagunez, badakigu oien berri, ta bi eratakoak dira txarrak.

Eguzkiaren berotasuna derrigor bear du lurrak. Baita eurijasa gozoak ere. Bestela jai dago nekazaritzan.

Uztapidek kontatzen zuen ixtoria auxe zan, gutxi gora-beera. Erriaren izenik etzuen ematen, baiña urte negargarri utsa nola ezagutu zuten bai. Udaberria eta udara legor purrkatuak omen ziran.

Soroetako gari, arto, babarrun, fruta, belardiak eta gauza guztiak alperrik galtzeko zorian. Ukulluko ganaduak gosez eta egarriz penatzen, erreketan uraren faltan. Inñundik inñola mantendu ezin eta komeri latzetan omen zebiltzan baserritar geientsuenak, legorte bildurgarri artan etsi samaturik, arritzekoa ez danez.

Ukulluko ganaduak ezer ematen ez dutenean, sukaldean ere ez da bizimodu eroso jarriko noski. Ortan ez genezake dudarik eduki.

Baiña gauzak bakoitzak bere konpostura baduela esan oi da: eta, ori sinisturik, erri guztiko nekazariak alkarrengana bildu, itzegin da apaizaren etxera joan omen ziran batzuk, artarako kargua artu zutenak, euria nai ta nai ezkoa zala ta errobatibak eskatzeko asmoa agertu zuela jendeak esanez.

Eta apaizak:

— Oso ongi pentsatu dezute. Egingo ditugu errobatibak fulamentuz eta fede onez. Pozik gainera, nere alde-tik beintzat.

Erantzun egokia eman ziotena. Alaxe, eguna eta elizara joateko ordua erabaki omen zituzten: igande arratsalde, jende geiago bildu zedin.

Bai eliza ederki bete ere noski. Baiña ordurako odei tontor aundi samarrak agertzen asi izango ziran adibidez; eta elizatik santuen imajiñak bizkar gainetan artu ta kanpora irten da berealaxe, izugarrizko trumoi otsak eta tximista suak sentiturik, jende guztiak onela esaten omen zuen:

— Emen degu guk bear genduen!

Eta alaxe gertatu. Baserri aldeak ez-ezik, kale zokoak ere urez ongi osaturik gelditu ziran kontua entzun nuen nik.

Leenengo euri zaparrada asi zuen garaian, gizon bat legorpera sartzen ikusita, kanpoan zeudenak:

— Nora joan aiz bustitzeko bildurrez?

— Ez! Nik bizkarrean artzen dedana lurak faltako duela pentsatu diat!

Erantzun dotorea ta arrazoi egokia denbora berean. Etzebillen burutik gaizki. Euria ez baizuen inork bizkarrara bustitzearren eskatuko, uraren falta zeukatelako baizik. Orixe da derrigor bear dan gauza, ta modu askotarako gainera.

Egarria kendu nai duen bakoitzean, pertsonari ongi datorkio ur fresko sana iturritik edatea, eta animali guztientzat ere serbitzu berdiña duela dudarik ez dago. Ortik aparte, berriz, kanpoari oso premizko zaio.

Lanerako erremintak

BASERRITARRAK lanerako moldez izugarri aldatu-rik daudela ikusten degu garbiro, edozein alde-tara joanik ere.

Nik ume denborako kontuak dauzkat gogoan. Garai aietan laboregintzara jotzen zuen jendeak, eta jateko bear ziran gauza denak edo geientsuenak beintzat etxe-ko lurretan artu. Ez kostatzen noski. Galanki saiatzearen bidez lortu oi zan diodan au.

Lur lanetan erabiltzen zituzten erremintak ere, onak, baiña saillak azkar pasa al izateko oso eskasak era berean.

Emen, Gipuzkoan eta Bizkaian, baserririk geienetan uztarrirako idi pare bikain askoak edukitzen bazekiten leengo nekazariak. Idiak ez du errapetik esnerik ematen familirako; eta lanetik zerbait kendu bear zaio, beste inondik ez.

Ortaz konturaturik, gizon jakintsu batzuk ikusi genituen esaten nolatsu zeuden kanpoko nazio aurreratuetan baserritarrak prestaturik, lana errez egiteko ta bizimodu erosoago bat eramateko ta abar.

Ederki esplikatzen zituzten gauzak: ukulluak berri-tu, idiak kendu, esne bei kalidade ona zutenak erosi, belar zulo egoki antzekoak egin, tratoreak lanerako jarri, belarra ebakitzeko segadora makinak ere derrigor bear-ko zirala, ta poliki-poliki komeni zala zerbait pentsatzen astea alegia.

Ez leenengo itzaldian noski. Baiña azkenerako ulertu arazi zizkioten gauzak baserritar jendeari, ta ordutik sortuak dira emengo aldaketarik aundienak.

Aspaldiko urteetan badakigu baserri asko ustu dirala zoritxarrez. Zer esaten digu gertaera orrek? Ez dagoe-

la etorkizun itxurazkorik inñundik inñolaz ere. Bakoitzak bere etxe aldean gastu galantak egin, aurrerapenak ugaritu, eta orain or dabilta al duten bezela. Ez dakigu nora goazen, gabiltzan bide ontatik.

Berrogei ta amar urte izango dira, esatera ni Joan kaso au entzun nuela.

Erriko pentsu almazena zeukan gizon serio batek bi seme omen zituen, nor baiño nor alperragoak.

Garai artan, nekazariak lurra goldez jira, area gainetik pasa ta sokorra austeko pixu aundiko arri zilindroa erabiltzen zuten ganaduekin. *Alperra* deitzen zitzaion arriari, eta egun batez an dijoakio baserritar bat.

— Zer nai dek? —galdetu dio almazeneroak. Eta:

— *Alperra* falta diat sororako.

— Ez daukak urrutira joan bearrik alper billa. Gure etxean or zeudek bi galantak. Nai dekena eraman ezake —erantzun omen zion almazeneroak baserritarrari.

Bat *alper* arriaren faltan sororako; eta bestea, berriz, etxeko seme alperrekin aspertuta. Aien artean ere baze goen osatu eziña, geientsuenak sarritan izaten degun bezelaxe.

Alper arria, borobilla, alde bietan burnizko kabillak ardatz gisara dituela jartzen da. Orain ez. Lengo kontuak esaten ari naiz.

Gaiñetik egurrezko armazioa eramaten zuen, gurdi batek bezela, pertika luzearekin; eta ura ganadueri erantsi ta erabiltzen zuten.

Orioko apainketak

ORIORI buruz itzegiteko asmoz nengoen aspaldi-txoko egunetan, eta gaur det ortarako pare gabeko aukera esku artera etorri zaidana.

Nere iritzi pobreak ezer gutxi balioko dute noski; baiña aleginduko naiz ikusten eta entzuten ditudan gauza batzuk idazten.

Orio asko apaindu da azken aldiko urte auetan. Leengo etxe zaarrak bota eta berriak egin dituzte, ugari antzean gaiñera. Alperrik zeuden terreno saillak ederki aprobetxatu ere bai bide batez.

Ortxe daude begien bistan, zubi muturretik asi ta Donosti alderako kamioaren ertzean, eskubitara, etxe berri dotore askoak, bata besteari loturik bezela, alkarren segidan.

Leen otel bat zan diodan zubi mutur ortan, *Toki Alai* izenekoa. Lan asko erabiltzen zuten udara partean batez ere. Beraneantez edo kanpotarrez dena betetzen baizitzaioten.

Bertako nagusi zaarrak, Joanito zanak, zenbat lan egin ote zuen bere bizitzan? Sukaldaritzan oso ona izan bear zuan adibidez. Nik baiño obeki zekitenak aitortzen zuten ori.

Aldemenean beste ostatu txiki bat ere beti ezagutu genduen; baiña biak batera ezkutatu ziran, kontratistak erosi zituenean.

Diodan etxe aiek atze aldetik zeuzkaten terreno inportante samarrak; eta kamioaren ondoan, berriz, mekaniko tallarrak bi, *Ondozabal* eta *Zaldua* izenez ezagutzen genituenak. Ebanisteri bat ere bazuten aldemenean: *Muebles Aramendi*.

Emen aipatu ditudan auetaz aparte ere, etxe zaar-
tuak eta txabolak ugari antzean ziran. Baiña, obrak egi-
ten asterakoan, denak bota, txikitu ta zaborreria eraman
zuten.

Nora? Orixe da jakin ez dedana. Baiña urrutira joan
bearrik etzan izango noski, arriz eta lurrez betetakoa
ustutzer. Ortarako leku ederrak badaudela uste det
Orion bertan.

Dana dala, lur saillak ongi banatu ta etxe bizitza
berri pranko zutitu zituzten; eta orain leen baiño itxura
dotoreagoa dauka erriaren sarrerak.

Obra oiek asi aurretik, zubiari tunela atera zioten,
kotxeak azpitik pasa zitezen; eta oso ederki moldatzen
dira, inguru artan ibili bear dutenak ez-ezik, kale aieta-
tik egunero kanpora lanera edo beste zerbaitetara joate-
ko ere, iñungo trabarik gabe.

Puntu egokian omen daude, batzuek diotenez, etxe
oiek. Umeak jolaserako ere aukerako tokiak dauzkatela
esan genezake bertan; eta, zaar jendearentzat paseatze-
ko, espaloi dotore askoak jarri dituzte, kamioaren esku-
bi aldetik, erriuari pareta eginda txukun. Baita, ibilian
nekatzen diranentzako, bankillo edo exerleku ederrak
ere badaude, lasai atsedentzeko.

Aipatu ditudan oiek guztiak gauza politak iduritzen
zaizkit. Baiña giroak lagundu bear du leenengo. Egural-
di onak, alegia. Bestelakoan, ez dago gozamen osorik.

Etxe barruan sartu ta iñora irten gabe dagoenari,
eguna luze joaten zaio. Ari gorputzak kanpo libreko aize
sanoa eskatzen dio, premizkoa duen bezela. Ori orrela
da.

Bizkai aldeko albisteak

BIZKAI aldeko albisteak eman nai nituzke gaur nere atal ontan, ez ordea atzo goizekoak, aspaldiko pasadizo zaarrak baizik.

Berrogei ta bi edo iru urte izango dira gutxienez ere, Bizkaiko Lemonatarren deia jaso genduela bertsotarako, Basarrik artu zuen abixoa, ta gero neri pasa: gu biok nai ginduztela eta ea libre ote geunden, egun guztirako ta gauerako; orixe jakitea komeni zitzaioleta lenbailen, ango jendeari esateko.

Ez dakit zenbat egun zeuzkaten izentatuak pestarako, gai ortan ez bainuen iñorekin itzegin.

Baiña gu igande goiz batez Zarautzen leenengo trenean sartu ta joan giñan, itza eman genioten bezelaxe; ta an genduzkan zai jai eratzailleak ostatuan, gu noiz iritxiko, gosari eder batekin konbidatzeko asmoz.

Maian exeri, jan eta edanez ase, alkarrizketa gozoak erabili ta dotore jarri giñan, bertsotarako ez-ezik, paseatzeko ere. Baiña eramandako eginkizuna bete bearrekoa zala bagenekigun, eta artantxe jardun giñan agindu ziguten garaian, borondaterik onenez.

Eguerdiko pesta jendearen gustokoa irten zala zirudien. Alamoduz itzegiten zuten beintzat geientsuenak gure bixtan.

Soiñujole onez, dantzari ederrez eta bertsoz ongi osatutako jaialdia, itxura baterako, entzule jendea kontentatu ikusteak poz aundia ematen dio plazan lanean ari dan pertsonari dudarik gabe.

Nik ikusi izan ditut prankotan soiñujotzaille bikaiñak izerdiz bustirik eta aspertu eziñik. Zer ote da ori ekartzen duena? Pesta giro onaren gozamina, nere ustez. Soiñu jotzen gogotsu jarduteko, gazte sail bat

dantzan txaloka ta pandango bat bukatu orduko bestea eskatzea bezelakorik ez dagoela esango nuke. Zaletasun ura ikusteak berotu ta jo araziko baidizkio dakizkien guztiak.

Bertsolarien kasoan ere gauza berbera gertatzen da. Entzule jendearen txalo zaparradak eta parre algara gozoak kantatzeko gogo berezia eman oi dute. Emen aipatzen ditudan auek denak bagenituen Basarrik eta nik, Lemonan izan giñan egun artan.

Gauean ere bai. Pake eder askoan afaldu, bertso batzuk kantatu, bertan lo egin eta urrengo goizean etxera.

Baiña andik bi urtera berriro abixatu ziguten Lemonatarrak: Uztapide ta Lasarte eskatzen zituela jende askok, eta ea joateko modurik bai al gendukan. Neri Uztapide zanak deitu zidan telefonoz. itz auetxek esanez gutxi gora-beera; ta biok nola joan giñan gogoan daukat oraindik ere.

Oroigarri onak ez dira nolanai aaztutzen; ta, guk oietakoak ugari antzean ditugunez, ixillean gordetzeko bezin egoki gaude erriaren bixtara agertzeko.

Dana dala, Uztapideri izugarri gustatu zitzaion Lemonan pasa genduen eguna, ta gaua ere bai, neri bezelaxe.

Beste batean, berriz, an bertako bertsozale purrukatu batzuek bazkari aundi bat antolatu zuten. Soiñujolea bazan, baiña une ontan ez naiz gogoratzen nor. Bertso-tan Joxe Lizaso ta biok giñan gustora jardunak.

Ilbeltzaren edertasuna

ARRIGARRIA benetan askoren iritziz Ilbeltzak 1995-ean erakutsi zuen borondate ona.

Koarta temporak ez dutela ezer esan nai, eguraldia dagokionean, sarritan entzunak gera batzuen aotik. Beste asko, berriz, oieri begira egoten dirala badakigu, urte guztian esate baterako, naiz eta iru illabetetik bein izan beroien txanda eta ona edo txarraren erabakia artu bearra.

Gu beti dudan bizi gera. Ilberria edo ilbera baldin badira, koarta tenporak zergatik ez ote dute izan bear? Dana dala, nik ez nuke aurreragi sartu nai gai ortan, badaezbada ere.

Baiña lengo zaar jendeak fede aundiz aipatzen zituzten koarta tenporak. Arreta bizia zioten, eta Arantzazuko fraileak ere oiek artzen dituela oiñarri bezela dirudi. Beraz, or badago guk ikusten ez degun zerbait ezkutuan, eta berari komeni zaion garaian agertzen dana.

1995-garren urteko ilbeltzaren antzekoak gutxi eza-gutuko ziran gure lurralde auetan adibidez leen; eta aurrekoan ere kostako da noski. Agian berdintsuak egin lezazke, ori bai, baiña obeagorik nik neronek ez det espero, eguraldiaren aldetik alegia.

Iru edo lau jela bota zituen minberatzeko modukoak. Baiña, gaiñontzean, tarteka euri gozoa noiznai, ta egoaizea nagusi, baiña gelegizko arrokeririk gabe, tamaiña ederrean kanpoarentzat.

Larrean zebiltzan ganadu, ardi eta bestelako abere guztiak, dotore antzean pasako zutela derizkiot ilbeltza, belar berri freskotik naikoa janez, aukera zeukaten ezkeru. Udaran bezelatsu irabazten baizuen belarrak,

eta baserritarrak segaz ebaki ta eramaten zituzten gurdikada galantak etxera.

Itxasoa, berriz, iñun kabitu eziñik, borroka bizian ibili omen zan, arrapatzen zituen ondasun guztiak txikitzeko moduan. Estranjerian, batez ere, aberi bildurgarriak egiña izango zan, guk entzuten genduenez beintzat, Alemani aldean, Frantzian, Olandan eta abar.

Nik telebistaren bidez ikusi nituen urak neurritz kanpora irten da nola zebiltzan indar ikaragarrian.

Emen bertan ere errez asarretu oi zan, sarritan gaiñera. Baiña alpertsurik. Kontrario gogorra agertzen ziztaion, eta arek umildu arazitzen zuen.

Orion badira gizonak, egunero ondartzara edo barra-ko muturreraiño paseatuaz, itxasoaren mugimentuak ikustera eta zaintzera joaten dakitenak. Nik neronek ortarako apiziorik ez dedanez, aiengandik jakin izan ditut gauzak, onak bezela txarrak ere.

Itxasoan arrantzan urte batzuetan ibili zan adiskide batek onela esaten zidan:

— Guk suerte ederra badaukagu baztar ontan eguraldiarekin. Egoaizeari eskerrak eman bear genizkioke. Itxas aldetik datozen borrhaskak orrek bialtzen ditu aurrean artuta emendik kanpora.

Baliteke ori egi osoa izatea. Nik sinistu nion. Etzan gutxiagotarako, gaiñera, 1995-eko ilbeltzaren portaera ikusita. Egun onak asko eman zizkigun, eta txarrak konta ala.

Goizean, oetik jeikitzean, Ernio mendira begiratzea aski zan, zertsu girotan bizi giñan jakin al izateko. Ura argi baldin bazegoen, egoaizea dantzan seguru.

Neguaren albisteak

NEGUARI bildurra nork ez dio, txarrera jotzen duenetan batez ere? Ain da gauza tristea, eguna motza eta gaua luzea berekin dituenetz. Illunpetan ordu asko pasa bear izaten baidira.

Aspaldiko urteetan badago oitura orduak aldatzeko. Argi indarra gutxiago gastatzearren egiten omen dute ori, guk entzuera daukagunez beintzat.

Leen etzan erloju aukera izugarrizkorik baserri batzuetan. Nik, gure etxean ume edo mutil kozkorra nintzan garaian, paretan zintzilik egukitzen zuten erloju aundi baldar bat ezagutu nuen.

Noizean bein ama zanak kuerda ematen zion, eta antxe jarduten zan *triki-traka* errota baten antzera, gau ta egun martxa berdiñean. Baiña batzuetan, kuerda ematea aaztutzea aski, ixilik gelditzeko. Alimentua bear derrigorrez arek ere lanerako, legezkoa dan bezela.

Urte aietan eguzkiaren baitan egoten ziran egunezko ordurik geientsuenak. Gure Franki baserriak, teillatua zabal zuenez, eguzkiak ura arrapatzean, eguerdiko ama-biak juxtu izaten omen ziran. Teillatuaren ertza jotzen zuen garai berean lurrean pare-parean itzala markatu oi zuela badakit nik ere. Ortaz udaran konturatzen giñan errezena.

Eta, lentxeago genion bezela, paretako erlojua geldirik baldin bazegoen, kuerda eman da martxan jarri eguzkiarekin batera, lanean jarraitu zezan.

Orrelaxe jakiten genduen ordu bakoitzaren berri, oker aundirik gabe gaiñera.

Garai aietan, beso muturreko erlojurik etzitzaion iñori ikusten. Gerora agertu ziran, eta gaur umeak ere badauzkate.

Gure gazte denboran patrikan edo gerrian katiatuta erabiltzen zituzten, erloju kate luze samarra zutenak. Baiña ez denak; banaka batzuek bakarrik. Erosteke dirua bear eta ura falta. Gaitz klase ori askok zutela badakigu, guk ez-ezik.

Dana dala, orduak zuzentasun aundia erabiltzen du, udaran bezela neguan. Egunez eta gauez beti berdin korritzen duenez, errespeto izugarria jartzen dio gizakia-ri; ta, ori aintzat artuko ez balitz, ez legoke zer egiñik.

1995-eko martxoaren 21-garren egunean sartu giñan udaberrian. Baiña, berari dagokion moduan, urrengo batean itzegingo degu astiro.

Gaurko atal ontan neguaren albisteak eman nai nituzke, gogoratzen zaizkidanak beintzat. Bukatu ote zigun negua? Auxe da nere galdera, eta denborak esango duela derizkiot.

Ilbeltza, otsailla eta martxoa etziran ain gogorrak izan, eguraldiaren aldetik. Emen, gu bizi geran txoko auetan, lainoz estaliak eta goibelak egun asko. Baita euria ere aukeran. Baiña eguzkia oso urri ikusi zala esan zidan kanpoan goiz eta arratsalde ibiltzen dan adiskide batek.

Itxasoa, berriz, borroka bizian, iñun kabitu eziñik, sentitzen zan negu guztian. Jotzen zituen golpe bildur-garriak; baiña egoaizea nagusitzen zitzaion geientsuene-tan. Oiek biak ez dira alkarrekin ongi konpontzeko moduko prenak, batek besteari txanda ematen ez daki-telako.

Gaiñontzean, zer esan genezake pasatako neguari buruz? Nasketa asko erabili zuala alde batzuetan, lan txarrak egin ere bai, ta abar.

Azpeitin gertatua

AZPEITIN gertatua omen da idatziko dedan pasadizo zelebre au.

Auskalo zenbat urte diran nik ikasi nuela ere, ta ordurako zaartua zegoen kontua. Gure txiki denborakoa gutxienez ere, aundiak bein ere ez gera izan baiña. Berdintsu dala uste det kaso ontarako.

Azpeiti erri sonatua degu, edozeiñek dakien bezela, eta modu askotara gaiñera. Ain zuzen apusturako griña dexentea ere badu alde ortako jendeak. Zezen plaza dotorea daukanez, joko klase ugari jokatu izan dira bertan: korrikalari, arri jasotzaille, aizkolari ta abar.

Baiña denetan geiena aari talkalarien borrokak. Urtearen aurrenetik azkenera bitartean nik ez dakit zenbat jokutzen dituzten, garbi esateko. Baiña entzuera dedanez, asko. Igande batzuetan iru edo lau igoal. Bat bukatu orduko bestea, alkarren segidan; eta diruak aldaketa aundiak erabiltzen omen ditu gaiñera.

Animali oiek, talkan asi ta buruak berotzen zaizkiotenean, jo ta jo antxe jarraitzen dute alkar txikitu bearrean.

Apustu asko jokatutako aariari azkenerako buruak arrak sortzen zaizkiola sarritan entzunak gera. Ortik pentsatu leike zertaraiñoko golpe txarrak artuko dituen, ematen dakien arek. Burua usteldu bizirik dabillega, alajaiña, iñor konturatu baiño leen.

Atal onen asieran aipatzen dedan bezela, ez dakit noizko gertaera dan. Baiña egun batez aaria apustua galdu, bere jabeak eramandako diru geienak ere bai, ta triste bezin serio badijoa estaziora, aaria faturatu, trenaren atzeko bagoi itxian sartu ta etxera edo erriraiño eramateko asmoan; eta takillan dagoenari eskatu dizkio aariarentzat eta beretzako txartelak.

Baiña takilleroak ordurako jakin trenaren bagoian etzegoela toki librerik, eta onela dio:

— Aaria ez daukazu trenean eramaterik gaur, bada-
kit atzeko bagoia dena tresnaz beterik dakarrela ta. Zuri
bakarrik emango dizut billetea, nai badezu.

— *Bueno*, ekatzu, ba. Ni exerita joango naiz; eta
aariak badaki etxerako bidea ta konponduko da noski.
Leen plazan berak jakin du nola jokatu ta orain ere
asmatu dezala —esan takilleroari ta martxa kanpora.

An aariari katea adarretan lotu ongi ta, trena esta-
ziora iritxi danean, atzeko bagoiari katiatu edo erantsi
aaria ta bera sartu barrura. Exeri trenean dotore asko
ta aurrera.

Baiña ez naiz gogoratzen une ontan, garbiro adieraz-
teko, zein estaziotan gelditu bear zuen: Zestoan, Iraetan,
Lasaon, Arruan edo Zumaian.

Dana dala, bere errira iritxi ta trena geratu orduko,
jetxi ta an dijoa korrika atzeko bagoira gizona, aaria
askatzera; eta katea bere adarrekin zintzilik aurkitzen
du, baiña aariaren arrastorik ez iñun, eta amorru bizian
onela dio gizonak:

— Au dek marka, aari txotxolo orrek egin duena!
Apustua alperkeriz galdu; neri, neuzkan diru denak ere
plazan galdu arazi; ta orain bere adarrak, kate ta guzti,
trenari erregalatu ta kito. Auskalo nora joan dan, leen
ere amaika alukeri badik egiña ta.

Baserritarren bizimoduaz zerbait

BASERRIZ baserri sarritan ibilia naizenez, gaurko atal ontarako ere orixe aukeratu det: nekazari-tza, alegia; sekulan bukaerarik billatzen ez diogun gai mota ugaria, eta zer itzegiña pranko jartzen duena gai-ñera baztarretan. Zer da baserritarren bizimodua? Lotua eta neketsua benetan, naiz eta tarteka egun batzuk lasai antzekoak izaten dituzten arren.

Etxe aldean ganadu asko dauzkanak erabiliko duela derizkiot burua bete pentsamentu.

Leen ukullutik atera gabe eduki oi ziran ganaduak, bear zuten janaria bertara eramanez; eta gaur, berriz, kanpo librean bezelatsu dabilta.

Baserritar bakoitzak bere terrreno saillak alanbre arantzadunez itxita dauzkanez, etxeko larrearen bidez mantentzen dira, auzoko iñori kalterik egin gabe.

Baiña udarako kontuak esaten ari naiz bereziki. Neguan ezer gutxi billatuko dutela uste det kanpoan jateko; eta belar ondua edo berde dagoen bitartean apraposko zulora sartu ta an kontserbatzen dana eman bearko zaiote derrigor. Eta, ortik aparte, arbia, erremolatxa, lasto motza, alpapa legortua ta abar. Nik janari auek izentatu egin ditut, etxe batzuetan erabiltzen dituztela jakiñik. Baiña ez nuke esan nai baserri denta ganaduak berdin gobernatzen diranik, badaezbada ere.

Gizon bakoitzak bere modura pentsatzen ditu gauzak ortan ere. Batzuek pentsu almazenean diru gutxi botatzen dutela badakigu, gastuz bildurturik; eta beste askok, berriz, erosi ta eraman galanki, ta ortan arrazoi

osoa daukate gaiñera, nere ustez. Ganaduari leenengo aotik eman bear zaio, gero errapatetik kendu al izateko.

Kanpoan artzen duen aize sanao izugarri ona omen da ganaduaren osasunerako. Nik sinisten det ori.

Baiña terreno eder ugari alperrik galtzen ari dira aspaldiko urte auetan. Belar zelaiak ikusi besterik ez dago. Denak txikituta daude, batean tontorra ta bestean zuloa. Ganaduak, asko ta egunero dabillen terrenoa ankaz ebakita utzi oi du, kanpoa euriz aseta dagoenean batez ere, ondoa edo zolua biguna egoten baida.

Leengo aitonak bizirik baleude, ez luteke ontzat artuko jokabide ori. Aiek soroak eta belardiak txukun eta garbi zaintzen zituzten. Bai mendi ta basoak ere.

Gu mutil gazteak giñan garaian, emen Oriotik asi ta Aiara bitarteko belar zelairik geientsuenak sagar zugaitzez beteak ziran. Ura zan edertasuna ikusten gendue-na, alde guztietara begiratzean! Orain nun dira sagasti zoragarri aiek? Iñun ez. Izentatu ditudan sail auek larru gorrian daudela dirudite. Lanerako jenderik ezak ekarriko zuen akats ori.

Azkoiti aldeko albisteak

AZKOITI aldeko albistez jantzita osatu nai nuke gaurko ataltxo au, irakurle. Zuretzako mesederako balitz, nerekihoa egiña legokela dudarik ez eduki.

Azkoiti erri ona izan da gure garaian pestak antolatzen eta ikuskizun politak jartzen, jendearen atsegingarri. Nik neronek iritzi ori daukat. Agian oker egon niteke, baiña ez det uste diodan au iñork gaizki artuko duenik. Baillara dotoreak ere baditu: Urrategi, Martita eta nik ez dakit zenbat geiago, seguru esateko, une ontan, naiz denak ezagutuko nituen bertsolaritzaren bidez. Ikasi bezela aaztu askoren izenak. Orixe da gertatu zaidana.

Azkoitiko Martita oso baillara polita iduritu izan zait ikusi dedan bakoitzean. Bertan bizi diranak obeki jakingo dute ango berri. Ortan ez nuke dudarik jarriko. Urtean bein edo bi aldiz bisita eginda bakarrik, ezin leike ezer erabaki, ordea. Eguneroko martxari begiratu bear zaio ortarako, zer etorkizun daukan ango bizimoduak jakin al izateko alegia.

Ni bertsoan prankotan jarduna naiz Martitan, gustora gaiñera. Lagunarte leiala bezin aberatsa billatzen bainuen. Borondate oneko jendea, garbiro aitortzekotan. Uztapide zana ta biok joan izan giñan. Zenbat aldiz ez dakit, seguru esateko. Baiña orrek ez du ainbesterañoko garrantzirik izango noski kaso ontarako. Basarriekin ere kantatu nuen Martitan. Zein urtetan eta zenbat bider ez daukat gogoan. Beraz, aspaldiko kontuak diranez, Uzta-pideren modu berdiñean gelditzen naiz Basarriekin ere. Beste bertsolaria, berriz, Imanol Lazkano Azpeitiko da nerekin kantatu zuena, bein beintzat seguru, ta agian bitan ere bai, Martita baillarako pestetan.

Orrela ibili bear izaten nuen batzuetan, txandaka lagunak aldatuaz, idi ezkerraren antzera. Baiña geien-tsuenetan kontentu. Mendi erromeri sano aiek beti gustatu zitzaizkidan asko.

Jende ezaguna eta patxadazkoa ikusten nuelako edo ez dakit zergatik, baiña egun zoragarriak pasa genituen baillara polit artan, pake ederrez eta umore onez jantzirik.

An bazan *Sankristaua* deitzen zioten gizon atsegin bat. Elizako lanak berak egingo zituen noski. Gauzak ala du itxura, nik sekulan galdetu ez nion arren. Ostata edo jatetxea ere elizaren aldemenean bertan edukitzen zuen, gu an ibili giñan garaian. Oraingoz ez dakit nola jarraitzen duen. Pestak ziran egunetan leporaiño beterik ikusten genduen ostatu ura. Mostradorean eta jangelan lana buruz gain erabiltzen zuen famili guztiak.

Eguraldi onak laguntzen zuenetan, inguruko jendeak, batez ere, bazekien nora joan paseatuaz, denbora pasa. Baita urruti antzekoak ere. Baziotela maitasuna esan genezake Martitari.

Mendizalea danarentzat gustagarri ote dan iduritzen zait baillara dotore aidoso ura, noizean bein bixitatzeko beintzat.

Nik neronek pozik artzen nituen andiz zetozkidan abixoak, eta beste bertsolariak ere bai noski. Entzule onak biltzen zitzaizkigun, eta ilusio aundiz kantatzen genduen.

Oraindik balegoke zer esana, baiña urrengo baterako utzi bearko.

Agiñetako San Martiñetan

ZUMARRAGATIK urrean dagoen Agiñetari buruz itzegin naia azalean neukan, aspalditxoan zirika ari zitzaidana; eta gaurko atal ontan ea ematen ditudan ango albiste zarrak. Nik oraingo berririk ezer gutxi dakidanez, lengo gertaerak kontatzea izango det onena noski. Azkeneko amar urte auetan ez diot bisitarik egin Agiñetari; baiña ezin niteke iñoiz aaztu baillara polit euskaldun artaz.

Udazkenean San Martiñetan ospatzen dituzte bertako pesta nagusiak, dotore antzean gaiñera. Eguraldi onak laguntzen duenetan, jendetza aundia inguratu oi da mendigain sano artara.

Zumarraga, Urretxu eta Azkoiti oso urrean dauzkanez, iru erri oietatik asko joaten ziran leen, denbora pasa zeudenak paseatuaz. Goizeko meza entzun eta ondoren ostatuan amaiketako itxurazkoa egin. Besterik ezer baiño leen, orixe gustatzen zitzaioten, arrazoizko gauza dan bezelaxe; eta gero plazan eguerdiko pesta ikusi, bazkaltzera bitartean.

Gazte jolas politak antolatzen bazekiten: txirrindulari, aizkolari eta ikuskizun geiago ere bai, nik une ontan gogoan ez ditudanak.

Soiñujole jakiñekoa erabili zuten urte mordoan Agiñetan: Maltzeta, bere alabak panderoz eta kantu alaiez laguntzen ziola. Oso gazterik ekin zion neska koskorrak aitarekin batera erriz erri ibiltzeari, artean ume zegoela, egia esatekotan. Batzuetan geiegi nekatu ere egingo zalakoan egoten naiz ni neroni beintzat. Eguna eta gaua luze samar joaten baidira erromeri kontuan ere.

Ongi gobernatuta dagoen jendea nekez ez da gogoratzten, gustora dabillenean. Baiña ume bati etzaio kome-ni parranda geiegizkorik eta gauetzko lo gozoa alperrik galtzerik.

Agiñeta mendi baillara polita iduritu izan zait beti. Goi samarrean dagoenez, aize otzak indar aundiz astintzen duela badakigu, San Martin inguruan batez ere, urte garaia alamoduzkoa izanik. Ez da batere arritzeko gauza gaiñera.

Egun batez gogoratzen naiz. Agiñetako partean, beean, apeadero txiki bat bazan, oraindik zutik egongo dana seguru asko, Urolako trenarena. An jetxi eta oiñez igo giñan basoz baso Uztapide zana ta biok Agiñetaraiño. Eguraldi txarra egokitu zitzaigunez, batetik busti eta bestetik lokatzez zikindu, biak batera egin genituen. Ez da oraingoxe kontua. Auskalo zenbat urte diran.

Agiñeta baillaran bertso asko kantatua naiz ni. Uzta-pide, Lazkao-Txiki, Joxe Agirre, Joxe Lizaso, oiek erabili nituen lagun, txandaka. Goiz partean saio bat eta arratsaldean bestea izan oi ziran plazan. Edo, bestela, elizak saiets aldetik zeukan estalpean. Kanporako giro txarra zegoenetan, kantatzen genduen, diodan legorpe artan. Egun batez, ostatuan nengoela, mutil gazte bat inguratu zitzaidan zirikatu nairik, eta onela dio berak:

— Ori dek gizonaren planta daukakena, Lasarte! Gibeletik al ago?

— Ez. Urdailletik nabil gaizki. Ta, medikuak sendatu ezin zutenez, kurandero batengana joan nintzan, eta arek esan zidan aize asko neukala urdaillean.

— Orduan urdaillerako txarra izango da aizea?

— Baita bururako ere.

— Nola dakizu ori?

— Zure arrazoiak entzunda —erantzun nion.

Udazkena

UDAZKENA datorkit gogora une ontan. Aspaldiko urteetan ikaragarri ongi portatzen zaigula esan bearrik ez legoken arren, mereziko du aipamen berezi baten bidez eskerrik beroenak ematea.

Emen, Orion bertan, jaio ta bizi dan aitona zaar batek larogei ta bi urte ditu; baiña, oraindik ibiltzeko almen aundia daukanez, egun bakoitzean bi aldiz joaten da Orioko barraraiño itxasoa zer tankeratan dagoen ikustera.

Eta, ortik aparte, denboralea markatzen duen egunkariko mapari arreta izugarritz begiratzen diola badakit; eta barometroari ere bai.

Gu baiño errezago konturatzen da diodan gizon ori eguraldiaren aldaerak datozenetan, eta esplikazio zeatzak sarritan eman izan dizkigu dotore asko.

1994-garren urteko amabi illetan onena Azaroa omen zan, berak zionez; eta ortan etzuen deskuido aundirik erabiliko.

Azaroaren leenengo egunean, Santu guzien jai berezia ospatzeko oitura degunez, kanposantura joan giñan lore batzuk eramatera, urtero bezela, ta ura zan giro zoragarria zegoena! Eguzkiak ederki berotzen zuen. Ogei gradutik gora pasata zebillela esan zidaten, eta nik sinistu nuen. Bada zerbait urte garai ortarako.

Baiña etzan, ordea, egun bakarra. Asieratik bukatu bitarteko dena izan genduen on aparta Azaroko illea. Aaztutzerik merezi ez luken oietako bat, nere ustez beintzat.

Eta lentxeago aipatu dedan Orioko aitonaren iritzia ere berbera dala segurantzi osoa daukat, neronek ikusi nuelako. Kanpoari begira aspertu eziñez egoten nintzan

etxetik irtendako une guztietan, zeukan edertasunez erdi zoraturik. Udaberri on batek babesturik bizi giñala zirudien.

Euri jasa gozoak noiznai oparo; egoaize epela auke-
ran, lurraren berotasuna mantentzeko; gauetan goiak
argi eta soro baratzetan intza nabaitzen zan goizean,
oetik jeiki ta leiotik kanpora begiratzean.

Itxas aldean, berriz, eguraldi txarrak erabili zituztela
batzuetan entzundako errezelotan nago. Ori maiz gerta-
tzen da. Itxasoa asarretu ta borrokan dabillen garaian
egoaizea ateratzen baldin bada, kontuz. Orrek nastu
arazi oi dizkigu sano daudenak eta erdi zoro guztiak.

Udazkenean lurrak ematen dituen labore ta ondasu-
nak gozatzeko bearrezkoa dala ere badakigu egoaizea.
Bere galga modu batean, ordea; geiegi arrotu gabe.

Baiña indarrez neurritz kanpora irtenda dabillenean,
ez daki ezer errespetatzen. Berak bakarrik agindu nai
izaten baidu, ta pikardi galantak egin gaiñera deskui-
datzen danari.

Udazken onak pasa dira errez asko aspaldiko urtee-
tan. Baiña 1994-koa bezelakorik ez dakit noiz ezagutu-
ko zan.

Eguraldiari buruz ari naiz idazten, gaiñontzeko gora-
beeretan sartu gabe alegia. Urrilla eta Azaroa eder pare-
gabekoak ziran. Kostako zaigula derizkiot berriro
alakoak ikusten gure lurralde auetan.

Abendua bera ere Gabonak bitartean ongi portatu
zitzaigun. Baiña gerora zitaldu. Negu beltzari asiera
gogor samarra eman ziolakoan nago ni neroni beintzat.
Dana dala, urteak aurrera dijoazkigu.

Gatzaga

SALINAS de Léniz erderazko izena duela uste det aipatzera nijoan erri onek. Baiña Gatzaga deitzen zioten euskeraz leen bertan bizi ziranak. Oraingoz ez dakit erdera edo euskera bietan zein erabiltzen duten ugariena. Bitoritik amabost kilometro onuntzago egon bear du Gatzagak adibidez, eta alde artara jo ta Gipuzkoaren azkeneko erria bera omen da, ni gaizki ulertuta ez banago beintzat.

Gu bi urtetan izan giñan bertsoan Gatzagan Uztapide zana ta biok. Aspaldiko pasadizo zaarra da au ere. Berrogei urte gutxienez edo agian geiago izan litezke, segurantzi osoz esateko moduan ez nagoen arren.

Uztapidek goizeko sei ta erdietako trenan artzen zuen Donostiko Amaran Bilbaora zijoana; eta nik emen, Orion, uraxe bera zazpiretan, Maltzagaraiño. Gero, an trenak alkarri itxogiten ziotenez, kostakoa utzi ta Bitorirakoa artzen genduen. Batetik bestera aldatu, alegia. Orrelaxe moldatzen giñan Plazentzitik gora dauden erri askotara joan al izateko.

Beste batzuetan, berriz, Maltzagan trenetik jetxi, kamiora irten eta, autobusak geltokia bertan zeukanez, antxe sartu ta aurrera. Zer zan egokiena, arixe eldu. Autobus ederrak ziran *Vergaresa* izenekoak. Eibarren zeukaten garaje inportante bat, eta Bergaran ere bai, ta auskalo zenbat erritan nik ez nekizkienak. Jendez ongi beterik ikusten genituen sarritan. Ez dakit noiz edo zein urtetan jarri zituzten *Vergaresa* izeneko autobusak martxan. Baiña trenari ipurdiko latza emango ziotelakotan nago.

Dana dala, Gatzagan bertsoak entzuteko zaletasuna bazegoela zirudien garai artan, guri iduritu zitzaigunez.

Baiña gerora ez nuke esango zenbat jarraitu dioten bertsolaritzari. Nik ez baidet ango iñorekin itzezin aspaldiko urteetan. Baiña gurekin oso ongi portatu ziran gatzagatarrak, joan giñan bi urte aietan.

Gaur erriz erri dabilzan bertsolariak kotxe dotoreak nola dauzkaten, oientzat paseo bat bezela litzake Gatzagatik buelta egitea. Guk ez genduen, ordea, ezere laguntzarik eta ibilirako erreztasun apartekorik. Egun batean joan da bestean etorri bear derrigorrez, trenean edo autobusean.

Noizean bein presa zalako tasisa artu ezkerro, arek kentzen zizkigun kostata irabazitako sosak. Ez baizeukan guri debalde lana eginda berak ogia jaterik, eta arrazoi aundiz kobratzea zegokion tokatzen zitzaiona, ta guk ordaindu bearra gendukan zor geniona, kitoan gelditzeko, geroko kezkarik gabe.

Urte aietan ez genduen jakiten etxetik kanpora bertsotara irten da berriro noiz itzuliko giñan, seguru esateko beintzat.

Baiña baziran maite ginduzten pertsonak ere kotxea eskuetan zeukatenak eta asko laguntzen zigutenak, utsaren truke erri batetik bestera aldatzerakoan. Gauza ixtimagarria zan benetan aien borondate ona. Iñundik iñolaz nai bezela eskertu ta ordaindu eziñekoa noski.

Euskal Errian adiskide zintzo ta lagun leialak asko izan ditugula pentsatzen dedan bakoitzean, poz aundi batek asetzen dit biotza.

Aramaiona

ARAMAIONAKO gertaera batzuen bidez osatzea pentsatu det gaurko nere ataltxo au.

Sarritan, idazteko gaia billatzen kostatzen da geienbat. Orrek ematen ditu buruko miñak, txukun antzean itzegin nai bada beintzat; eta nik ikusi edo sustraitik ikasi ez dedanik ezin nezake esan iñolako moduz, pape-rean idazterakoan legez.

Baiña lege ori austen erreza dala badakit, ordea. Erdizkako gezur txikia beste pusketa bat erantsi ta ederki osatu oi danez, ez du ainbesteraiñoko garrantzi-rik, iñori kalterik egin ezean.

Txistek ere bakoitzak bere modura kontatzen ditu emen. Egi utsarekin ez dakit nor biziko dan oraingoz.

Pixkana-pixkana Aramaiona aldera itzuliko naiz, asieran aipatzen dedan bezelaxe.

Egun batez, pestak urreratzen ari zirala ta bertso-tarako abixoa artu genduen erri polit artatik. Zenbat urte diran ez det esango. Bestela, au ere gezurra izango bai-litzake, seguru samar.

Aspaldi pasatako kontu zaarrak burutik aldegin didate; baiña ez den-denak. Batzuk gelditu zitzaizkidan betiko gogoan.

Angiozarko itxua Felix soiñu jotzaille sonatuak ixti-mazio izugarria zeukan garai artan, erri askotan bein-tzat; eta ura eraman zuten Aramaionara ere.

Pianoko soiñu aundi bat erabiltzen zuen Felix itxuak. Baiña trikitilarien pieza edo fandango klaseak ere dotore jotzen zituela jakiñik, dantza librean gazte jendeak egin zezan naiko zuten jai eratzailleak, leengo erriaren oitura zaarrak mantentzearren agian.

Eta pandero jotzaille artista bat jarri zioten soiñu joleari lagundu zezaion. Artxandatarra izan bear du diodan panderista onek berez.

Azpeitiko Joxe Lizaso ta biok goizean leenengo trenara artu ta joan giñanez, naiko denbora bagendukan. Gosea ere bai, ta ostatu batera iritxi orduko inguratu zitzaigun panderista, eta alkarrekin gosaldue genduen. Artean mutil gaztea zan, gu bezelaxe.

Gero, eguerdiko pestari asiera emateko, bertsolariak bear omen zirala esan ziguten; eta agindutako lanak egin genizkioten Joxe Lizasok eta nik, Lasartek.

Ondoren, berealaxe ekin zioten Angiozarko Felix itxuak soiñua astintzen bizi asko; ta artxandatarrak, berriz, garbiri erakusten zuen jolaserako gogoia zeukala. Ura zan panderoa erabiltzeko modua. Zirkoko artista bat zirudien, zerbaitekin konparatzekotan.

Aramaionako plazan jendea ederki gozatu arazi zuten bien artean. Dantzan zebiltzanak pozez zorutzen eta begira zeudenak txaloka ta parrez. Ori, goiz partetik. Arratsaldera ezkerre pentsatu besterik ez dago nolako mugimentua jarriko zan errian.

Nik panderista arekin ez dakit egun ura ezkerroztik iñun itzegin dedan. Baiña Artxandakoa zala ulertu nion; eta, ala ez balitz, barkatu dezaidala mesedez eskatzen diot.

Angiozarko Felix itxua oso gazte nintzan garaian eza-gutu nuen, erri batzuetan alkarrekin ibiltzeko egokiera izan genduelako. Soiñu jole ederra zan uraxe. Eibarren biziko da noski.

Txipiroia eta angula

L 994-KO udazkenean eta neguaren asieran txipiroi eder ugari ikusi genduen zorionez Orio alde ontan; eta itxas inguruko beste erri askotan ere nabarmenduko zala uste det arrai mota on orren emaitza aberatsa. Motorrez prestaturik dauzkaten itxas ontzi txikiak erabiltzen zituzten batzuek, eta beste gaiñontzekoak bateletan ibili bearko zuten, arraunean egiñez. Nik ala pentsatzen det.

Seguru ez dakidan arren, urrutira joan gabe, emen urre samarrean billatzea baliteke, barra inguruan edo. Nik ezin nezake garbiro esan nundik nora ibiltzen ziran, ez nion iñori galdetu ere ta.

Baiña errez arrapatzen zituztelakoan nago, ta nolako aleak! Oso gutxitan ikusi oi diran modukoak. Mardul bikaiñak. Gozotasunaren bidez azitakoak ziruditen, itxuraz beintzat.

Txipiroia, itxasotik ekarri berrian, jateko gauza zoragarri utsa da. Jende askori gustatzen zaion arrai klase ezaguna. Kazuelan xaltxan jarri ta gozo aparta jateko, fresko dagoen bitartean batez ere.

Emen Orion bizi geranak ortan suerte ona izan degu, arrantzale sonatu asko bertan dauzkagulako, dudarik gabe. Baiña orrek ez du esan nai oriotarrak bakarrik dakitenik arraia billatzen eta arrapatzen. Itxas gizon langille batzuk kosta aldean edozein erritan omen daude, gogotsu saiatu oi diranak langintza berdiñean.

Getariko kamiotik pasatzerakoan, zenbat aldiz ikusi izan ditugun ontzi txikiz beteta itxas ixkiñak esaten ez da batere erreza. Aiek, txipiroiak ez-ezik, bestelakoak ere eskuratuko zituzten.

Dana dala, nik entzuera dedanez, eta ezjakiñean dagoenari adieraztea gustatzen zaidanez, onoko albiste auxe eman nai nioke, gogoan artu dezan.

Nik neronek ikasi berri samarra det, arrantzale batengandik ain zuzen ere, txipiroi asko dan urtean angula ere ugari izaten dala, alegia. Au aspaldiko esaera zaarra omen da, berak zionez; eta gauzak badu itxura pixka bat, 1994-ko gertaeraz konturatzen bagera. Abenduko illean angula asko arrapatu zuten emen Oriotik Aginagara bitarteko errioan edo ibaian, adibidez. Baiña denbora gutxian jarraitu, ordea, orduko zoramenak. Uste baiño leen ustu zitzaizoten almazena.

Abenduan dotore ibili izango ziran anguleroak, leenengo bolaran asko sartu zalako. Baiña gero berririk etorri ez bear bezela, ta antxe galdu irabaztea espero zutena, penagarria bazan ere.

Orain ez dago leen garai bateko konturik. Moldez aldaturik baidaude anguletarako. Azkeneko urte auetan berrikuntza izugarriak asmatu dituzte, itxurak diranez. Nik ez ditut ikusi, baiña bada nork esana.

Ontzi motordunak prestatuak omen dauzkate sare estuekin, eta saillak berealaxe pasatzen nunbait; eta, ezer baldin badago, errez artu gaiñera.

Leen etziran orrela gauzak. Batelak erabiltzen zituzten, arraunen bidez. Angulak arrapatzeko, berriz, baiak, egurrezko kirten luze batzuekin. Aurreko puntan bur-nizko uztai bati sarea lotu ta eskuz baliatu bear. Derri-gor lan urria.

Udaberrian negua eta neguan udaberria

GAURKO nere atala osatzeko bi gai alkarren segidakoak erabili nezazkela pentsatu det; eta artaraxe nijoa, irakurle, zuri zerbait eskeintzearren, denbora errezagoko pasa dezazun edo unetxo batez entretenei zaitezten.

Aipatu ditudan bi gai auetan, bat neguaren bukaera eta berak utzi zizkigun oroimenak berritzea izango litzake gauzarik egokiena, nere ustez. Baiña galdera asko daudenez, denentzat erantzunak billatzea kostako litzai-guke geiena.

Kalendarioak adierazten digunez, martxoaren 21-garren egunez bukatzen omen da negua, lengo lege zaarretan beintzat; eta ori aldatuko duen gizonik ez da inon egongo lur gain ontan. Bestela, ixtilu gorriak erabiliko genituzke alkarren artean. Edozer uskerirekin nastu oi geranez, nork eta nola asmatu?

Baiña nik nere kasa auxe pentsatzen det: egia ote dan martxoaren 21-ean bukatzen dala negua. Fetxaz bai, dudarik gabe. Baiña aspaldiko urte auetan ez du bere garairik ongi zaintzen orrek ere. Aaztuta dabil noiz egin bear duen, itxurak diranez.

1995-ko ilbeltzean sarats zugaitzak loretan ikusi nituen egutera aldeko baso zoko epel batean, itxasoari bizkarra ematen zion arkaitzaren ondoan. Beste lagun bat banuen eta, zugaitz aieri begira jarrita, arriturik gelditu giñan. Auxe esaten genduen:

— Posible al da urte garai ontan?

Jakiña, alamoduzko giro ederrak baizebiltzan; eta saratsa da zugaitzetan leenengo esnatu ta loreberritzen

dana. Orrek begi argiak dituela badakigu ongi baiño obeki. Beraz, eguraldi zoragarriaz jantzitako negu paregabea zala aitortu bearrean gaude, nai ta nai ez. Baiña udaberriaren kaltegarri izan liteke ori. Negu gogorak ondoren ona ekartzen duela sarritan entzunak gera, ta sinisteko moduko motibo berezi asko ematen dizkigu.

Leen badet zerbait idatzia, ilbeltzaren edertasunak arritu ninduelako. Ta gero otsailla ta martxoa ere bide beretik joan ziran, zoragarri utsak. Baiña orrek ez du esan nai gauzak aldatuko ez diranik; eta kontuz ibili gindezke badaezbada ere.

Eguraldiaren gora-beeran dago udaberriko etorkizuna, geienbat beintzat; eta, txarrera jotzen baldin badu, utsaren urrengo emaitzak espero genezazke, nola legorrean, ala itxasoan. Aspaldiko urteetan orixe ikusten ari gera; udaberrian negua eta neguan udaberria, dena aldrebes.

Gu emen urarekin ere ez gaude keitzeko moduan, oraingoz beintzat aukeran daukagu ta. Baiña beste lurralde batzuetatik ez datoz albiste gustagarriak. Andaluzi ta oietan, batez ere, oso gaizki dabilzan kontuak entzuten ditugu telebistaz, irratiz eta abar.

Ura gauza bearrezkoa dala dudarik ez dago, ba. Jatekoa prestatzeko, edateko, garbitasunerako, laboregintzarako, kanpoaren egarria asezteko, pertsonen eta animalien bizitzarako derrigorrezkoa degu ura, naiz eta merezi duen ixtimaziorik ematen ez diogun arren.

Baiña urte guztian ura oparo izatekotan, neguan urtegi aundiak ere ongi bete ta gainezka jarri bear lituzke, nere ustez. Eta ortarako zer komeni da? Negu euritsua ta elurrez osatua. Mendietan elurra lodi ikusten baldin bada, urtegiak edo enbaltseak beteko dirala seguru egon.

Omen-egun gogoangarri bat

OMEN-EGUN gogoangarri baten albiste batzuk idatzita uzteko asmoa artu det nere ataltxo onen bidez, naiz eta leen ere geientsuenak beraren berri jakingo duten arren. 1995-garren urteko apirillaren 30-ean, igandez ain juxtu, ospatu zan Mikel Saralegi arrijasotzaille aundiaren omenaldia Leitzako errian. Ez nolanaikoa gaiñera. Ederra bezin gozoa eta maitasuntsua; Saralegi gazteak merezi zuen bezelakoxea, nik uste dedanez.

Gu emen Orion irten da Leitzara joan giñanerako, erriko plaza dena jendez leporaiño beterik zegoenez, nere lagun baten etxetik telebistaz ikusi genduen jaialdia, exerita lasai. Zuzenean eman baizuten gizon bakoi-tzak plazan egin zuen lana.

Korrikalariak txandatuaz bi-bitara ibili izango ziran noski. Ala iduritu zitzaidan. Guk telebista martxan jarri orduko, bukaeran zeuzkaten beraien eginkizunak. Azkeneo pauso batzuk bakarrik ikusi genizkioten. Arrijasotzaillez ere aukera ederra zan, ba, antxe. Badago baztarretan indarra ta gatza.

Kupirarik gabe, Iñaki Perurenak bere semea eraman zuen. Amaika urte omen zeuzkan. Artean mutil gazte bikaiña. Berrogei ta amabi kilo pixatzen zituen arri bolari lau edo bost jasoaldi eman zizkion. Naikoa dala uste det, adin ortan egiteko. Gazterik asia da ikasten, eta erakusteko ez dauka maixu txarra etxean bertan.

Ea, ba, aita Iñaki aundiaren markak ontzen dituen. Kelmentsu azitzen ari dan seme mardul orrek ez du lan erreza artuko noski. Baiña probatu arte ez da jakiten pertsona noraiño iritxiko dan.

Naparroan leen ez genduen arrijasotzaille sonaturik izan, apizioaren faltaz edo al dakit nik zergatik. Gero, orde, egun batetik bestera agertu zitzaigun denak bildurrez aidean jarri arazi zituen bat: Iñaki Perurena ain zuzen. Beingo batez onela zion Donostiko nere lagun apizionatu itxu oietako batek:

— Jakingo dezu noski, Lasarte, Leitzan arrijasotzaille ikaragarria badezutela?

— Bai, adibidez, nik neronek ez det ezagutu oraindik bear bezela baiña —esan nion.

— Donostin jardun berria da arri jasotzen, eta nik sekulan ez det ikusi orrek aiña indar duen mutillik.

Etzeukan itxaropen gutxi erantzun ori eman zidan gizon arek Iñaki Perurenarekin.

Geroago bestea sortu zitzaigun, landare berri arrigarrri bat: Mikel Saralegi alegia. Nun errenditu bear ote du mutil gazte serio onek? Edo noiz iritxiko ote zaigu azkeneko topera? Nik esateko geiegi danez, bere kasa utziko diot al duena egin dezala.

Gure erri au beti izan da sonatua kirol kontuan. Batez ere aizkolari bikain asko eman ditu. Gartziarena ta Astibiarengandik kontatzen asi ta auskalo zenbat geiago, nik ez dakizkidanak. Eta pelotari onak ere bai: Zestao ta abar. Baiña Perurena ta Saralegi bi arri jasotzaille aundi auek jarriko zuten Leitzako erriaren izena goiko maillan geien bat, seguru asko. Beraz, pozik egon liteke Leitzako jendea.

Pestan parte artu zuten aizkolari bikain aiek ere etzeukaten lanerako perezik. Sasoi betean zeuden.

Eta gero bazkari gozoa bazan nork jana. Jendetza bildurgarri giñan. Mikel Saralegik erregali ederrak eta ugari artu zituen ondoren. Txaranga ta bertsolarien saioarekin bukatu zan jaialdia.

Pelotariak

PELOTARIAK aipagai arturik osatu nai nuke gaurko nere ataltxo au. 1995-garren urteko maiatzaren 20-an, larunbatez eta arratsaldeko zazpirak eta laurdenetan, asi zan eskuzko pelotarien norgeiagoka, Donostiko Anoetako frontoi sonatuan. Banakako txapelketaren azkeneko bukaera edo finala jokatu zuten ain zuzen Beloki gazteak eta Errandoneak. Partidu oparoa bezin bikaiña iduritu zitzaidanez, oso pozik gelditu nintzan ura ikusita. Nola ez? Telebistari arretaz begiratzen zion jendeak egun artan.

Partiduaren leenengo erdi partera bitartean, alkarri galtzak bete lan eman zioten. Borroka gogorretakoa erabili zutela badakigu. Ongi prestaturik zeuden gure mutilak. Bestela, ezin liteke martxa artan iraun.

İnork gutxiena espero duen garaian jokatzen dituzte partidurik onenak pelotariak. Baita txarrenak ere. Bakoitzak nolako gorputz aldartea daukan, jendearen aurrean estutu ta nerbioso jartzen dan edo diru asko jokatzeak bildurtu arazitzen duen eta abar, gauza asko egon litezke gizonaren barruan, kanpotik ikusten ez diranak, oietaz gogoratzen ez bagera ere.

Errandoneak ez dirudi urduritasunak ezer galerazten dionik, berak esango luke ongiena baiña. Bete-beteko plaza gizonaren antza ematen diot nik ari. Betiko lore ederrekin agertzen baida jendearen bistara.

Beloki ez omen zegoen ain trebe egun artan, partidua jokatzen asi ziranean. Ori telebistan bere botilleroak edo beste norbaitek esan ote zuen daukat errezeloa. Lasaitasuna faltako zitzaion. Dirua ere bere alde irten aurretik, eta kezkek erasatea baliteke. Baiña gero, partidua aurrera zijoan bezela, animatu mutilla zerbaiten

motiboz, eta giro zan aren ondoan! Pelota indar ikaragarrian erabili zuen, arritzeko moduan erreboteraiño joaz, batzuetan beintzat.

Errandoneak ere sasoi ona zeukan. Frontoiaren atzeko zokotik makiñatxo bat pelota zital jaso zituen, boleaz ere bai, ta dēnetara lan asko egin zuela aitortu bearke genduke legez, leenengo amabost tanto osatu bitartean. Baiña antxe gelditu zan planto egiñik, ederki nekatu ondoren, zearo etsita azkenean. Partiduaren emaitza auxe izan zan: ogei ta bi eta amabost, Beloki txapeldun.

Errandoneari eskerrak eman nai nizkioke gaurko atal onen bidez, naiz eta partidua galdu ongi portatu zalako.

Eta Belokiri, berriz, zorionak. Bera omen da pelotarietan gazteena, leenengo maillan txapela jantzi duena. Osasunak laguntzen badio, eta bere gorputza zaintzen baldin badu, kontuz ibilita obe arekin.

Beso palanka luze aietan badauka gatza. Eskubiz eta ezkerrez, bietara berdintsu ez ote du jotzen pelota? Nik iduripen orixe daukat, agian oker egongo naiz baiña. Erreztasun izugarria erakusten ari da.

Ogei ta bat urte bete gabe omen zegoen txapeldun egin zan egunean. Iru illabete gutxiago noski.

Aurreko partidua Arretxeren aurka jokatu ta jendea ao zabalik utzi izan bear zuen. Emen Orion bertan ere batzuek esaten zuten:

— Aurtengoz Beloki diagu txapeldun, seguru samar.

Etzeukaten deskuido aundirik. Baiña Errandoneak berak ere oso ederki erantzun zion lanari, ta ez dago zer esanik.

Leenengo jaunartzeak

KOMONIOARI buruz zerbait itzegitea ez legoke batere gaizki, ta artaraxe nijoakizu, irakurle, zuk ontzat artzen badidazu.

1995-garren urteko maiatzaren 21-ean, igandez, ospakizun berezi bat izan zan Orioko eliz nagusian, ain zuzen goizeko amaiketan asiera emanik. Errian bertan bizi diran gaztetxoan leenengo Jaunartzea, ez geiago ta ez gutxiago.

Nexka ta mutil, berrogei ta zazpi bildu omen ziran guztira. Egun artako ume aien ilusioak balioko zuen gaurko gureak aiña, arritzekoa ez danez.

Aspaldiko urte auetan aundikiro ospatzen ditu jendeak komonio, bataio eta orrelako gauza garrantzitsuak, merezi bezelaxe nereko.

Gertatzen dana da jatetxe sonatuetan bazkari on samarrak asko kostatzen dirala; ta merkerik, berriz, iñork ez duela aukeratu naiko.

“Beingoagatik aprobetxatu dezagun itxuraz eta kito!”. Orixe pentsatzen ote duten geientsuenak esan genezake.

Gaurko martxari begiratzen badiogu, aberatsak eta pobre antzekoak bereizten ez da batere lan erreza, denak mailla berdintsuan dabilozan garaian; eta batzuek aiña eskubide besteak badaukatela ere badakigu.

Era berean leen, gure gazte denboran, ostatuetan diru gutxi gastatu oi zan komonio ta bataio egunetan. Bearrezko ziran janariak bezela, edari gauzak eraman da etxean prestatzen baizituzten emakumezkoak bazkari gozoak.

Baiña buruauste asko ematen zioten langintza zan ori, ta neketsu amorratua gaiñera etxeoandre asko-

rentzat. Famili artekoak konbidatzen zituztenez, maikada aundiak osatzen zirán; eta danen gustoko bazkaria moldatzen ez derizkiot erreza izango zanik.

Ortik aparte, berriz, jai eder bat espero ta asteko edozein egun baiño okerragoa gertatzen zitzaioten emakumezkoeri. Endredo geiagokoa alegia. Beste batzuk gobernatu naiean zebiltzala, beraiek jateko astirik etzuten artzen sarritan.

Gizonezkoak bai lasai asko, naikoa jan da edanez, sabelak betetzean gerrikoak askatuta. Amar xentimoren kezkarik gabe, luze aiña zabal exeri ta kontu kontari patxada ederrean noski.

Guk era ortantxe ezagutu genituen komonio ta bataio egunetako billerak eta ospakizunak. Baiña gauzak aldatuak daude bapo azkeneko urte auetan, oraingoz beintzat.

Kanpoko jatetxetan enkargatzen dituzte bazkari itxurazko samarrak; eta, nola gizonak, ala emakumeak, dotore apaindu ta martxa etxetik egun pasa egitera. Denak ez noski, baiña geientsuenak bai.

Ta arrazoi daukate gaiñera, konturatzen bagera. Gai-xorik supritzen egotea baiño ohea da ori. Noizean beingo parrandatxo batek ez dio ainbesterañoko kalterik egiten iñori, bere neurrian ibiltzen asmatu ezkerok; ta ostatuak ere jendea serbitzeko zai dauzkagu, aukera ikaragarrian gaiñera.

Edozein mendi edo baso zokotan jatetxe biurturik ikusten dira leen baserri ziranak. Kamioa eduki ezkerok, gaur ez dago puntu txarrik, kotxea daukanarentzat batez ere; ta jendeak mendia eta ondartza nai ditu, bi oiek, denbora lasai pasa al izateko sanidadean.

Ernani eta euskera

ERNANI erri euskaldun zoragarri bat zan leen. Gaurkoz ez dakit nola jarraitzen duen ango jendeak. Nik erri artan azkeneko bertso saioa egin nuela, amar urte izango dira gutxi gora-beera, ta artean euskera indartsu zebillela zirudien, kalez kale eta aotik aora. Baiña baliteke geroztik almena galtzea, gaiñontzeño tokirik geientsuenetan bezelaxe. Urtetik urtera gainbera dijoakigu erri onen jatorrizko izkuntza. Lastimagarria bada ere, ori orrela ikusten degu, ta kito.

Leen esateko oitura gendukan gazte jendeak etzuela euskeraz itzegin nai. Eta orain zer gertatzen da? Sasoirik onenekoak bezelaxe, zaarrak ere gazteleraz mintzatzzen dirala, dakitenak beintzat. Nik neronek ezin nezake ori egin, euskera beste izkuntzarik ez nuen ikasi ta. Baiña jakiteak ez du iñorentzat kalterik. Batek ez baidaki zertaz beartuko dan.

Gaur ikastoletan aipatu ditugun bi oiek erakusten dituzte, ta ala jantziagoak gelditzen dira gerorako umeak. Batzuek dioten gisan euskerari bizirik eutsi bear zaio beintzat.

Ni sarritan medikutan ibilia naizenez, ongi probatu det gazteleraren falta zer dan. Gauzak esplikatzerakoan, galdera bakoitzari zuzenki erantzun nai ta ezin iñundik iñolaz ere. Baiña badaude euskera egoki erabiltzen duten medikuak, eta aiekin ez det kezkarik nere gora-beerak esateko.

Oraindik denbora asko ez dala, emen Anbulatoriokoak Donostira bialdu ninduen espezialista batengana, urdailla ta esteak nola neuzkan ikustea komeni zala iduritzen zaitzaiola ta. Alaxe joan nintzan. Nik medikua bera ez nuen ezagutzen; baiña arek bai ni. Gela barrura sartu orduko:

— Kaixo, Lasarte. Etorri al zera? —galdetu zidan.

— Bai. Gaurko txanda artua neukanez, ementxe naiz; eta Orioko medikuak karta au eman dit zuri entregatzeko. Torizu —esan nion.

— Ekatzu, bai, ea zer dion ikusi bear det leenengo.

Irakurri zuen eta ongi miatu ere bai noski. Plakak atera zizkidan, beetik eta aotik tuboak sartu ta abar. Iru aldiz joan bear izan nuen berarengana. Euskeraz errez eta garbi itzegiten zuela laister antzeman nion gizonari, ta oso ederki konpondu giñan gai ortan.

Dana dala, Ernani ta ango jendearen izkuntza aipatu ditut atal onen asieran, eta araxe bilduko naiz, bukaera eman dezaiodan bertan.

Nik Ernanin banuen lagun ixtimatu alai bat, bein ere aaztutzen etzaidana; ta arek kontatu zidan ixtori zaarra idaztera nijoakizu, irakurle. Naiago nuke zuretzat atse-gingarri balitz.

Aien auzoan edo inguru samarrean senar-emazteak bakarrik bizi zirala ulertu nion; eta, garai artan gizonekoak bizarra zortzi egunetik bein ebakitzen zutenez, igande goiz batez asi da gizona bere burua apaintzen, kalera joateko asmoz.

Baiña andrea ezurretako miñez gaixorik dago, silloian exerita, ezertarako gauza ez dala. Eta gizonak, ain egoskorra izanik, kasorik egiten ez eta deitu dio andreak:

— Joxe Manuel, oso gaizki arkitzen naiz.

— Zer dezu, ba?

— Iñola ezin egon.

— Altxa ta ibili, ori baldin bada okerra.

— Baiña nola ibiliko naiz, ba, gizona, pausorik eman ezinda?

— Egon orduan bertan, ez daukazu leku txarra ta —Joxe Manuelen erantzuna.

Bi erremedio klase batera.

Errezil

ERREZIL erri aipagarria dalakoan bizitzen naiz ni beti. Ez dakit nerez baserritarra izateak eraginda edo zergatik, baiña asko gustatzen zait Ernioren azpiko aldean babesturik bakardadean eta paketsu itxuran dagoen erri polit ura.

Kalez ez da aundia eta dotorea. Agian batzuek ala usteko dute, baiña nere begientzat ez dauka aparteko gauza izugarrizkorik. Baiña baserriz baserri miatuko bagendu, Errezil leengoa dala esan beariko ote litzaken gaur ere errezelotan nago.

Urruti antzetik begiratuta antzematen zaiote ango soro ta belardieri garbi eta txukun zainduak daudela. Orrek adierazten digu Errezilgo baserritarrak ez dirala Donostiko Kontxan paseatzen ibiltzen. Lana galanki egiñez bertan bizi bai, berriketa gutxirekin. Orixe baida baserriko izakera, gure lurralde auetan beintzat; eta ez dedilla inoiz galdu zabarkeriz. Bestela, akabo emengo etorkizuna, aragi ta esnearena batez ere. Jakingo nuke pozik, erreza balitz, urtearen aurrenetik azkenera bitartean zenbat litro esne bialtzen dituzten Errezildik bakarrik Donostiko *Gurelesa*-ra.

Gaur kalidade oneko beiak omen daude baserririk geientsuenetan adibidez, esne asko ematen dutenak alegia. Baiña leenengo muturretik ongi alimentatu beariko dira egunean bi aldiz, errapetik sendo kenduko bazaioite. Nolako gobernua, alako probetxua ikusi genezake or, batere dudarik gabe.

Leen etxe barruan egoten ziran ganaduak, katez loturik, jan da etzan, gauzez eta egunez, Orain, berriz,

kanpo librean larre freskoa bazkatuaz dabilta leku askotan. Nik ezin nezake esan zer dan onena, ez dakit eta orrenbesteraño.

Baiña batzuen iritziz, ukuilluan baiño sanoago ta gogorrago ikusten dira kanpoko larrea janez eta askatasunean dabiltzan ganaduak. Eguzkiak berak asko gozaten baiditu; eta aizeak, berriz, birikak garbitu ta lasaitu arazi gaiñera bide batez, arnas berria artu deza ten alegia. Ori, eguraldi onetan. Txarrak datozenean, etxe inguruan baldin badabilta, jakingo dute nun eta nola babestu. Ukuillura sartu ta kito. Bertan egon lasai, gosetu bitartean.

Baserri askori zutik eutsi dion erriak, bi gauza garrantzitsu maite dituela erakusten digu garbiro: nekazaritza eta euskera, gure-gureak diranak. Errezil ez da nolanaikoa ortan, punta-puntakoa baizik. Euskeraren kantera bertan dagoela esan liteke noski. Gozo, errez eta garbi itzegiten daki ango jendeak.

Urte mordoska pasa dira geroztik; baiña bein ere etzait aaztu onoko pasadizo zelebren au. Koadrilla aundi batek afaria prestatu zuela ta bertsotara deitu ziguten. Azpeitiko Joxe Agirre nuen bertsolari laguna. Sarritan kantatuak gera alkarrekin, eta orduan ere bai zorionez.

Errezildarra bat eta Asteasukoa bestea genituen aldemenen maian. Biak izlari egokiak eta lagunak gaiñera. Baiña ekin zioten alkar zirikitzeari. Etzuten leenengo aldia izango noski, ta konfiantzan aurreratxo sartu nunbait Asteasuko mutilla, ta ari zan eztenkada zorrotzak ematen. Baiña asarrerik gabe, ordea. Orrek du grazia. Eta erreziltarrak onela esan zion:

— Zu baiño ume eskasagoak Asteasun gutxi dira, Aian *menos* eta Errezillen bat ere ez.

Ateraldi ona.

Bide berriak

BIDE berriak asko egin dituzte aspaldiko urteetan; baiña oraindik geiagoren bearrean omen gaude, batzuek diotenez. Gipuzkoa ta Naparroaren arteko autobia bukatu zuten, eta martxan jarri ere bai, ederki kostata. Diru mordoska galanta jango zuen obra aundi orrek, guk entzun genduenez. Baiña denak berak ordaindu lezazke denboraren bidez, ona baldin bada.

Leengo bide zarrak txiki gelditu ziran, gaurko kamion luze oientzat batez ere; ta gaizki zebiltzan, iñun kabitu eziñez. Oraingoz lasaiago ibiliko dirala pentsatzen det autobian, aurrea libre dutela.

Donostitik Iruñera berealaxe joateko modua izango du kamion kargatuak ere; ta andik alde ontara datorrenak zer esanik ez. Bietarako mesede. Bidea laburtu, kilometroak gutxiagotu alegia, ta ibilirako erreztasuna jarri, bentaja auek ekarriko zituela autobia berri orrek sarritan esaten ziguten, egiten asi aurretik

Naparroako Gorritin kezkatu ibili omen ziran leenengotik: autobia erriaren erdi antzetik pasatzen bazan, terreno sail inportanteak alperrik galduta utziko zituelakoan. Baiña ez noski. Ez dakit planoak aldatu edo zer gertatuko zan tarte ortan. Aspaldian ixilik zeuden beintzat.

Eta, autobia bukatu ta gero martxan ikusi zutenean, telebistan agertu zitzaizkigun Gorritiko batzuk, inaugurazioko egun berean ain zuzen, eta gustora gelditu ote ziran iduritu zitzaidan. Barrengo berri kanpotik jakitea zailla izanik, ni ezin niteke aurreragi sartu gai ortan, badaezbada ere. Baiña bearrezkoa baldin bazan, ortxe dago ta kito.

Istripuak eta eriotzak gutxitan gerta ditezela. Orixe da jendeari komeni zaiona. Leengo kamioetan etzegen tokirik denak kabitzeko.

Tolosatik Leitzara bitarteko kamio ura zabaltzea pentsatuta ibili izango ziran orain ogei urte, edo agian leenago. Seguru ezin nezake esan, ez dakit eta. Baiña garai artan entzundakoa gogoan daukat, egia baldin bazan.

Nik neronek gaur dagoen bezelatsu ezagutu nuen, mutil koskorra nintzan garaian ere, diodan kamio estu bigurri ura. Konpostura erreza ikusi balitzaio, tajuz jarriko zuten, aspaldi gaiñera. Baiña gaiñeko aldetik pixu aundiko mendi pusketak nola dauzkan, aiek goitik beera azkar jetxiko lirakela iduritzen zait, urraketan asi ta pixka bat mugitu ezkerre beintzat; eta an ez legoke beste jokaerarik, bidea zabaldu ta itxuraz jartzekotan, Tolosatik edo Elduaiendik Berastegira bitartean batez ere.

Eta beste akats bat badago an, denok dakiguna: aldapa galanta. Urtoko gaiñak bosteun da bost metroko altura duela uste det, ni oso oker ez banabil; eta arrigarritzko zamak eraman izan dituzte kamion aundiak. Malda artan pasa ta Leitzako *Sarrió* papel faubrikara auskalo zenbat tonelada biaje bakoitzean gora ta beera.

Onez aurrerakoan, autobiatik errezago eta segurantz geiagorekin ibiliko dira noski. Ala esan genezake, itxurari bakarrik begiratuta ere. Baiña emen gertatzen ari dana gauza bitxia degu, konturatzen bagera: kamio berriak egin, aiek leporaiño bete ta lengo zaarrak ustuz ez. Zer erakusten digu jokabide orrek? Kotxeak ugartitzen dijoazela alde guztietan geiegizko neurrian, eta oiñez ez degula ikasi.

Orioko barra

ORION obra bildurgarria egitera dijoazte, itxurak diranez, itxas alde ortan: zorioneko barra, ainbat urteko etenik gabeko esamesak erriari jarri dizkiona, nik entzuerak ditudanez beintzat.

Itxasoak zenbat indar duen ez da jakiten gozo ta bare dagoenetan, asarretzen dan garaian baizik.

Barrako zintzur estuan ibili izan dira gaizki baporeak, kanpora irten bear dutenean; eta barrura sartzerakoan ere bai adibidez.

Neronek ere iñoiz ikusi nituen, leen goiko kalean bizitu giñan denboran eta urte aietan. Itxas olatu aundi samarrak arrapatu ezkerro, boteka pelotaren antzera erabiltzen zituen barkuak barra inguru ortan; eta, sarrera txarra zeukatenean, erbestera joan bear derri gor, ontziak seguru utziko baziran. Eta mariñelak autoak artu ta errira etorri.

Ara nolako endredo nastu ta neketsuak ezagutu diran Orion arrantza kontuan leendik ere; ta gaur oraindik gisa berean dabilta.

Itxas giroa dudakoa dagoen guztian, kanpoko portuetan uzten dituzte baporeak, Getarin geientsuenak noski. Gaiñontzean ez dakit nun, garbiro esateko. Donostin edo Pasaian agian.

Orioko barran lana pranko egin zuten leen ere bi txandatan. Arri pilla galantak bota zituzten alde batetik eta bestetik. Baiña asmatu ez, ordea, okerra zuzentzen. Ortik pentsatu leike ez dala erreza egongo bear bezela konpontzen orko gora-beera.

Ea, ba, irugarrengo ekiñaldiak balio izaten duen barraren kezka kentzeko bein betiko.

Obra zail orren jabe egin ziran kontratistak, etziran nekearen bildurrez atzera begira gelditu.

Emen batzuek espero duten bezela, kostako zaio paraje ortan urak duen indarra menperatzen, itxasoaren zakarraldietan batez ere. Baiña oso itxura onean eta pulamentuz ari dirala lanean entzun det oraingo ontan. Leenengo, arri pilla aundiak bota, ura errenditu dedin; eta gero berriro erdian zulatu ta porlan masaz bete. Ori omen da egiten dutena.

Kamion galantak or dabilta eten gabe arri ta masa karretoan. Auskalo zenbat tonelada ekartzen dituzten egun bakoitzean. Ala ere, badaukatela uste det denboraldi luze baterako eginkizuna Orioko barran.

Itxasoak tentazio txarrik emango ez balu, gaitz erdi. Baiña or ez dago segurantzirik. Izan ere, ainbat aldaketa darabilki eguraldiak, bein batera ta urrengoan bestera.

Erri ontan izentatuta dauzkaten obra guztiak egin bear badira, jantzi berri dotore bat artuko duela diruri gu bizi geran itxas ertzak.

Egun batez, Udaletxean salan zeuden planoak ikusi nituen. Nik ezer gutxi ulertzen det gai oietan; baiña naiago nuke gauzak denon mesederako gertatu al balitezke.

Portua aspalditik eduki balu, obeko zuen Oriok. Baiña bein ere ez dala berandu esan oi dute batzuek, eta guk ere orixe pentsatu dezagun, pasatakoa joana dago ta. Obrak denboraren bidez egingo dira. Ortan baiezko iritzia daukagu geientsuenak.

Baiña diru asko bearke da, ta ori eskuratzeak eman-go ditu lanik txarrenak, seguru asko. Nork neurtu zenbat milloi kosta litezken berrikuntza oiek, denak batera edo alkarren segidan? Oraingoz beintzat ez det uste iñork jakingo duenik.

Jaiak eta arrantzaleak

PASATZEN ari zaizkigu 1995-garren urteko jaiak ere, erritar askoren pozgarri eta zorionerako. Pestak asiera alaiagoa du bukaera baiño. Poltsak zimurtu, gorputza zigortu, itzak legortu eta burua gogortu, oiek guztiak berekin dituela azkenean garbiro ikusten da. Baiña ala ere derrigor bear diralakoan nago pestak, gazte jendearentzat batez ere.

Emen Orion lengo oiturari jarraitzen zaio gai ortan. Eskubide osoz gaiñera esan genezake batere dudarik gabe. San Pedro egunez leen etzan iñungo faubriketan lanik egingo seguru asko. Alde denetan jai bezela erresetatzen baizan. Euskal Erriaren barruan, alegia, ari naiz izketan. Emendik kanpora gauzak nola ziran ez dakidalako diot au.

Dana dala, gero jaiaren izena kendu ta aste jartzea erabaki omen zuten, eta artan jarraitzen du, nik kalendarioan ikusten dedanez. Baiña erri batzuetan, patroio edo zaindari bera izanik, gaur oraindik leengo gradu berberak dauzkala dirudi San Pedro aundiak.

Lau egunetako pestak genituen emen Orion, gauak kontatu gabe ordea. Ortxe zegoen oker dexentea. Azken aldiko urte auetan gauetz ospatzen baiditu jende askok pestarik gozoenak; eta egunez lo sendo, noizbait egin bearrekoa baida ura ere derrigor. Bestela ez legoke bizerik irauterik iñolako moduz.

Parranda kontu ori neurrian ohea dala probatu duen guztiak daki. Baiña nor ez da deskuidatzen noizean bein? Gizon zuzen askoak ikusi izan dira iñoiz ederki okertuta. Beraz, ni batere ez nai arritzen erriko jai nagusietan pixka bat nastu dalako norbait.

San Pedro pestak bukatu orduko, arrantzaleak aldegin ziguten erritik itxasora atun billa, beti bezela. Baiña gai ontaz itzegiteko ez dago presarik eta gerorako utziko det oraingoz.

Antxoari aipamen txiki bat egin dezaiodan, mereziko du noski ta. 1995-eko udaberrian arrantzaleak leenengo berdela arrapatu izan bear zuten errez eta ugari. Baporeak puntaraiño beteta ibili omen ziran noiznai, guk emen legorrean entzuten genduenez.

Baiña zertarako? Asieran diru pixkaren bat irabazi zutela ta gero ezer ez. Prezioak ondoa jo ta kito. Kiloko sei duron saldu eziñik azkenerako. Ara or berdelaren ixtimazio eskasa. Asko arrapatzeak ekarriko zuen akats triste ori, iñundik iñolako konposturarik etzeukana.

Alaxe, bueltaka zebiltzan garaian, agertu zitzaieten antxoa. Baiña nolakoa? Aundiz eta mardulez ongi orni-tua, oso gutxitan ikusten dan moduko antxoa zoragarria. Aurreko urteetan baiño geiago arrapatu omen zuten gaiñera. Bapore denak suerte berdiña izatea zailla danez, batzuk obeki irtengo zirala badakigu, besteak baiño, beti bezelaxe.

— Ala ta guztiz ere, kostera, banaz bestekoari begiratu ezkeru, or nunbait —esan zidan neri, itxasoan patroï ibiltzen dan batek.

Punta-puntako dirutzarik iñork etzuela irabaziko; erdipurdi geldituko zirala geientsuenak; eta banaka batzuk, berriz, gauza gutxirekin ere bai, arraiaren prezioak gora-beera aundi samarrak erabili zituelako noski.

Oso merke saldutakoaren emaitza beti izan oi da urria eta nolabaitekoa.

Beraz, urrengo urteko antxoaren zai gelditzen gera.

Aita San Antonio Urkiolakoa

SAN ANTONIORI fede sutsua leen askok zioten, eta gaur oraindik jarraitzen diotela uste det oitura zaarrari, baserritarrak batez ere.

1995-garren urteko ekainaren 13-an ospatu zan ganadu peria Urkiolan. Nik telebistak eman zuen zati txiki bat ikusi nuen gauean, eta orrekin bakarrik ezin nezake gauza izugarririk kontatu.

Baiña ganaduz osaturik zegoela zirudien. Kolorez gorriak agertu ziran mordoska dexentea. Bestelakorik ez dakit bazan. Esnetarako beiak, zezenak, bigantxa gazteak, txekorrak eta abar, klase askotakoak egongo zirala pentsatu nuen nere kasa.

Zaldi, beor eta abere oietatik ere baliteke izatea agian; baiña telebistak etzituen erakutsi, eta ezjakiñean gelditu nintzan. Lastima! Bear bazan, ni konturatu gabe pantallan pasa zitezken.

Nekatutako mando zaarraren antzera, sarritan erdi lotan igoal egoten naiz, eta gero alperrik: galdutako ura, falta. Ara zer gertatzen zaidan.

Telebistatik izketan jardun zitzaigun emakumezko arek zionez, eguraldia ere etzan oso segurua edo iñoiz bezin ederra beintzat. San Antonio egunez bero galantak ezagutuak baditugu urte prankotan. Baiña eguzkiak ere beti ez du indar berdiña erabiltzen. Trumoiak eta ipar aize otzak jartzen dizkiote eragozpen txarrak, bere lana ongi egin al izateko.

Urkiola mendi polit aparta dala ez legoke nik esan bearrik, leendik ere ori dakitenak asko dira ta. Euskal Erriko nekazarietan nor ote da Urkiola bisitatu ez duenik, leentxeago edo geroxeago? Benetan maitasunez joaten zaizkiola San Antoniori laguntza eskatzera esan genezake.

Lurralde ontako baserritarrak bi zaindari dituzte: bat San Antonio eta bestea San Isidro.

Gu mutil gazteak giñaneko urte aiek gogoratzen zaizkit: aiatar nekazariak nolako ilusioa edukitzen zuten San Antonio egunez Urkiolara joateko.

Aian bertan etzuen iñork kotxerik, eta kanpoko tasistak eramaten zituzten, aurrez enkargatuta, batzuk beintzat. Kontuz gero biaje uraxe galdu arazi aieri! Goi-zean goizetik irten oi ziran, kotxe ederretan sartuta, Urkiola aldera, dotore antzean.

Ara iritxitakoan, leenengo, eliza bixitatu bearko zan. Konpesatu ta Jauna artu, gutxienez ere; ta gero gosalduek erromeria ikusteko. Jatekoa, berriz, etxetik eraman da pago azpitan eserita lasai jan.

Baiña artean kotxeak oso urri nola ziran, trenez baliatzen omen zan jende asko. Denak joan zitezten, tren espezialak izaten zirala San Antonio egunez sarritan entzun genduen guk. Durangoraiño bakarrik, ordea. Andik gorakoak emango zizkioten lan txarrak. Baiña, ala ta guztiz ere, segi aurrera.

Urte batekoa pasa ta bestearen zai. Fedea nagusi edo ibilirako zaletasuna agian, gazte jendeak beintzat. Ez dakigu zer dan egi garbia.

Dana dala, aspaldiko pasadizo zaar baten bidez osatuko det gaurko nere lantxo au, irakurle. Nik, mutil koskorra nintzala, entzun nuen kontua da.

Ijito bat joan omen zan bein, konpesatzeko asmoz, elizara; eta, aurretik beste bi edo iru zeuzkanez, bere txanda iritxi bitartean itxogin du. Apaiza libratu danean, an dijoakio. Alaxe, asi dira pekatuak aztertzen, apai-zak galdetu eta besteak erantzun; eta konpesioaren bukaeran apaizak onela dio:

— Gora Jesus! Esan zuk ere!

— Gora Jesus! —ijitoak.

— Beera demonioak!

Eta ijitoaren erantzuna:

— Ori ez! Nik denak maite ditut!

Sakabi

ALBISTE illun nolabaiteko bat iritxi zan udaberri ontan neregana; eta oraindik ere norbait ezjakiñean balego, zertsu dan adierazi nai nioke gaur atal onen bidez. 1995-eko maiatzaren 27-garren egunean il omen zan Sakabi soiñu jotzaille sonatua; eta biaramonean, igandez, lur azpiratu zutela Azpeitin. Alaxe zion Felix Ibargutxi kazetariak bere artikuluan. Maiatzaren 31-garren eguneko *El Diario Vasco*-n irakurri nuen nik. Bitartean ez nekien ezer.

Beraz, mundu ontatik ezkutatu zitzaigun betiko Faustino Azpiazu, Lasturgo Sakabi baserrian jaiotako seme argia. Onen maixu izandako *Elgeta*, Jazinto Ribas, eta biak, batera agertzen dira argazki batean. 1942-an ateratakoa omen da diodan au. Aurpegiz alai ikusten dira. Ez daukate begietan makar askorik. Sasoia ta gaztetasuna nabaitzen zaizkiote bati bezela besteari:

Trikitilari ederrak ziran, ba, Elgeta eta Sakabi, beste iñori ezer kendu gabe, bakoitzari berea eman bear badiogu beintzat. Punta-puntakoak garai artako jendearentzat. Gaurko ez dakit, baiña ez det uste txarrenak izango lirakenik, naiz eta gauzak lendik asko aldaturik dauden arren.

Sakabik Egañazpi erabiltzen zuen laguntzaille, panderoa jotzen eta kantatzen alegia. Ai zer nolako bikotea osatzen zuten! Zenbat erri ta baillara pasa ote zituzten?

Alkarrekin ere sarritan ibili giñan. Nere gustorako gizon atsegiñak iduritu zitzaizkidan beti, lagunartean kontu zaarrak esanez denbora gozo ta patxadaz pasatzeko. Parrandan, berriz, aspergaitzak biak ere. Alamoduzko opizioa baizeukaten.

Soiñujoleak erretira txar asko egin bear izaten du. Pesta giroan dabilzan gazteak dantzan edo saltoka dibertitzen diranez, aiek soiñua ta panderoa eskatzen dituzte, arrazoibidez gaiñera.

Sakabik eta Elgetak lanerako etzuten perezik. Jendea nekatu arazi bitartean, antxe segiko zioten atsedenik artu gabe jo ta jo, leenengo plazan egun argiz eta gero gauez ostatu barruan.

Dantza lotua galerazirik egon oi zan erri ta baillara batzuetan. Librekoan bakarrik uzten zioten ibiltzen jendeari. Ez genekigun zergatik jartzen ziran ain neurri juxtuak eta zorrotzak. Baiña dantza lotua baiño askoz ere ohea dala librean egiten dana sarritan entzunak gera. Emen bakoitzak bere iritziak agertzen ditu, eta errespetatu ditzagun, badaezbada ere, garaian garaiko gauzak.

Dana dala, Sakabi edo, garbiago esateko, Faustino Azpiazu zanak, eskuetako erreuma arrapatu ta beatzak makaldu zitzaizkiolako utzi ziola uste det soiñu jotzeari. Egun batez Egañazpi ta biak omendu zituzten, Zarautzen gaiñera, oker ez banago; ta antxe esan zidan zer pasa zitzaion.

Beste langintza batean ere artista zan Sakabi. Euliak arrapatzen baillara txiki batean ikusi nuen bein. Ostatu barruan euli asko zeuden eta onela dio Sakabik:

— Badek ementxe eulia! Bost minututan eun arrapatuko nizkikek.

Ori entzunik, batzuek etzala posible erantzun zioten.

— Ezetzean al zaudete? Laixter erabakiko diagu. Ekarri zazute balde batean ura dexente.

— Zertarako dezu?

— Euliak itotzeko.

Ala, eraman ziotenean, maiak baztarretik erdira kendu ta asi da bi eskuak trabeska paretan pasa ta baldean uretan sartzen; eta berealaxe arrapatu eun baiño geiago ere.

Aldaketa izugarritzkoa

UDABERRIA, urtea lau zatitan banatzen denez, pusketarik gozoena bera juzkatzen genduen leen, gure gazte denboran.

Aspaldiko urteetan ez, ordea. Onetik ematen aspertu dalako edo ez dakigu zergatik izan liteken. Baiña aldaketa izugarritzkoa egin zuen beingoz, eta geroztik ez dauka udaberriaren izena besterik, esate baterako.

Ori ziurtatzeko, aski litzake 1995-garrengoari begiratzea. Emen eguraldia eta gizakiak denok konpas berdintsuan ote gabiltzan errezelotan asko daude, zaar jendearen artean batez ere. Ni neroni barruan naizela zertan ukatu, gertatzen zaiguna egia baldin bada?

Martxoaren 21-etik San Luis egunera bitarteko iru illabete oietan mugatzen da udaberria, urte guztiak duen zatirik ederrena eta etorkizunari begiak iriki arazitzen dakiena.

Egun argia luzatu, gau illuna moztu, kanpoa jantzi berritu, landare bakoitzari bizibidea jarri ta abar. Baiña leengo sanidade ura galdua izango da, den-dena ez bada ere, asko beintzat.

Batzuek diotenez, soro-baratzetan ezin omen dute ezer kontserbatu botikarik gabe. Bateko arra, besteko zorria ta zomorro gaizto oietatik sortzen izan bear du lurra betean; eta bigun antzean arrapatzen dituzten landare txikiak jan edo pozoituta utzi, batere balio ez dutela.

Leen kare autsa botatzen zioten, nekazaritzan jarduten ziranak, lurrari; ta arek egiten zuen garbitasuna. Oraingo ere ez ote litzake bera botikarik onena zomorrontzat? Ezezkorik ez nuke esango.

Ni ez naiz jakintsu, gai ortan itzegin al izateko; ta obeko det, aurreragi sartu gabe, kontuz ibili, badaezbada ere.

Baiña askoren iritziak entzuten ditut, eta bildurrez aidean daude baratza lanetan ari diranak. Eguraldiak dauzkala dirudi errurik aundienak.

1995-an ezin genezake esan udaberri aberatsa eza-gutu genduenik. Ipar aize otzak indar izugarria erabili zuen, eta itxaso zakarra sarritan, inun kabituz eziñez, borroka bizian. Eguzkia oso urri; lainoz estalitako goi-beltasuna ugari, eta giro egoskor nolabaitekoak auker-
ran.

Basoetako zugaitzak ederki erakusten ziguten zer gertatzen zitzaioten.

“Apirilleko sagar lorea urrea baiño ohea, ta maiatze-koa segurantzirik gabea” izaten omen dira; ta apirillean artean sagastietan ez genduen lore mardul asko ikusten, beste zugaitzetan ez-ezik. Otzak erasan da ostu edo orririk atera gabe geldirik egon zirala badakigu, luzar-
an supritzen.

Maiatzaren asieran, egun batzuetan eguzkiak kanpoa berotu zuen garaian, ordea, bat-batean lorez jantzi baztar guztiak. Orixe gertatu zan.

Baiña beti zerbait guk nai ez deguna sortu oi danez, trumoi gogorak jo ta kazkabar erauntsi izugarritzakoak bota zituen, eta orduantxe galdu lore ta pipita geien-
tsuenak leku batzuetan, alde denetan ez noski.

Larogei ta iru urte zeuzkan aitona batek esan zidan sekulan etzuela berak udaberri eskasagorik ezagutu, eta itxaso nastuagorik ere ez.

Itxasoak neguaren fandango berbera erabili zuela dantzarako uste det nik. Salto galantak egiñez, arro asko ibilia zan; eta umedade negargarria, berriz, neurritz kanpokoa.

Orixe da emen txarrena osasunerako, ongi dabiltzan-
nak nastu arazteko ere.

Orion obra ugari

ORION obra ugari etxegintzan gogotsu ari dirala ikusten degu kontratista batzuk, azkeneko iru edo lau urte auetan batez ere.

Leen, denboraldi luze samarrean, ezer gutxi aurreratu bazan ere, oraingoz beintzat mugimentu izugarria nabaitzen da erri ontan obra kontuan; eta orrek poz aundia emango diolakoan nago jende askori. Aukera jartzea gauza guztietan baida ona.

Batzuk ari dira, adibidez, leen zeuzkaten etxeak saldu ta berriak erosten. Bakoitzak berak jakingo du zergatik.

Kale nagusia pasa ta ondartzala aldera goazela, txalet gisako etxe txikiak egiñik daude dotore askoak. Bean garajea, leenengo plantan bizilekua eta goien ganbara dituztela uste det. Ni barrura sartu ta ikusten ez naiz ibili. Baiña alamoduzko itxura daukate. Kanpotik berriz, etxe bakoitzari bere terrenoak burnizko errajaz ixten dizkiotenez, oso poliki ta txukun gelditzen dira. Tartean kotxeak erabiltzeko bide zabal ederrak aukeran dituzte gaiñera, ta aparkalekuak ere bai.

Bakar antzean bizi nai duen familiarentzat ongi datozela derizkiot etxe klase ori. Baiña diruz urri samar dabillenak erosteko galestia izan litezke pentsatzen det. Gaur ez baidago kapritxo merkerik ezertan ere.

Beste gaiñontzean, puntu egokian daude, esaten ari naizen txalet oiek: kale barrutik pixka bat apartexeago, eta ondartzatik bi pausora bezelatsu, edo urrean beintzat.

Soro baratza ederrik bazan ortxe, baiña akabo betiko. Gauza batzuk egin al izateko, besteak alperrik galdu. Orixe da gertatzen dana.

Orion altura gutxiko etxeak ikusten dira geien-tsuena. Nik ez dakit zergatik. Baju antzekoak aizeak

eta itxas aldetik datorren ekaitzak gutxiago penatuko ditu.

Pelotari kalean, orain dala ogei ta bi edo iru urte, zutitu zituzten bost eta sei bizitza alturan dauzkaten etxeak. Aszentsorea jarri ta erosotasun aundiz moldatzen da oietan jendea. Baiña iru ta lau planta ematen dizkiote jeneralean Orion etxe berrieri.

Nik nere gustokoak ditut tankera ortako etxe txiki antzekoak. Torre luzeak baiño naiago askoz ere. Gu bizi geran erri onek terreno sail bikaiñak bazituen leen, eta oraindik ere badauzka. Baiña ea azkenerako denak gutxiegi izaten diran, aurrerantzean, batzuek dioten bezela, obrak jarraitu bear baldin badute. Ni ez naiz iñor gauza auek erabakitzeko, ta ez nuke sartu nai ere gaiñera.

Baiña gaurkoz Orion polikiroldegi on baten falta nabaitzen dala dudarik ez dago. Gazte jendea, nun jolastu ez dakiela, kalez kale dabil.

Frontoi ederra ortxe daukate, baiña soil-soilla; eta, ortik aparte, berriz, denak batera ezin kabitu, eta alkarri txanda eman nai ez jolaserako mutil azi samartuak. Batzuek, pelotan asi ezkerero, noiz gelditu ez dute jakiten, eta besteak saskibaloian modu berdintsuan, frontoi guztian beraiek agintzen balute bezela, ta txikieri ezertan utzi ez.

Sarritan ikusi ditugu mutil eta neska koskorrak, frontoian toki librerik ez dagoelako, triste asko kanpora aldegiten.

— Edozein erri txikitan daude gaur polikiroldegiak; eta Orion zergatik ez?

Auxe degu askoren galdera. Baiña nik esango nuke egoteko lasai. Egingo baidute.

Lagunarteko billerak

LAGUNARTEKO billeretan kontu asko erabiltzeko oitura degunez, aspaldi samar ildakoak ere gogoratzen zaizkigu tarteka, gizaki ezagunak eta sonatuak izandakoak baldin badira batez ere.

1995-ko ekainaren irugarren egunean, larunbatez, Oriora etorri zitzaizkidan bost lagun, nik izugarri ixtimatzen ditudanak, bazkaritxo bat egiñez denbora pasa. Aurrez deitu zidaten zer asmo zeukaten, eta ontzat artu nioten bisita pozgarri ura.

Nola ez? Ni ez naiz bankete aundiak egiteko gai. Osasunez sendo egon bear du gizonak ortarako ere, eta emakumezkoak berdin. Ori orrela izanik, asteko janari klase berberak jaten ditut jai egunetan, ezerk kalterik egin ez dezaidan. Zerbait aparteko puxketarik probatzen badet iñoiz, berealaxe antzematen diot nere gorputzari gaizki datorkion alimentua artu dedala. Pena det, baiña ez daukat supritu beste erremediorik, eta miñik ezean kontentu gañera.

Kanpotik bixitatzera datozkidan lagunak sarritan esaten didate:

— Gaur zu konbidatzera etorri gera, Lasarte; ta ardo on samarretik baxokada bat edan bear zenduke.

— Ixtimatua dago zuen borondate ona; baiña naiago det ura edanez jarraitu. Onekin ondo konpontzen bainai. Au segurua da, pertsona zaarraren barrua asko berotzen ez badu ere.

Onelaxe erantzun nioten, ekainaren 3-an etorri ziran bost gizon aieri. Ez noski ardo pixka bat gustatzen etzaidalako bazkaltzeko garaian. Baiña 1975-koan galerazi zidan medikuak; eta geroztik ez nituen bost litro ardo edango, danera jota ere.

Azkeneko ogei urte auetan bizitza neurtua alde ortatik. Baiña derrigorrez egin bearrekoa omen zan, eta ale gindu naiz oraindaiñokoan mediku jaunaren agindua betetzen. Aurrerantzean ez dakit zertara joko dedan.

Emen Orion izan ziran bost aietako bat bagenduen, izlari egokia bezela, txistoso dotorea. Ataungoa berez, eta baserritarra. Maian bildu giñanean, joan zitzaigun serbitzen zebillena, zer jan nai genduen aukeratu genezan. Janari klase askoren izenak eman zizkigun emakumeak berak, eta:

— Leenengo entremesak eta urrengo arrai zopa jango al dizkiagu? —esan zuen koadrillako batek.

— Ortan conforme. Eta gaiñerako?

— Txuletak erreta, bixigua, lebatz kogotea edo zapoa, denak daude onak. Orain zuek pentsatu.

— Guretzat berdin da.

— Parrillan erreta jarriko dizkizuegu bat bezela bestea.

Ori entzun orduko, onela dio ataundarrak:

— Neri beintzat ez ekarri zaporik, gure baserrian naiko ugari badauzkagu-ta zapoak.

Eta gero bixigua jan zuen. Goierri aldeko jendeak, Oriora datorrenean, arraia eskatzen duala geientsuene-tan konturatua nago aspaldi ontan. Aragia an bertan ona edukiko baidute, ta orrengatik izan liteke agian.

Dana dala, bazkaltzeko denboran eta ondorenean erabili genduen kontua pranko. Atal onen asieran aipatu dedan bezela, ildako gizon batzuk ere piztu arazi genituen une batez. Uztapide zanaren ixtoriak, Lazkao-Txikirenak eta abar, denetatik pixka bat.

Txirrita il zala ere berrogei ta emeretzi urte bete omen ziran egun artan, 1995-ko ekainaren 3-an. Goierritar lagun batek ala esan zidan. Nik aaztua neukan, baiña arek gogoan zeukan.

Arratsalde ona pasa genduen.

Lagun onak

GAZTETASUNAK aldegin zigun, betiko agur esanik. Guk ez daukagu gauza berririk eta balore aundikorik. Baiña degun pixkari eutsi dezaiogun al dan bitartean, bestela dena galduta geldituko gera ta.

Nik neronek lagun onak ugari antzean nituela uste izaten nuen, eta orain ziurtatu det ori benetan. Erri askotatik etortzen baizaizkit bixitatzera, Beraiek ez dute jakingo, eta nik itzez ez daukat esaterik, zenbateraiño ixtimatzen ditudan neregana datozenak.

1995-garren urteko uztailean, goierritar batzuekin bat egiñik, pasa nuen egun zoragarria ementxe, Orion bertan, beste iñora mugitu gabe, gustora bezin kontentu, egizko maitasunean.

Diodan lagun talde ura goizetik edo oso garaiz etorri zanez, naiko denbora bazegoela ta leenengo amaiketakoa egin zuten; eta gero, kanpoan paseatuz, erriari ikusialditxo bat eman genion.

Kalez kale ibili giñan. Ondartza aldera pixka bat urreratu ere bai, itxasoari begiratzearren, nolako itxura zeukan jakin al izateko.

Aldaketak maiz erabili oi ditu orrek ere. Baiña egun artan etzegoen asarre, bare ta gozo baizik; eta jendetza izugarrikoa zebillen baiñuak artzen, uretan sartu ta noiz atera etzekitela.

Osasunerako bearrezkoak omen dituzte batzuek ur gazitako baiñuak. Nik neronek ez ditut bein ere probatu; baiña ez derizkiot iñorentzat kaltegarri izango diranik, neurri jakin batean artu ezkerro beintzat. Geiegikeria txarra ortan ere, beste gauza guztietan bezelaxe.

Dana dala, bakoitzak bere jokaera bereziak dituela bizitzan garbiro ikusten da, begiak itxita ere.

Orain gaia aldatuko det, beste albiste batzuk irakurleari emateko asmoz.

Atal onen asieran aipatzen ditudan goierritar lagun aietako batek, oillasko ederrak saltzen ditu, ongi gobernatuta, denboraren bidez guri asko azi ta gizenduak.

Bera Beasainen bizi da, baiña Zaldibin dauka baserria, Auzoegi izenez ezagutzen duena erri guztiak, eta an eduki bear du adibidez oillaskoen granja.

Pollos Anchusi deitzen diote erderaz. Zuzenbidea, berriz, telefonoz itzegin nai izan ezkerro, ara emen zenbakia: 889210, Beasain.

Diodan gizon au leendik ezaguna nuen nik. Baiña ez nekien zer lanetan jarduten zan seguru; eta oillaskoak artuta koadrilla Oriora neregana leenengo etorri ziran egunean, esan zidan zer opizio zeukan.

Aspaldiko kontua da: txito txikiak erosten omen ditu, eta baserrian azi kanpo librean, arto alea txikituta emanez noski. Janari obeagorik ezin leike aukeratu egaztiarentzat.

Guri Oriora ekartzen dizkigun bezelakoak saltzen baditu denak, izango du nork eresia. Alde ederra dago konpuestoz azitako oillaskoetatik aietara.

Ongi egindako aragiak gusto aparta oi du jateko; eta kanpo librean dabilzan garaian oillo, oillanda ta oillaskoak, zomorro, txixare, berdura ta ainbat gauza billatu ta jaten dituzte. Aize sana artu gaiñera osasungarri.

Etxe barruan iñora mugitu gabe daudenak baiño denbora geiago bear dute azitzen. Baiña gero antzematen zaiote errez zer balore daukaten.

Berezko egokitasuna

IZKETARAKO molde desberdiñak ditugula denok ez da gezurra. Batzuek, asko ikasi zutelako, dotoreziz itzegiten dute. Ortan ez dago iñungo dudarik. Beste askori, berriz, berezko egokitasuna nabaitzen zaiote; ta orixe juzkatzen det bietan onena, bat aukeratzekotan. Ateraldi eder apartak entzunak gera eskolarik ikasi gabeko pertsonengandik.

Pasadizo zaar bat idaztera nijoa seiñalegarritzat, eta ez oraingoxea. Auskalo noiz gertatuko zan esango dedan au. Etxe batean, aita-semeak biak bakarrik bizi omen ziran, eta alkarrekin ongi konpondu ezin

— Zuzentasunaren billa asi bearrean ago, seme. Bestela, gureak egin samartu duela uste diat —esan omen zion aitak, bere pena zer zan adierazteko asmoz.

Baiña alperrik. Gero ta okerrago noski, ta azkeneko biak minberatu, komeni zitzaioten baiño geiago; eta aita suprimentuaren bidez gaixotzeraiño iritxi, benetako pertsona edo agian juxtuegia izanik.

Semeak eraman du ospitalera, erriko medikuak ezer jakin gabe edo ez dakit nola; baiña norbaitek lagunduko zion seguru asko aita engaiñatzen.

Dana dala, sartu dute ospitalean, eta ango medikuarekin itzezin du semeak; aita burutik nastuta dabillega, ta iñork ezin duela errenditu; etxean ez daukatela pakerik.

— Bueno, ba. Gauzak zuk diozun bezela baldin badi-ra, tratamentu bat jarriko diogu ta emen edukiko degu. ongi sendatu bitartean. Utzi gure gain, da segi lasai zure lanetan.

Alaxe, medikuak semea etxera bialdu ondoren, aita ikusi du bere despatxuan. Leenengo, galdera batzuk

egin dizkio; aitaren esplikazioak garbiro entzun ditu, eta berealaxe pentsatzen du: “Emen aitak etzeukak buruko gaitzik, semearen errua dek baizik”. Bere artan daramazki aitak egun saillak, ematen ziotena jan da bertan lo egiñez. Tarteka medikuak galdetzen omen zion:

— Zer modutan aurkitzen zera, ba, aitona?

— Ni ez nago kejatzeke moduan, emen oso ongi tratatzen nazutela ikusirik. Etxea daukat gogoan. Beste gaiñontzean, kontentu, okerragorik ez dedan bitartean.

— Ederki. Orixe jakin nai nuen —esan da martxa mediku jaunak bere lanetara.

Andik laixter, erriko alkateari abixoa pasa, nork ez dakit, baiña alako baseritako aita semeak ospitalean sartu zuela.

Ori entzun orduko, jabetu alkatea ta ospitalera deitu telefonoz medikuari galdetzeko gizon ura ea zergatik zeukaten an; gaixotasunen bat al zuen.

— Ez. Bere semeak ekarri derrigorrean. Burutik nasturik zebilela esan zigun aita. Baiña guk ez diogu ezer billatzen. Bera izango da ura burutik gaizki dagoe-na —erantzun omen zion medikuak alkateari.

Urrengo egunetako batean, ikusi du alkateak mutilla kalean eta galdetu dio:

— Aita ongi al da?

— Bai; baiña ospitalean dago. Oraintxe joan bear det ara.

— Goazen biok, Lagunduko dizut.

Alaxe, saloian bildu ta asi dira aita-semeak eta alkatea izketan, leenengo poliki antxean, baiña mutilla berealaxe zakartu. Aita umil, eta alkateak onela dio:

— Zuek obe zenduteke aita etxera joan da semea emen gelditu.

— Ez; dijoala semea, gure etxeko eroa bera da baiña —aitak.

Udara eta oporrak

UDARA eta oporrak, biak gauza ederrak ongi pasatzeko suertea duenarentzat. Baiña bukatu ziran 1995-koak ere nola edo ala.

Asieran ilusio geiago dutelakoan nago oporrak, azkeneko egunetan baiña. Illabete jai artzea asko iduritzen bada ere, sarritan usoak egan bezela pasatzen zaio jendeari, ta kito urrengo urtera arte.

Emen, Orion, ez genduen ikusi aurreko urte batzuetan aiñako jendetzarik. Uztailean eta abuztuan *camping* izeneko ori bete samartua egon omen zan adibidez. Baiña kale barruko ostatuetan ez det uste atzerritarrak bankete aundirik egin zutenik. Dendetan sartu, janariarik merkeenak erosi ta aiekin moldatu, al zan moduan.

Gu or, *Loretxu* jatetxean, sarrerako atearen kanpoko aldetik bankilloan exerita egoten giñanez eguerdian eta illunabarretan, txuleta, bixigu, lebatz kogote, kostillak, zapo arrai ta orrelakoak parrillan erretzen ikusten zituzten paretik pasatzerakoan, eta batzuek beintzat gogoz begiratzen ziotela iduritzen zitzaigun.

Frantzesak, inglesak edo oietakoak ziruditen, gutxi gora-beera esateko. Euskal Erriko jendeak bezela jateko oiturarik ez dute edukiko estranjerian, seguru asko. Janariak modu askotara nola jartzen diran, lurralde bakoitzak bere molde jakiñak erabiliko dituelakoan nago ortan ere noski.

Baiña beste zerbait badegu kezka aundi samarrak ematen dizkiguna: diru kontua alegia. Aberatsak oteletan pasatzen dituzte oporrak, komeni zaizkioten kapritxo guztiak egiñez.

Donostiko Maria Kristinan egun sail bat pozik pasa izan omen du jendeak. Nik ala daukat entzuera. Leengo

bertsolari zaarrak ere maiz aipatzen zuten Otel Maria Kristina.

Donosti otelez ederki osatua egongo dala derizkiot, aspaldiko urte auetan batez ere. Baiña lujo aundiz jantzitako etxe dotore oietan illabete pasatzeko diru asko bearko da dudarik gabe.

Batzuk merke antzean ibiltzen dakitenak badaude, bai, gaur ere, leen ez-ezik. Estranjeritik bizikletak erropaz eta tresnaz bapo bete ta etorri oi dira opor garaian kostalde ontara.

Nik sarritan galdetu izan det zer ote duen gure Euskal Erri onek, bestek ez daukana, ainbat jenderi gustatzeko.

Emen bertakoak geranak ez degu ala pentsatzen; baiña esan genezake zeru txiki batean bizi gerala. Penagarria da ez diogula merezi duen ixtimaziorik ematen. Mundu osoko lurraldeak ezagutzen ez ditugulako izan liteke ori agian.

1995-garren urteko udaran etzitzaigun iduritu ondartzara iñoiz aiña jende etorri zanik, Gipuzkoa partekorik alegia. Batzuetan bai, egun eguzkitsua zetorrela antzematen ziotenean. Goizetik illunabarrera bitartekoa ederki aprobetxatzen zutela badakigu.

Baiña eguraldiak gutxitan lagundu zuenez, noiznai ezin etxetik kanpora irten segurantzirik gabe.

Irratiz izketan jardun zan batek esan zuen abuztuko illean bost egun bakarrik egin zituela oso onak; beste gaiñontzeko guztiak dudakoak eta txarrak.

Zeru goia, beti ez bazan ere geientsuenetan beintzat, laiñoz estalirik ikusten genduen. Gauez intzaren arrastorik ez; eta berotasuna galanta, etxe barruan bezela oean ere. Giro goibel erdi erre oietakoak eman zizkigun abuztuak, eta uztaillak ere bai.

Estropadak

ESTROPADAK ainbat zer esan ematen digutenez, nik ere esku artean daukadala derizkiot izketa-rako gaia, eta berari zumua ateratzen salatuko naiz, al dedan neurrian. Joko gogor neketsu ori ez baidago aipamenik gabe ezkutuan uzterik inolako moduz.

Gaiñetik edo albotik begira egoteko kirol klase polita da; jendetza izugarriak bereganatzen dituena.

Baiña urtearen aurrenetik azkenera bitartean arrau-nean dabilzan mutil gizarajo oiek nork ordaindu lezazke, merezi duten bezela? Ortarako emen ez daukagu bear aiña diru, ta ezer gutxirekin gelditzen dira lanak bukatzean, zoritxarrez.

Estropada bakoitzean, irabazleak txalo beroak jaso-ko ditu, ta galtzailleak berriz aitzakiak, errurik ez badu ere. Inoiz uste gabeko okerrak gertatzen zaizkiotela jakin-ñean gauden arren, ezin gera konturatu aietaz.

Ni ez naiz jakinduriz ornitua, zenbaiten antzera, estropada kontuan. Baiña tarteka deskuidatzen ez danik bai ote dan inun, auxe galdetzen det, ziabogak egiterakoan eta abar.

Itxas olatuak, uraren korrientea, aizearen nundik norakoa, mutillen nerbioak edo urduritasuna ta ainbat gauza egon litezke or, nik neronek ezagutzen ditudanak eta kalte eragin lezaketenak jokatzeko garaian.

Balizetan ere alde aundia izaten omen da batetik bestera, itxas giro txarrean beintzat.

Ostatuko lagunartean sarritan entzuten ditugun iritziak dira auek, eta eziñean dabillen koadrillari zama denak leporatzen zaizkio jeneralean, ez dakit zergatik, garbiro adierazteko.

Diruaren bidez datozen gora-beerak ez ote dira oiek? Agian bai. Askok jokatu ta galtzea gerta liteke, ta gero pena izateak ez du balio batere. Baiña bakoitzari bere griña ez dago kentzerik.

Dana dala, 1995-garren urtean oriotarrak indartsu ikusi genituen. Donostiko Kontxako bandera galtzeak emango zioten miñik aundiena seguru asko, ta erriko jendeari ere bai noski. Baiña gaiñontzean lan ikaragarriak egin zituztelakoan nago.

Corte Inglés-ek jartzen du denboraldiaren azkeneko estropada bi egunetan segidan, beste erririk geientsu-
netan bezelaxe, ta ura irabazi eguerdian, Bilbaon. Errez
gaiñera, askoren ustez.

Eta, arratsaldean, urte ontan treneroan bakarrik irabazitako amabi bandera eder erakutsi zizkiguten Udaletxeko balkoitik, trenerillatan eta bateletan esku-ratutakorik kontatu gabe.

Banderak ikusgarri utsak, udaletxeko balkoian. Denak batera astintzen asi ziranean, bazan kantua, oiua ta txalo zaparrada ederrik, ongi etorria egiterakoan.

Azkeneko bost urte auetan eun bandera ekarri omen dituzte oriotarrak, guztira jota. Badala uste det zerbait.

Zoriontzea merezi zuten, baiña errespeto aundiz; eta ortantxe ikusi genduen Orioko plazan bildu zan jendea.

Oso arraunketa bikaiña daukate erri ontako muti-llak. Leen eginda zeuden markaren batzuk obetuak ere badituzte adibidez. Zenbat tokitan ezin nezake seguru esan, neronek ez dakit eta.

Baiña gauza oiek nork kontatua bazan, irratiz, telebistaz, egunkariz ere bai, ta naikotzat dauzkat egun bakoitzean entzuten ziran albisteak.

Beraz, Jose Luis Korta entrenadorea ere eskertu nai nuke, bere arraunlariekin batera, beste iñori ezer kendu gabe.

Txomin Usandizaga “Ibiya”

EL DIARIO VASCO egunkarian eskela asko agertzen dala jakiñean gaudenez, noizean bein edo nai baiño geiagotan ikusten ditugu gure ezagun eta adiskide izandako pertsonen argazkiak. Neri aspaldi esan zidan gizon umoretsu batek, periodikoan irakurri litezkeen egirik seguruenak oiek zirala: eskelak alegia. Etzeukan deskuido aundirik, gai ortan beintzat.

Nik 1995-ko iraillaren 23-garren egunean auxe irakurri nuen: Txomin Usandizaga Aranburu il zala, larogei ta lau urterekin. Asteasuko *Ibiya* segalari sonatua izandako seme pizkorrak bukatu zuen mundu ontako bere bizitza. Leenengo begiratuan pentsatu nuen nik: “Gizon au oso ezaguna diat, ba”. Baiña ezin nintzan jantzi bear bezela, ta alako batean letra txikietan zetorren *Ibiya*, ta orduantxe konturatu, eta jabetu ere bai nortsu zan.

Izan ere, auskalo zenbat urte pasa zitzaizkigun alkar ikusi gabe; ta, ortik aparte, berriz, Oñatin, Mikel Deunaren parrokian, ospatuko zala bere animaren aldeko illeta elizkizuna zion eskela idatzi zuenak. Baiña berez asteasuarra zanik ez, ordea, ta ortxe nengoen dudan.

Gero eskela bigarren aldiz goitik beraiño irakurri nuen. Pertsona batek telefonoz deitu baizidan, Asteasuko *Ibiya* segalaria nola il zan.

Nik ez nekien nundik nora zebillen ainbat urtetan. Baiña Arantzazu inguruan Kortakogain baserrian bizitu omen zan. Bere emazte Juanita Galarraga, seme-alaba eta famili arteko guztiak artu dezatela, atal onen bidez, nik bialtzen dedan samin agurra. Eta Txomin Usandizaga zanari zeru ederreko atsedeen gozoa eman dezaiola

Jaungoiko altsuak. Auxe desio nuke nere partetik. Gizon aundia bezin indartsua ezagutu nuen nik Txomin, bere sasoirik onentxoenean.

Asteasun segalari aukera beti izan zala leen ongi baiño obeki daki Euskal Erriko jende apizionatuak. *Ibiya*-k ez dakit zenbat apustu jokatu zituen, garbiro idazteko. Baiña segan oso onaren fama artu zuela gogoa daukat. Gorputz bikaiñeko gizon pusketa aundi bat zanez, indarrez bezela, zataiz osatu egiten nunbait edo zer gauzetarako ere, ta orretzek balio, dudarik gabe.

Asteasutik Aia alderako kamioaren ertzean kantera bat bada. Orain ez dakit martxan jarraitzen duen edo geldirik dagoen. Baiña *Ibiya* onek urte batzuk pasa zituen kantera artan lanean.

Gure gazte denboran nik sarritan ikusi nuen, bizikleta zaar batekin gora ta beera an ibiltzen nintzalako. Erropatan ez det uste diru asko gastatuko zuenik. Gerriz goitik beintzat, ez kamiseta eta ez alkandora, ezer gabe. Buruan bisera, anketan botak eta galtzak bakarririk erabiltzen zituen soiñean, izerdia errezegi ateratzen zuelako edo nork jakin lezake zergatik?

Langille ikaragarria omen zan. Ala entzuten zitzaion Asteasuko jendeari.

Izketan ere etzan, ba, makala. Aian prankotan ikusi genduen bere moduko batzuekin karta jokoan eta abar. Umore eder askoan esaten bezela entzuten ote zekien iduritu zitzaidan iñoiz.

Ura ere igandea noiz iritxiko zai egongo zan noski, jai egiteko, beste askoren gisan, orduko bizimodua alaxe izanik. Emen eguneroko ogia irabazteak baditu bere eginkizunak pertsona pobrearentzat, eta kanteran arri tartean dabillena ez da aberatsa.

Urte gogoangarria

URTE gogoangarria 1995-garrenge au, eguraldiaren aldetik batez ere.

Eguzki gutxikoak ziran, nola udaberria, ala udara. Zeru goia illun bezin trixte eta goibel sentitzen genduen egunik geientsuenetan.

Gauetz, berriz, intzaren arrastorik ez; eta oean mantak gainetik kendu egin bear derrigor, berotasunaren eragiñez. Bestela etzegoen lo gozorik eta gorputza atsedetzeko modurik, iñundik iñolaz ere.

Udara partean lan asko egiten duen pertsonari, izerdiz bustitzearekin batera odolak irakiten dio, ta gauean freskura nai du indarberritzeko, aspaldiko esaera zaararak adierazten digunez.

Gizon adiñez aurreratua ere naiko kejak erabili zituzten udaberrian eta udaran, gaueko loari zegokiotenean. Batzuek, oean maindire batekin bakarrik tapatu ezkeru aski zala; ta beste askok, berriz, batere gabe egiten zutela lo ongiena.

Baiña noizean bein uste gabeko katarro gordiñak arrapatu ere bai, otzaren bidez. Etzan da iñora mugitzen ez bada luzaroan, goizaldera sentituko du freskura gorputzean, naiz eta gau girorik beroena izan.

Petxu alde pixka bat tapatu bear omen du pertsonak oean, lo artu baiño leen. Ori sarritan entzunak gera, ta nik neronek beintzat manta bat beti edukitzen det, badaezbada ere.

Otzari bildur aundia diodanez, kontuz ibiltzea dala onena pentsatzen det gai ortan ere. Bestela, nork bere buruari supritu arazi lezaioke utsaren peskizan.

Dana dala, jo dezagun aurrera, papera bete bitartean.

Udara guztian nolabaiteko giro pobrez osatu giñan ederki. Irratiz izketan ari zan bati entzun nion abuztuko illak lau edo bost egun eman zizkigula on apartak. Beste gaiñontzeko danak erdi ipurdikoak eta txarrak.

Trumoiak erabili zituen zalaparta galantak, eta kalte bildurgarriak egin ere bai baztarretan.

Naparroan mastiak erabat txikiturik utzi zizkioten adibidez. Aurreko urteetako irutatik bat ez ote zan bilduko esan zuen telebistan itzegin zigunak. Beraz, ardo ona ta merke edatea kostako zaiola derizkiot jendeari.

Ta matsa bezela zirtzildu omen zituen bestelako fruktak, barazkiak eta parean arrapatutako gauza guztiak. Akabo ango kosetxak.

Trumoi gogorak azkenerako orixe ekartzen du: arria goitik beera, euri gozoaren partez, eta nekazarien etorkizuna alperrik galdu, lastimagarria bada ere.

Eguraldiaren goraberan arrantzaleak guk baiño askoz ere geiago ulertzen dute. Emen, Orion, badago barometroa, eta berari begiratzen diote egunero, zer denborale markatzen duen jakin al izateko eta gero lagunartean kontatzeko.

Guk urre samarreko gertaerak esaten ditugu; baiña kanpo aldetik ere ez genituen albiste pozgarriak jasotzen 1995-ko udaran.

Bartzelona ta Kataluñako erri batzuk, zenbat seguru ez dakidan arren, urez gaiñezka egiñik gaizki ibili omen ziran. Andaluzi ta lurralde aietan, berriz, legorteak jota, uraren eskasi ikaragarritz supritzen, nola kristauak ala animaliak.

Telebistak ematen zizkigun imajiñak, penagarri utsak eta bildurtzeko modukoak. Noizean bein txinatarrak ere ikusi nituen igeri zebiltzala kalez kale.

Zoritxarrez, okerra ugari ta kito.

Peri egunak eta azokak

PERI egunak eta azokak oso gustokoak dituela jendeak pentsatu izan det nik nere kasa sarritan, gure lurralde ontan. Emen, Orion bertan, asteero eta ostegun goizetan asita, eguerdian bukatzen da azokara ekartzen dituzten jenero guztien edo askoren saldu-erosia. Janariz aukera izugarria ikusiko du plazara zerbaiten billa dijoan bakoitzak, eta soiñean jazteko erropaz ere bai noski. Prezios ez dakit nola dabiltzan gauzak.

Peri kontu ori, berriz, erri jakin samarretan ez ote da egiten eta ez ote dago onenak emana?

Gaiñera, nik entzun dedanez, aragia ta esnea, biak oso merke omen daude. Baserritarrentzat neurri justuan alegia. Ta, ortik etorkizunik ez daukatenez, esne askoko beiak saldu ta errape legorragokoak ekarri ta larrera botatzea ohea dala. Urteko ume bana azi dezatela ta dabiltzala kanpoan libre edo itxituraren barruan, udaran bezela neguan ere, iñor endredatu gabe.

Orixe pentsatzen asitako baserritarrak bazeudela esan zidan gizon batek. Naiko minberaturik zegoela zirudien gizarajo arek. Baiña asko irabazi ezin danean, gutxirekin konformatu bear derrigorrez. Langilleak ez dauka beste erremediorik.

Leen ere, baserri batzuetan, ganaduak kanpoko larrean erabiltzen dituztenez, jendeak jakingo du zertara jo ta errezena nola mantendu. Jateko belar freskoa ta edateko ura aukeran baldin baditu, ganadua sano ta ederki ibiliko da kanpoan.

Udaran, batez ere, otzak ez du penatzen, da nik ikusi ditut arra bezela gizendurik bei gorri oietakoak. Bai txekor gazte mardul askoak ere.

Esnerik gutxiena duen beiak ere, bere umea asetze-ko aiña izaten duela badakigu. Amaren errapetik errez mantendu oi da, pixka bat azi ta larrea jaten ikasi bitartean; eta gerora ere etzaio aaztuko nolanai errape gozo artako esnea, ama ematen aspertzen ez bada beintzat.

Peri ta azoka famatuak Ordizin izan oi dira, Irailleko pestetan. Gu leen urteero joaten giñan bertsoara. Uzta-pide, Lazkao-Txiki ta ni, Lasarte, irurok seguru; ta Azpeitiko Joxe Agirre ere bai bein baiño geiagotan, laukotea osatzeko. Baiña urte batean Lazkao-Txiki ta biok bakarrik omen giñan kantuan.

Nik ez dakit nolaz edo zergatik gertatu zan diodan au. Beasain inguruko bertsozale purrkatu batek esan zidan oraindik oraintsu. Arek usteko zuen ni gogoratuko nintzala pasadizo artaz; baiña ez neukan aztarnik ere.

Dana dala, Iraillean peri nagusia eta azoka, biak batera egiten dituzte Ordizin, goiko plaza zaarreko zugaitzen itzalean. Esne-beiak, bigantxak eta zezenak an zeuden, urtero bezela. Diputazioak ganaduen sariketak jartzen baizituen. Moroak ere ugari, dozena bat bai, alajeriak saldu nairik.

Guri bertsoarako gaia eman omen ziguten, ea zer iduritzen zitzaigun egun artako peria. Lazkao-Txiki aste-ko ta Lasarte jarraitu. Lazkao-Txikiren bertsoa ez du gogoan Beasaingo gure lagunak. Nerea auxe omen zan:

Nunbaitetikan asi bear ta
al dakit nundikan asi,
klase guztitik ongi jantzia
nola baidagon Ordizi?
Gaur baiño peri ederragorik
sekulan ez det ikusi,
moroak ere or daude salgai
nai dituenak erosi.

Nekazarien estualdi garratzak

NEKAZARIEN estualdi garratzak ez nituzke nolanai aaztuta ta baztarreko zuloan utziko, begien bix-tara agertu al banezazke. Kaleko faubriketan bezelako zorrotzasunik eta ordu juxturik ez du izaten nekazari-tzak lanean asteko ta uzteko. Baiña jai ta aste zuzen jarraitu bearra bai, etxeko martxari ongi erantzun nai baldin badio.

Ukulluko beiak garai jakiñak dituzte errapean daukaten esnea kentzeko ta janaria emateko, goizean eta illunabarrean. Egun bakoitzean bi aldiz jeizten dira beiak jeneralean. Jan, berriz, gosetzen dan guztian egin oi du, aurrean aukeran jartzen badio iñork. Ori dala-ta, kezka ugariz beterik arkitzen da baserrietako jende geientsuena.

Iñoiz famili arteko billerak antolatzen badakite: ezkontza, komonio, zillarrezko eztaiak, urrezkoak eta abar. Baiña aietan ere sarritan presaka ikusten genituen leen. Illunabarrera inguratu ezkerro beintzat, laixter asiko zan bateonbat esaten:

— Gu emen gustora gaude, sabelak bapo bete ta kontu kontari, etxeko ganaduen lanak nork egiña balego. Baiña morroirik eta neskamerik ez daukagunez, aiek gureztat daudela badakigu, eta lenbailen joatea genduke onena, ganaduak gosez penatzen egon ez ditezen.

Orrelaxe jarduten ziran izketan lengo nekazari zaar-rak, bearrak agintzen ziotelako nere ustez. Oraingoz lasaixeago ibiliko al dira noski.

Baiña bizimoduak alde guztietan ematen du galtzak bete lan. Nik nere gazte denboran baserritar asko ikus-

ten nituen igande goizetan kaleratu, elizan meza entzun, andik irten da zuzenean etxera joaten, iñungo ostaturan sartu gabe.

Zintzotasuna geiegizkoa ez dakit ona dan. Baiña denok ez degula berdin pentsatzen bai; ortaz konturatzeko aiña motibo badet. Nola ez?

Nik ezagutu nuen Zarautzen, ganaduak perratzen jarduten nintzan urte umoretsu aietan, gizon zintzo purrukatu bat. Perratokira joaten zitzaidanetan, zenbat parre algara gozo eragin zidan neri arek esanda, iñork ez luke sinistuko seguru asko. Izketarako etzuen mingaiñean illerik, eta gezurrari izugarrizko gorroto nabarmena zion.

Egun batez, oso goiz oetik jeikita, joan dira semea ta biak eguzkitan ontzeko belarra ebakitzera, eskuzko segakin jakiña, leengo lege zaarrean, artean ez baizan segadora makinarik, eta aitak esan omen zion semeari:

— Intza dagoen bitartean ebakiko diagu errezena, ta jo dezagun oraintxe al daneraiño. Egoaizea mugitu dik eta bero ikaragarria zetorrek.

Alaxe, aitak txalekoa beti jantzita soiñean erabiltzen zuen. Baiña egun artan, zearo izerdiz busti zalako, erantzi txalekoa ta sagar zugaitzaren adarrean zintzilik jarri du; ta segi lanean. Belar sailla ebaki, zabaldu ta etxera gero, bazkaltzeko garaian. Konturatu da txalekoz eta galdetu dio andreari:

— Nere txalekoa ikusi al dezu?

— Nik ez, eta ez nuen uste soiñean etzendukanik, gauean oerako bakarrik kentzen dezunez —andreak erantzun zion.

Ta berak:

— Akabo gure diruak! —esan da korrika sagastira gizona.

Antxe billatu noski, goizean utzita bezela, txalekoa ta kartera, biak, iñork ukitu gabe. Ez omen zan asarre gizarajoa. Auskalo zenbat diru zeukan. Ostatuan ezer jaten sekulan ez nuen ikusi. Kartera txalekoaren barruko poltsan erabiltzen zuen, kate bat erantsi ta seguru.

Aitona zaartutako baten ixtoria

AITONA zaartutako baten ixtoria gogoratu zait gaurko atal ontan idazteko, irakurle; ta zuri eskeiñi nai nizuke, denbora pasa irakurri dezazun.

Baiña aurretik asi ta guk geronek gauza asko nolatsu ezagutu genituen esplikatu leenengo, ta gero esango ditut aitonaren pasadizoak.

Mundu ontako bizitza laburrean, gizonetik gizonera alde aundiko pentsamentuak, iritziak eta jokabideak billatu genezazke, artaratuko bagiña.

Iñoiz elizkizunak aukeran dauzkagula ezin liteke ukatu. Baiña sarritan errez uzten ditugu zaarturik gaudenak ere, ta gazte jendeak zer egingo du? Lo lasai, iñork pakea eman ezkeru. Leen, gure gazte denboran, igande goizetan meza entzun gabe gelditzea pekatu zala uste izaten zuten askok. Orain, berriz, jende gutxi joaten omen da elizara, batzuek diotenez. Beti badauzkagu aitzakiak eta esamesak.

Azkeneko irurogei urte auetan zenbateraiñoko aldaketak egin diran nor ote daki? Nik baiño buru argiagoa bearko du ori erabakitzeko. Edozer lan klasetan ere, pertsona bakoitzak bere jokabideak ditu. Iñor ez da beste norbaiten berdiñik.

Apaizak elizak, igandeetan batez ere, ongi jendez betetzea nai izaten dute, arrazoi aundiz gaiñera. Ni ez naiz orren aurka. Baiña badirala uste det gizon eta emakume jator askoak elizara oso gutxitan joaten diranak. Ez dakit zergatik. Ori beraien esku daukatenez, guk ez daukagu ezertan sartu bearrik, edo nik neronek beintzat. Emen, Orion, bat iltzen danean, aren elizkizunera

biltzen da jendea ikaragarri. Eliza txikiegi gelditu oi da sarritan. Orixe ere gauza ixtimagarria iduritzen zait: betiko lur alde ontako lanak bukatuta ezkutatzera dijoanari erriak agur sentikor bat egitea.

Dana dala, atal onen asieran aipatzen dedan baserri-tar aitona zaarraren gertaera oraintxe kontatuko det, nik aspaldi entzun eta gogoan artu nuen bezelaxe. Erreumak jo ta gorputza lotua edo nagiturik eduki bear zuen gizarajo arek, eta urtean beingo Pazkoazkoa egin nai, ba, oitura alaxe zuelako. Baiña baserritik kalera bide luze samarra, ta oiñez ibiltzeko almenik ez nunbait. Eta pentsatu du astoaren gaiñean exerita errezago mol-datuko dala.

Alaxe, astoari jarri dizkio bizkarreko tresnak leenengo. Gero berak erropa garbiak soiñean jantzi. Etxe atariko pareta koskatik asto gaiñera igo da, ta martxa kalera. An baztar batean astoa lotuta utzita, sartu da elizara aitona, poliki-poliki, zalapartarik atera gabe, al duenik ixillena. Konpesioa edo aitortza egin du apaizarekin, Jauna artu ere bai, ta elizatik irten da ostatuan sartu, ta kafe beroa ta bi kopakada patar edan ditu aitonak.

Ondoren, astoarengana joan da asi da gaiñera igo-tzen. Baiña ezin ankarik jaso iñolako moduz.

“Au dek komeria!” pentsatuz, ekin dio Jaungoikoari ta santu guztieri errezatzen.

— Asto gaiñera igotzen lagundu zaidazute, arren! —eskatzuz jardun ondoren, berriro probatu ta alperrik. Leen bezela.

Orduan onela dio bere kasa:

— Oraindik moteltxo negok. Beste kopa bat falta diat.

Alaxe, ostatura joan da artu du irugarren kopa, ta itzuli astoarengana. Egin du izugarrizko saltoa. Astoa-ren bizkar gaiñetik beste aldera pasa ta erori da lurrera; eta esan diote santueri:

— Leen ez didazute lagundu; ta orain denok batera ez, ba, bultza!

Zeraindarren bisita

ZERAIN erri txiki bat degu, polita bezin maitagarria. Ni an bertso saio asko egiña naiz, beste bertsolari batzuk bezelaxe, ta ez daukat batere damurik, biotza betetzen didan poza baizik, irakurleari garbiro adierazteko.

Abuztuan, Ama Birjiñetan ospatzen dituzte urteko jai nagusiak, txukun antzean gaiñera.

Etxe berriz apaindurik dago Zerain. Bizileku mordoska egin zituzten, eta frontoia edo pelotalekua ere bai. Ura etzaiote gaizki etorriko, pestak antolatu al izateko. Eguraldi txarrak diranetan, legorpea seguru daukate oraingoz; eta, eguzkiak berotzen duenean, itzala bertan. Pelotaleku on batek jantzi aundia ematen dio erriari.

Pelotarako apizioa ere berak sortzen duela esan genezake gazte jendearen artean. Izan ere, ain da polita kirol klase ori. Lau pelotari bina-binaka jokutzen ari diranetan batez ere, ikusgarririk onentxoena agian, batzuen ustez.

Dana dala, nik Zeraiñen leenengo aldiz 1952-an kantatu omen nuen. Oraindik denbora gutxi da au jakin dedala. Neronek ez neukan gogoan. Amaika orrelako baditut aaztuak, eta ez naiz batere arritzen.

Martin Etxaluzek dakizki orduko komeriak nolatsu ziran. Egun batez, Inozentzio Olea ta biak etorri zitzaizkidan Oriora. Ni, beti edo geientsuenetan bezela, *Loretxu* jatetxean bertako aita zaarrarekin izketan ari nintzan, denbora pasa, leengo kontuak berritzea gustatzen zaigunez; eta sartu dira berrura Inozentzio Olea ta Martin Etxaluze, nik ain ixtimatuak izan ditudan bi lagun.

Itzez esanda bakarrik ezin liteke sinistu zenbaterainoko poza eman zidaten ikusi utsarekin. Egun zoriontsu

artan espero ez nuen bisita gogoangarria gertatu baitzizaidan.

— Zer zabiltzate, jaunak? — galdetu nioten.

Eta:

— Zuregana gatoz, bazkaritxo bat alkarrekin egin dezagun, Lasarte.

Auxe zan aien erantzuna, ta neretzat oso gustokoa gaiñera. *Loretxu* jatetxean bertan bazkaldu genduen lasaitasun ederrean.

Gure garaiko bertso kontuak erabili genituen. Inozentzio Oleak asko ulertzen du gai ortan, bera bertsolaria izanik. Bat-bateko bertsogintzan plazetan ez dakit inoiz jarduna dan. Baiña paperean idazten ona da.

Liburuak ere baditu egiñak, bi beintzat, nik dakizkidanak. Olearen bertsoak nolakoak diran ezagutzeko, aiek eskuratzea litzake onena noski.

Ortik aparte, bertsolarieri gaiak jartzen oso egokia izan dala badakigu. Erri askotan pozik kantatuak gera, Inozentzio Oleak gaiak emanda. Ortan ere badago alde ederra gizon batetik bestera. Berezkotasuna daukanari errez antzematen zaio, ta kito.

Orain, atal au bukatzeko, edo lentxeago erdizka utzi dedan pasadizoa osatzeko, Martin Etxaluzerengana pasako naiz. 1952-an, Zarautzen ari nintzan ganadu perratzen, eta egun batez an dijoakit perratokira, Zeraindik bizikletan, euria baldearekin ura bezela botatzen zuela, dena bizkarretik beera artuz. Izketan asi orduko, onela zion berak:

— Zure billa nator, Lasarte.

— Zer dezu, ba?

— Zeraiñen pesta degu laixter, olako egunetan; eta bertsotarako bear zaitugu, libre baldin bazaude beintzat.

— Ori besterik ez bada, egingo det, Martin. Libre nago ta gustora serbituko zaituztet —esan nion bertsozale oni.

Eutsi dezaiotela biziari

EUSKERA eta bertsolaritza bi gauza batera datozenak diranez, eutsi dezaiotela biziari luzaroan eskatuko nuke nik, nere borondateak balio baldin balu. Baiña ezin nezaioke, ordea, beste inñori agindu zer izkuntza erabili bear duen. Bakoitzak beretzat onena aukeratu dezala, ta or konpon ortik aurrera. Orixe pentsatzen egoten naiz sarritan, eta ez dakit asmatzen dedan edo ez.

Gaur euskera gainbeera dijoakigun kontua entzuten degu alde guztietan, maiz gaiñera. Baiña aspalditxotik datorren akatsa da ori, nere ustez. Pixkanaka indarra galtzen joan dala begien bixtan dagoenez, ezin genezake ukatu inñolako moduz.

Nik gogoan daukat egun batez Naparroako Iruritan ikusi genduen kaso, orain dala ogei ta amarren bat urte, gutxi gora-beera esateko.

Erriko jai nagusiak zituztela ta ea bertsotara joateko moduan ote geunden galdetu ziguten telefonoz. Baietz erantzun genioten, eta Azpeitiko Joxe Lizaso bertsolaria ta biok joan giñan, arratsaldean gendukan bertso saioa ta garaiz antzean.

Ordurako kotxea bazuen Lizasok bere eskuetan, eta neretzat biaje merkea bezin eroso. Lagunak kotxea izatea ohea baida, norbera gutxi gastatuta ibiltzeko.

Dana dala, Irurita erri txiki dotore bat da, nere begiekin ikusita beintzat. Oillo kolkaren azpian txitoak bezelaxe dago bildu-bilduan, kalea batez ere. Baserriz ez dakit zenbateraiño aundi izan liteken. Baiña ez dirudi goiko maillakoa danik, begira jarrita. Elizondotik iru bat kilometro onuntzago, oso leku politean dago nere gutorako, Irun aldera gatzozela.

Andik pasatzen zan kamioa leen. Oraingo berririk ezin nezake eman, urte asko baidira azkeneko aldiz erri artan sartu nintzala. Baiña ez det uste geroztik autobi-derik aldatuko zutenik, naiz eta kamio berri ugari egin arren baztarretan.

Gu Iruritan izugarri ongi tratatu ginduzten. Joxe Lizasok ere ala esango luke, egun edo arratsalde eder ura gogoan baldin badu. Baiña nik gutxiena espero nuen gauza batez jabetu nintzan joan da berealaxe. Artean naiko denbora bagendukala ta kafetxo bana artzeko asmoz ostatuko maian exeri giñan. Jendez bete samarturik zegoan. Bertako gizon zaar batzuk karta jokoan ari ziran.

Oitura edukiko zuten noski kartetarako, baiña ez ordea euskeraz itzegiteko. Denak erdera zerabilkiten aoa betean, errez eta txukun gaiñera. Nik ez nion iñori ezer esan. Lizasok ere etzuen itzik atera. Ez baizegoen arrazoirik gure alde. Emen gabilitza euskera gora ta euskera beera, baiña alpertsurik. Gaztelera aspaldi nagusitu zitzaigun, eta kito.

Iruritan arrigarrizko jendetza zebillen plazan dantzatan. Baztan aldeko gazte guztiak billera zutela zirudien.

Gu eskola etxeko sala aundi samar batean jardun giñan bertsotan. Elizondoko Mariano Izetak jarri zizkigun gaiak, Baztan parteko erri guztietan bezelaxe. Iru bertsolarik kantatu genduen: Joxe Lizasok, Klemente Ezkurdiak eta Lasartek.

Saioa bukatu ondoren, ostatuan merienda-afari ederra eman ziguten. Eskatutako soldata ere bai, ta kontentu bezin gustora etxeratu nintzan, ni beintzat. Eta Lizasok ere etzuen poza beste kejarik gau zoriontsu artan. Oso ondo portatu baiziran Iruritan gurekin.

Aari talkalariak modan

AARI talkalariak modan aspaldiko partez. Ez ditza-
gun baztertu, irakurle, gure aurreko guraso zaa-
rren ateraldi sano miñik gabeko aiek. Oraingoz denok
presaka eta korrika gabiltzala ez legoke esan bearrik ere
noski.

Bizimoduak alaxe agintzen digulako edo ez dakit zer-
gatik; baiña guk gazte denboran ezagutu genduen lasai-
tasunezko patxada anaikor umoretsu ura galtzen ari ote
dan errezelotan nago.

Bakoitzak bere izakerari begiratzeko ta garbiro
aitortzeko eskubiderik baldin badu, nik neretzat lengo
oitura zaarrak eta bizi postura aukeratuko nituzke itxu-
-itxuan. Ez noski orain dala berreun urte ziranak, nero-
nek ezagutu nituen garaikoak baizik.

1936-an gerrate negargarri bat sortu zan, eta aretxek
nastu arazi zituen baztar guztiak, urte saillerako gaiñera.

Beste gaiñontzean, inbidioso gutxi izango zala deriz-
kiot, eta ala uste det. Baiña baliteke ni pentsamentuz
gaizki ibiltzea ere, ta zuk ulertzea eta barkatzea nai
nuke, irakurle, nere utsegiteak billatzen badituzu gaur-
ko atal ontan.

Gure lurralde onek beti eman ditu pertsona batzuk,
lasai purrukatuak bezela, estuegiak ere, itxurak diraz-
nez. Nik neronek Euskal Errian asko ikusi izan ditut
aitona paketsu umore ederrez jantziak. Baita zital an-
tzekoak ere. Emen bakoitzak bere nortasuna barruan
edukitzen duenez, ori ezin liteke aldatu, eta barkatu
bearra dago, nai ta nai ez.

Beste gauza bat, berriz, auxe da garrantzitsua: per-
tsona zaarrari gazteak ez dezaiola neurritz kanpora bur-
larik egin, bera ere zaartzeko bidean dago ta.

Nik gure lagun urte mordoan izandako baten ixtoria daukat gogoan. Gizon alaia ta txistoso amorratua zalako, gazteak zirika asten zitzaizkion, aren kontura gozazten oituak zeudelako leendik.

Baiña azkenerako tristetu, ordea, zearo gainera. Egun batez, bera bizi zan errira bertсотara joanda, gizon naigabetua billatu genduen. Bertako batzuek esan ziguten gaixorik zebillela ta etzeukala arrazoi txarra besterik. Etzegoala ura toreatzerik. Laixter il zan gizarajoa.

Orain, au bere ontan utzita, atal onen asieran aipazten dedan bezela, aari kontuetan sartuko naiz.

Aian baziran banaka batzuk apusturako aariak prestatzen zituztenak gure gazte denboran.

Baita gizon izlari trebe argi oietako bat ere, *Frantzesa* deitzen ziotena. Arek etzuen ikusi gabe utziko, Aiako aariren baten apustua baldin bazan. Zale purrukatua izatez aparte, erritarrak irabaztea nai.

Baiña beingo batez, ordea, disgusto edo naigabe latza artu zuela jakin genduen. Aiatarrak aaria ona eduki nunbait, eta egindako apustuz ere kontentu.

Baiña izentatutako eguna iritxi zaiotenean, joan dira Azpeitira ta jokia galdu. Beste aaria ez dakit nungoa zan.

Dana dala, eramandako sosak plazan utzi ta serio asko ostatura aiatarrak buru makur.

Azpeitin bai omen zan *Odolki* izengoitia zuan gizonen bat. Aiako *Frantzesa*-ren ezaguna noski: ta, ostatura sartu orduko, aiatarrak ikusi ta onela dio *Odolki*-k:

— Datorren astean Aian azak jan beartrean zerate.

— Aizak: azak ez dituk txarrak, odolkia nastuta —*Frantzesa*-ren erantzuna.

Gaitza indarrean

GURE gaixotasunezko gertakariz osatu nai nuke gaurko nere ataltxo au, irakurle, zuri eskeintze-arren; eta une batez gozatu zaitezen, irakurtzeko astirik edo gogorik baldin badaukazu beintzat.

Emen pertsonak uste izaten du, norbera ongi dabillean, beste guztiak ere alaxe ibiliko ote diran osasunaren aldetik alegia. Baiña ez da orrela gertatzen, zoritxarrez. Iñori ez diogu opa bear gaitzik; eta arrazoirik gabeko suprimenezko zigorrik ere ez noski. Baiña oiek danak guretzat jarrita daudenez, pazientzirik ez dezagun galdu inholako moduz.

Nik inoiz ikusi ditut gizonak zaartu bitartean sekulan buruko miña zer dan jakin ez dutenak; eta gero, gaixotasuna arrapatutako garaian, berealaxe estutzen diranak; errez etsipenean erortzen dakitenak. Itxaropena galtzeak ekartzen omen du ori, mediku askoren iriziz. Ni neroni ere ez naiz animosoa jartzen gaitz gogor baten aurrean. Suprimentu ugari izan dedalako edo ez dakit zergatik, bildurra ezurretaraño sarturik daukat.

Azkeneko urte auetan batez ere, medikuarengana nijoan bakoitzean, kezka sentitzen det buruz gain. Zer modutan billatuko ote nauen eta abar, beti zerbait pentsatzen, eta ezer erabaki ezin. Marka polita da orixe bera ere.

Baiña ez gera banaka batzuk bakarrik osasun eskasia degunak, ordea. Klinika, ospital eta gaixo-etxe guztiak zearo beterik daude jendez adibidez. Gaitza indarrean dabilela dirudi baztarretan. Istripuz ere auskalo zenbat ondatzen diran, eta denetatik geiegi. Medikuentzat lana galanki. Kaso zelebren pranko ikusi ta erabili bearko dute eskuen artean, egunez ez-ezik, gauez ere, nai baiño geiagotan.

Ni gogoratzen naiz beingo kaso batez. Operatuta nengoela, oetik jeiki ta pasilloan paseatzen astea komeni zitzaidala pixkanaka agindu zidaten; eta an banuen aldameneko gelan zegoen lagun jator ixtimagarri bat. Biok egun berean operatu ginduzten ain zuzen. Baiña ez genduen suerte berdiña izan. Ura ebakuntzatik oso ongi irten zan. Ni, berriz, gaizki edo nolabait, eta gero komeri beltzak ikusi bearrez arkitu nintzan.

Dana dala, esaten ari naizen bezela, diodan lagun ura ta biok paseatzen genbiltzan poliki-poliki. Indarrez ere urri antzean bainengoen artean ni neroni beintzat; eta uste gabean agertu zitzaigun aspaldiko ezagun zaar bat. Urruti samarretik deitu zidan leenengo:

— Lasarte, Lasarte, itxogin mesedez!

— Bai, bai. Ez dizut nik korrika aldegingo —erantzun nion.

Urreratu zanean, alkarri esku emanda kontu kontari asi orduko, onela dio berak:

— Noiztik zaude emen apupillo, Lasarte?

— Amalaugarren eguna det gaurkoa.

— Operatuta edo nola?

— Bai. Orain dala amairu egun egin zidaten ebakuntza. Ta zu zer moduz? —galdetu nion.

— Ni ere ortaraxe etorri naiz. Gibelean kistea omen daukat. Biar kenduko didate noski.

Kliniketan zigarroa erretzeko toki jakiñak izaten diranez, an ibili zan barrura ta kanpora eten gabe. Iru-rogei ta emezortzi urte zeuzkala zion; baiña gizon gordiña ta indartsu ikaragarriaren itxura artu nion. Gauean jatekorik eman etziotelako, asarre noski. Leenengo, bere andreari sermoia: joateko sukaldera eta eramateko afarria; ta, urrengo, enfermerak astindu izan bear zituen. Baiña alperrik ari zala konturatu zanean, lo artu; ta goizean berriro oiuka gosari eske. Arek janaldia egin, zigarro batzuk erre ta joan naiko zuen operatzera.

Idi probak edo demak

IDI probak edo demak urritu ote diran errezelotan nago. 1995-koan aurreko urte batzuetan aiñako zalapartarik ez degu sentitu emen Gipuzkoan, nik neronek beintzat. Bizkai aldean ez dakit nolako mugimentua ibili dan gai ortan. Baiña an ugariago antolatzen dituzte txapelketak eta abar. Izugarrizko apizio sutsua baidute ganadu probatarako.

Gu gazteak giñan garaian ere gauza berbera gertatzen zan. Gipuzkoako baserritarrak noizean bein zerbaiten motiboz alkarri punturen bat artu ta andik sortu oi ziran demak edo temak, eta azkenean apustua jokatu, bakoitza bere tokian errenditu zedin betiko. Baiña irabaztunak, belarri berotzailleak izaten dituenetz, aurrera jarraitzea pentsatzen baldin badu, orduantxe kontuak.

Beraz, nor ote da bietan ongiena gelditzen dana, gerokoari begiraturuz? Leenengo apustua galdu ta erretiratzen dan uraxe, nere ustez beintzat.

Jokoak pozaldiak emango dizkio gizonari batzuetan. Ez naiz orren aurka. Baiña penak eta naigabeak geiagotan. Dana dala, jendeak denbora pasatzeko zerbait bear duela ere badakigu; ta segi aurrera, al dan bitartean.

Idi demak gustatzen zaizkionak ikusi lezazke, dirua asko arriskuan jarri gabe. Nork bere gain dauka neurria, zenbateraiño sartu jokoan alegia.

Txapelketak dirala esango nuke politenak. Bizkaitarrak aspaldi konturatu ziran ortaz, eta zumua errez atera diote gaiñera erri askotan. Jendea plazara bildu arazteko arte ederragorik ezin liteke asmatu iñolako moduz.

1995-eko azaroan ere bazuten *Corte Inglés* saria edo orrelako zerbait. Ez dakit zenbat idi parek artuko zuten

parte guztira. Baiña Lopategi irten omen zan txapeldun. Au ere punta-puntakotzat daukate Bizkaian adibidez proba kontuan.

Guk, berriz, emen Orion Alejandro Oliden daukagu probalari sonatua. Bizkai aldean asko ibiltzen dala inoiz entzun det.

Nik neronek apizio aundirik izan ez arren jokorako, Alejandro Oliden onen ukullura bisita egin genduen egun batez. Zumarraga edo Urretxutik Yurrebaso aizkolari ospetsua ta bere emaztea etorri ziran Oriora, denbora pasa bezela; ta orduantxe ikusi genituen Alejandroren ganadu bikaiñak. Iraillean zan, gutxi gora-bera, diodan bisita pozgarri ura.

Idi aiek ez dute jakingo gosez eta egarriz penatzen bizitzea zer dan, oraingoz beintzat. Animaliari ere tratamentu ona zor zaionez, komeniko da iduritzen zait modu itxurazko batean gobernatzea. Bestela, plazara dijoan bakoitzean lan gutxi egingo duela dudarik ez eduki.

Orion leenengo dema plaza Udaletxearen aurreko aldean ezagutu nuen nik, mutil kozkorra nintzala. Ez naiz atzo goizeko kontuak esaten ari une ontan. Idi probak jokatzen ere ikusi nituen bertan bein edo bitan beintzat. Geroago pelotalekura aldatu zuten dema plaza; ta frontoia estalirik gabe libre zegoenez, tarteka ganadu proba batzuk jokatzen ziran, baiña oso gutxitan.

Eta, alako batean, gaur dagoen frontoi ori konpondu ta estaltzerakoan, dema plazaren galtzadak gaizki eman edo kalte egiten zuela ikusirik, ormigoia gaiñetik bota zioten, eta kito.

Ortxe gelditu zan, lur azpian sartuta bezelatsu, Orioko proba lekua. Berriro martxan ikusiko ote da? Zaila izango da.

Pelota jokoa

PELOTA artuko det gaitzat gaurko nere ataltxo au osatu al izateko. Kirol klaserik politenetako bat dala iduritzen zaiote batzueri pelota jokoa. Zergatik ote da ori? Bizitasun aundiz eta dotoreziz jendeari begien antsia betetzen dakielako, seguru asko.

Frontoian ezker aldeko txokora eta eskubira, txapa gaiña ondo neurtuta, tanto zorrotzak sartzen dituen pelotariak entzungo du txalo ots ederrik. Urruti samarretik tiratako dejadak ere ez dira arrapatzen errezak. Naiz eta anka azkarrak eduki arren, badakite pelotariak pelotaren billa korrika joan da zilipurdika erori ta jende tartera sartzen. Min egiteko arriskua erabiltzen dute sarritan; baiña jokoa orrelaxe da. Neri aitona aundi batek aspaldi esan zidan atzeko errebotera indartsu zijoazen pelotakada aiek zirala onenak tantoa seguru erabakitzeke. Bueltarik gabeko dejadak alegia.

Gaur dauzkagun pelotarietan, geientsuenak badaukate besoetan gatza galanki; edo, bestela, pelotak dabil-tza bizi amorratuak. Bietakoren bat gertatzen dala derizkiot or, nik ezer gutxi dakidan arren.

Jo batek eta jo besteak, tantorik bukatu eziñez ler egiñik ikusten ditugu pelotariak batzuetan, batez ere berdintsuak egokitzen diranetan.

Dirua jokatzen duenak pasa bear estuasun latzak tarteka derrigorrez, partidua bere aurka dijoakiola antzematen dionean. Pozaren billa joan da naigabez betetzea gauza tristea bada ere, pazientzia artu ta segi aurrera, egun guztiak galerakoak ez al dirala izango pentsatuz.

Leen, gure gazte denboran, noizean bein jokatzen omen ziran txapelketak. Oraingo, berriz, ugariturik

daude. Orrek esan naiko du zer bait: jendeak eskatu edo enpresak aukeran jarri.

Dana dala, esku pelotari buruz ari naiz idazten. Baiña erremontea, zestapunta ta beste gainontzekoak aaztu gabe. Danak baidira ixtimagarriak eta onak une berean. Gizon bakoitzak arte berezia zertarako duen garbiro erakusteko egokiera da ori, batere dudarik gabe, nere ustez beintzat. Nik neronek pelota jokoa asko maite dedala aitortzen det. Baiña frontoietan iñori ez diot trabarik egiten.

1995-eko abuztuan bi partidutan izan nintzan Zarautzen, lagunak konbidatu nindutelako; eta oso gustora irten giñan pelotalekutik kanpora. Bietan ere partidu neurtuak eta ederrak izan baiziran.

Bestelakoan, telebistaren bidez ikusten ditugu, pozik gaiñera, aukera degunetan. Beti ez bada ere, telebistaz ongi ikusten da pelota nundik nora dabillen. Baiña ez frontoian bertan bezela. Falta zaio zer bait, esplikazio osorik ez daukana. Neretzat esan nai nuke au.

Guk, erriz erri bertsotan genbiltzala, pelotari askoren partiduak eta joka moldeak ikusi genituen ainbat urtetan. Julian Retegi ospetsua ere bere errian, Erasunen, ezagutu nuen, mutil gaztea zala. Geroztik egin du lana pranko, ta oraindik or dabil aurreko puntan.

Onenaren pare juzkatzen dute pelotazale askok, berrogei ta bat urte beterik dauzkan pelotari au. Naikoa zaartu dala esan liteke. Baiña berez artista aundia izanik, kantxan ederki luzitzen du Erasungo seme zimel argiak. Ankaz azkarra, besoz indartsua eta buruz ongi jantziaren itxura erakutsi digu beti edo geienetan gizon gordin onek.

Aspaldi eman zuen aditzera berak al zan arte segi nai ziola pelotari, eta artantxe ari da.

Landare gazte batzuk ere badatozela diote, eta esku onetan dago pelota.

Errotaria eta arratoiak

ERROTARIA eta arratoiaren ixtoriak, ez gaurkoak, aspaldiko zaarrak, idaztera nijoa, norbaitek irakurri nai baditu denbora pasa, zer egin ez dakiela dagoen unetxoren batean. Errotaria eta arratoia sekulan etziran ongi konponduko, beti alkar zaintzen edo zeletan egoten dirala jakiñik.

Errotak arto alea eta garia biak bueltaka ibili ta xee-tuz irin gozo egiñik, aurrean edukitzen duen askara bota izan ditu; eta arratoiak baliatu dotore asko, aska barrura sartu ta naiko irin berria janez.

Gu mutil gazteak giñan garaian, erreka baztarretan ezagutu genituen errotarik geientsuenak. Emen, Gipuzkoako Aian, kalean ikusi nituen nik bi errota, argi indarraren bidez ibiltzen ziranak eta oso irin ona egiten zutenak. Beste iñun ez. Aian baliteke gaur oraindik ere aietakoren bat martxan jardutea, batere ez dakidan arren.

Dana dala, arratoia bitxo ugaria eta gaizto purrukata degula denok dakigu. iñori ezer galdetu gabe. Iñoiz ikusita dauzkat nik katua eta arratoia alkarrekin burrukan estu ta larri. Oso lan txarrak ematen dizkio arratoi aundi samarrak katu gazteari, dezente azitakoa izanik ere. Katuak atzaparretan du indar zorrotza; eta arratoiak, berriz, muturrean.

Setoso ikaragarriak dira nola bat ala bestea. Asarretzean, noizko gozatu? Alkar txikitu ta menperatu bitarretan, segi antxe aztarrika. Baiña, azkenerako, katua nagusitzen da beti edo geientsuenetan beintzat. Bozeolari baten antza erabili oi du sarritan katuak, ezkereskubi goanteak ederki astinduz, beso libreak eta azkarak dituenez. Arratoiari muturreko otzak kentzen dizkio laixter.

Klase ortako konbateak ikusi gabeak ez gera Leitza-ko Franki baserrian bizitu giñan urte aietan. Errotatik eramandako iriña gustatzen zitzaiotela badakigu; ta ganbaran ere pikardi izugarrizkoak egin oi zituzten artotan.

Egun batez errotari edadetu batek esandakoz gogoratzen naiz. Emen Gipuzkoan zan, baiña zein erritan aaturik daukat. Dana dala, errotaren ondoko urputzu aundia dena arratoiz beterik omen zeukaten, eta iñundik iñolaz burutu ezin. Artaraiñoxe lotsagabetu ta ugaritu bitxo zikiñak. Ez kristaurik eta ez katurik errespetatzen etzutela jarri azkenerako noski. Aiek, zer jana aukeran zeukaten bitartean, dotore antzean ibiliko zirala dudarik ez dago.

Baiña txarkeriak baditu bere aurkako neurriak, ordea; eta an ere orixe gertatu zala antzemango diozu, adiskide, ataltxo au irakurtzen dezunean.

Gaur bezelako botika edo benenorik etzan izango garai artan. Ortik aparte, berriz, errota inguruan botatzerik ere ez; eta ara ibili ta buelta zer egin zuten. Arratoietako bat arrapatu, bizkar gaiñeko larrua ebaki, barrura gatza sartu al zan guztia, eta berriro larrua ariz ongi bildu ta josi estu-estuan, bizirik zegoela; ta putzura bota.

Bildurgarrizko karraxiak eta zalapartak erabili izan bear zituen uretan. Jakiña, gatza urtutzen ari zaitzaion bezela, erre egiten berak; eta, iñun kabitu eziñik, beste arratoiekin burrukan asi omen zan segituan: eta denak alkar amorratuta seko bertan.

Sekulan alako garbitasunik aien errota aldean iñork etzuela ikusiko esaten jardun zitzaigun aitona prestu ura. Ondorengo egunetan uraren presa edo putzua ustu ta kendu omen zituzten arratoiak eta bestelako zikinke-riak. Bolara baterako pake ederra egin ere bai noski. Baiña berriz ere sortuko ziran denboraren bidez arratoi eta xaguak, errotak lanean jarraitu zuen artean.

Amezketeta

PAUSOKA-PAUSOKA erri batetik bestera aldatzen naizenez, gaurko nere ataltxo au osatzeko Amezketeta aldera joko det.

An ere bagenituen leen ezagunak ugari antzean, eta lagun jator askoak. Batzuk aspalditxo il da mundu ontatik ezkutatuak, eta besteak oraindik bizirik daude-nak.

Nola aaztuko nintzan, ba, ni aietaz? Ori oso zailla da biotza petxuaren barruan duenarentzat. Emen onak eta txarrak badakigu bereizten.

Amezketeta maite izan genduen, bertsolaritzan ibili giñan garaian batez ere. Gurekin ongi portatu baizan ango jendea.

Zenbat bider pozik kantuan jardunak ote gera erri artan? Den-denak garbiro ta zuzen esaten ezta batere erreza.

San Bartolometan ospatzen dituzte pesta nagusiak lau egunetan. Gauak aparte dirala, Aralar mendian udara guztia artzantzan pasatzen dutenak ere San Bartolome egunez beeko kalera jexten dakite, geientsuenak beintzat, goiko aizeak bultzata edo ez dakit nola, baiña dotore jantzita.

Ostatuetan amaiketako ederrez sabelak berotu ta aurpegiak gorri ta garbi zeuzkatela ikusten ziran leen.

Oraingoz ezingo det esan orduko martxari jarraitzen dioten edo ez, neroni ezjakiñean nagoelako.

Nik Amezketaren oroimenak modu askotakoak dauzkat nere biotzean. Uztaipide ta Basarrirekin leenengo bertso saioa antxe egin nuela gogoratzen naiz pranko-tan, San Bartolome gau batez.

Aipatzen ditudan bi bertsolari auen kantu ederrak entzutera bizikletan joan nintzan Aiatik. Orduko apizioa eta ilusio sano ura artuko nituzke gaur pozik.

Dana dala, arratsaldean Udaletxeko balkoitik jardun ziran bertsotan; eta gero, illunabar aldera, ostatu barruan ere bai. Baiña jendea geiagoren zai nabaitzen zanez, berriro afalondoan azkeneko saioa.

Alaxe, gu ere mondeju batzuk jan da kafeak artuta an geunden beste maian; eta Basarrik onela dio bere bertso batean:

gaueko amarrak jota zeudek ta
erretiratu gaitzen.

Ori entzun ondoren, Uztapidek agurtu zuen jende guztia, ta kito. Basarri jarlekutik jeiki zan, eta nere berri pixka bat zekiena an neukan aldemenean; eta arek, saltsa jartzearren, esan zioten:

— Mai ontan badaukagu, ba, gazte bat zuekin bertsoan poliki egingo lukena.

Uztapidek bertsoz segituan galdetu zuen ea nor zan bertsolari gaztea; ezagutu nai zuela ta kantari asteko mesedez.

Kosta zitzaidan, baiña erantzun nion nola edo ala beintzat.

Eta Basarrik ere ni probatu naia nabarmen zeukanez, irurok jardun giñan, uste baiño obekiago gaiñera. Aiena etzan arritzekoa ongi kantatzea. Nik nuen bildurra, asteko bezela, jarraitzeko. Baiña etzitzaidan damutu.

Leenengo saioan aspertu ez nunbait, eta bigarrena eskatzen zigun jendeak. Ura ere egin genduen, eta bapo osatu zirala ziruditen.

Uztapide zana, berriz, parrandarako gogoarekin zegoen; eta Basarri, lotara joatea aaztuta, antxe gurekin batera gustora.

Goizeko ordubata jota, alkarri esku eman da banatu giñan. Ni bizikleta artu ta Aiara txoria baiño kontentua-go; eta aiek oera lotara.

Uraxe izan zan gau gogoangarria neretzat, bertsolaritzari dagokionez. Amezketan ezagutu nituen Uztapide

ta Basarriren jokabide batzuk oso gertutik, eta geroztik maiz kantatuak gera erri polit artan ere, zorionez, beste askotan bezelaxe.

Gure arrebak bere gizona amezketarra zuen: Olaakoa. Ugartetik Amezketara bitartean dago diodan Olaakoa. Aita, Karlos, perratzaillea zan; eta semea ere bai. Baiña, perratokiz aparte, lan klase asko zituzten. Esango nituzke zertsu, baiña gaurkoz ezin det.



Lasarte eta Uztapide bertsotan.

Leaburu

LEABURU nuntsu dagoen jakingo dezu noski, irakurle ixtimatusa zaitudan orrek. Tolosatik oso urrean, goiko mendi gaintxo politean aurkitzen da oiñarriturik. Oraindik ez da denbora asko bi bisita egin geniola berari. Igande batez Oriotik buelta bat ematera irten eta araxe igo giñan, eguraldi ederra zegoela ikusita. Emengo nere lagunak etzuten leendik ezagutzen, eta asko gustatu zitzaioletela iduritu zitzaidan Leaburu.

Erri txikietan ez al dago girorik onentxoena oraingoz? Nik esan bear banu, bai batere dudarik gabe. Sanidadearen zale danak an billatu lezake ziudade ta erri aundietan baiño geiago.

Azkeneko amar urte auetan izugarri dotore jarri dute leaburutarrak beraien erri kutuna. Norbaitek egin du lana serio asko. Ango plaza, eliz atari ta kale baztar guztiak berriturik daude arritzeko moduan. Nik neronek ez nuen espero artaraiño aldatuta ikusterik gauzak, eta sinisten ere kosta zitzaidan leenengo begiratu nionean. "Emen jendea etzegok lotan" pentsatu nuen.

Soziedadean sartu giñan, ango lagun batek konbidatuta. Gu plazara iritxi ta kotxea utzi orduko konturatu omen zan nortzuk joan ziran, eta kanpora irten zitzaigun. Aspalditxoan alkar ikusi gabe geundenez, arek artu zuen poza! Onela zion, neri lepotik elduta, bi musu aundi eman ondoren:

— Etorri al zerate gu bixitatzera? Ez nuen uste gaur zuek emen billatzerik. Goazen, goazen barrura zerbait artzera, beste lagun batzuk ere or daude ta.

Alaxe, berari atzetik jarraitu genion soziedade edo bazkunera. An maiian jarri. Kafetxo bana artzeko aitzaki

politarekin, kontu kontari jardun gustora, eta etxe alde-
ra jo genduen garai ederrean.

Pasadizo zaar denak idatzi bear bagenitu, balegoke
pixka baterako lana.

Leaburu soiñeko berriz jantzi ta apaindua dago nere
begientzat. Baiña orrek ez du esan nai guztiok berdin
ikusten degunik. Ezta pentsatu ere. An bertan bizi dira-
nak jakingo dute nik baiño obeki nolatsu dijoan aurre-
rako etorkizunaren martxa edo bidea. Emen auzoa errez
governatzen degu, nork bere etxea kostata. Ori orrela
izanik, ez nuke iñor neurtu nai, ezta gutxiagorik ere,
erri baten edertasuna zer dan adierazi baizik. Nik Lea-
burun leen pasatako egun pozgarri aiek dauzkat gogo-
an, bein ere aaztuko etzaizkidanak seguru samar.

Anjel Arrospide aizkolari sonatua ere angoxe semea
degu adibidez. Leaburun jaio ta azitakoa, aspalditxotik
Zumarragan bizi dala norbaitek esan zidan errezelotan
nago. Egia izango al da noski.

Dana dala, gizon aundia eta indartsu purrukatua
sortu zitzaigun Anjel Arrospide. Sei txapela eder bai
omen ditu irabaziak, eta oraindik geiagoren esperantzan
baliteke egotea.

Nik neronek ikusi dedanetan, orixe billatu diot
Arrospideri: gizon ausarta bezin kelmentsua, enborraren
gaiñera igotako garaian. Berriketa gutxi ta lanerako
amorrु beroa. Zirti-zarta gogorra.

Sasoi ona daukanaren kontuak orrela oi dira, ta Lea-
buru bezelako erri txiki bati komeni zaizkiola derizkiot
tankera modu ortako pertsonaje trebe pizkorrak. Beren
lurraldeari izen aundia ematen baidiote, leenez gaiñera,
Aipamen berezia, alegia, ixtorirako.

Gaur telebistak artzen ditu Euskal Erriko joko ta
norgeiagoka guztiak, eta gero mundu osoan ezagun egin
litezke agian edo ala komeni izan ezkerо beintzat: gu bizi
geran erri auetan zer oitura ditugun.

Ernani

— **N**IK amalau zaku aundi betetzeko aiña ixtori baditut, Lasarte —esan zidan bein Ernani gizon batek. Ez da oraingoxe kontua. Berrogei ta amar urte ez badira ere, ez dute urruti bearko onezkero.

Ernani erri aundia egiña dago. Leen garai batetik asko azita ikusten degu. Gaurkoz auskalo zenbat bizilagun dauzkan. Nik neronek ez dakit, ez diot sekulan iñori galdetu ere ta.

Baiña dena edo geientsuena aldaturik nabaitzen da. Faubrikak ugaritu ziranetik gertatu zan diodan ori, beste erri askotan bezelaxe, naiz eta azkeneko urte aue-tan lanez urri antzean dabillen arren jendea baztar guztietan, esate baterako. Izan ere, oraingo makina oientzat naiko lana sortzen ez dezagula pentsatu oso erreza danik, asko bear dutenez.

Dana dala, Ernani erri ona beti iduritu zait. Bertsozale purrukatua izanik bertako jende euskalduna, guk saio ugari egiñak bagenituen, eta ortatik dakit nik ango berri. San Joanetan bereziki esan genezake, plazan kanpo librean jarduten giñan kantari, eta izan oi zan nork entzuna. Dena jendez leporaiño beterik ikusten genduen urteero.

Zine edo antzokietan jaialdiak antolatzen zituztene-tan ere, gauza berbera gertatzen zitzaioten. Batzuetan beintzat, leku gutxitxo aukeran. Txartelak aurrez saldu geientsuenak, eta gero egun berean takillan osatu ezin. Urrengo txandan, berriz, sarrerak sobratu ta jarlekuak utsik barruan. Arek ez du poz aundirik ematen bertso-tan asterakoan. Baiña orrelako kasoak ikusi gabeak ez gera tarteka.

Jendeak joerak aldatzen dituenetz, zailla da beti asmatzen edo puntua artzen, nai bezela saiatuarren.

Eta, au bere ortantxe utzirik, asieran aipatzen dedan ernanitar prestu arengana nijoia berriro.

Bertsolaritza maite zuen ikaragarri. Alamo-duk-erri-ko erri-ko jaiotako semea izanik, ez naiz batere arritzen gainera. Nik leenengo aldiz Ernaniko plazan kantatu nuen eguna ote zan daukat errezeloa alkar ezagutu genduen-ena. Bazkaltzen bere ondoan egokitu nintzanez, antxe kontatu zizkidan pasadizo zelebreak. Onela zion:

— Gu bi anai gera, Lasarte. Baiña bestea Ameriketara joan zan aspaldi samar, eta an irauten du, ez dakit noiz arte. Negozio bat jarri zuen bere kontura; eta gauzak ongi irten zitzaizkiolako, leporaiño aberasturik dago. Bi alditan etorri da Ernanira egun batzuk pasatzera, Ameriketara joan ezkeroztik. Leenengo biajean, kotxe amerikano eder bat ekarri zuen berri-berria, eta ura neri erregalatu zidan. Esan nion: “Asko ixtimatzen diat ire borondate ona. Baiña au geiegizkoa izango dek nerezat”. “Ez, gizona. Ik erabili zak ori lasai, ta kito. Jakingo diagu alkarren berri”. Alaxe, Pasaian barkuan sartu ta martxa berriro Ameriketara; ta nik, andik denbora laburrera, kotxea saldu egin nuen. Lasarte, zer iduritzen zaizu?

— Diru mordoska galanta artuko zenduen noski, ta bapo.

— Orixe da egi osoa —zion berak—. Nere anaia langille purrukatua beti izan da. Baiña ez daki bizitzen. Dirua sobratu edo aurreratze-ko antsia dauka gizajo arek, eta orretzek aaztu arazitzen dizkio bestelako dibertsio guztiak. Nik neronek, berriz, ez det lanerako gogo aundirik sentitzen, parrandaz gei-ago gogoratzen naizelako; eta askoz ere obeki bizi naiz, anaiak egindakotik aprobe-xtatuz.

Benetan jardun baldin bazan, auetxek ziran ernanitar aren itzak, gutxi gora-beera. Nik erositako prezio berean saltzen dizkizuet.

Egazti zoragarriak

MENDIAN jaio zanak mendia maite, naiz eta kalean bizi. Orixe da nere ametsik gozoena norainara joanik. Baiña mendia noizko eta zertarako? Au da askoren galdera, beti entzuten deguna. Badu, ordea, berari dagokion erantzuna. Eguraldi onak eta giro atsegiñak diranetan, paseatzeko, udaberrian bezela udara partean. Ez noski neguan, elurra ta txingorra bizkar gaiñetik beera artuz ibiltzeko.

Nere gustorako baso zokoetako errekatxoak eta zugaiztiak aukeratuko nituzke. Zugaitzak izan ditezela pago, aritz, lizar, gaztain, zumar, alkazi, urritz eta oieta-koak. Baita ere erreka bakoitza egon dedilla garbia, eze-rekin kontaminatu gabea, usai gozoaren lurruna inguruan artzeko moduan. Uraxe da sanidade purua, pertsona arnasberritu dedin.

An entzungo dituzu, irakurle, txori klase askoren kantu dotoreak, iñoiz bertara joaten bazera.

Batzuek itxasoko baiñuak maite dituzte osasunera-ko. Nik, berriz, mendi ta basoak. Norberak daki zer komeni zaion.

Emen Orion ondartzaren sarreran badaude egazti mordoska galanta aspaldiko urteetan ongi zainduak. Pako Barjakoba izenez ezagutzen degun gizon edadetu batek gobernatzen ditu egazti oiek.

Denbora pasa bezela asiko zan agian, berez zalea izanik, janaria ematen, zikinkeriak garbitzen eta abar. Baiña oraingoz beintzat badauka naiko zer egiña, eguneroko berari dagokion langintza baldin bada. Errez konponduko dan iduripena daukat, batere dudarik gabe, Pako Barjakoba. Orioko plaiara dijoan jendea gelditu ta gustora egon oi dala badakigu egazti zoragarri oieri begira.

Usoak asko daude. Or ibiltzen dira, gogoia daukaten guztian, egan itxas gaiñean bueltaka, txabolatik irtenda. Baiña badakite noiz eta nora itzuli gosetutako garaian. Usoa pizti argia da buruz. Pizkor amorratua ere bai. Indartsua alegia. Orrek adierazten digu garbiro mantentzen gastu dexentea izango duela noski.

Antzarrak ere bikaiñak ikusten ditugu. Zazpi edo zortzi kilo pixatzen omen dituzte bakoitzak. Ale ederrak kazuelan jartzeko edo labean erreta jateko.

Ateak beste mordoska dauzka. Uretan baiñatzea gustatzen zaiote izugarri. Putzua bertan daukatenez, igarian dotore dakite. Nik baiño obeki. Ur korrientean egoak astinduz, pozik ibiltzen dira. Oso leku egokian daude ortarako. Ainbat egazti klase: faisanak, oilloak, oillarrak eta abar.

Terreno sail polita alanbrezko sarez itxita dago, aipatzen ditudan egaztiak iñora aldegin ez dezaten, neurri zorrotzak aurrez artuta, badaezbada ere. Segurutik jokatzea baida onena.

Neri begiak geientsuena asetzen dizkidan egaztia pabo reala da. Ez nuen leendik ezagutzen, beraren entzuerak aspaldi samarrekoak neuzkan arren; eta egun batez norbaitek esan zidan Pako Barjakobaren oillotegian bazeudela pabo realak, bikotea, arra eta emea. Ori entzun ondoren, laixter joan nintzan ikustera. Biak an zebiltzan, baiña ez alkarrekin, banaka. Emea gris antzekoa kolorez. Arek ez nindun arritu. Baiña arraren jazkera, ordea, printzipe batena baiño dotoreagoa iduritu zitzaidan.

Petxu, lepo ta oiek zeru kolorekoak zeuzkan. Azpiko egoak, berriz, gorri itxurakoak. Gandorrean edo buru gaiñean gurutze gisako lore urdiñak; eta gero, gorputz guztia estaltzen zion kapa luze bat lurrean arrastaka zeramakien, urdiñez eta morez loratua. Noizik bein abanikoa bezela zabaltzen zuen.

Pabo realari buruz asko itzegin leike, baiña ez da tokirik.

Usurbil

USURBIL erri maitagarria izan da gure garaiko bertsolari askorentzat, eta leengo batzuentzako ere bai noski. Adibidez, ni neroni sarritan kantatua naiz Usurbillen, Santuenen; eta erriko plazan batez ere, ta ostatuetan zer esanik ez. Bertsoa errez ulertzen du bertako jendeak, euskeraz ongi dakielako. Leenengo jan eta gero berriro ausnartu, mendian dabiltzan ardiak egin oi duten antzera. Orixe da gure izkuntzari laguntzeko modurik egokiena.

Ni gaztetan bi edo iru urtetan San Joan eskean ibili nintzan koadrilla batekin San Joan bezperan. Gauez, illunabarrean, Usurbil partean asi ta urrengo goizean Kalexarren bukatzen genituen lanak.

Oillasko biltzea izaten zan diodan au garai artan. Oraingoz ez dakit inork jarraitzen duen. Baiña soiñuz, panderoz eta bertsoz jendea alai jarri arazten saiatzen giñan, nola kalean, ala baserrietan.

Etxe batzuetan zai egoten ziran gaiñera, gu ate ondorra noiz iritxiko. Borondate oneko pertsonak, batere dudarik gabe. Orduko izakeratik gaurko ontara badago alde ederra, nere ustez. Gaztetasuna eta sasoia, biak batera galtzeak dakarren gaitza da ori, guri gertatu zai-guna eta beste askorentzat etorriko dana leentxeago edo geroxeago.

Orain, au bere tokian utzita, gaia aldatu nai nuke izketarako. Juan Jose Alkain Iruretagoiena Udaregi bertsolari zanaren mendeurrena ospatu zuten 1995-ean, urtearen asieratik iraillaren azkenera bitartean. Aundikiro ospatu ere. Udaletzeko egitarauak zion bezela bete baldin baziran jaialdi guztiak, izango zan zer ikusia eta zer entzuna ugari.

Andik bialdu zidaten paperean gauza asko irakurri nituenez, den-denak idatzi bearrik ez neukala pentsatu nuen, nola albisteak aurrez emanak zeuzkaten Euskal Erri osoari. Baiña nik ere nere zorion agurra egin nai nion orain dala eun urte il zan Udarregi bertsolari sonatuari.

1966-an beste omenaldi bat eskeiñi omen zitzaion Usurbilko errian, bere irudia kalean jarri ziotenean ain zuzen. Gu bertsoan antxe jardun giñala gogoan daukat. Eta azkeneko mendeurreneko ospakizunera ere deitu zidaten Batzordetik, bertso bat kantatzera eta lagunartean afaria egitera ea joateko moduan aurkitzen ote nintzan.

Pena aundia artu nuen, baiña ezezko erantzuna eman bear izan nioten. Nik kanpoan ibiltzeko ez det antsirik sentitzen. Usurbiltarrak ulertu zuten ori, ta Batzordearen izenean karta umil bat bialdu ere bai: bazekitela nere berri ta ez pentsatzeko aiekin gaizki gelditu nintzanik, ongi baizik. Eta besarkada bero bat eskeintzen zidaten denen partetik. Nik ere gauza bera opa diotet.

Marrazki polita paperean norbaitek egiña etorri zan kartaren barruan. Neronek eskatu bainion telefonoz deitu zuenari, Udarregiri zegokion argibide bat eskuratzearren. Baiña iñun ez omen da agertzen aren garaiko argazkirik, lastimagarria bada ere.

Juan Jose Alkain Iruretagoiena, Aian jaiotako semea izan bear zuen bertsolari bikain onek. Baiña oso gazterik Usurbil aldera bizitzera joana adibidez. Nik ez nekien aiatarra zanik berez.

Bertso baten asierako puntua sarritan entzuna naiz toki batzuetan, eta onela da:

Juan Jose Udarregi
Usurbilko zana...

Jakiña, Usurbillen umetatik ezagutu zutenez, antxe sortua zalakoan egongo baizan jende guttia.

Dana dala, ori oker txiki da, ta eskertzen ditut jai eratzaille denak. Biotzez agur!

Azpeitiko Oranda

AZPEITIKO albiste batzuk eman nairik nengoen aspalditxoan, neretzat beti erri ona izan dalako; eta, aitzaki berri egoki bat parean jarri zaidanez, orain-txe det aukera aprobetxatu al izateko, eta ezin nezake gerorako utzi inolako moduz. Zer ote da, ba, aitzaki misteriotsu ori? Berealaxe jakingo dezu, irakurle, gutxi gora-beera. Joxe Agirre bertsolariak leengo baserri etxe zaarra bota ta aren toki berean berria zutitu zuela entzunda nengoen, eta uraxe ikustera joan giñan Oriotik iru lagun.

Joxe ta Orandako familia bisitatzeko gogoia ere bagendukan, eta biak egin genituen biaje batez, egoki ta gustora gaiñera.

Izarraitz mendiak ere baditu begieri zer ikusia jarzen dioten puntuak, bistaz osatzen danarentzat batez ere; ta guri ezin ohea gertatu zitzaigun. Ez laiñorik eta ez aizerik, zeru goia argi ta eguzkia indarrean.

Joxe Agirrek obra berria erakutsi zigun. Baiña nola-koa? Eder utsa, baserri bat izatekotan. Ura da etxea! Ez dakit zenbat metro dauzkan luze-zabalean, seguru esateko. Baiña ango sukaldea, jangela eta logelak ikusgarriak dira.

Oriotar nere lagunak etzuten dena ikusi, sukaldean kontu kontari jardun ziralako. Bestela bazuten aukera, nik bezelaxe. Gu, Joxe ta biok, an ibili giñan etxearen barrua ikusten.

Kostako zitzaioten galanki, baiña ura antxe dago zutik. Nik neronek naiago nuke igoalean, kale zuloan baiño, alako leku paketsu batean bizi.

Azpeitiko kalera joateko enkarguak egitera edo beste edozein gauzetarako, kotxea eskuan edukitzea dala

esango nuke bearrezkoena Oranda baserrian, eta ura ere badaukate ta kontentu egoteko moduan ote dauden iduritzen zait, osasunak lagundu ezkerro beintzat.

Oranda baserri etxe zaarra ezagutu nuen leengo modakoa; ta oraingo berrian bere argazkia antxe dago koadro batean sartuta, oroigarri bezela dotore asko jarria paretan zintzilik. Ari begiratuko dio kanpotik bisitara dijoan jendeak.

Orandak etxe inguruan terreno sail onak izango dituelakoan nago, zenbat aundikoak diran ez dakidan arren. Leen laboregintzan erabiltzen zituzten lurrak, gaur belardi biurturik daudela dirudi.

Nik ez nion gai ortan ezer galdetu. Baiña ganaduak kanpoan zebiltzan, larre freskoa aukeran janez. Aarra bezela gizenduta zeuden itxura artu nioten, urruti antzetik begiratuta beintzat.

Joxe Agirre bera, orain erretiraturik badago ere, leen kanteran urte mordoan jarduna da lanean, antxe beti arri tartean estrapuzuka eta burrukan. Ez noski opizinan, makinarekin pilarmonika jotzen bezela, exeri ta lasai orduak pasatako gizona. Nekea zer dan ongi probatu duena bere bizitzan, gu ez-ezik.

Emen lanean al dan guztia saiatuta ere, ezer gutxi aurreratzen da; eta geldirik egonda, berriz, batere ez. Ori orrela dala jakiñik, Joxek eta bere andreak zintzo jokatu dutela bistan dago, ondorengoak azi bitartean batez ere.

Nik pixka bat badakit Joxeren berri, alkarrekin erriz erri bertsoan asko ibiliak baigera. Oso alaia eta bizia da kantuan Joxe Agirre, gure laguna. Erri bertsolari ederra, nere ustez.

Azpeitin iru bertsolari bertako semeak ezagutu ditugu leen, ez nolanaikoak gaiñera, irurak ere bertsolari bikaiñak: Agirre, Lizaso zaarra eta Lazkano. Orain, berriz, beste bi gazte daude bertsolari onak: Xabier Euzkitze eta Sebastian Lizaso.

Sagardotegi maitagarriak

SAGARDOTEGI maitagarriak bizirik diraute zorionez, sekulan baiño indar aundiagoan gaiñera agian.

Udazkenean bildu ta jasotzen dan frutarik ederrenetako bat degulakoan egoten naiz ni neroni, sagar sanao eta kalidade onekoa baldin bada beintzat.

Urte batetik bestera alde izugarria erabiltzen duela esan oi dute sagardo egilleak. Aiek antzemango diote guk baiño obeki, tolarera bota ta sagardoa egiterakoan nolako zumua ateratzen zaion; eta gero legezko neurriak artu ere bai noski, berari dagokion garaian.

Ortan asko dakiten maixuak ezagutu ditugu Gipuzkoan erririk erri, eta batez ere Astigarraga, Ernani, Ergobi, Urnieta, Igeldo, Usurbil, Errenteri eta beste aibat zokotan. Den-denak izentatzen zailla da une ontan. Etzaizkit gogoratzen, alaxe nai izanik ere. Barkatu dezaidatela aipatu gabe utzi ditudanak.

Aspalditxoko urte auetan sagardoak fama ona artu duenez, ixtimazio izugarria omen dauka, batzuek diotenez.

Negu partean, ostiral gaez eta larunbatez, badaki afaltzera nora joan zalea dan jendeak: sagardotegietara txotxeko edari zoragarriz egarria kendu ta asetzer.

Jateko, bakoitzak komeni zaiona eskatuko du, ta segi antxe, upelari noizean bein ziria atera ta txorrotik baso aundiak bete ala ustuz txandaka.

Tripa zorroak berdindu arte ez det pentsatzen jokabide txarra danik, osasuntsu dagoen pertsonarentzat. Gaizki dabillenik ez da joango, badaezbada ere. Bestela, laixter igarriko dio zer putzutuan sartu duen anka, gaeuan bertan baiño obekiago agian biaramon goizean, lo txarra egin ondoren.

Berez edari bikaiñetakoa da sagardoa gazte jendearentzat. Baiña zaarrari ez dio grazi geiegizkorik egiten, otza edo fresko samarra dalako; eta, ori jakiñik, ardo pixka bat naiago izaten du sarritan.

Ilbeltzaren amaseigarren egunez San Anton bezperan irikiko zirala sagardotegietako ateak entzun nuen irrati bidez, Astigarragan bereziki. Ura baida sonatuenetako bat gai ortan. Aspaldiko esaera degu: Astigarragako sagardoa eta Getariko txakoliña, bi edari klase ospetsu.

Emen Orion ere baziran leen, gure gazte denboran, sagardotegiak; eta orain galduta zegoen oitura polit orrek berri aldia izango du, itxurak diranez.

Orioko *Loretxu* jatetxe ezagunean txotxeko sagardoa jarri dute martxan jendearen atsegingarri, jangela dotore bat antolatuta. Baiña ez goiko solairuan, bean baik, mostradoretik bertan ezkerretara.

Kanpoko espaloiarenean altura berdintsuan dagoenez, anketatik ongi sentitzen ez danak ere ez dauka eskailleratan gora ta beera nekatzen ibili bearrik. Egokitasun aundiz moldatu zuten *Loretxu*-tarrak diodan sagardotegi ori edo jangela.

Asteburuetan —ostiral gauez, larunbatez eta igandez— emango diote jatekoa eta edaria nai duen guztiari negu partean.

Udaran, berriz, egunero, beti bezelaxe: bixigua, legatz kogotea, zapo arraia eta beste edozer gauza ere bai. Aipatu ditudan auek ez-ezik, txuleta gozo askoak ere jartzen dituzte parrillan erreta Orioko *Loretxu* jatetxean.

Ori jakingo dezu, irakurle, leendik ere noski. Baiña berriro esatea ez det uste zure kalterako danik.

San Andres egunez

L 995-KO Azaroaren ogei ta amarra, San Andres eguna ain juxtu ere, Gipuzkoan pestak ospatzen dituzte erri batzuetan. Ormaiztegin, Eibarren eta Azkoitian, iru auetan batez ere, eragin aundia dute San Andres jaiak. Aspalditik datozen oiturak izanik, erri bakoitzak bereari eusten dio, merezi duen bezelaxe, leial eta errespetoz. Ortantxe saiatu bear genduke alde guztietan.

Azkoitin idi probarik ez da faltako diogun egun oietan. Baserritarrentzat zer ikusi obeagorik asmatzen oso zailla dala esango nuke. Gaiñera, auzotarrak alkarrengana bildu ta kontu kontari ederki gozatzen diranez, komeniko zaizkiote orrelako une lasai batzuk noizean bein gutxienez ere.

Azkoitin pelotalekuan modu askotako jaialdiak ikusten genituen leen, bertsoan ibiltzen giñan garaian: arri jasotzaille, aizkolari, pelotari, bertsolari ta abar.

Izugarri frontoi polita da ura pestak antolatu al izateko, eta jendeak bertatik bertara ikusteko ere bai, ni oker ez banago beintzat. Ainbat biderrez bertsoan jarduna naizenez, ongi dakit ango berri.

Dana dala, Azkoitiko Goenatxo arri jasotzaille sonatuak ere marka berri bat egin omen zuen 1995-ko azaroaren ogei ta amarrean, San Andres egunez. Amasei arroako arri retangularrak edo koadratua erabili bear izan zuen minutu banako bi tandetan adibidez; eta leenengo minutuan sei jasoaldi eman omen zizkion. Bigarrengoan, berriz, zazpi. Beraz, amairu jasoaldi guztira.

Tanda bat bukatu eta bestea asi bitartean, ordu laurdeneko atsedena artu zuela entzun nuen nik.

Neronek ez nuen ikusi ta, okerrik balego, barkatzea naiko nuke mesedez. Baiña lan ikaragarria egiña eduki-

ko du Azkoitiko Goenatxo indartsuak, emen inguruko jendeak dionez.

Orain, gaia pixka bat aldatu dezadan, Ormaiztegiara joko det poliki-poliki.

San Andres jaietan negu kutsuzko giro lardats, zeken, bigurri antzekoak sarritan izan oi diranez, leengo garaietan otzaldi galantak artzen genituen, Ormaiztegiara bertotara joandako bakoitzean.

Eleizaren kanpoko estalpean jarduten giñan kantari meza nagusia bukatu ondoren. Baiña nola, ordea? Otzaren samintasunak min ematen zigula, beti ez bazan ere, geientsuenetan beintzat. Urte garaia ala moduzkoa izanik, iñor etzan arritzen.

Diodan oitura au goizetik erabiltzen genduen jeneralean, eta gero bazkari ona lagunarteko gozotasunean. Soiñuz, panderoz eta bertsoz osaturik, ezeren faltarik gabeko bazkalondo zoragarriak pasa genituen guk Ormaiztegin prankotan.

Arratsaldeko jaialdia, berriz, zinean edo antzokian jartzen zutenez, an barruan giro atsegiñagoa egoten zan.

Uztapide zanarekin kantatu nuen nik leenengo bi edo iru urtetan, diodan erri polit artan. Gerora, berriz, Joxe Agirre, Lazkao-Txiki ta oiek erabili nituen bertsolari lagun, joaten nintzanetan.

Egun batez gertatu zitzaidana det gogoan jaso. Oriotik Donostiraiñokoa ederki egin nuen; baiña antxe bigurritu biajea.

Norteko estazioan trenaren zai, gosaltzeko partez, tripak jan nituen. Ni ustez garaiz nenbillen. Baiña trenea aberiatu ta bidean gelditu omen zan; eta gero ura berriro martxan jarri ta Ormaiztegi iritxi arterako, zearo berandutu. Uztapide ta bertsozale denak etsita zeuden. Ura pena!

Ongi kostata

ARRANTZALEAK ongi kostata irabazten dute egu-nero jan bear dan ogi berri biguna, legorreko langille askok bezelaxe. Emen bakoitzak bere tokian badu zer egiña ta burua bete kezka, familiko gurasoak batez ere.

1995-garren urtea nolakoa izan ote zan itxasoan jakin nairik iñor baldin balego, argibide batzuk merezi lituzke, ta leen emanak egongo dira telebistaz, irratiz, egunkariz eta abar. Baiña denok ez gera garaiz konturatzan, ordea, entzuteko edo irakurri al izateko. Nik ere arreta geiegizkorik ez diotet gauza oieri jartzen, eta gero kalean entzundakoz konformatu bear derrigor.

Dana dala, arrantzaleak itxasoko lanak eginda etxeratu zitzaizkigun urteroko oiturari jarraituz, eta arraia- ren faltan alperrik zebiltzala ongi ikusi ta gero noski. Baiña ez saiatu gabe. Baztarrak ederki miatuta adibidez beintzat.

Mediterraneo aldean ibili ziranak kosterari azken txarra eman omen zioten, eta minberatuta egoteko moti- borik aski badutela dirudi. Nik patroï bati galdetu nion ea zer berri ekarri zuten, eta:

— Ezer ez. Frakaso ikaragarri bat izan degu aurtengo ontan —erantzun zidan—. Urte guztiak ez al dirala berdiñak egokituko pentsatzen det nere kasa. Bestela, toki ederrean gaude familia mantentzeko.

Ara or diximulatu ezin leizkeen buruauste triste tamalgarriak nola sortzen zaizkion lanetik bizi bear duen pertsona bakoitzari.

Itxasoan gaeuz eta egunez arrai billa dabillen bar-kuak alimentu asko eskatuko du dudarik gabe, ta ber- tan dabiltzan gizonak ere derrigor jan bearko dutenez,

gastu galantak egunetik egunera ugaritzen joango dira; eta inñundik etorkizunik ez bada, galera segurua dago.

Emen mariñelak itxuraz dabiltzan garaian poza nabaitzen degu, bai ostatuetan, bai kalean, eta erriko famili askotan ere berdintsu. Oriori bizitzen laguntzen diona orixe dala badakigu geien bat: itxasoa alegia.

Mediterranean atunak faltatu bazioten ere, ara joaterako mordoska bazuten arrapatua zorionez, eta esker-rak aurrez egindako lanari. Baiña an arraia aukeran billatu izan balute kostera aundi baten bidez, udaberrian txoriak baiño kontentuago etxeratuko ziran gure arrantzaleak.

Ortan segurantzi osoa eduki genezakelakoan nago ni neroni beintzat. Etzan komeniko, ordea, geiegizko pozik edo ez dakit gauzak nola esan ere.

Suerteá bear omen da. Ori beti daukagu, baiña bi zati ditu, bat ona eta bestea txarra, eta bakoitzak paretan jartzen zaiona artu beste erremediorik ez daukanez, konformatu ta kito.

Batzuk Azores aldera joan ziran. Gipuzkoatik, Bizkaitik eta abar zenbat barku ez daukat gogoan une ontan. Dana dala, an atuna ugari arrapatu zuten kontua entzun nuen.

Emendik abiatu ta Azoresetara irixteko bost egun pasatzen omen zaizkiote gutxi gora-beera. Ibillaldi luzea benetan. Itxasoa bare ta gozo egon ezkeru, gaitz erdi. Bestela, aspertzeko moduko biajea bearko du izan. Azoresetan, leentxeago diodanez edo nik jakin nuenez, arraia, giroak laguntzen ziotenetan, ongi arrapatzen omen zuten; baiña prezio merkean saldu noski.

Ala ta guztiz ere, Oriotik joandakoak kontentu etorri zirala uste det.

Getariar batek suerte txarra. Barkua an galdu baitzitzaien zoritxarrez. Bermeotar gizonen bat ere bai.

Udazken zoragarria

SAN Nikolas jaiak beti bezela somatu nituen gutxi gora-beera. Nola etorri ala joan, urteak aurretatzen ditugu diruaren partez. Baiña bizitzeko poza eta ilusioak iraun dezatela zutik, gazteen artean batez ere, denontzat diran arren bearrezko gauzak. Guk, zaarturik gaudenez, ezin genezaioke iñori asko lagundu. Geronek naiko gendukeen aiña ez beintzat, onenera jota ere.

Dana dala, Orio onek badu adurra jendea beregana bildu arazteko. 1995-ko San Nikolas pestetan ostatu zokoak, plaza, pelotaleku eta kale alde guztiak leporaiño beterik ikusten ziran erritarrez bezela kanpotik etorritakoz.

Eguaraldiari zegokionez, berriz, obeagorik ezin aukeratu, aprapos eskatzen asita ere. Egun zoragarri utsak egin baizizkigun, zer urte garaitan geunden kontuan izanik.

Gure gazte denboran, Abenduko illari bildur izugarria zitzaion baztarretan. Baiña gauzak aldatzen dijoazte, itxurak diranez, aspalditxotik gaiñera.

Udazkenean sartu ta geroztik ezagutu genduen udara. Egoaizeak markatzen zigun eguraldiaren nundik norakoa, ta bera nagusi, alde auetan beintzat, naiz eta kanpotarrendandik bestelako albisteak entzuten genituen arren.

Bi denborale klase bereziak ibili ziran alkarren aurka borrokan luzaroan: bat itxasotik zetorrena, gorrotoz eta amorru gogorrez beterik. Baiña Galizi aldean lertzen omen zan baztarra jota, aurrerako pasorik etzeukalako. Zerk galerazten ote zion? Egoaizeak adibidez. "I ortik eta ni emendik" esatea da ori nereko.

Zenbat bider aditzera eman ziguten telebistaz, irratiz eta egunkariz: "Borraska izugarrizkoa gain-gaiñean degu. Biar, goizetik ez bada ere, arratsaldean guregana iritxiko zaigu seguru samar"?

Bai zera! Etzuen iñork asmatzen. Biaramonean sekulan baiño egun ederragoa argitu, ta artantxe segi sarritan. Oiek dira aldakuntza zelebreak.

Larogei eta iru urte aundi beterik dauzkan aitona batek onela zion Gabon aurreko astean:

— Nik neronek iñoiz ez det ezagutu aurtengo au bezelako udazken zoragarririk. Eta aurrerantzean ere kostako dala derizkiot onen parekorik ikusten. Obeagorik ez beintzat, iñolako moduz. Eguraldi-gizon jakintsuak or ari zaizkigu eten unerik gabe denborale txarrak atariko atearen ondoan dauzkagula ta kontuz ibiltzeko esaten. Baiña itxas aldeko ekaitzaren arrixkuak egoaize indartsu orrek ebakitzen ditu nunbait, eta denok nastu arazi gaiñera.

Auetxek ziran lentxeago aipatu dedan aitona zaarrak eman zizkidan arrazoiak, gutxi gora-beera. Etzeukan saltzeko 1995-ko udazken paregabearen emaitza gogoangarria.

Andik egun gutxira, baserritar ezagun batekin topo egin nuen kalean. Uraxe bera ere etzegoen asarre. Ganaduak kanpoan erabiltzen dituenek, giro onak auke-ran. Zer jana ere bai. Larre aberatsak oparo ta gastu gutxirekin mantendu alegia ganadu mordoska dexentea. Aien etxe inguruan aritz zugaitzak ostoberriturik zeudela esan zidan Gabonetarako, eta sagastietan lorea poliki ikusten zala.

Noiz ezagutu da, ba, alde auetan orrenbesteraiño-ko edertasunik udazkenaren bukaeran eta neguaren asie-ran? Arrigarria iduritzen zait benetan. Baiña ori ez dago gure baitan, eta datorrena artu ta kito, oraindaiño-koan egin bear izan degun antzera. Ez daukagu beste jokabi-derik, 1996-garrengo urte ontan gauzak aldatzen ez badira.

Getariko txakoliña

ILBELTZAREN 17-an urtero fetxa jakiñean izan oi da San Anton eguna.

Getariko pesta ospetsuak datozkit gogora. Ainbat biderrez pozez eta animoz beterik joanak gera bertotara erri polit atsegin artara San Anton egunez, goizetik gaiñera beti edo geientsuenetan beintzat.

Iribar-en jatetxean gure zai egon oi ziran, kontu zaararak kontatuz gosari ederra emateko. Bertako nagusi zana, Joxe, eta bere alabaren senarra, biak illak dira. Lastimal!

Ni ez naiz azkeneko lau urte auetan izan jatetxe artan. Baiña leengo martxan jarraituko dutelakoan nago gaur ere. Ama zaarra, Joxe zanaren andrea, oraindik bizi omen da. Norbaitek esanda jakin det au. Onezkero larogeitaka urteak bearko ditu, zenbat seguru ez dakit baiña. Aspaldiko emakumea da. Bere alaba ere alargun biziko ote dan errezelotan nago.

Dana dala, bertsozale purrukatua izan da diodan famili au, eta gu etxeko bezela tratatzen ginduzten, ala merezi ez bagenduen ere.

Ortik aparte, berriz, Getari oso erri maitea genduen. Bertotan pozik jarduten giñan, jendearen entzuteko gogoia eta arreta nolakoak ziran ikusirik.

Bertsolariak orixe nai du: erria gustora gelditu dedilla, berrizko ere. Batzuetan, gauzak parera datozenean, errez asmatzen dala badakigu, Baiña ez, ordea, beti. Ori geiegi izango litzake.

Agian, 1995-ko udazkenak zer kontatua utziko zuen Getari aldean adibidez. Iñoiz ezagutu dan maats urterik onenetakoa omen zan, eta txakoliña oparo noski.

Ez naiz batere arritzen ortan. Udazken legorrak eta eguzkitsuak asko balio duela entzunda nago bein da bi aldiz baiño geiagotan, maatsaren ugalmenerako, eta kalidade onerako ere bai noski.

Gu, denbora pasa joanda, igande arratsalde batez ibili giñan maastiak ikusten pixka bat, kotxearekin San Prudentzio aldera igota, Iraillean gutxi gora-bera; eta arritzeko moduan beterik zeuden. Ura zan edertasuna! Begira egoten ezin aspertu! Esan genion alkarri:

— Emen bezelako maats mordoak baldin badaude Getariko soro denetan, txakoliñez osatuko dira baztarrak.

Eta alaxe gertatu ere, nik entzun dedanez beintzat. Sekulan baiño ugariago bildu dala maatsa diote.

Txakoliña botilletan sartzen asteko garaia iritxi omen zaiote. Berez edari bizia eta ona izanik, errez salduko dutela pentsatzen det. Beñere modatik pasatzen ez dana baida emen bertan ere; ta azkeneko urte auetan, berriz, estranjeroak eman diote izugarrizko fama adibidez.

Jenero itxurazkoak alde guztietan iriki arazitzen ditu ateak; eta, oraingo martxan jarraitzen badute gauzak, laixter dira abasto eman eziñik Euskal Erriko txakolin egilleak. Naiago nuke mik dauzkadan iritzi auek egi biurtuko balira.

Ea, ba, suerte pixka batek laguntzen duen modu batera edo bestera, danen bearrean aurkituko gera noski ta.

Getarin txakoliñaren ospakizuna izan omen zan 1996-garren Ilbeltzaren 17-an, San Anton egunez beraz.

Zorionak eta segi orrelaxe urte askotan!

Lazkao-Txiki zanaren ausardia

LAZKAO-TXIKI zanari leen liburutxo bat egin nion, ongi merezi zuenez. Baiña aren gertakariak asko izan, ordea, denak batera idazteko, eta aietaz gogoratze-ko ere bai noski. Beraz, onoko atal onen bidez jakin arazi-ko dizut, irakurle, zertaraiño arrixkatzen zekien gure lagun Joxe Migel Iztuetak, derrigorrak jotako garaian.

Ez dakit deskuidoz edo zabarkeriz, baiña gau batez arrituta utzi ninduen aren jokaerak. Geroxeago esango det zergatik garbiro.

1981-garren urteko pasadizoak pixka bat berritu nai nituzke, ta ara emen aietako bi beintzat.

Negua zan, eta eguraldi txarra gaiñera benetan. Goizetik elurra barra-barra botatzen asita, egun guztian atertu ez. Alakoxe giro eskasa ta samingarria egokitu zitzaigun. Kamioan ibiltzeko ere bildurra ematen zuena, esate baterako.

Guk, Xabier Amuriza bertsolariak eta biok, Amasan kantatu genduen leen, boda edo ezkontza batean. *Aran-tzabi* jatetxean etzan otzik sentitzen. Bazkari on baten bidez berotu ziran jendearen kolkoak, eta biotzak ere bai.

Arratsalde bikaiña izan zan uraxe. Denok kontentu kontu kontari, umore ederrez, patxada gozo askoan, tarte-ka bertso saio batzuk egiñez, ezkontzako egunetan oitura dan bezela.

Baiña bertan geundela illundu konturatu gabe. Gus-tora dagoenean gertatzen da ori noizean bein.

Dana dala, Amasako lanak bukatu ta bereala Are-txabaletara abitu giñan Amurizaren kotxean. An baigen-

dukan gaueko bertso jaialdia; ta plazaratu aurretik, soziedadean afaria.

Autoa zolua legor dagoen garaian errez ibiltzen bada ere, gau artan bazuen beretzat aiña lan. Elurra dexentea alde batetik, eta bestetik jela edo izotza egongo zala zirudien. Nik neronek ala pentsatu nuen beintzat, eta Xabier Amurizak ere iritzi ber-bera zuen. Arek segurua-
go antzemango zion, autoaren gidaria izanik.

Kamio arrixkutsuan probatzen dira txoferrak, zenbaiteraiñoko almena duten bolantea manejatzen. Gu ongi moldatu giñan.

Baiña Lazkao-Txiki zana nola ibili ote zan gau artan? Ni, entzun nuena entzunik, arritu ta kuzkurturik gelditu nintzan, bildurrez aidean. Batere frenorik gabeko autoan sartu ta joan omen zan Aretxabaletara, bera bakarrik gaiñera.

Arek jakingo zuen, ba, zer tankeratan zeukan eskue-
tan egunero zerabilkien autoa, konpondu edo zerbait egiteko ere. Baiña nik ez nezake esan ortik aurrera ezer, ez dakit eta.

Konfiantza geiegiz ibiltzen ote zan daukat errezeloa. Orixe bakarrik. Ala ta guztiz ere, istripu askorik ez det uste iñoiz izan zuenik Lazkao-Txiki zanak bideetan. Suerte onak lagunduko zion gai ortan beintzat, azkenean klinikan txarra izan bazuen ere gizarajo arek.

Dana dala, Aretxabaletan ez naiz une ontan gogoraz-
tzen, seguru esateko, zenbat bertsolarik kantatu gen-
duen. Baiña Amuriza, Lazkao-Txiki, Agirre, Lazkano, Arantxa Loidi, Sarasua eta ni, Lasarte, izango giñan tal-
dean seguru asko.

Erri polit artan bizi dan jendea bertsozale purruka-
tua juzkatzen det nik. Den-dena zailla da, baiña geien-
tsuena beintzat. Pelotalekuan entzule sutsuak ikusten
nituen nik, joaten nintzan bakoitzean; eta bertsolarien
lanak ongi txalotzen zituzten, beraien esker ona eraku-
tsi ta adierazi zezaten. Orixe.

Jabier Eizagirreri esker beroak

MUNDU ontako bizitza nola bukatzen du pertsonak? Penaz, tristuraz, miñez eta ezertarako gauza ez dala.

Bakoitzak bera bizi dan erriko ezkillak entzuten ditu. Orion aboniatzen otsak ugari antzean datozkigu belarrietara aspalditxoko bolara ontan, gustagarriak ez badira ere; eta beste tokietan ere orixe gertatuko dalakoan nago.

1996-garren urteko Ilbeltzaren 14-ean il zan Jabier Eizagirre Loidi, eta biaramonean, illaren 15-ean, izan ziran bere animaren aldeko otoitzak eta gorputzari lur ematea; samín agurrezko elizkizuna.

Larogei ta amar urte omen zituen. Ezin esango degu gazte eta sasoiko zegoenik. Baiña iñork ez du il nai emen.

Nik neronek asko tratatu nuen Jabier Eizagirrerekin. Opizioz argiña zan, eta ez nolanaiko baldar oietakoa; egoki aparta bezin txukuna, bakoitzari berea eman bear badiogu beintzat. Eta, ni orren aldekoa naizenez, den-dena aitortu nai nioke, merezi duen neurrian, ez geiago eta ez gutxiago.

Argintzarako esku-erremintak nik prestatzen nizkion bere gustora edo agintzen zidan modura. Ainbat bider esan zidan:

— Lasarte, zuk jarritako erremintakin lana egitea ez da jolas bat besterik.

Agian nere pozgarri jardun zitekeen izketan. Baiña etzan gizon berritsua eta erdi zuria, oso benetakoa baizik.

Larogei urterekin ere artean lanean ariko zan ura poliki ta kontuz.

Ni Oriora bizitzera etorri nintzan garaian, ez nuen inor ezagutu errementeritzan jarduten zanik. Perratzaille bat bazan, baiña ordurako zaartua. Agian arek mol-datuko zizkioten argin eta bestelakoeri esku-erremintak leen. Seguru ezin nezake esan, ez dakit eta.

Dana dala, Jabier Eizagirre oso gazterik asi omen zan argintzan ikasten. Zenbat arri baldar labratu eta txukundu ote zituen bere bizitzan?

Igeldon luzaroan ibilitako sustraiak eman izan zizkidan. An lan asko egin omen zuen; eta gero emen, Orion bertan, urte mordoan batean eta bestean, baiña bereziki kanposantuan.

Ikusgarri ederra dago Orioko kanposantua; beti edo sarritan begiratzeko modukoa. Baiña Santu Guzien egunez, batez ere, dena lorez apaindurik dagoen garaian.

Sepultura edo illobi zoragarri apartak daude Jabier Eizagirre zanak egiñak. An ikusten da garbiro zer mailatako argiña genduen Orioko seme argi au.

Emen kontuak alperrik dira. Lanak erakusten du ongiena bakoitzaren artea noraino irixten dan.

Kanposantuari pusketa berri bat erantsi zioten, leengo txikiegi zalako ta azitzearren, seguru asko Jabier argintzatik erretiratu ezkeroztik. Illobiak ere beste molde batekoak egin zituzten, diodan parte berri artan. Baiña ez dakit erriko jendearen gustokoak diran edo ez. Ez baidet inorekin itzegin gai ortan.

Dana dala, aiek antxe daude beintzat, eta nik ez daukat ezertan sartu bearrik, arrazoi geiago ez dedan bitartean.

Baiña Orioko kanposantuak merezi duela uste det berari dagokion aitormena, txukuntasuna maite baldin badegu.

Eta Jabier Eizagirreri esker beroak.

Aurtengo neguaren zitalkeriak

— **N**EGUAREN zitalkeri nabarmenak zer diran konturatu gera aurtengo ontan aspaldiko par tez —esan genezake.

1996-ko otsaillari buruz zerbait itzegitea pentsatu dedanez, aleginduko naiz bere albisteak zuzen eta garbiero ematen, geroko gogoangarri idatzita gelditu ditezen, norbaitek jaso edo gorde nai baldin baditu beintzat armarioko txokoren batean.

Ogei ta bederatzi zituen otsaillak juxtu-juxtuan, eta ostegunez bukatu zitzaigun, bere propinak edo erregaliak emanda.

Uraren falta bazegoen ere, ederki aseta utzi zizkigun baztarrak azkenerako. Ekaizte bildurgarriz jantzitako otsailla igaro genduan ongi kostata, pixka batean aaztuko ez dana noski.

Leen, kanpoko lurralde oietan erabili omen zituen egundoko txikizioak eta zalapartak, nola aizez, ala euriz eta elur eraso bigurriz. Kalte ikaragarriak egiña izan bear zuen zugaiztietan, kamioetan, kaleko etxe askotan eta ainbat tokitan.

Ujoldeak arrapatuta kotxeak aidean zeramazkiela ikusten genituen telebistaren bidez, tomate pote utsak bezela alkar joaz.

Itxasoa ere sekulako sasoian legorrera irten da dantzan, alde batzuetan beintzat.

Guk emen, Euskal Errian, egoaizea izan genduen oparo eta nagusi otsaillaren zati aundi batean. Eguraldi-gizonak parte txarrak ematen zizkiguten sarritan, baiña etzuten asmatzen, egoaizea indarrean zebillen bitartean.

Izan ere, orrek naastu arazitzen baiditu zintzotasunik aundiena duten tresnak eta zuzen jokatu naia daukaten pertsona geientsuenak boladatan. Beti abixoak ematen ari ziran borrhaska izugarrizkoak gain-gaiñera zetozkigula eta kontuz ibiltzeko.

Etziran gezurrezkoak irten otsaillaren erdi partetik aurrera. Egoaize zoroak toki utzi zion garaian, laixter jabetu zan itxasoko denborale traketsa.

Trumoi ots galantak joaz ekin zion elurrez mendiak zuritzen, eta bai mardul asko bota ere. Zeru azpiko odei eta laiño astunak ederki arinduko zirala pentsatzen nuen nik egun torpe aietan.

Euskal Errian elur gutxirekin genbiltzan urte mordoan; baiña aurtengo ontan ezin esango degu orrelakorik.

Emen, Orion, 1985-ean, San Nikolas bigarrengez ikusiko genduen kalean elurra amabosten bat zentimetrokoa gutxi gora-bera, ni oso oker ez banago beintzat. Geroztik ez du egin aipatzeko modukorik, aurtengo otsaillera bitartean.

Noizean bein polita izaten omen da umeak jolasteko. Ez, ordea, mendiko artzai eta baserritarrentzat, luzarotan irauten baldin badu. Elurrak ez ditu animaliak mantentzen, supritu arazi baizik beraiek gobernatu bear dituenari, eta gastua pranko eragin gaiñera pentsutan edo abar.

Dana dala, otsaillak aldegin zuen betiko berotasun aundirik erakutsi gabe, ta martxoaren leen astean omen genituen koarta-tenporak adibidez. Ipar aizea nagusi samar gelditua ote dan aurrerako entzunda nago.

Ori egia baldin bada, udaberri pobrea espero det nik, nere aldetik. Itxas baztarretan ez da iñoiz bezelako jendetzarik ikusiko baiñuak artzen; eta kanpoko janariak ere ez dute askorik irabaziko noski. Baiña ortaz gero itzegin obe da.

Alkartasuna

ALKARTASUNA zer gauza ederra dan probatu ez duenak ezin lezake jakin inñundik inñolaz ere. Denok orretxen billa gabiltzala dirudien arren, ez degu berarekin topo egiten, edo guregandik oso urruti dabilen itxura dauka beintzat, lastimagarria bada ere. Noiztik datorren gaitza ote da ori? Galdera onentzat nik neronek ez det tajuzko erantzunik aurkitzen. Baiña pertsona sortu zanetik, seguru asko.

Iritzi auxe eman zidan nere aspaldiko lagun zaar batek, orain aurreko egun batez. Larogei urte ez ditu aparte, eta kezkaz beterik nabaitu nuen gizarajoa. Ura ere ez da ongi bizi, osasun bikaiñeko gizon gordiña eta buruz jantzia beti izan dalakoan nagoen arren, zerbait falta zaio, eta nik ez dakit zer, garbiro esateko. Baiña geroko etorkizuna darabilki pentsamentuan bueltaka nunbait. Alamo duzko tankera artu nion.

Guk leen ezagutu genituen oiturak eta gaurkoak ez baidira berdiñak. Aldakuntza nabarmenez arritzen gera sarritan, motibo geiegizkorik gabe agian. Gizarteko alkartasunak ez du berdiñik. Ori edozeiñek daki. Batek besteari gustora begiratzen dion une gozo ura errespagarria da benetan. Izketarako gogoia ere berak ematen baidu.

Ostatuetan umoretsu dauden batzuek ateratzen dituzte bulla ta zalaparta galantak ezer gutxiarekin, musean, tutean edo puntuan ari diranetan batez ere. Baiña konfiantza osoan, ordea. Ez noski zearo asarretu ta txarkerizko griñak eraginda. Bestela ez lirake egunero alkarrengana bilduko. Ortxe dago koxka.

Garaian garaiko gauza adoretuak nai genituzke, eta pake zorionsuan mundu ontan bizi, eziñak menperatu

bitartean. Zer egin genezake geiago, gure joan-etorriak ongi neurtuak dauzkagunez?

Alkartasunaren bearra mundu osoan sentituko zan leen ere, ta gaur ez gutxiago.

Elizara meza entzutera goazen bakoitzean, orixe entzuten degu. Lagun urkoarenganako errukia eta maitasuna eskatzen dizkigu Elizak. Bi gauza paregabeak, ongi beteko bagenitu. Apaiza izketan ari danean, ixilik egoten gera gainontzeko denak. Baiña zer gertatzen zaigu an entzundakoarekin? Belarri batetik barrura sartu orduko, bestetik kanpora irten, eta leengo modu berean gelditu.

Emen bakoitzak bere erara ibili nai du. Ez dakit gauza guztietan arrazoi daukan edo ez. Nik erabakitzeke geiegi litzake. Pertsona ezjakin baten itzak iñork ez baiditu aintzat artzen irutik bitan.

Dana dala, orain aurreko egun batez, amonatxo txiki zaartutako batekin topo egin nuen bere etxe ataritik pasatzerakoan. Larogei ta amar urte dauzka bizkar gainean gutxi gora-beera, eta onela galdetu zidan gaixo arek:

— Zer moduz zabilta osasunez, Lasarte?

— Nai bezela ez, amona. Baiña miñik ez dedanean, kontentu. Okerrago ere ibilita bainago aspaldi ez dala. Eta zu oso pizkor ikusten zaitut daukazu adiñerako.

Ori esan nionean, laixter erantzun zidan amonak:

— Bai; zuk ala usteko dezu, Lasarte. Baiña nik ere badauzkat nere naigabeak. Medikiak esan didanez, gorputzean zirkulazioak omen dauzkat txarrak. Mingaiñean bakarrik ona, eta ixilik egoten ezin det asmatu iñolako moduz.

Erantzun polit auxe jaso nuen amonarengandikan. Leen ere beste batek gauza berbera esan zidan.

Bi aiton prestu

ORIOKO errian gizon eta emakumezko adin aundi-koak badaude bolada ontan ere. Pertsonaren bizia asko luzatzen ari dala diote medikuen lanez eta sendagaien bidez. Ori sinisteko moduko arrazoia ote dan derizkiot nik ere. Baiña urtez kargatuta kalez kale pausoa juxtuan emanez dabiltzan aiton eta amona oiek suerte ikaragarria izan dutela aitortu dezagun, mailla ortara irixteko.

Ongi egindako auto batek luzaroan irauten du iñongo ajerik gabe eta sano, kilometro mordoska pasa ta nekeak erasaten dion bitartean. Baiña betikorik iñor eta ezer ez dala jakiñean gaudenez, ez det ikusten arritzeko motibo berezirik.

1996-ko otsaillaren asierako egunetako batean, emen Orion bertako gizon eta aspaldiko urteetan nere adiskide izan danarekin alkarrizketa txukun antzeko bat eduki nuen. Erramon Solaberrieta da diodan gizon au bere izenez. Baiña Erramon Lino esanda errezago jabetzen da erriko jendea.

— Larogei ta amabi urte urrengo illean martxoan beteko ditut, Lasarte. Zaartu naiz ederki! —esan zidan.

— Naikoa egin dezu, Erramon. Asko geiago ez dago eskatzerik gizon bati —erantzun nion.

— Bai, bai. Onenbestean konforme nago —zion berak—. Oraindik kalean ibiltzeko aiña indar badaukat. Poliki-poliki zaarren soziedadera joan da karta jokoan ere jarduten naiz denbora pasa, ta bapo. Orrelaxe dira nere ilusio guztiak.

Arraunlari ona omen zan gaztetan Erramon Lino au.

— 1996-an, aurten izan bear dute irurogei ta amar urte leen bandera irabazi genduela, ni barruan nintzala.

Garai artan bai sasoi bikaiña gaurko partez —zion aito-
na prestuak.

Buruz argi billatu nuen zeukan adiñerako; eta izlari
atsegiña, beti ezagutu degun bezelaxe.

Beste gizon aipagarri bat Inaxio Manterola. Orrela du
onek bere jatorrizko izena. Baiña Inaxio Txokolate dei-
tzen diogu Orion denok, edo geientsuenak beintzat.

Nik pentsatzen det, Linonea eta Txokolatenea izena
duten etxeak badirala erri ontan, eta Erramonek zer
ikusia edukiko duela gai ortan; eta Inaxiok ere bai,
seguru asko. Diodan etxe oietan bizituak edo orrelako
zerbait, ezer ez dakidan arren.

Dana dala, Inaxio Manterolak larogei ta amabi urte
1996-ko otsailean bete omen zituen. Zein egunetan ez
dakit. Baiña Erramon Solaberrietak esan zidanez, biak
urte berekoak izan bear dute. Inaxio zaarxeago illabetez
noski.

Alkarrekin estropadak jokatu zitezten bi arraunla-
ri ospetsu auek. Erramoni auxe entzun nion beingo
batez:

— Gu mutil koskorretan lagun egin giñan, zortzi urte
genduzkala, Inaxio ta biok; eta oraindik artan jarraitzen
degu, Lasarte.

— Eskerrak merezi ditu alkartasun eder orrek
—erantzun nion, sentitzen nuen bezelaxe.

Erramon Lino bertsozale purrukatua izan da bere
bizitzan, edo nik ezagutu nuen ezkeroztik batez ere.
Gizon umoretsu eta alai, lagunarte aundikoa.

Inaxio Manterola, berriz, serio aparta. Itz neurtuak
erabiltzen dituen gizon klasea. Ixilla eta umilla denbora
borean. Etzuen arronkarik joko ibili dan tokietan, nere
ustez, iñork artara beartu ez baldin badu.

Alpertsurik denak?

ALKOOLAREN aurka dauden pertsona batzuek maiz ematen dizkigute esplikazio ederrak. Zertarako, ordea? Errespetatzen ez baditugu, alpertsurik denak. Alkoolik batere gabeko edari klase gutxi izango dira. Ura bat, nik ezagutzen dedana. Orixe bakarrik erabiltzen baidet jai ta aste. Egarritzen naizenean, tragoxkada bat edo beste egin da bapo aurrera txalupa motel-motel.

Pertsona edadetuak bizigarri pixka bat nai izaten du; baiña komeni ez bazaio, ezin artu. Osasunez sendo dagoenak ostatura sartu ta ura nekez eskatuko du, badaki edari obeagoak badaudela ta.

Emen, Orion ikusi ditut nik amaiketakoan arraia xaltxan jarria kazuelan, edo bestela tripakiak jan leen, ta gero gaiñetik gazta zaarra, egarria ematen duen oieta-koa; eta bi lagunen artean lau botilla txakoliñez beteak ustutzen, sarritan gaiñera.

Tankera ortan edateko aalmen ikaragarria bearko duela pentsatzen det gizonak. Ori ez da egarri naturala, zurruterako antsia baizik.

Baiña ez diote kalterik egingo seguru asko. Sekulan ez ditut balantzaka eta itxura txarrean ikusi. Aspertutako garaian, jarlekutik altxa ta bakoitza bere etxera joango da, "Biar arte guztioi, jaunak" esanda, umore ederrean bazkaltzera. Nik beingo batez galdetu nioten:

— Orain, orrelako tripakada egin da gero, bazkalduko al dezute?

— Bai, gizona! Berdin-berdin! —erantzun zidaten sano asko.

Orixe da pertsonarentzat nortasun jatorra eta ixtimagarria. Zipozkeririk gabeko izakera aberatsa, nere ustez beintzat. Txarkeritik ez baigoaz iñora.

Edarrietan alkoolik geiena patarrak izango duela iduritzen zait neri; eta koñakak baiño anixak geiago adibidez. Auek aspaldiko kontuak dira.

Oraingoz ez det ezer entzuten gai oni dagokionik. Uiski erabiliko du modan eskuarte ona daukanak. Ori famatzen dute bere berri dakitenak. Baiña gure moduko pobrearentzat galestia dala badakigu, sarritan edateko beintzat.

Zaar jendeak, berriz, ardo itxurazkoaren parekorik ez dagoela esaten du, gizonak noiznai artzeko; eta ortan arrazozi pixkaren bat eduki lezake gaiñera.

Neri Orioko aitona prestu batek galdetu zidan, orain dala urte batzuk. Ostatuan ardoz konbidatu ninduen, eta:

— Ixtimatzen dizut, baiña medikuak galerazia daukat —esan nionean, onela dio:

— Batere ez al dezu edaten, Lasarte?

— Ez aspaldian.

— Kontxo! Jateko garaian ardo on samarrak, basokada batek, ez lizuke, ba, kalterik egingo.

— Ez, noski. Baiña onetik bi igoal edango nituzke, ordea,

Eta:

— Arrixku ederra! —erantzun zidan aitonak.

Beste erri txiki batean ezagutu nuen ardozale purrukatua, beti zurrutean da bein ere mozkortzen etzan elementu oietakoa. Gizon edadez jantzia ordurako, baiña artean ederki tiratzen zion txupeteari. Eta, izketan ari giñala, galdera auxe egin nion, konfiantza gendulako:

— Gizon sasoiko batek zenbat ardo edan bear du, kalean lagunartean zebillenean, etxekoz aparte?

— Ogei ta amar baxoerdi egun bakoitzean, gutxi gora-beera, ongi osatzeko —esan zidan.

Errazio polita ez al da ori, irakurle? Nik ala uste det. Zuk ez dakit nola ikusiko dezun.

Orio eta pelota

PELOTAZALE amorratua beti izan naizenez, gaurko ataltxo au osatzeko gai orixe aukeratuko det, zerbait derrigor bear dedalako.

Orion pelotari asko sortu ziran leen adibidez, naiz eta nik gutxi ezagutu nituen arren; eta erremontean onenak, entzunda nagoenez. Baiña elduleku luze ta zabalak dauzka artu dedan gai onek, eta ez dakit den-denak ukitzera iritxiko naizen.

Leen esku-pelota aipatu nai nuke, Orion aspaldiko urte auetan gutxiena erabiltzen dutena bera dala jakiñik. Lastimagarria bada ere, indarra galdu zaiola diruri. Esku-pelotak mereziko zuen ongi zaintzea, ain jostaillu polita izanik. Baiña, gaurkoz beintzat, sobratu samarra edo baztarreratua ikusten degu, zoritxarrez.

Erremontez eta palaz entrenatzen dira erri ontan erriko gazte batzuk, eta kanpotarrak ere bai aldizka. Nik Urretabizkaia anaiak sarritan ikusi ditut pelotan dabiltzala biak alkarrekin. Oiek, Orion bertan bizi diralako, aukera ona daukate edozein ordutan frontoia aprobe txatu al izateko. Erremontean jokutzen dutela badakigu gaiñera.

Erri bakoitzak bere oitura bereziak ditu, itxurak diranez, eta ezin litezke nolanai aldatu, urte batetik bestera beintzat. Denboraren bidez, agian. Baiña oriotarrak nekez galduko dutela derizkiot erremonteko pelota jokolari dioten maitasuna.

Nik neronek ez diotet kasorik egiten frontoiko jolaseri aspalditxoan. Baiña leen nere billobak esaten zidan noiznai:

— Frontoira joango al gera, aitona, pelotan ibiltzera?

— Ikastolatik irtendakoan bai, lagunduko dizut —erantzuten nion, eskolarako poz pixka bat eman nezaion; eta biok joaten giñan.

Pala erabiltzen zuten beste mutil koskor geientsuenak, eta gurea ere artaraxe oitu zan. Banaka batzuk tarte-ka ikusten nituen eskuzko pelotarekin; baiña oso urri. Errezenari eltzen zioten.

Erri guztietan izan oi dira pertsona artetsuak, eta emen Orion ere bagenduen alamoduzko bat, adibidez: Joakin Loidi. Oraindik ez da il zaarra: lau edo bost urte gutxi gora-beera. Nik neronek ez nuen bein ere jokatzeko ikusi; baiña pelotari politaren fama zuen eskuzkoetan.

Diodan Joakin au mutil zaarra zan; eta bere anaia Joxe ere bai, oraindik bizi dana. Arreba bakarrik ezkondua, eta ura ere alargunduta dago.

Dana dala, famili onek erriberatan terreno sail onak zeuzkatenez, barazkia asko egin oi zuten leen: azanario, letxuga eta ainbat janari klase. Nik gogoan ez ditudanak, asko noski. Egunero edo sarritan ikusten nituen furgonetarekin Donostira zijoazela, berdurak saltzera.

Asto txiki komeriante bat ere bazuten, *Niño* deitzen ziotena, beltza kolorez eta bizi amorratua bere izatez.

Nik ezagutu nuen beingo batez. Joakin Loidik pelota partidua egiña zuen beste pelotariren batekin, eta ara nola: Joakiñek astoa sokatik utzi gabe jokatzekotan. Ikusgarri polita izango zalakoan nago.

Dana dala, iritxi zaiote, ba, partidu sonatua jokatzeko izentaturik zeukaten eguna, eta Joakin Loidik lotu dio astoari muturrean soka, baiña oso luzea; eta asi dira pelotan.

Astoa an ibili omen zan batera ta bestera korrika, Joakiñek soka eskuz utzi gabe aldatuz, eta irabazi.

Bi gertakari

AINBAT gertakariz gogoratzen gera denbora pasa gauden une batzuetan. Baiña den-denak esatea zailla iduritzen zaidanez, nik neronek beintzat iñoren kaltegarri izango ez diranak idazten ditut, badaezbada ere.

Ez dakit asmatzen dedan. Ori beste upeleko sagardo bezelatsu baida. Baiña borondate txarrez egindakorik ezer ez nioke eskeiñi nai irakurleari. Ez dedilla minberatu nere zabarkeri narratsen bidez.

Guk aurreko guraso zaarrengandik ikasi genituen ixtori zelebren asko, eta grabaturik gelditu zitzaizkigun betiko, gaur baiño buru argiagoa genduelako garai artan, entzundako gauzak jaso ta gordetzeko.

Baiña ezkutuan zergatik eduki, ordea, bistan jartzeko kezkarik ematen ez diguten pasadizo ta gertakizun guztiak, agian norbaitentzat ongi etorri litezkenak izanik?

Emen denok ez ditugu gusto berdiñak ezertan ere. Bakoitzak berari dagokion janari klase uraxe eskatzen du, egokiera ikusten baldin badu beintzat, arrazoi aundiz gaiñera.

Beraz, jarraitu dezaiozun leengo martxa galdu gabe, berririk sortzen bazaigu, erriak merezi duen bezela agertzen. Atal onen asieran aipatzen dedan ordu-kontu auxe da, garbiro esanda uzteko.

Erri aundi antzeko batean emakumezko edadez jantzitako bat trena berandu iritxi zalako presaka omen zijoan kalean medikuarengana, txanda aurrez artua eduki bear zuen eta ura galtzeko bildurrez nozki; ta orduaren berri jakin ez, garai artan erlojua zutenak etziran asko izango ere ta, adibidez.

Dana dala, emakume presatiak ikusi du traje ederrez apainduta kalean paseatzen gizon serio bat; eta, bere paretik pasatzerakoan, galdetu dio:

— Aizu, gizon: bai al dakizu zer ordu dan?

Ori entzunik, txamarraren goiko poltxikotik atera du kate luzez loturik zeukan erlojua, begiratu berari ta:

— Bai; badakit zer ordutan gauden —esanda sartu berriro erlojua poltxikoan, da martxa aurrera gizon kas-kailuak, beste esplikaziorik eman gabe, emakumea leen baiño okerrago utzita.

Uraxe ere izango zala dirudi bateonbat. Klase ortako laguntzak billatzen ditu sarritan eziñean dabillanak.

Orain zapateroaren eta fraile baten arteko gertaera kontatuko det, gaurko atal au osatzeko. Ez dakit noiz eta nun pasea dan idaztera nijoan au, baiña badu egia-ren itxura pixka bat.

Leen fraileak sandalia larruzkoak erabiltzen zituzten oiñetan, lazo gisako tirante batzuekin, batere galtzerdi-rik gabe, uda ta negu, eguraldi onetan bezela txarrene-tan ere.

Eta erri batean, etxez etxe eskean edo limosna bil-tzen dabillega, autsi zaio sandalia fraileari.

“Au dek gertakaria! Orain zer egin nezake nik? Ea zapaterorik billatzen dedan” pentsatuta, asi da bati ta besteari galdezka.

Erakutsi diote zapateroarenganako bidea, eta joan zaio frailea, sandalia konpontzea nai lukeela esanez. Berealaxe josi ta jarri du ederki sandalia zapateroak:

— Torizu ta probatu ea nola gelditu zaizun.

Jantzi du fraileak, eta oso dotore. “Eskerrik asko” esan, estanpa utzi ta abitu da kanpora. Baiña zapatero-ak onela dio:

— Txeke onekin zein Bankutan kobratu bear det, fraile jauna?

Sagardoari buruz

SAGARDOTEGIAK modan daude, azken aldiko urte auetan batez ere. Emen inguruko gazte jendeak ez-ezik, dexente edadez jantzirik aurkitzen diranak ere joera izugarria daukatela entzuten degu.

Asteburuetan sagardotegietan afaltzeko, koadrillak bildu, aurrez itzegin, ordua erabaki eta, alkarren zai denborarik inun galdu gabe, autoak artu ta an dijoazte noiz-nai, une gozo bat pasatzera. Etzaigu batere gaizki iduritzen ori, neguko kontua bakarrik baida, ez urte osokoa.

Txotxeko sagardoa gauza ederra da osasun ona daukanarentzat. Neurrian edaten jakin ezkerro, edari txarrik ez omen da. Batzuek ala esan oi dute. Baiña neurria nola erabiltzen da: erdizka beteta edo gaiñezka? Ortxe dago alde aundia, nere ustez, eta bakoitzak berea zaintzea zailla dudako egunetan, edo gorputzak ongi erantzuten ez duenetan beintzat, naiz eta txotxeko sagardo berria sana bezin gustagarria izan.

Leen, gu gazteak giñan urte aietan, baserritar den-denak ez bazan ere, geientsuenak bazituzten tolaareak, eta etxeko sagarrez osatzen ziran, naiko sagardoa bertan egiteko.

Urte guztiko edari ederra botilletan sartu ta txukun jartzen zuten, alperrik galdu etzedin. Baiña, ortarako, berari dagokion puntuan arrapatu bearko du sagardoak. Bestela, botilletan ere ondatu liteke, upelean bezelaxe, gazituta edo abar.

Nik neronek ez diotet arreta geiegizkorik artu bein ere gauza auei. Baiña Martxoko illean, San Jose inguruan gutxi gora-beera, asi oi zirala uste det leen diodan lan klase ortan: botilletan saartzen alegia. Oraingoz ez dakit nola dabilzan.

Baserrietan bildutako sagarrarekin ez dute sagardo askorik egingo noski. Akabo garai bateko sagasti zoragarriak. Kostako zaigu berriro aien antzekorik ikusten, ni deskuidatzen ez banaiz beintzat. Ezkutatuak dira sagar zugaizti loretsu emankor aiek gure begien bistatik; eta belardietan ganaduak dabiltza larre freskoa janez lasai asko.

Leen bi gauza batera artzen zituzten baserritarrak terreno berean: sagarra eta ganaduentzat jateko belar gozoa. Baiña ez kosta gabe; lurrari asko lagunduta. Ark ere alimentatu egin bear du udazkenean edo neguan, gero udaran etekin onik kenduko bazaio.

Baserri bakoitzean artantxe saiutzen zan jendea, al zaneraiño lurra gobernatzen simaurrez, mineral autsez eta abar. Bai sagar-zugaitzen ipurdiak atxurtu ta garbitzen ere. Baiña lanaren ordaiñik etzuen iñork jasotzen, sagarra utsaren urrengo prezioan saldu bear izaten zalako.

Orduantxe galdu ziran inguru auetako sagasti eder txukun aiek. Guk ezagutu genituen zorionez.

Emen Orion asi ta Aiako kalera iritxi bitarteko sailletan zenbat gurdi sagar biltzen ote zituzten baserritarrak? Alperrik esatea da. Baiña Aian alde guztietan ziran sagasti ikaragarriak, Gipuzkoan beste edozein erritan bezelaxe. Ortan ez det dudarik.

Naparroan eta Bizkaian, berriz, jendeak etzuen sagar kontuan aparteko apiziorik, orain gauzak aldatu berriak ez badira beintzat.

Bizkaitarrak piñuarekin saiatsu omen ziran gogotsu lanean, eta erdiz erdi asmatu gaiñera, nik entzueran dedanez, leen urte aietan, garaiz esnatu ziralako.

Mendi-baserri urrutikoak

MENDI-BASERRI urrutikoak erosotasun gutxikoak ziran leen; eta, etxean norbait gaixotzen baldin bazan, estuasun izugarritzakoak erabiltzen zituztela badakigu.

Ez baizan autorik baserrietara joaten, gaur bezela, garai artan bide itxurazkorik edo pistarik inun etzegoe-lako.

Medikuak eta apaizak ere oiñez ibiltzen oituak zuden derrigorrez, egunez eta gauez, inori lagundu bear zitzaionean, sendatzen al bazan edo bestela azkeneko lanak egiten zuzentasunez, gero familian okerrik sortu etzedin bizimoduko gora-beeretan.

Sarritan baserritarren bat, zaldia ez bazan beorra artuta, joango zitzaion medikuari bere etxera mesede eske, norbait gaixorik zeukatenean, presaka, ate joka, ea bueltatxo bat egingo ote zuen aien etxeraño, egunez bezela gaueko edozein ordutan. Eta medikuak galdetuko zion:

— Nola joan bear degu oiñez garai ontan?

— Ez, gizona. Oiñez ni ibiliko naiz, eta zu zaldiaren gainean eramango zaitut. Gero ekarri ere bai.

— Bueno, itxogin zaidazu, ba, pixka batean. Erropak jantzi eta laixter moldatuko natzaizu, bearrezko ditudan gauzak artuta.

Orixe izango zan medikuaren erantzuna.

Gutxi gora-bera esateko, erri txikietako gertaerak orrelakoxeak ezagutu genituen guk, baserrietan kamiorik eta autorik gabe bizi ziran urte aietan.

Aspalditxoko kontuak dira auek, baiña ez ain zarrak, den-denak beintzat.

Gaur, konturatzen bagera, baserritarren bizitzari billatu genezaioke alde ederra. Kotxe bikaiñak dauzkate, nun-nai ibili al izateko eta beraien erreztasunerako.

Baiña probetxu gutxiren truke ez ote dira ari lanean betiko moduan, batzuek diotenez? Nik dakidana auxe da: eguraldi onak asko esan nai duela nekazartzarako.

Dana dala, txiste bezelako pasadizo zelebren bat kontatzera nijoakizu, irakurle, denbora errezegi pasatzearren.

Ez dakit nun gertatua dan eta noiz; baiña baserriko aitona gaixotu da. Udaberrian egonik, lanez gainezka dabilta, ta semeari esan dio aitak:

— Gaur atzo baiño okerrago sentitzen diat nere gorputza. Emen ez dek gauza onik eta medikuarengana joan adi lenbailen, etorri dedilla.

Alaxe, semeak esan dio mediku jaunari, eta zaldi gainean eraman du baserrira. Aita oean dago miñez.

Medikuak igarri dio, ongi miatu ondoren, zertsu duen bere ustez, eta onela dio:

— Lasai artu, aitona. Semeak botikak ekarriko dizkizu erritik eta sendatuko zera.

Ta martxa biak.

Medikuari bidean galdezka asi zaio semea, ea zer billatu dion aitari.

— Oso grabe ez dago. Baiña nik errezeta egingo dizut etxean botikak artzeko, eta bide batez apaizari esaiozu elizakoak komeni zaizkiola zure aitari.

Bueno, ba, botikak erosi ta joan da presaka apaizaren etxera mutilla, eta neskamea irten ate ondora.

— Egun on.

— Baita zuri ere. Zer zabilta?

— Apaiz jaunarekin itzegin nai nuke. Aita dauka gu gaizki eta medikuak elizakoak eramateko agindu dit.

— Apaiza gaur kanpora joana da, baiña nik emango diot enkargua.

Zer da ta neskameari seko aaztu. Andik zortzi egunera gogoratu eta esplikatu dio pasadizoa neskameak apaizari.

— Nun dabil zure burua? —esan da martxa, al dan azkarren.

Apaizak deitu akolitoari, elizatik Jauna artu ta joan dira baserrira. Baiña ordurako artajorran aitona soroan.



Manuel Lasarte, bertso kantari.

Tonbolatik bertsoan

BERTSOLARITZA gogoan ainbat amets eragin didana nere bizitza neurtu ontan. Eman izan dizkit egun pozgarriak; baita naigabez beteak ere. Pertsonak beti ez du zorion osorik inun billatzen, ala nai lukeen arren.

Ixtori asko dauzkat bertsolaritzari buruz kontatzeko, denak gogoratuko balitzaizkit paperean idazterakoan. Baiña gorputza aultzen dijoan neurri berean, burua ere arintzen joaten da pixkanaka, eta azkenean ustea bakarrik izaten degu. Beste gaiñontzean ezer gutxi, garbiro esatekotan. Auxe da nik gaur daukadan iritzia, eskarmentuaren bidez datorkidana.

Beingo batez gertatu zitzaigun kasoia esplikatuko det seiñalagarri bezela, naiz eta onen antzekoak maiz ikusita ditugun arren.

Erri txiki dotore batean pestak zirala ta joan giñan bertsoara Azpeitiko Joxe Agirre ta biok. Ez da oraingoxe kontua, baiña ura ere gogoratuko da noski diodan egun zelebren artaz, ez du memori txarra ta.

Goizean, meza nagusia entzun ondoren, elizatik kanpora irten orduko ostatuan sartu oi ziran erriko agintariak amaiketako beroa egitera, eta bestelako jendea ere bai, urteoroko oiturari jarraituz. Usuario zaarrak mantentzea ez dago batere gaizki, nere ustez.

Dana dala, gu antxe geunden, lanean asteko noiz aginduko zai; eta, ordua iritxi zanean, esan ziguten udaltxeko balkoitik kantatu bear genduela; altabozak jarriak zeuzkatela.

Alaxe, gora igo ta ekin genion bertsoan. Plazan jendetza aundia ta inork ezer entzun ezin, altabozak gaizki zeudelako. Guk ere itzik garbitzen ez, eta alegin danak alperrik.

Baiña tonbola plazan an ari zan ume koskorren txanponak biltzen berebiziko musika otsarekin, eta agintarietako norbaitek esan omen zion tonbolako nagusiari ea bertsolariak kantatzeko altabozak emango zituen mesedez orduerdi baterako.

Baietz; pozik gaiñera. Baiña urrutira luzatzeko kablerik etzeukala ta an bertatik kantatu bearko genduela.

Alaxe, udaletxetik jetxi, tonbolaren barrura sartu ta jardun giñan bertotan muñeko tartean, loritoak kaiolan bezela. Umore ona gendukanez, jendea kontentu gelditu zala zirudien guk egindako lanez.

Ori eguerdiko kontua zan. Arratsaldean berriro gauza bera, ta bazkalondoan ere ez giñan ixilik egonak.

Garai artan altabozak kanpotik eramaten zituztela uste det, alkilerrean erriz erri zebiltzanak. Nekatuak eta katarratutako tresnak, esku askotan ibiliak geiegitan, ongi egoteko.

Tonbolakoak etzeukaten iñungo trabarik eta aitzakirik. Aiek abotsa garbi bezin indartsu ematen zuten, entzule jendeak nai zuen bezelaxe.

Guk geronek ere gustora kantari jarduteko egokiera aparta izan genduen egun zoriontsu artan, batere uste gabe. Goizetik nolabait antzean asi bagiñan ere, gero gauzak bideratu zitzaizkigun, eta kontentu.

Baiña erri ta baillara prankotan gertatu ziran alamo-
duzko kasoak urte aietan. Bertsoak zintetan grabatzen zituzten askok, gero bakoitzak gogoia zeukan garaian etxean entzuteko asmoz. Baiña gaizki edo erdi ipurdi geientsuenetan beintzat. Plaza librean altabozak ongi nekez jartzen dira, ta frontoietan okerrago.

Angula

ANGULA gai arturik osatu nai nuke asi dedan ataltxo au. Itxasoak ematen duen arrairik fiñenetako bat izango dalakoan nago angula, leku gutxitan arrapatzen dana eta alde askotan ezagutzen duten janari ospetsua.

Bere garaian gustagarria aparta. Argatik du ixtimazio neurri gabekoa oteletan, ostatueta eta bestelako familirik geientsuenetan ere bai noski.

Zenbat jango ote luke jendeak, merkeago ta ugarixego salgai jarriko balitz, negu partean bakarrik edo udazkenetik asi ta udaberrira bitartean ikusten degun jenero zoragarri ortatik? Auskalo!

Baiña oraingoz beintzat prezioz oso goitik dabil gure moduko pobrearentzat. Noizean bein probatzeko aiña izan ezker, kontentu, Orion bertako angula freskoak jaten ditugun bakoitzean.

Iñoiz erregalatu oi dizkigu arrapatzen ibiltzen dan lagunen batek, eta ixtimatzen dizkiogu benetan. Ori ez daukat nik ukatzerik iñolaz ere. Oraindik badaude borondate oneko pertsonak, gu bizi geran erri ontan, esker beroak merezi dituztenak, diodan gai ortan batez ere.

1995-ko azaroan asiko ziran angulak arrapatzen, urteero bezela; eta 1996-an, San Jose inguruan, bukaera eman. Martxoan alegia.

Illargi berriari begira egoten dirala entzun izan da arrantzale zaarrengandik. Ori omen du garairik onena, itxasotik erriora sartzeko, angulak. Beraz, egun jakin samarrak eta mugatuak ditu orrek ere, itxurak diranez.

Neronek sekulan ez det angularik arrapatu. Beste norbaitek erregalatu ezker, gustora jan bai sarritan. Ori ezin nezake ukatu, egi osoa izanik.

Emen Orion baziran leen izugarrizko apizio sutsua zutenak, eta gogor salatuaren bidez neguan angula dexente arrapatzen zekiten arrantzaleak. Baiña nola? Batelak artu ta, arraunean egiñez, erriogan punta batetik bestera ibiliz, galanki kostata.

Ortik aparte, berriz, eskuzko baiak erabiltzen zituzten, sare estuzko zorro batzuk agai luzeari erantsita. Gaur, ordea, ongi prestaturik daudela badakigu ortarako ere, Motorrezko ontziekin dabilta, sare aundiak arrastaka edo zabalean botata.

Zer adierazten digu orrek? Errio dena berealaxe pasako dutela, erdi para bezela baztarrak ederki miatuaz; eta, angularik baldin badago, an sartu bearko duela sarearen barrura.

Nai ta nai ezko tranpan erortzea da ori, nere ustez. Baiña gizonaren burua beti zerbait pentsatzen ari denez, ortik datozkigu aurrerapen berezi guztiak.

Dana dala, angula guriena eta jateko gustorik onenekoa, azarotik ilbeltzerako tarte ortan izaten da adibidez. Otsailletik aurrera argaldu, meetu alegia, egiten dala arrai klase ori esan oi dute bere berri dakitenak; eta belarriak azitzen omen zaizkio, bein martxoko illera irixten danean. Ordutik asten izan bear du aingira itxura artzen.

Baiña aurtengo neguan uste aiñako angula aukerarik ikusi ote zuen iñork? Ni ezezkoan nago, seguru ez dakidan arren. Arrapatu zuten batzuk baliatuko ziran dotore antzean, alamoduzko prezioan saltzeko suertea izanik. Kiloko amazapi milla pezta ordaintzen ziotela erosleak entzun nuen nik. Ez dira batere txarrak familiarako. Baiña gauean lo eginda ez dago irabazterik diru oiek.

Kirol kontuan

EUSKAL Erriak, txikia dan arren, erakutsi du bere aunditasuna, modu askotara gaiñera, konturazten bagera egindako lanez.

Gizon indartsu ugari ezagutu ditugu emen, beste alde guztietan izango ziran bezelaxe. Nik, neronek ikusitakoen berri eman nezake bakarrik; baiña leengo zaarren azaiñak ere aipatzen dituzte dakizkiten batzuek.

Kirol kontuan ari naiz idazten. Au garbiro utzi nai nuke, jendeak ulertu dezan alegia.

Gure gazte denboran baiño askoz ere obeki prestatzen dira gaur mutillak edozer apustu klasetarako. Plazetako markeri begiratzea aski da, ori jakin al izateko, besterik ezer gabe noski.

Gazte jendea bikaiña dago baztarretan, eta apizioz ongi jantzia. Kiroletarako gogoia bear du leen; eta gero, zenbat saiatu, ainbeste ikasi oi da lan bakoitzean: arri jasotzen, aizkoran, korrika, bizikletan, pelotan, arraunean, fubolean eta abar.

Kirol mota asko dauden ezkerro, zertan dan onena ikusi ta artantxe lagundu bear litzaioke gazteari, goiko puntaraiño iritxi dedin, eta betiko izen on bat bereganatu dezan era berean.

Ori lortu dutenak ugari antzean izan dirala badakigu Euskal Errian bertan, eta emendik kanpora zer esanik ez noski.

Munduko lurralde denetan ez dakit, baiña geientsu-netan indar ikaragarrian dabillen iduripena daukagu kirol pesta. Telebistaren bidez ikusten ditugu gauza pranko aintzat artzea merezi dutenak. Pertsona ez du iritzia bakarrik; bai almen sendoa ere probetxua ateratzen, asmatu ezkerro bere garaian.

Sasoi beatean dagoen mutil batek, gorputza zaintzen izan oi du naiko lan, eta geiegi sarritan. Lagunarteko parranda gozoak utzi ta bakardadeko bizitzari eusten kostako zaio geienbat.

Jai ta aste egin bear bere entrenamentuak, eta jan-edanean ere neurri jakiñetan errenditzea komeni. Ori lotura aunditxo ez ote da batzuentzat? Bai, adibidez. Bestela, ez lirake aspertuta geldituko, erdibideraiño joanda.

Nik erri txiki batean entzundako kasoa daukat gogon, ez oraingozea, auskalo noiz gertatua dan esatera ni Joan au.

Baserrian guraso nekatu samartuak omen zeuden, eta lanez gaiñezka. Seme bat bakarrik laguntzeko; ta ura jokorako zaletasun pixka bat zuena izanik, arrapatu bere antzeko norbaitek lazoan, eta egin dute apustua arri jasotzen jokatzeko igande gauez; baiña biaramonean, astelen arratsaldean, biltzekotan gelditu dira, diruak bota ta kontratuko papera firmatzeko.

Alaxe, mutillak aitari esplikatu dio zer asmo dituen, eta bide batez dirua eskatu.

— Toki onean sartu aiz baserria gora jasotzeko! Nik diru gutxi zeukat. Beingoagatik emango diat; baiña leenengoa dan bezela, azkenekoa izan dedilla.

Au, aitaren erantzun zorrotza. Gogoan zuela, agertu omen zan mutilla bezperan izentatu zuten ostatura, eta an leen diru botatzea, egin papera, ziñatu ta etxera zuzen noski, gauzak benetan artuta.

Urrengo egun berean, arri-jasotzaille sonatu baten-gana joanda, ekin omen zioten prestakuntzari, eta ikaslea ta maixua biak kontentu. Denbora aurrera zijoan neurrian, markak obeagotzen ari omen zan mutilla, ta entrenadoreak esan dio aitari:

— Seme gogorra daukazu, indar askokoa.

— Bai; baiña berak uste aiña bai ote da? —aitak.

Pozez asi, baiña penaz bukatu

GIPUZKOAKO erri txiki batean gertatu zitzaigun kaso zelebrea bururatu zaidan ezkerro, berau paperean idaztea pentsatu det, denbora pasa dezadan bestela baiño errezago.

Izan ere, ainbeste ixtori erabili ditugunez, denak gogoan ezin genezazke eduki, eta nik neronek beintzat asko dauzkat aaztu ta baztarrean utziak edo garrantzi aundirik eman gabekoak.

Bear zan garaian ez bainuen uste sekulan ezer idaztera iritxiko nintzanik. Ara nola diran gauzak. Iñork ez du jakiten azkenerako zertara joko duen.

Dana dala, erri txikietan urtean beingo pestak ixtimatzen zituen jendeak benetan. Sanidadez eta alkartasunez antolatu ta egiten ziralako seguru asko. Baiña ez ote dijoakigu urritzen leengo batasun zoragarri ura? Aspalditxoko urte auetan bakoitza gere aldetik gabiltzala dirudi, banaka antzean, lagunak galdutako itxuran. Lastima! Alkarren konfiantzari bizirik eustea komeni litzraiguke, ba, zer gerta ere.

Atal onen asieran aitatzen dedan erri txiki artako pasadizoa kontatu nai nuke. Goizetik joanak giñan bertotara Azpeitiko Imanol Lazkano ta biok. Soñu jotzen, berriz, Lizartzako Kaxiano Itxua jardun zala badakit, dotore bezin errez; eta jendea dantzatu arazi zuen ederki.

Guk ere bertso saioa egin genduen agindu ziguten garaian, eta bapo. Eguerdiko lanak ortantxe bukatu ziran plazakoak. Ondoren, ostatura sartu ta kontu kontari, mai gaiñetan edaria aukeran zala, aulkietan exerita geundela.

Asi zitzaigun edadez dexente jantzitako aitona bat bertsotan. Baiña ez bere kasa, alamoduzko aingeru batzuek zirikatu zutelako baizik. Nik konturatu nintzan albotik toreatzen nola ari zitzaizkion aitonari, ta ekin zion zeukan onenetik kantatzen zortziko txikian. Beste doiñurik etzuen jakingo agian. Guk ez genion entzun beintzat. Baiña bere artan indartsu gizona, eta bertso saio txiki antzeko bat egin genduen, geiegi arrotu gabe, neurri onean.

Ordurako bazkaltzeko zai zeudela batzuk, eta exeri arazi ginduzten mai aundian jende mordoska. Baiña nik ez neukan mokadurik jateko gogorik, ez nintzan gauza ere; ta oia eskatu nuen. Ura bereala prestatu zidatenez, bi aspirina artu ta buruko miñez zoratu bearrean oean etzan. Orixe egin nuen. Esan nioten aurrez:

— Zuek ongi bazkaldu, eta gero deitu, jeikiko naiz ta.

Alaxe, etzegoen lotan atsedentzeko modurik. Ango bulla guztiak belarrietan sartzen zitzaizkidan. Aitonak zituen erru denak. Zopa jan da segituan asi omen zan bertsotan; eta geroxeago Lazkano, zaarrak pakerik ematen etziolako. Baiña umil antzean edo errespetoz erantzunez; eta aitona orduan da arroago. Aiek ziran oiua! Nik oetik denak entzuten nituenez, aspertu ta jeiki nintzan; eta maia serbitzen zebillen emakumeak galdetu zidan:

— Zer jango zenduke, Lasarte?

— Ezer ez jan. Ekarrri zaidazu kijarakada txiki bat kafe, kopa erdi bat patarrarekin. Kijara kafe katillua da. Ez degu nastu bear izketan.

Alaxe esan nion, ulertu zezan. Berealaxe eraman zidan. Artu nuen zigarroa, sutu ta galdetzen diot:

— Sasoian al zaude, aitona? Biok egingo degu bertsotan.

Pozik asi zan, baiña penaz bukatu, dozen erdi bat kantatu orduko. Zearo mututu zan arratsalde guztiko. Ura bekokia! Iñori etzion itzik esaten.

Ataungo Aiara

ATAUN sarritan aipatzen dedan erria izanik, gaurko ataltxo ontan ere berari buruz idatziko det zer-bait, gure leengo ibillera pobre aiek nolakoak ziran jakin dezaten oraingo gazteak, gutxi gora-beera beintzat.

Badakit sinisten kostako zaiotela batzueri, baiña egindakoak ortxe gelditzen dira bistan eta ezkutuan, bietara noski.

Gu bideetan gaizki ibiltzen giñan, trenik pasatzen etzan erriren batera joan bear genduen bakoitzean batez ere. Beti edo geientsuenetan presaka eta larri antzean, ordulariari sarritan begiratuz, kezka ez betirik.

Itz emandako garairako iritxi naiaren estuasunak izaten ziran aiek. Baiña, ala ta guztiz ere, ez genion iñori denbora galdu arazitzen sekulan. Etzuten gure zai egon bearrik, pestari asiera emateko, edozein erritan ere, nik gogoan dedala beintzat.

Jaialdiak ez baiziran izentatutako ordu berean puntual asten. Beti luzatzen zan uste baiño geiago, eta ori guri ongi etortzen zitzaigun batzuetan, eziñean genbiltzanetan.

Urrengo txandan, berriz, batekoz bestera. Geronek egon bear lana noiz aginduko ziguten ez genekigula, zai. Baiña denbora errez pasatzen genduen, lagunartean kontu kontari, exeri ta lasai, aspertzeko bildurrik gabe. Gaur pozik artu litezke orduko pazientzia eta ilusioa, edozer lanetarako ere.

Bein ere burutik aldegin ez didan gertakizun bat idatzi nai nuke une ontan. Ea norbaitek gustora irakurtzen duen, bere eskuetara irixten zaionean.

Ataungo Aia baillara politean pestak zirala ta deitu ziguten bertsoarako aurrez, ez azkeneko orduan presaka, pare bat illabete leenagotik, bada ez bazan ere.

Nik emen Orion goizeko autobusa artu nuen Donostiraiño, eta an trolebusa Tolosara joateko, bera bainekan egokiena, ta aprobetxatu.

Baiña gero erabili nituen ixtillu latzak. Tolosako estazioan takilla iriki zutenean, billeteak erosi ta trenaren zai jarri giñan jende mordoska. Nik neronek Beasaiñen jetxi bear legez, eta garai onean nenbillen ustez.

Baiña denbora aurrera zijoanez, zer gertatzen ote zan galdezka asi zan jendea; eta alako batean altabozetik deitu zuten trena aberiatu ta geldirik zegoela Urnieta inguruan. Atzerapena dexentea izango zala noski, baiña etorriko zala aren partez tren rapidoa edo azkarra, estazio gutxitan gelditzen zana. Urrutira zijoanak artu zeza keela bera bildurrik gabe.

Ori entzunik, pentsatu nuen: "Beasaiñen edo Zumarragan, bietakoren batean geldituko dek, eta ortxe joango nauk ni ere".

Alaxe, iritxi zitzaigun, ba, tren lujoso ura Tolosara; ta, sartu barrura eta exeri nintzan orduko, an dijoakit intermentorea txartelaren galdezka. Eman nion. Zula-tzerakoan begiratu zion eta esan zidan:

— Tren au Altsasura bitartean ez da geldituko.

— Ez dit batere inportik. Andik Donostira dijoana artu ta itzuliko naiz, eta bide batez paseatu egingo det —erantzun nionean, parrez gozatu arazi nuen gizona.

Zer gertatuko ta Beasaiñen pasa ta aurrera trena. Baiña Zumarragan gelditu, ordea, ta neretzat egoki. Tasisean aitaren batean antxe giñan Ataungo Aian.

Soiñeko jazkerak

GU oso gazteak giñan garaiko kontuak berritu nai nituzke, al dedan neurrian edo dakizkidan modu berean.

Soiñeko jazkeratetik asita nabarmentzen ziran base-rritar gizon-emakumeak eta kaletarrak, erri aundietan bezelatsu txiki antzekoetan ere noski, nola ibiltzeko posturan, ala jokabideetan, izakera desberdiñak baidira baserrian eta kalean.

Nik ez diot bati ezer kenduko besteari emateko. Bakoitzari berea zor zaionez, uraxe aitortu bakarrik. Kale aldean bizi dan jendeak beti izan oi du apaintzeko zaletasuna, eta ez da batere griña edo oitura txarra, ortaz konturatzen bagera.

Baiña eguneroko martxari begiratu bear genioke leen, zer lan klasetan gabiltzan alegia, orrek asko esan nai du ta. Mekaniko, igeltsero, erroero, argin, pintore, minero eta baso-gizon da baserritar asko ez ditugu ikusiko faubriketako opizinetan enpleatzen diranak bezin txukun jantzita. Langintza zikin samarra esku artean derabilkien pertsonak ez dauka garbi ta dotore ibiltzerik iñolako moduz, norberak ala nai izanik ere.

Baiña, ortik aparte, batzuek ilusioz apaintzen dakite, ordea, jendearen aurrera agertzerakoan. Nik ikusten ditut, etxetik kalera dijoazenetan, erropa garbi ederrak soiñean jantzi ta jai egunetan bezela dabilzala illunabarretan, ostatuz ostatu baxo erdiak artzen, gizonezkoak batez ere.

Eta emakumezkoeri buruz zer esan genezake? Dendetan enkarguak egin bear dituzten garaian apaintzen dirala ezin geiago, eta oso jokabide egokia iduritzen zait gaiñera ori. Garbitasunak ez baidu berdiñik.

Leen maonezko galtza urdiñak, alkandora edo atorra —bi eratarra esanik—, txalekoa, brusa, galtzerdi artillezkoak, abarka gomazkoak ez baziran, ganadu larruzko arin eta dotoreak eskuz egiñak, eta aiek bearrezko zituzten lokarri luzeak ere bai, etxean moldatzen zekiten, baserritarrak bezela, mendian zebiltzan artzaiak ere.

Ez da derrigorrezko gauza erropa lujosoz jaztea langille jendearentzat. Soñean deramazkienak garbiak izanik, berdin luzitu lezake, noranai joan da edozeiñen aurrean, nere ustez, gizon tajuzkoak, eta emakumezkoak ere bai noski.

Emen pobrea ezin liteke ibili aberatsaren maillan, egun bakoitzean prenda berriak estreñatuz. Ori tontoenak ere jakingo duelakoan nago.

Beingo batez entzun nuen arrazoa gogoratzen zait sarritan. Ez dakit zein erritan gertatua dan. Baiña mutil batek Ameriketari urte batzuk pasa ta diru mordoska ekarri bear izan zuen.

Diodan erri ortan bai omen zan bertsolari aldrebese bat, bertso guztiak atzekoz aurrera kantatzen zituena adibidez; eta igande goizez sartu da ostatura meza entzun ondoren, beti bezela, ta an topo egin dute amerikanoak eta biak, batere uste gabe.

Alaxe, leendik ezagunak ziranez, alkarri esku eman da bertsoa kantatu dio bertsolari baldatxak. Traje ederra eta gabardina omen zeuzkan soñean amerikanoak. Baiña leen gabardinari lebita deitzen zitzaion nunbait, eta bertsoa nola asi zuen ez nuen ikasi; azkeneko bi puntuak bakarrik, eta onela esaten dio amerikanoari:

Dotore agertu aiz
lebita jantzita,
Ameriketari dirua
ala Jaungoikua!

Gogorkeri nabarmen itxusiak

L 996-KO maiatzaren gogorkeri nabarmen itxusiak zerbait idaztera beartu naute, ez arrazoirik batere gabe noski.

Aspaldiko esaera da maiatzean erdi parteko egunak otzak iltzen pasa bear dirala; eta beste gaiñontzekoak, berriz, beroak erretzen. Beraz, gure aurreko zaarrak ere probatu zituztela dirudi diodan ill onen bi zati desberdiñak.

Nik neronek ezagutu ditut San Ixidro inguruan bero galantak. Arto, babarrun aziak erein nai soroan eta lurra prestatu eziñez; uztarriko ganaduak mingaiñak aotik kanpora atera ta itotzeko zorian. Uraxe ere ez da martxa ederra lanerako. Penagarria benetan.

Baiña urte garaiari arretaz begiratzen badiogu, legez kontrakoa ez degu billatuko maiatzeko berotasuna. Eguzkiaren eragiñez lurrak sutan bezela jartzen baidira. Udaberri zoriontsu baten itxuran ikusten da kanpoa, lorez, frutaz eta etorkizunez jantzi ta apaindua.

Azken aldiko urte auetan, ordea, aldakuntza izugarriak nabaitu dizkiogu eguraldiari. Ez dakit zergatik, baiña atzeraka goazela derizkiot gai ortan. Bestela, ni deskuidaturik biziko naiz zearo.

Goizetan ematen dizkiguten albisteak entzuten ditut egunero irrati bidez, eta nere gustokoak oso gutxitan. Ipar aizea ez bada, norte aldekoa, bietakoren bat beti emen dabil egoak zabaldu ta bueltaka, putre zaarrak bezela baztarrak endredatzen. Ez degu giro epel goxo oietakorik ikusten maiatzean, ain garai ego-kia izanik.

Jende edadetuak, batez ere, neguko erroparik ezin lezake nolana kendu. Bestela, igarriko dio zer dan ona edo txarra.

Egoaizea ezkutuan dago aspalditxoan, noizean bein bizi dan itxura erakusten duen arren. Pakezale biurtu dala esan genezake, edo lanerako gogoaren falta, nik ez dakit zer gertatzen zaion. Baiña ura soiñua jo ta dantzatan asten danean, iparra ta nortea bildurtzen dira. Indar ikaragarria erabiltzen duenez, bere menpean arzen daki gaiñontzekoak.

Aurtengo au, orain artekoa beintzat, zelebren samarra dijoakigu. Mendi erreketan urik ez dago. Joan zan apirillean, igande batez, Naparroako Goizuetan pasa giñan, eta andik Ernanira bitarteko erreka agortu samartua zegoen. Ni arritu arazi ninduen ango ur mixeriak. Kotxean gentozenak alkarri esan genion:

— Au dek martxa, gauden garairako!

Emen, beeko erriberetan ez da ainbesteraiñoko legorterik sentitzen, batzuek diotenez. Terreno ordeketan, euri gutxi eginda ere, dena bertan gelditzen nunit, eta lurrak errez txupatu. Baiña mendi ta basoetan naiko komeriak bai ote diran errezelotan nago.

Maiatzaren 23-garren egunean, onela zion gure adiskide batek:

— Noiznai euria ari dik, eta leengo ilbeltza ezkeroztik kanporik ez dik bear bezela busti. Au dek marka!

Diodan gizon onek baratzen lan asko egiten duenez, jakingo duela uste det zer tankeratan dauden lurrak.

Udaberri aberatsa izateko seiñale txarra, oraingoz beintzat. Dana dala, soroetako patatak ikusten ditugu itxura ederrekoak, zerbait bear dan kasoan, eta ez da batere janari eskasa. Patata modu askotara jartzen duten alimentu klase gozoa bezin zoragarria da.

Urkiolako San Antonio

L 996-GARREN urteko ekainaren 13-an, San Antonio egunez, Bizkaiko Urkiolan billera aundi bat izan zan, nik jakin nuenez; eta ez nintzan batere arritu.

Bizkaian bertakoz aparte ere, emen Gipuzkoatik jendeak joera izugarria duela badakigu garbiro Urkiolara joateko. Naparroatik ez dakit seguru esateko; baiña agian bakarren batzuei gustatuko zaiotela derizkiot Urkiola bisitatzea.

San Antonio egunez zoragarri utsa baida an ikusten dan batasunaren almena.

Leen, gure gazte denboran, tasistak iztimazio izugarria izan oi zuten diodan egun ortan. Aurrez abixoak arturik edukitzen zituztela badakit ongi aski.

Or Aia aldeko jendearen ilusiorik aundienetako bat orixe zala uste det: Urkiolara joan, autoan sartuta dotore; San Antoniori benetako sinismena erakutsi; beraien otoitzezko eskaerak eta eskeintza umillak egin, bertan belaunikaturik; ondoren bazkari ederra ere bai; ta gaue-rako etxera, udaberrian txoriak bezin kontentu, bertso zaarrak kantatuz bidean, aurpegiak eta belarri ertzak gorri asko zituztelarik.

Ara aiatarren jokabidea zertsu zan adierazi, guk eza-gutu genduena; eta inguru auetan beste erritar geientsuenak ere alamoduzkoa erabiliko zuten noski.

San Antonio egunez, Donostitik Durangora jendea eramateko tren espezialak izan oi ziran, oso ugari gaiñe-ra. Baiña, ala ta guztiz ere, gutxiegi adibidez edo bazuen iritziz.

Ortik pentsatu genezake zertaraiñoko arreta zeukaten askok San Antonio bixitatzeko. Fedetsua, itz gutxitan esateko.

Urkiola, egun pasa egin nai duenarentzat, leku politetan dago. Eguraldi ona egokitu ezker, an ez da zer ikusirik faltako. Soñuz eta panderoz aukera paregabea billatuko du dantzarako zaletasuna daukan gaztediak. Eta, ortik aparte, berriz, janariz bezela edariz osatu leike bertan, bearra izanik.

Baiña leen askok zuten oitura, etxean prestatu ta amaiketakoa eta bazkaria eramanda, an kanpo librean zugaitzen azpiko itzal gozoan jan da edanez lasai egoteko, aize sanoa artuz, dotore asko.

Ori trenez joaten zan jendeak egingo zuen. Tasisa eskuetan zeukatenak billatuko zituzten jatetxe onak, Durango aldera jetxita. Nik ala uste det beintzat, oker ez banago.

Dana dala, 1996-ko urtean ere eguraldiaren aitzakirik etzan izango Urkiola inguruan. Oso giro ederrez jantzia, eguzkitan geiegi bezela berotzen zuela esan zidan neri andik bueltan etorri zan oriotar batek.

Egun berean, illunabarrean, jendetza ikaragarria bildu omen zan, iñun kabitu eziñik noski, denak alkarri bultzaka. Nik neronek telebistak eman zuen zati labur antzeko bat ikusi nuen, eta ala iduritu zitzaidan.

Azoka ta peria ere izango ziran seguru asko. Gana-duz, jatekoz eta abarrez orniturik zegoela zirudien plazak. Denetatik aukera. Orixe baiño gauza aldrebesagoak badira.

Aiton estropadazalea

1 996-GARREN urteko San Pedro pesta sonatuei buruz zerbait idaztea atsegin litzakenez, artaraxe nijoa bein da berriro, irakurle. Zuretzat kalterik ez bada, neri ongi datorkit gai au. Denbora pasatzeko erreztasuna ematen baidu, eta lana gaiñera bide batez.

Nik uste izaten nuen leen paperean idazteak ez ote zuen neke aundirik. Baiña oker nengoen. Onek ere baditu bere buruausteak, beste gaiñontzeko langintza guztiak bezelaxe. Neroni asi nintzan ezkeroztik ikusi det ori garbiro: emen kostea gabe ez dagoela ezer egiterik.

Dana dala, San Pedro izen aundiko santua genduen leen, Euskal Errian batez ere; eta oraindik ala izaten jarraitzen du, guretzat beintzat.

Badira urte batzuk San Pedro eguna jaia izatetik kendu ta asteko edozein bezela jarri zutela entzun nuela nik; eta kalendarioan alaxe dago: beltzean.

Aurten larunbatez egokitu zitzaigun gaiñera. Baiña larunbatetan faubriketan ez da lanik egiten aspalditxotan alde auetan, jeneralean beintzat; eta San Pedro pestari buruz, berriz, auxe esango nuke: leengo oitura berean ospatzen dituela jendeak gaur ere erri askotan, ezer aldatu gabe.

Guretzat berdin da. Onez aurrera ez degu pesta bearririk, eta or konpon dabiltzala gazte ta sasoiko daudenak. Etorriko zaiote uzteko garaia oieri ere. Emen denok epe jakin samarrak dauzkagula badakigu gauza guztietarako, ta kito.

Orion noiznai antolatzen dituzte pesta itxurako jaialdi politikak, udara partean batez ere, estropadakin eta abar. Ortarako apizio beroa baidu erri ontan jaio ta bizi dan bakoitzak.

Aitona bat ezagutzen det, Orion estropadarik ez bada, zorionik ez duena. Igaz, 1995-ean, txoria gari tartean baiño kontentuago ibili zan, txapel oria jantzi ta burutik kendu gabe esate baterako, udara geientsuan irrintzi galantak egiñez ostatuz ostatu.

Larogei ta amar urte beteta dauzka diodan aitona onek. Nik beti griña berean ikusi det, beingoz ezagutu nuen ezkeroztik.

Orion estropadazale asko dira noski; baiña aitona orren antzekorik bai ote da beste iñor? Ez dakit, ziur esan al izateko; baiña zailla iduritzen zait.

Bere izen-abizenak emango dizkizut, irakurle, nor dan jakin nai bazendu: Erramon Jenoba.

Emen geientsuenak *Mozo* deitzen diogu. Ez dakit nundik eta nola datorkion izengoiti ori. Baiña erri ontan errezena *Mozo* esanda ulertzen du jendeak, naiz eta jatorrizko izen-apellidoak, esan bezela, Erramon Jenoba dituen arren.

Adiñez aurrera joana dago. Larogei ta amar urte oso gutxik arrapatzen dituzte. Baiña ez du ematen orrenbeste dauzkanik, aurpegira begira jarrita. Leen kolore onak zituen, eta gaur ere bai. Etzaizkio batere aldatzen. Osasunez ongi dabillen seiñale garbia da ori. Gizonarentzat laguntzarik bearrezkoena, dudarik gabe.

Orion pertsona zaarrak ugari antzean dauzkagu.

Orioko albisteak

ORIOKO albisteak osotasunez ematen nere moduko ezjakin batentzat zailla dan arren, aleginduko naiz dakizkidan neurrian agertzen.

Itxasoko barra gai arturik besterik ezer gabe ere, balegoke zer idatzia. Baiña puntu geiago ukitu nezazke, aukera dagoenez.

Berrogei ta bi urte baditut Orion bizi naizela. Baiña bolara ontan bezelako mugimenturik sekulan ez det ikusi obra kontuan alegia.

Guk emen entzuten ditugun berrikuntza denak aurrera atera bear badira, sortuko dala derizkiot urte batzuetarako lana, eta dotoretu ederra artuko du erri onek.

Leen, zubi muturretik Agiñaga aldera begira jarrita, otela zan kamio ertzean, *Toki-alai* deitzen geniona. Alde-menean bertan beste ostatu bat zuan gaiñera. Iru taillar ere baziran, bi mekanikoak eta bat ebanisteria. Oietaz aparte, berriz, etxe mordoska.

Baiña, geientsuenak nolabaitekoak zeudenez, denak batera bota ta kendu egin zituen kontratista batek, eta berriak eraiki leengo zaarren orde. Ortxe daude orain, etxe-bizitza eder askoak, denda, arategi, ostatu eta bearezko diran gauza guztiak bertan dituztela, erosotasunez orniturik.

Kostako ziran galanki, baiña gizona traje eder batek bezela jantzi du Orioko erriaren sarrera diogun etxe berri sail orrek. Dotoretu aldi ikaragarria artu du erri aldeak.

Gaur, diruz osatu ezkeru, bada lanerako erreztasuna. Ori ezin genezake ukatu iñolako moduz.

Atal onen asieran aipatzen dedan itxasoko barrarekin gauza berbera gertatu da, guk ikusi degunez.

Erri ontako jendearen amarretik zortzik etzuen uste-ko barra famatu ori iñoiz konponduko zanik. Nik neronek ez nuen pentsatzen, egia aitortzekotan.

Baiña oker geunden. Oraingo ontan ateak itxi dizkiotela dirudi itxasoari. Onez aurrera, ez du leen bezelako askatasunik eta zalapartarik erabiliko. Barra inguru ortan jarri diote tope latza, obra bildurgarrizkoak egiñik.

Zenbat arri ta porlan masa sartu ote dute ainbeste luze ta zabaleko itxitura antolatzeke? Sekulako kamion saillak ibiliak dira material karretoan, utsunerik gabe, goizetik gauera bitartean. Egunero ez dakit, baiña sarritan nabaitzen genituen nola zebiltzan.

Irurogei tonelada pixatzen zuten arri mardulak ekartzen omen zituzten adibidez. Eta gero guarekin artu ta bakoitzari zegokion tokian tolesturan jarri. Grua aundi eta kelmentsu ikaragarria bearke zuela ez dago dudarik. Bestela, ezin litezke tankera artako paketeak aidean zintzilik erabili. Baiña gaur badaude arritzeko moduko aurrerapenak lanerako, ta kito.

Orretxekin bukatzen dala derizkiot Orioko barra. Ain epe laburrean itxi duen kontratista, ez det uste gaizki prestatua egongo danik edozer lanetarako ere. Ormigoiz eta arriz obrak egin al izateko alegia esan nai nuke.

Dana dala, leentxeago moldatu baldin balitz, obe Orioko arrantzaleentzat. Baiña ezin.

Pestarik pesta

ERRIZ erri eta pestarik pesta ibili oi da jendea, udara partean batez ere, emen gu bizi geran lurralde ontan. Gaztetasunak zer eskatu lezake gauza politagorik, orixe baiño?

Leen urrutiko jaialdietara iñor gutxi joan oi zan, trenez edo autobusez baliatzeko modurik ez bazegoen beintzat.

Baiña gaur autoak eskuetan dauzkate mutil gazte askok, eta neskatxak ere bai. Ori orrela izanik, errez aldatzen dirala badakigu erri batetik bestera edozein garaitan, edo lanaren loturarik ez dutenetan batez ere.

Guk bertsolaritzari esker ezagutu genituen Euskal Errian ainbat zoko eder, sekulan aaztutzen etzaizkigunak.

Etzetik irten egin bear da, kanpoko berri jakin al izateko. Bestela, lozorroan bezelatsu bizitzen da pertsona, nundik nora pausoak eman ez dakiela. Ta ez da batere gustagarria egoera bakartia, nere ustez.

Gure garaiko jendeak probatu zuen ori.

Urte pobre aietan nor bere erritik beste norabait joatea oso zailla zanez, gazte guztiak, edo geientsuenak beintzat, bertan gelditzen ziran. Ostatu zuloetan sartu ta karta jokoan pasatzen zuten igande arratsaldea eta gauaren pusketa aundi samar bat, zurrutean sendo egiñez.

Erri txiki antzekoetan txistulariak jarduten ziran jo ta jo jendearen alaigarri, ta zaletasuna zeukaten batzuek dantzan egin zezaten denbora pasa. Baiña ordu jakin samarretan: arratsaldean garaiz asi ta illunarekin batera utzi edo ixildu, ta kito.

Plaza iñor gabe laixter gelditu oi zan, erabat usturik. Neskatxak ostatuetan etziran sartzen, deskuidatuta ere, urte aietan. Pekatu ote zan pentsatuko zuten agian. Ori baliteke; edo, bestela, gurasoen baimenik ez. Nik neronek ez dakit seguru esateko; baiña gauzak badu orrelako zerbaiten itxura, ongi begiratzen badiogu.

Eta denetan gaitzik txarrena, berriz, diruaren eskasia, pobreak beti izan deguna oraindaiñoan. Zurrutean pixka bat gastatzen zuen mutil jendeak. Jaten oso gutxi. Orretzek adierazten digu garbiro orduko bizi postura nolakoa zan.

Nor ote litzake gai galga edo neurri artan irauteko? Erantzunik gabeko galdera bezela billatzen det au, eta askorentzat alperrikakoa.

Aspaldiko urteetan aldakuntza ikaragarriak ikusten ari gera, bizitzari dagokionez, modu askotara gainera, nola eguneroko lan kontuan ala lagun arteko artu-emanetan.

Oraingoz, gizasemeak bezelaxe dabilta emakumezkoak ere, ostatuz ostatu, baxo erdiak edaten eta bazkari edo afariak jatetxeetan egiten, al dan guztian. Zergatik ez? Batek aiña eskubide izango du besteak ere gai ortan, nere ustez.

Andre-gizonak eta seme-alabak alkarrekin ikustea gauza ederra dala ez daukagu ukatzerik iñolako moduz. Batasunak sortzen baidigu familian bearrezko degun pake gozoa. Mundu ontako ondasunik aundiena orixe degu, sarritan konturatzen ez bagera ere.

Urterik onenak

PERTSONA bakoitzaren bizitzak jaiotzen danetik asi ta leen amar urte dituela onenak iduritzen zait neri. Iturriko ura bezin garbi ta sano egoten baidira aingeruak adin modu ortan.

Noizean bein umekeriak egitea ez litzaioke gaizki artu bear ume bati, berari dagokion terrenoan ibiltzen da ta. Gezur txikiren bat esaten asten danean, berealaxe antzematen zaio. Ez baidu sekulan ongi bukatzen.

Jostaillu politik iñun ikusten badu, berriz, laixter pasako dio abixoa amari edo aitari. Erosi bear duela uraxe alegia, ta bere menpean sosik eduki ez. Baiña seguru bezela kontatzen du, ordea, bere gurasoen laguntza. Orixe juzkatzen det nik gauzarik aundienetako bat: maitasunezko konfiantza.

Gure alabak seme bakarra du. Mutil galanta azi zaio. Umil aparta gaiñera, oraingoz beintzat. Ez daukate alkar saltzeko. Amaren baimenik gabe ez da etxetik iñora joaten sekulan. Naiago nuke bien arteko ongina orrek luzaroan iraungo balu. Emen onetik datorkigu zerbait; ez txarretik.

Nik leen, txikia edo umea zan bitartean, neronek zaintzen nuen, lanerako gauza ez nintzalako. Ori entretenigarri polita bezin maitagarria egokitu zitzaidan ala bearrez, eta biok kontentu. Ainbat une gozo pasa genituen.

Egun batez gogoratzen naiz. Eskolako kurtsoa bukatu ta oporretan zegoen gure mutil txikia. Zortzi urte zeuzkan garaiko kontua da esatera nijoan au. Nik Donostira joan bearra neukanez, galdetu nion:

— Nai al dezu autobusean ibili nerekin batera, Manueltxo?

— Nora joan bear degu, ba, aitona?

— Donostira.

Ori entzun zuenean, saltoka asi zan pozaren pozez, eta onela zion:

— Ama eramango al degu, aitona?

— Ez. Nik nere lanak dauzkat, Manueltxo. Zuek biok joan zaitetze.

Auxe izan zan amaren erantzuna. Ta bazkalondoan leenengo autobusean sartu ta bagoaz Donostira. Gusto-ra sentitzen nuen gure mutil txikia, jarlekuan exeri ta egon eziñik. Ipurdiko azkurea zeukala zirudien.

Gero, enkargu txamarrak egin ondoren, denbora pasa an genbiltzan kale batetik bestera, autobuseko ordua iritxi bitartean; eta inguratu giñan San Martingo berdura plaza aldera. Denda baten parean pasatzerakotan, ikusi ditu eskaparatean ume-jostailuak; eta, aieta-ko bat izugarri gustatu zitzaionez, uraxe nai derrigor gure mutil txikiak.

— Goazen barrura, aitona! —esaten zidan.

Eskutik eldu ta tiraka asi zitzaidan, eta sartu arazi ninduen dendara azkenerako. Erosi nion berak begiz jota zeukan jostailu polita. Etzan asarre orduantxe. Aiek muxu maitasuntsuak ematen zizkidan! Ura poza umearena! Sinisterik etzegoen modukoa, nere ustez beintzat. Esku utsik Donostira joan da ezer gutxirekin aberastu. Orixe gertatu zitzaiola pentsatzen det nere billoba gazteari.

Ni umezale purrukatua beti izan naizela esateko ez daukat lotsatu bearrik, batekoz bestera baizik. Nere bizitzan unerik gozoenak ume tartean igaro baiditut, egia dan bezela aitortzekotan. Aur txikiak ez dute iñori kalte egingo dion tranparik asmatzen iñolako moduz. Garbi utsak baidira animaz eta gorputzez.

Oraindik gauza asko dauzkat beroiei buruz esateko, urrengo atalean.

Bertsolaritza pobrea

BERTSOLARITZARI buruz ainbat albiste eman ditudan arren, oraindik asko dauzkat gordean, bistara agertzea merezi lutekeenak; eta ortantxe aleginduko naiz tarteka, irakurleak aspertzen ez bazaizkit geiegikeriarekin.

Gaur erriz erri kantari dabiltzan bertsolariak diru sorta polita irabaziko dute noski, urtearen aurrenetik azkenera bitartean, nik entzuten ditudan kontuak egizkoak baldin badira beintzat; eta den-dena opa diotet. Alperrik lanean jardunda ez baidago ezer etxean.

Etxean seme-alabak dauzkan bertsolari batek, andrea ere antxe edukiko du zai; ta gizonak eramaten dizkion txanpon aleak laixter enpleatuko ditu familian.

Jateko ez-ezik, jazteko ere diru asko bear izaten dala badakigu probatu degunak; eta bestelako gastuak aparte.

Soltero edo libre dauden gazteak ez daukate orrelako kezka astunik, eta dodore moldatu litezke, bazkari ederrak egiñez lagunarteko gozotasunean, iñorako presarik gabe, lasaitasun osoan alegia.

Ori bizi postura polita da urte batzuetarako: astez lan pixka bat egin, soldata seguratu; larunbatez eta igandez an edo emen bertsoak kantatu eta esku arterako sosak bildu.

Zer izan liteke gauza obeagorik mutil gazte batentzat, kontentu ibiltzeko? Ez det uste aukera txarra danik, eta kejatzeko iñungo motiborik duenik, etorkizun oiek bere baitan dauzkanak.

Gutxiagorekin pasa bearko dutela esan genezake famili prankotan, serio antzean eta berriketa denak bazterrera utzirik.

Derrigorrezko zintzotasuna ez da batere gusgagarria izaten. Baiña beste jokabiderik ez dagoenean, berari eldu ta segi aurrera, etsipenik artu gabe ta pizkor bezin trebe.

Gure garaiko bertsolaritza oso pobrea zan gaurkoa-rekin konparatu ezkeru. Ez jendeari borondate txarra ikusten zitzaiolako.

Geronek genituen errurik aundienak, bizimoduari zegokion gisara kobratzen ez baigenduen ikasi sekulan ere.

Ortik aparte, berriz, ikastolak antolatzeke diru premi izugarriak ziran erri guztietan, eta bertsolarien jaialdiak jartzen zituzten txanponak bildu al izateko.

Zenbat tokitan jardunak geran debalde kantari sinisten ez da erreza. Pozik, gaiñera, euskerari laguntzen geniola jakiñik. Egindakoak ortxe daude, eta ez dauka-gu damurik, zorionez.

Egun batez, gogoratzen naiz, geroztik urte mordoska pasa diran arren, baillara batetik deitu ziguten Lazkao-Txiki zanari ta biori.

Bertako pestak ospatzeko bertsolariak nai zituztela, eta ea ara joateko moduan ote geunden jakin nairik.

Nik esan nioten urruti samar zegoela baillara ura, baiña aleginduko nintzala goizean garaiz irixten.

Alaxe, meza nagusia bukatu baiño lentxeago an nengoan. Lazkao-Txiki ere agertu zan, eta:

— Gosaldu al dek? —galdetu nion.

— Bai.

— Ni oraindik baraurik negok, ba, ta goazen ostatura.

Abiatu giñan orduko, gazte bat gure billa, berealaxe bertsotan asi bearra zegoela eta ez gendukala ezertarako astirik esanez.

Elizatik jendea irten zanean. bertso saioa egin genduen. Gero, bazkalondoan, beste bi edo iru; ta azkene-koa plazan.

Alaxe, ura bukatu ondoren, gazte bat inguratu zaigu eta onela dio:

— Zenbat diru bear dezute?

— Badakizu gure prezioa —erantzun genion.


— Ba, nik erdia baiño geiago ez daukat.

Lazkao-Txikik:

— Emaiok ori Lasarteri.

Eta nik esan nion:

— Biok artu dezagun erdia, bestela batere gabe geldituko gaituk.



Ezkerretik: Manuel Lasarte, Lazkao-Txiki eta Basarri, Getarian, San Anton festetan, beraiei egindako omenaldian, 1989-5-17-an.

Jokabide nolabaitekoa

ORAIN dala ogei ta bost urteko pasadizo zelebre bat bururatu zaidan kasoan, bera idatziko det ataltxo au osatzeko, adiskide, zuk irakurri nai badezu denbora pasa.

Beti gai berdiñak ezin genezazke erabili, eta berriak billatzeak ematen dizkigu lan txarrak sarritan. Gaurko bizitzaren gora-beerak nork kontatua aukeran dagoeenez, denok bide batetik joko bagendu, geiegi izango litzake agian; eta nik, orixe pentsatuta, leengo gertaerak idazten ditut al dedan guztian, aintzat artzea merezi dutelakoan, edo asmo orrekin beintzat.

Gutxienez ere, iñori kalterik egin ezean, kontentu. Zer eskatu nezake geiago, pakean bizi al izateko.

Asieran diodan bezela, gertakari baten berri eman nai nuke. Den-dena ez da erreza gauzak sustraitik jakin gabe. Baiña neretzat gogortxo edo aspergarria iduritu zitzaidan esatera noan ixtori au.

Gipuzkoako erri batean, kinto laguneren billera zan, ain zuzen ere. Eguerdiko amabietan meza jarri zuten, egunari zegokion modura. Guk, Joxe Lizaso ta biok, kantatu genituen bina bertso erri oparia eskeintzerakoan.

Eliza jendez leporaiño beterik, arreta aundiz joanda seguru asko meza entzutera, leenengotik ixiltasunez eta errespetoz, elizan komeni oi dan antzera.

Baiña gerora, ordean, bazan ontzat artzeko aiña zala-parta. Denok ez baidegu berdin pentsatzen bizimoduko gora-beeratan, eta orretzek ekartzen dizkigu diferentzi nabarmenak, penagarria baldin bada ere.

Dana dala, neretzat etzan batere gustagarri biurtu egun artan meza denboran elizan ikusi zan jokabide nolabaiteko ura.

Apaizaren sermoia gure ustez arrazoizkotzat juzkatu genduen, beste erririk geientsuenetan ere alamoduzkoak entzuten ziralako. Baiña nik ez dakit, ba, zertan utsegingo zuen, garbiro adierazteko, sermoiak asiera polita izan arren.

An bazegoen traje ederrez dotore jantzitako gizon jakintsu itxurako bat elizan, aurre samarreko jarlekuan exerita, inun kabitu eziñik; eta arek piztu zuen sua.

Leen eztulka asi zan izugarrizko indarrean, apaizari sermoia galerazi naiean, eta gero oiuka, "Naikoa dek ortik!" esanez.

Inguruan edo aldemenean zeukan jendea marmarrean jarri arazi zuen. Apaizari itzegiten etzion uzten bear bezela; eta beste gizon sasoiko serio batek onela esan zion, beragana joanda, apaizari, sermoia bukatu bitartean:

— Ixilik egon zaite mesedez! Edo, bestela, elizatik kanpora aterako zaitut, aidean artuta!

— Ez noski! Ik ez nauk ni kanpora aterako.

— Ixildu arazi zak apaiza. Ori asi dek gaizki itzegiten. Ni ixilik nitxoan.

Erantzun auxe eman ziola badakit gutxi gora-beera, kopeta aldea ederki beztuta gaiñera. Ari sartu zitzaion barrura guk ez genekigun zerbait, dudarik gabe.

Alkarren berri ez dakigula bizi gera, denok ez bada ere, asko beintzat; eta orixe da gauzarik tristeenetako bat, nere ustez.

Zorioneko baserria

ZORIONEKO baserria! Zu izan baizera euskeraren oiñarri eta babeslekurik seguruena, guk ezaguera degun ezkeroztik. Zuk lagundu diozula zutik irauten egunik egun eta urterik urte erri onen izkuntza bitxiari esaten duten gizonak badira. Beraz, ori orrela izanik, eskerrik beroenak merezi zenituzke.

Nik neronek beti izan det euskeraren bearra, bestelakorik ikasi ez nuelako batez ere. Baiña kaletar askok ezagutu ditut euskeraz ederki dakitenak, eta aiekin dotore moldatzen naiz.

Emen, Orion bertan, gaztelera oso gutxi itzegiten zuen jendeak, orain dala berrogei urte. Baserritarrak bezela, arrantzale ta kaletar denak, edo geientsuenak beintzat, euskera erabiltzen zuten barra-barra, nola etxean, ala lantoki bakoitzean.

Baiña azken aldi ontan batekoz bestera nabaitzen ditugu gauzak. Jende elduaren artean ere gaztelera nagusitu dala dirudi. Nik, diodan ori, kalean ikusten det eguneroko bizitzan.

Baserrian ez derizkiot ezer aldatuko zanik. Leengo martxari eutsiko diotelakoan nago, guraso zaarrak bizi diran bitartean gutxienez ere. Geroko gazteak zer pentsamentu artu lezazketen ez dakigu.

Bakoitzak bereari eustea izango du onena seguru asko, badaezbada ere, naiz eta zertaz beartu leiken iñork ez dakien arren. Gaztelera eta euskera, biak dakizkiena ez dago gaizki, noranai joan da jendearekin tratatzeko. Nik bakarra ikasi nuenez, bestearen falta sarritan billatu dedala esateko lotsetan ez naiz egoten bein ere.

Izkuntza bat baiño geiago jakin bear lituzke pertsonak, nun-nai lasai ta kezkarik gabe ibili al izateko min-tzaeraren aldetik alegia.

Orain bi edo iru urte gutxi gora-beera, entzun nuen laixter inglesezt ikasi bearrean aurkituko ote dan emengo jendea ere. Guk, ori gertatu aurretik, lur ontako lanak bukatuko ditugu, ta or konpon!

Gaiak agintzen didan bezela, berriro baserrira itzuli naiko nuke, erri txiki bateko gertakizuna kontatu dezadan. Izlari egoki aparta zan aipatzera ni joan au; gizon argia. Esne bei baten ixtoria entzun nion egun batez berari.

Umatzeko garaia iritxi zitzaionean, asi da etzanda indarka bei gaixoa. Baiña txala barruan oker eduki noski; ta, ezin egiñez gaizki ikusi duenean, joan da esan dio albaiteoari zer tankeratan daukan etxeko beirik onena; eta ea lagunduko dion mesedez, beiari umea kentzen. Ori entzun orduko, artu ditu bearrezko tresnak albaiteoak, eta joan dira biak batera presaka baserrira, ta ukuillura zuzenean; eta albaiteoak onela dio:

— Bei onek umea trabeska dauka, ta zuzen jartzeko toki txarra dago emen. Ankak lotu ta bueltaka erabili bear degu nun edo nun.

Ganbarako solairura eraman dute beia; lau anketan lotu eta azpikoz gain bueltak eman dizkiote; ta gero, besoa barrura sartuta, albaiteoak egin ditu bere lanak. Txala jaio da bizirik, oso ongi gaiñera; ta kontentu denak. Alaxe, ganbaratik ukuillura ganaduen aska aurrera belarra botatzeko zuloa egon an; eta albaiteoak, odolez zikindurik dagoenez, galdetu zion nagusiari:

— Nun garbitu niteke?

— Orain nun garbituko zeran laixter esango dizut; sukaldean. Beera jexteko eskallerak antxe aurrean dauzkazu; ta eskubitara aszentsorea ere bai.

Joan da albaiteoak, ta ikusi du belar zuloa. Aren parre gozoak orduan!

Danen gustoko urterik ez

DANEN gustoko urterik sekulan izan ote da? Ni neroni ezezkoan nago. Ez dakit nundik datorkidan iritzi au; baiña, oso gauza zailla dirudienez, iñork erantzungo ez didan zerbait jakin naiean biziko naiz seguru asko.

Gu ere ari gera urte mordoska pasatzen nola edo ala, ta ezagutu ditugu modu askotakoak: txarrak, erdizkakoak eta onak ere bai tarteka, osasunari dagokion maillan alegia. Orixe baida leenengoa pertsonarentzat, dudarik gabe gaiñera. Baiña giroak ere lagundu bear luke pixka bat geixeago, azkeneko urte auetan baiño.

1996-garrengo oni buruz zer esan genezake? Udaberria nolabaitekoa izan zala badakigu. Etzuen guk espero genduenik eman. Zeru sapaia toldoz estalita bezelatsu egon zan odei illunen bidez. Noiznai euri langarra, ta lurrik busti ezin.

Mendi erreka geientsuenak uraren faltan ikusten genituan. Apirillean Goizuetatik Ernanira pasa giñan egun batez, eta ango erreka erdi agorturik zegoen, penagarri. Amorraiak nun gordetzen ote ziran galdetzen nuen nik.

Alako legortean, basoetan dabiltzan abere ta ardi gaixoak ez daukate zer janik. Aukeran edateko urik ere ez. Ara or naiko lanak errurik gabeko animalientzat. Mixeria gaiñezka eta geroztik berdintsu.

Uztaillean, sei-zortzi egun izan ziran onak. Beste gaiñontzeko guztiak txar apartak. Trumoiaren otsa ugari ta eguraldi goibela pranko, baztarrak aspertu arazitzearren edo ez dakigu zertarako. Beraneante jendea ondartzetan gozamen aundirik gabe ibiliko zala derizkiot.

Eta abuztua ez legoke aipatu bearrik ere noski. Baiña, bakoitzari dagokiona aitortzekotan, auxe esango nuke nik: propina ederrak emanda joan zala. Sekulan eskasagorik ez degu ezagutu, ta aurrerakoan ere kostako zaigulakoan nago, une ontan beintzat.

Beti ipar aize otza erabili du, eta eguraldi naastua. Eten gabeko trumoi otsak entzuten genituen tarteka, eta euria sendo. Errekak leen ustuta bazeuden ere, abuztuko illean beteko zituen goiko puntaraiño adibidez.

Zarautz aldean aberi ikaragarritzakoak izan omen ziran faubrika batzuetan. Animoso lanean asteko mar-txa dotorea billatuko zuen jendeak, oporrak pasa ta gero.

Alperrik dira aurrerapen denak. Urari ezin litzaioke nai dan bezela biderik itxi. Berak artzen ditu neurriak, eta itxiturarik gogorrenak iriki ere bai azkar asko. Edozein zirrikitutatik sartzan da barrura, eta kalte galantak egin gaiñera, ezer ondatzeko moduan baldin badago.

Itxasoaren kasoan berdintsu gertatzen da. Nun-nai ari zaio gizona terrenoak kentzen. Baiña arek badaki bere saillak ezagutzen, eta aietaz jabetzen, kasketak el-tzen dion garaian.

Estropadak esamesa pranko

ESTROPADAK esamesa pranko jartzen digutenak ainbat erritan, kosta aldean batez ere. Leengo garai batetik asko ugarituak dauden arren, oraindik ere ez dirudi geiegi diranik, batzuen iritziz beintzat.

Bildurgarrizko jendetzak bildu arazten dituzte jokatzeko diran bakoitzean estropadak. Nik neronek telebistaren bidez ikusten ditut, pozik gaiñera, ematen dizkigutenean.

Gustatzen zaizkit, baiña ez diotet gertutik jarraitzen zenbaitek bezela. Ez daukat inora joateko gogo berezirik, eta eguneroko martxan ibiltzen naiz ongiena, errian bertan.

1996-an, Iraillaren leen egunean eta zortzigarrenean, Donostiko Kontxan jokatu zituzten estropadak istorira pasatzeko modukoak iduritu zitzaizkigun.

Ura zan amorrua! Arraunerako neurketa estuagoak etziran sarritan jokatuko. Orio, San Pedro eta Tiranen artean zegoen auzirik gogorrena, beste gaiñontzekoeri ezer kendu gabe. Denak egin baizituzten alegin guziak.

Baiña oriotarrak, aurreneko igandean kendutako bentaja aundia zeukatenez, bigarrenean artaz baliaturik, dotore eskuratu zuten Donostiko Kontxako bandera ospetsua.

Nik ez dakit zergatik; baiña Kontxan irabazteari meritu aundia eman izan zaio beti. Beste erri batzuetan ere estropada berdintsuak jokatu arren, ez dute ainbat balore, inguru ontako jendearentzat batez ere.

Orion leen Kontxatik ekarritakoak ogei ta sei banderaz ziran; eta, orain bat geiago, ogei ta zazpi. Ez dago gaizki erri txiki baterako.

Azkeneko ontan, arraunlariak arratsaldeko zazpiretan agertu zitzaizkigun, Lasarteko jatetxeren batean bazkalduta adibidez, ilusioz beterik, lan ikaragarria eginda noski erriaren onerako.

Etxe zuloetan ez det uste inor gelditu zanik kanpora irten gabe, zutik ibiltzeko moduan zegoenik beintzat edo gaixorik egon ezean. Ura zan zoramena!

Merezi zuten bezelakoxe arrera egin zitzaioten arraunlarieri. Udaletxeko balkoira igo ta eskutik eskura aldatuz bandera astintzen asi ziran garai bero artan, aiek oiua eta txalo zaparradak!

Galiziko arraunlari pizkorrak ere oriotarrekin batera ikusi genituen udaletxeko balkoian. Entzun zuten txalo ots ederrik aiek ere. Ori da kiroltasun egiazkoa.

Txiki Larrañaga patroia muñeko bat bezela erabili zuen bi taldeetako arraunlari jendeak, aidean artu ta jan bearrean.

Orrek esan naiko digu Tiran eta Orio alkarrekin ongi konpontzen dirala. Gauza zoragarria benetan. Oso gustora joan omen ziran gallegoak.

Pobrearen kezkak

POBREAREN kezkak bai ote dute neurririk eta muga jakiñik? Nik erabaki al izateko geiegi danez, galdera auxe egingo nioke asko estudiantu ta buruz ongi jantzia dagoen norbaitek erantzun al balezake, pozik gaiñera. Baiña ez diot iñori lazo esturik jarri nai, bada- ez bada ere.

Famili pobrean beti zerbaiten bearra badago. Gauza baten billa dabillega, bestea galduko du sarritan kontu- ratu gabe, eta sekulan ezin osatu. Ori neronek probatu ez banu, ez neukan esateko eskarmenturik.

1996-garrengo udara joan zitzaigun, poz aundirik eman ez bazuen ere, eguraldiaren aldetik alegia. Eskasagorik nik beintzat iñoiz ez det ezagutu. Goibeltasuna. lizunkeria eta umedadea galanki ikusi genituen, eguzkiari bere lana egiten galerazten ziotenak.

Ain juxtu ere, soroetako babarrun itxura ederra zeukaten aiek, zearo erdoiturik utzi zituen gaitzak jota. Ori da penagarria, ainbeste gauza eskuetaraiño ekarri ta azkenean bertan usteldu bearra.

Emen Orioko erriberan gertatu zana esaten ari naiz. Baiña baliteke gaiñontzeko lurretan ere orrelako zerbait- tek akatsak izatea, denak miatzen asi ezkeru.

Aurreko urte batzuetan patata atera ta gero baba- rrun motza ereiten zutenak baziran tarteka, eta ongi arrapatu ere bai lur xamur goxo auetan.

Udazken onaren emaitza aberatsa dala badakigu ori. Guztiz pozgarria eta familirako ongi datorrena denbora berean.

Atal onen asieran aipatzen dedan itzari elduko diot berriro. Denen gustoko urterik leen ere etzan izango seguru asko.

Begiratu, bestela, idaztera nijoan gertakari zelebre ontara. Ez dakit noizko eta nungoa dan; baiña neri pulamentuz kontatu zidan adiskide zaar batek, orain berrogei urte gutxi gora-beera.

Baserrian aztarrika lanean ari zan aitona. Bizi eziñez estu omen zebillen gizarajoa noski, ta zergatik? Eguraldiak laguntzen etziolako. Ez belarrrik ondu eta ez arto, babarrun da bestelakorik ere.

Eurite bildurgarrien bidez kanpoko labore denak edo asko beintzat galdu zitzaizkiola-ta, pentsatu du Jesukristorekin aurrez aurre itzegin bear duela, ain fedetsua izanik.

Alaxe, elizan Jesukristoren irudi aundi bat an egoten omen zan aldarean; baiña une artan pixka bat garbitu ta pintatzeko kendu egin omen zuten, eta egun batzue-tarako irudi txikiagoa jarri.

Baserriko aitona sartu da elizara konfiantza osoan. Begiratzen du aldarera ta konturatu da Jesukristo aundia falta dala ta aren tokian txikia dagoela, eta onela dio aitonak:

— Zu bakarrik al zaude or, mutiko? Nun dezu aita? Nik arekin itzegin nai nuke —esan da martxa aitonak.

Geroko esperantzan iraun

GEROKO esperantzan iraun, auxe izango zan pobrearen jokabidea, orain ez-ezik, leen ere. Guk ala ezagutu degu beintzat, mundua ikusten eta beregan zerbait pentsatzen asi giñan ezkeroztik.

Esaera zabalak asko diranez, itzez itz erabiltzen ditugu sarritan. Ara beroietako bat emen, oso ezaguna: "Suerterik izaten badegu, moldatuko gera noski". Nere lagun batek onela esan zidan aspaldi samar, langintza berrian aстера zijoalako. Eta nik erantzun nion:

— Suerteá beti dago: ona edo txarra. Zuk ere bieta-koren bat izango dezu dudarik gabe.

Gauza denak ongi irten zaizkionik bai ote da norbait mundu ontan? Baliteke agian, baiña nik ez det sinistuko nolanaí, badaezbada ere. Gutxiena espero duan garaian etorriko zaio naigabe penagarria pertsona bakoitzari, alde batetik edo bestetik.

Familiko gora-beeratan sartzen bagera, milla modutako ixtilluak dauzkagula edozeiñek daki.

Seme-alaba gutxi jaiotzen omen zan azken aldiko urte auetan adibidez. Ori orrela izanik, pena ematen du alde batera, geroko etorkizunari begira jarrita. Zaarrak galtzen dijoazen neurri berean, landare berriak komeniko lirake, leengo utsunea edo aiek utzitako tokia bete dezaten. Baiña ume asko azitzen izugarri kostatzen zaiote guraso-eri leen; eta gero, ikasketak egiterakoan, nolako gastuak, erritik kanpora joan bear badute eskolara batez ere?

Nik gu gazteak giñan garaiko kontuak dauzkat gogoa. Famili galantak baziran, bai baserrietan da bai kalean ere. Baiña eskolarik batere ikasi gabekoak baserritar asko. Kaleko jendea zan eskolatua, erreztasun geiago eta arreta aundiagoa izan zituelako ortarako.

Gu zortzi senide bagiñan, baiña iñor ez eskolaz jan-
tzitakorik. Ala ere, ementxe eramán degu bizitza, al dan
moduan.

Etxe bakoitzean erdi tonto bat ona omen da lanera-
ko, ta bi geiegi. Beraz, neurri juxtuan kabitu bear litza-
kela adierazten du arrazoi orrek, konturatzen bagera.

Nik nere semea eta alaba Bergaran erabili nituen
ikasketak egiten, biak batera. Naiz eta kolejio banatan
ziran arren, alkarren urrean beintzat. Illero joaten nin-
tzan ango zorrak ordaintzera, beti presaka, baiña pozez
beterik. Eguerdian ostatu ezagun batean bazkaltzen
genduen irurok. Nere orduko ilusiorik aundiena uraxe
zan: seme-alabak ondoan nituela, beraiekin kontu poli-
tak esanez egotea.

Etzan bazkari galestia izaten ostatu artan, leendik
konfiantza ona bainuen nik bertsoaritzaren bidez artua;
eta kontuz kobratzen zidaten, oso merke alegia. Nere
umeak erregaliak emanda sarritan bialdu zituzten. Ni,
berriz, bakoitza bere tokira eramanda etxera etortzen
nintzan.

Udarako oporretan Orion zeudela, egun batez pen-
tsatu nuen: "Donostira joan bear diat seme-alabekin".
Alaxe, bezperan esan nioten zer asmo neukan, eta bia-
ramonean etxean bazkalduta joan giñan Donostira.

An, autobusetik irten orduko, asi zan bere gustoko
gauzak ikusten eskaparateetan gure alaba; eta, pastele-
rien paretik pasatzerakoan:

— Aita, pastelak jan bear ditugu.

— Oraindik ez; geroxeago —erantzun nion.

Eta onela dio anaiari:

— I, Eusebio: gure aita tontoa dek. Onek ez dik ezer
ikusten.

Baiña naikoa jan zuen azkenean.

Osasuna

OSASUNA, pertsonak bere baitan izan lezakeen gauzarik garrantzitsuena dalakoan egoten naiz ni bizitzarako. Daukan bitartean, ixtimazio aundirik ematen ez badio ere, gaitzak arrapatutako garai estu artan laixter konturatzen da zer galdu duen; ta medikuaren bearra sentitzen du, sendatu edo pixka bat konponduko baldin bada, gaixorik eta miñez aurkitzen dan bakoitzak.

Nik neronek sarritan bisititzen ditut medikuak, ala bearrez; eta ongi dakit supritzea zer dan. Ez naiz bakarra, ordea, orrela nabillena. Ospitalak, klinikak eta medikuen despatxu denak leporaiño jendez beterik egon oi dira, txandaren zai, neri joatea tokatzen zaidanetan beintzat. Orrek erakusten digu garbiro askok daukagula zerbaiten ajea gorputzean.

Sendagaiak ez-ezik, sendagille onak ere badauzkagu gaur, beti izan diran bezelaxe. Baiña gaitza danen aurretik ote dabillen errezelotan nago.

Lurra, itxasoa eta zugaitz klase batzuk ere kontaminaturik daudela entzuten degu iñoiz. Emen, Euskal Errian, estranjeritik etorritako gizon jakintsuak miaketan ibili ziran adibidez.

Nik telebistaz ikusi nituen aien langintzak. Zugaitzari gerrian sartzen zioten tautuluaren antzeko ginbeleta luze bat, eta aren bidez atera kanpora zirbilla edo barrengo muna, gero analizatu al izateko. Eta, ongi ikusi ondoren, erabaki auxe artu omen zuten: gaixotasunak jota zeudela basoetako zugaitzak.

Nik albiste auek orain bi urte edo iru entzun nituen, gutxi gora-beera. Esateko fetxa jakiñik ez baidet gogoan.

Dana dala, pertsonaren antzeko izakera berbera dutela dirudi, animalia ta lurrak mantentzen dituen landareak ere: piztu, bizirik iraun denboraldi batean eta azkenean gaitzak menperatu betiko, ta il da kito. Bertan usteldu gaiñera, iñork jasotzen ez baditu.

Baiña bizitza eramaten alde izugarria dagoela bada-kigu, pertsonetan batez ere, konturatzen bagera. Batzuk ezer gutxirekin konformatzen dira; eta beste askok, berriz, ez dute asmatzen iñolako moduz.

Ortan nik egun bateko pasadizoa daukat gogoan. Bertsotara joana nintzan bazkari edo bankete sonatu batera, eta maian gizon aundi bat nuen aldemenean, apetitu ederrekoa.

Arentzat etzan janari txarrik eta edari minkatsik. Bere parteak sartu zituen egun artan. Nik ere neronen-tzat geiegi nituenak ematen nizkionez, denak ongi etorri zitzazkion. Sabel aldeko otzak kendu zituen garaian, kontentu gure gizon pusketa aundia; ta galdetu nion:

— Tajuz jarri al zera?

— Bai, Lasarte. Betekada galanta artu det nik. Nere bizitzan jan eta edan bildurrik gabe egin izan det. Ain-bat jaki goxo probatua naizenez, mundu oni egun eder asko kendu diot. Sekulan dirurik ez, baiña poltxikoan beti milla pezta sobrea.

— Naiko aberats bazera. Zertarako bear dezu geiago? —esan nion.

1996-ko kostera

URTE garai ontan, zerbait idazterakoan, emen kostea aldean bizi geranak arrantzaleak izan oi ditugu gogoan, sarritan beintzat. Bukatu zuten 1996-garren urteari zegokion kostera, leenengo antxoarena ta azkenik atunetakoa.

Antxoatan poliki edo pasamoduan ibili omen ziran adibidez, den-denak ez noski, baiña geientsuenak, nik ulertu nuenez.

Arrai mota orrek ere etorri ta joan bereala egiten du, itxurak diranez, eta denbora gutxian asko arrapatzea oso zailla dala esan genezake, arrantzaleak ez geranak ere, itxu-itxuan gaiñera.

Naiz eta gaur aurrerapen aundiak dauden arren, ez da leengo konturik. Gauza bakoitzari begiratzen badiogu, ez det uste arraia arrapatzea bakarrik aski danik. Itxasotik portura ekarritako garaian zer preziotan saltzen dan ikusi bear da. Arraia urri antzean izanik, diru geiago irabazi lezateke arrantzale batzuek, suertez galestiago saldu dutelako. Orrelako kasoak gertatzen dira tarteka. Ta antxoa nolakoa dan ere kontuan edukitzeko gauza litzakela badakigu.

Eskabetxerietan erabiltzen duten neurriko antxoak prezio jakin samarra egiten duelakoan nago normalean, edo erosleak artzeko geiegi batera sartzan ez bada beintzat portura. Ortantxe dago arrixku txarra. Batzuetan, asko arrapatzeak merkatu arazi bailezake, ta uste baiño diru gutxiagorekin gelditu arrantzaleak. Ori sarritan entzun izan degu.

Ta atunarekin berdintsu gertatzen omen da. Gutxi danetan, galesti antzean saldu, freskotan jateko ta abar. Baiña baporeak puntaraiño kargatuta datozenetan,

merkeago eman bear, salduko baldin bada. Ara nundik nora sortzen diran galerak, min artzeko modukoak.

1996-garren urtean atunaren emaitza oso polita izan omen zan leenengo bolaratxo batean. Baiña nola etorri ala joan. Uste baiño denbora gutxiagoan iraun zioten nunbait, eta arrantzaleak or utzi zituen naigabez beterik.

Iraillaren erdi inguruan ezkutatu zirala atunak entzun genduen, den-denak ez noski, baiña nordoskarik aundienak beintzat; eta andik aurrerakoan, oso urri ikusten zutenez, asko ezin arrapatu. Beraz, azken motza izan zala esanda asmatuko genduke noski atunetan.

Kanarias edo alde aietara, emengoa ikusi ondorenean, batzuk joan ziran zerbaiten billa; baiña aberasteko arrixkurik gabeko tokira, adibidez.

Ala ta guztiz ere, 1996-ko kostera ez det uste oso txarra edo keitzeko modukoa zanik.

Orio gaitzat arturik

ORIO gaitzat arturik osatu nai nuke gaurko nere ataltxo au, aspaldiko partez.

Erri ontara kanpotar asko etortzen dira, ez dakit maite dutelako edo zer motiborengatik. Baiña jende klase ugariz betetzen zaizkigu emengo kaleak eta ostatu zokoak, bolaratan beintzat, beti ez bada ere.

Paseatzeko leku libreak eta konpromiso gutxikoak dauzka erri onek, kotxea baztarrean utzi ta oiñez ibili nai duenarentzat. Obeagorik ezin billatu leikela esan oi dute batzuek, eta sinisteko aiña arrazoi badala uste det ori.

Baiña guk emen bertan bizi geranak ez diogu aparteko ixtimaziorik ematen, neguan batez ere. Eguraldiak laguntzen ez digulako izan liteke agian. Itxas ixkin aue-tan umedade galantak dabilta, pertsonak gaixotzeko modukoak. Leendik zerbaiten ajea daukana laixter kon-turutzen da ortaz.

Joan zan udazkena, poz aundirik eman ez bazuen ere, gure artean nolanai aaztuko ez dana seguru asko. Txarra ta zital utsa.

Sartu giñan negu beltzean, esaera dan bezela, eta gerora ikusiko degu onek zertara jotzen duen. Baiña itxaropenik ez dezagun galdu, badaezbada ere. Etorriko baidira giro atsegin gozo aietakoak, iñork gutxiena espero degun garaian agian. Beraz ez daukagu zai egon besterik.

Orain gaia aldatu dezadan. Erriko pestari buruz pixka bat idaztea egokia litzakela iduritu zait.

Orion urtean bi txandatan ospatzen ditugu pestak: udaran, San Pedro jaiak, beti sonatuak izan diranak; eta udazkenean San Nikolasak.


Abenduaren 6-garrena da San Nikolas eguna. Baiña 1996-an bezperatik asi ziran jaialdia antolatzen, illaren 5-ean alegia.

Eguraldiak etzuen geiegi lagundu, ta nik neronek ez nuen ezer partikularrik ikusi. Plazaraiño joan gabe pasa baintuen pesta egun denak, urruti ez dagoen arren.

Ostatu zokoan sartu ta bertan gozo, kontu kontari, nere moduko zaar jendearekin. Nola ez? Guk onez aurrera alpertsurik ditugu plazako pestak, umorea ta ilusioa galdurik gaudenez.

Abenduaren 5-ean illunabarrean asi ta 8-an bukatu ziran jaiak, Ama Birjin egunez, 1996-garren urtean.

Oriotarrak estropadetan irabazitako banderak ere bedeinkatu zituzten elizan, meza nagusiko garaian. Nik antxe ikusi nituen, pozik gaiñera. Aldarearen bi aldeetara begiratu ta ura zan edertasuna! Baiña ez kosta gabe-koa. Galanki saiatuta egindako lan aundiaren emaitza zoragarria noski.



Manuel Lasarte eta bere lagun miña zan Martin Berasategi.

Arkibidea

Itzaurrea	7
Berrobi	11
Teodoro Hernandorena	13
Pesta-giroa	15
Gerrak dakarrena	17
Uso egalaria bezela	19
Aulestia	21
Natxitua	23
Oporrak	25
Artzaiak	27
Euskeraren etorkizuna	29
Nork bere gustoa	31
Kilometroak 94	33
Uste gabeko bisita	35
Ateraldi zelebrea	37
Pedro Diez de Ulzurrun	39
Parranderoak	41
Euskera Nafarroan	43
Udara	45
Xegundo Kalonje zana	47
Ezkondu ta biajera	49

Goierriko bi gizon	51
Aspaldiko bizimodua	55
Zelebrekeri utsa dirudiena	57
Martin Berasategi zana	59
Kinto lagunak gogoan	61
Getari	63
Piztiak eta gizona	65
Kale garbitzailleak	67
Itxas aldeko albisteak	69
Peria	71
Mutilzaar lasai askoa	73
Euriaren eske	75
Lanerako erremintak	77
Orioko apainketak	79
Bizkai aldeko albisteak	81
Ilbeltzaren edertasuna	83
Neguaeren albisteak	85
Azpeitin gertatua	87
Baserritarren bizimoduaz zer bait	89
Azkoiti aldeko albisteak	91
Agiñetako San Martiñetan	93
Udazkena	95
Gatzaga	97
Aramaiona	99
Txipiroia eta angula	101
Udaberrian negua eta neguan udaberria	103
Omen-egun gogoangarri bat	105
Pelotariak	107

Leenengo jaunartzeak	109
Ernani eta euskera	111
Errezil	113
Bide berriak	115
Orioko barra	117
Jaiak eta arrantzaleak	119
Aita San Antonio Urkiolakoa	121
Sakabi	123
Aldaketa izugarrizkoa	125
Orion obra ugari	127
Lagunarteko billerak	129
Lagun onak	131
Berezko egokitasuna	133
Udara eta oporrak	135
Estropadak	137
Txomin Usandizaga "Ibiya"	139
Urte gogoangarria	141
Peri egunak eta azokak	143
Nekazarien estualdi garratzak	145
Aitona zaartutako baten ixtoria	147
Zeraindarren bisita	149
Eutsi dezaiotela biziari	151
Aari talkalariak modan	153
Gaitza indarrean	155
Idi probak edo demak	157
Pelota jokoa	159
Errotaria eta arratoiak	161
Amezketak	163

Leaburu	167
Ernani	169
Egaztzi zoragarriak	171
Usurbil	173
Azpeitiko Oranda	175
Sagardotegi maitagarriak	177
San Andres egunez	179
Ongi kostata	181
Udazken zoragarria	183
Getariko txakoliña	185
Lazkao-Txiki zanaren ausardia	187
Jabier Eizagirrerri esker beroa	189
Aurtengo neguaren zitalkeriak	191
Alkartasuna	193
Bi aiton prestu	195
Alpertsurik denak?	197
Orio eta pelota	199
Bi gertakari	201
Sagardoari buruz	203
Mendi-baserri urrutikoak	205
Tonbolatik bertsoa	209
Angula	211
Kirol kontuan	213
Pozez asi, baiña penaz bukatu	215
Ataungo Aiara	217
Soiñeko jazkerak	219
Gogorkeri nabarmen itxusiak	221
Urkiolako San Antonio	223

Aiton estropadazalea	225
Orioko albistekak	227
Pestarik pesta	229
Urterik onenak	231
Bertsolaritza pobrea	233
Jokabide nolabaitekoa	237
Zorioneko baserria	239
Danen gustoko urterik ez	241
Estropadak esamesa pranko	243
Pobrearen kezkek	245
Geroko esperantzan iraun	247
Osasuna	249
1996-ko kostera	251
Orio gaitzat arturik	253



1051087
G-128/104



Manuel Lasarte

Gozoa eta dotorea izan da beti, edozein bertsozalek dakianez. Manuel Lasarteren bertsoa. Era berean, gozoa eta dotorea, irakurleak liburu ontan ikusiko duanez, beraren prosa.

Ez degu arritu bear. Bertsolariak itzaren doaia berekin du. Berezkotasun orrek emaitza ederrik edozein bidetatik eman dezake. Ala, Lasartek, eta bai beste zenbait bertsolarik ere, prosalari bikaiñak ere badirala erakutsi digute azken bolada ontan.

Alderdi ori gure egunotan azaldu dana izanik, agian ez degu merezi duan maillan jarri, orain artean beintzat. Baiña ortik gure erri-literaturari bide berri bat zabaldu zaiola laster oartuko geralakoan gaude. Naikoa, ortarako, Lasarteren liburu berri au irakurtzea.

ISBN 84-89080-56-9



9 788489 080560

G